



r Aliantzak
a Eskubideen
i Alde:
n Berrikuntza
b eta
o Lankidetz
w Etxe
h zein
a Eskoletan
s



EUOPAR BATASUNENKO OINARRIZKO
ESKUBIDEEN ETA HIRITARTASUNAREN
PROGRAMAREN DIRU-LAGUNTZAREKIN

www.rainbowhas.eu

blog.rainbowhas.eu



rainbow_has

ambion



r a i n b o w h a s

kide eta laguntzaileak



Argitaratzailea: Ararteko

Kide eta Laguntzaileak:

PROIEKTU KIDEAK: Ararteko (ES)

PROJECT PARTNERS: Akademia Pedagogiki Specjalnej Marii Grzegorzewskiej (PL), Associació de Famílies Lesbianes i Gais de Catalunya (ES), Comune di Milano (IT), ECIP Foundation (BG), Farapi (ES), Jekino Educatie vzw (BE), Middlesex University Higher Education Corporation (UK), Synergia (IT)

LAGUNTZAILEAK: COC Amsterdam (NL), Gemeente Amsterdam (NL), LSVD (DE), Centro di Iniziativa Gay Onlus (IT), University of East Anglia (UK)

Internet:

www.ararteko.net/rainbowhas-book

www.rainbowhas.eu

Liburuaren diseinu grafiko eta maketazioa: Euskopi

L.G. VI 34-2015

Creative Commons-en Aitortu 3.0 Espainia baimenaz babesturiko lana




<http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/>

Aliantzak Eskubideen Alde: Berrikuntza eta Lankidetzatza Etxe zein Eskoletan

orrialdea

5 **Sarrera**





S a r r e r a

Ohore handia da niretzat eta Ararteko erakundearentzat RAINBOW HAS (Rights through Alliances: Innovating and Networking Both Within Homes and Schools – Aliantzak Eskubideen Alde: Berrikuntza eta Lankidetzeta Etxe zein Eskoletan) Proiektuaren lana biltzen duen argitalpen hau aurkeztea. Proiektuak bi urteko iraupena izan du eta Europar Batasuneko herrialde ezberdinetako bederatzi erakunde bildu ditu. Europako Batzordeko Justizia Zuzendaritza Nagusiak sustatu Oinarrizko Eskubideen eta Hiritartasunaren Programaren baitan, RAINBOW HAS ekimen berritzaile eta beharrezko hau RAINBOW (Rights Against Intolerance: Building an Open-minded World) proiektua osatzera dator. Arartekoak 2011-2012 bitartean gauzaturiko proiektu horretan parte hartu zuen ere.

RAINBOW HASen xedea da adingabe eta nerabeen eskubideen egoera hobetzea, hezkuntza komunitate orokorrean, sexu joera eta genero identitateari dagokienean. Proiektuak hezkuntza erakunde, irakasle eta askotariko guraso talderekin lan egin du aniztasun sexualari irekia egongo den hezkuntza ingurugiro bat bermatzeko, sexu joera eta genero identitateagatiko, hau da, bereizkeria edo jazarpen mota guztiekin -homofobia eta transfobiarekin- bukatuko duen ingurugiroa alegia.

Arartekoak koordinatuta, proiektuan parte hartu duten erakundeak -Arartekoarekin batera- ondorengoak dira: Middlesex University (Erresuma Batua), Akademia Pedagogiki Specjalnej Marii Grzegorzewskiej (Polonia), ikerketa soziologiko eta pedagogikoak egiteko Synergia taldea (Italia), ECIP (Bulgaria) eta Farapi (Euskal Herria, Espainia), Milango Udala (Direzione Centrale Politiche Sociali e Cultura della Salute), adingabeen hezkuntza eta zinema sustatzen dituen Jekino Educatie elkarteak, (Belgika) eta

FLG-Associació de Famílies Lesbianes i Gais de Catalunya (Katalunia, Espainia), sexu bereko gurasoek osatu familiak babesten dituen elkarteak. Nire eskerrik zintzo eta beroena luzatu nahi diet emaitza bikaina ekarri duen lan on bezain itzela egin duten erakunde guzti horiei, eta batez ere beren izenean aritu diren norbanakoei. Halaber, proiektua bazkide gisa babestu duten erakundeen papera eskertu nahi dut ere. Zorionak egin lanagatik: Centro di Iniziativa Gay Onlus (Italia), Amsterdamgo Udala (Dienst Maatschappelijke Ontwikkeling, Burgerschap & Diversiteit), Lesben-und Schwulenverband in Deutschland e.V. (LEVD) elkarte germaniarra eta Nederlandse Vereniging tot Integratie van Homoseksualiteit COC Herbehereetako elkarteak.

Eskerrak ere Europako Batzordeko Justizia Zuzendaritza Nagusiari, proiektua diruz laguntzeagatik. Sortu ziren itzaropenak betetzeko gai izan garela eta lortutako emaitzak adingabe homosexual edo transexualen zein sexu berdineko gurasoak dituzten adingabe eta nerabeen oinarritzko eskubideak errotzen lagunduko duela espero dut. Proiektuak aipatu norbanakoen eskubideak azken hauek sistematikoki eta sutsuki urratzen dituzten herrialdetan babesten lagunduko duelakoan gaude. Ez dago herrialderik Europar Batasunean aipatu eskubideak osotasunean babesten dituenik. Ondorioz, RAINBOW HASen ondorioek eskubide horien inguruko lege eta politika publikoak hobetzen lagunduko dute herrialde eta erkidego ezberdinetan, giza eskubideen, Europako lege-xedapenen eta Europako Parlamentuko, Europako Batzordeko eta Europako Kontseiluko irizpen eta adierazpenen arabera berezkoa duten lekua lor dezaten.

6

Ebaki itzela dago EBeko estatu kideetako legeen edukien eta homosexual (gay eta lesbiana), bisexual, transexual edo transgenero eta intersexualek, hau da, LGTBI (edo LGTBIQ queer edo questioning joera ere sartuz gero) kolektiboak bizi duen eguneroko errealitatearen artean. Beren zaurgarritasuna dela medio, arreta berezia eskaini behar zaie LGTBI adingabeei.

Izan ere, lege-printzipio argi eta sendoak dauzkagu lan honen xede diren eskubideak aitortu eta babesteko: 2009an onartu Yogyakarta Printzipioak, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordearen 17/19 (2011) eta 27/32 (2014) erabakiak eta Europako Parlamentuko zenbait erabaki (tartean 2014ko Otsailaren 4ko erabakia, sexu joera eta genero identitateagatiko homofobia eta bazterkeriaren aurkako ibilbide-orri gisa ezaguna (2013/2183(INI), eta baita EBeko Oinarritzko Eskubideen Gutuna ere, zehazki 21. artikulua –sexu joerarengatiko bereizkeriarik eza arautzen duena- eta 24. artikulua –haurren eskubideak-) edo Ministroen Batzordeko CM/Rec (2010) 5 Gomendioa estatu kideei, sexu joera edo genero identitatearengatiko bereizkeriaren aurka borrokatzeko neurriekin.

Errealitatea, ordea, oso latza da LGTBI pertsonentzat EBeko eta Europako Batzordeko estatu kide gehienetan, eta adingabe eta nerabeentzat bereziki. Nazioz gaindiko aipatu bi erakundeen arduradunek askotan onartu dute aurrekoa, argitalpen honetan jasotzen den bezalaxe (Bruselan 2014ko azaroaren 18an eginiko Nazioarteko mintegi eta azken konferentziaren ondorioak dokumentu honetan irakur daitezke). Eta, halaber, txosten

ezberdinak egin dituzte Europako Parlamentuak eta Europako Batzordeak, aipatu pertsonen egoeraz.

Herrialde ezberdineko datu eta txostenetan oinarrituta RAINBOW HAS programak egin duen diagnostikoak, goikoa berrestez gain, zenbakiak jartzen ditu paperean eta zehazki eta zintzoki aztertzen du egungo LGTBI adingabe eta nerabeen egoera. Proiektuak, halaber, sexu bereko gurasoak dituzten adingabeen aurkako bereizkeria aztertzen du ere.

RAINBOW HAS proiektuak hogeita bi jardute on identifikatu ditu. Europar Batasuneko agintarien eta EBeko estatu kidetako agintarien gogo politiko irmoak aipatu jarduteak eskoletara eramango zituzten ekimenak sustatu beharko litzuke.

Agintari politikoek eta hezkuntza arloan ardura dutenek legean zehaztu arauak eta printzipio etikoak bete ditzaten, funtsezkoa da proposamenak eta eskaerak egingo dituzten sareak sortzea. Sare horiek eskubideak babesteko ardura hartu beharko lukete ere, konpromisoak hartuz, ekintzak eta programak sustatuz eta baldintza positiboak eta mekanismo fidagarriak sortuz. Eragile ezberdinen arteko aliantza eta sare kooperatibo horiek elkarrekin lan egin beharko dute LGTBI adingabe eta nerabeen eta sexu bereko gurasoak dituzten familien haurren oinarrizko eskubideak babesteko. Eta aipatu adingabeen aurkako bereizkeria, homofobia, transfobia eta jazarpenari aurre egin. Aniztasuna sustatu eta giza eskubideen errespetua sustatzeko lan egin behar dute.

Azkenik, eskerrak eman ere Ararteko erakundeko lankideei: lan bikaina, sutsua eta profesionala egin dute RAINBOW HAS proiektuan. Eta nire esker ona eta zoriona proiektu zoragarri honetan parte hartu duten erakundetako langileei ere. Eskerrik asko egin duzuen lanagatik eta pertsonalitate, sentsibilitate eta ikuspegi ezberdin ugari bateratzeko agertu duzuen prestutasunagatik; RAINBOW HAS proiektua zinez aberastu duzue. Nire eskerrik beroena Eusko Jaurlaritzako ordezkarietako eta Bruselako talde guztiari; beren laguntza funtsezkoa izan zen azaroaren 18an EBeko hiriburuan egin genuen ekitaldi bikoitza antolatu eta garatu ahal izateko. Beharrezkoa da ere proiektu bikain honetan parte hartu duten erakundeek bi urte hauetan zehar eman didaten laguntza eta babesa ere eskertzea. Bukatzeko, esker bereziak Bruselako nazioarteko mintegira eta azken konferentziara bertaratu gonbidatuei.

7

Iñigo Lamarca Iturbe
Gasteiz, 2014ko abenduaren 1a



Europako eskoletan LGTBI kolektiboaren aurka dagoen diskurtsoaren inguruko ikerketa

1.1 B U L G A R I A

1 Sarrera orokorra eta metodologia

9

RAINBOW HAS proiektuak Bulgarian egin zuen ikerketak homosexualen arazo eta zailtasun nagusiak aztertzea eta balizko estrategiak zehaztea zuen helburu. Sexu bereko gurasoak duten familien inguruko ikuspegi eta izuak eztabaidatzeko aukerak sustatzeko egokitasuna aztertu zen ere. Azkenik, hirugarren xedea izan zen eskolek sexu joerarengatiko jazarpena aitortu eta kudeatzeko gai diren edo ez zehaztea, eta aipatu kasuetan familiek eta eskolek hartzen duten ardura aztertzea.

Guztira, 10 gurasok parte hartu zuten ikerketan. Ikerketaren xede orokorra zen LGTBI estereotipo eta izuen eta familietan aurki daitezken jarrera homofobo eta homofoboan ikuspegia lortzea, familien iritzi eta ikuspegietan oinarrituta.

- Jazarpen homofoboa jasan duten adingabeen kasu-azterketa, elkarrizketen bidez (4 kasu aztertuta).
- Haurrak eta sexu bereko gurasoak dituzten familien kasu-azterketa, elkarrizketa sakonen bidez (3 kasu aztertuta).
- 3 lan-talde, LGTBI kolektibo, LGTBI familien, LGTBI helduen guraso, guraso heterosexual, irakasleen ordezkariekin; gehi abokatu bat, psikologo bat, psikoterapeuta bat eta hedabidetan aditu bat. Xedea zen norbanako homosexualen arazo eta zailtasun nagusiak aztertzea, balizko estrategia positiboak zehazteko, eskolek sexu joerarengatiko jazarpena aitortu eta kudeatzeko gai diren ala ez zehaztea eta gurasoek eta eskolek horrelako kasuetan hartzen duten ardura ikertzea. (3 lan-talde, 20 kide guztira).

2 Testuingurua

Bulgariako LGTBI kolektiboaren inguruan daukagun informazioa eta estatistikak oso eskasak dira eta GKEetatik datoz batez ere; halere, hedabidetako eta Bereizkeriaren Aurka Borrokatzeko Batzordearen datuak erabili dira ere. Komunitatearen arazoan inguruko informazioa atzerriko iturrietatik dator funtsean. Bertako ikertzaile eta ikerketa erakundeek diotenez, ez dago interesik LGTBI pertsonen arazoak ikertzeko eta, ondorioz, ez dago dirurik horrelako ikerketak finantzatzeko.

Halere, gai honen inguruko informazioa giza eskubideen defentsarako eta LGTBI elkarten webgunetan aurki daiteke: ILGA, FRA, Amnesty International, Human Rights Watch, etab.

Tokiko informazio iturri nagusiak dira Bulgarian Helsinki Committee batzordearen urteko txostena eta, hein batean, Bereizkeriaren Aurka Borrokatzeko Batzordearen dokumentuak. Halaber, idatzi zientifikoak itzuli dira ere informazio baliotsua ateratzeko. Itzulitako lanean artean daude, esaterako, *“Preventing Homosexuality - Guide for Parents”*¹, Dr. Joseph Nicolosi, Linda Ames Nicolosi, eta *“Homosexuality-release from the grip”*², Bob Davies & Lori Renzel.

2011. urtean EBeko funtsekin garaturiko RAINBOW Proiektuak homofobiari dagokionean indarrean dauden politika nazionalen, tokiko teorien eta eskola estrategien inguruko ikerketa bat gauzatu zuen. Ikerketen emaitzek argi uzten dute ezinbestekoa dela hezkuntza sistemari esku hartzea jarrerak aldatu eta tolerantzia eta errespetuzko kultura bat ezartzeko. Ikerketa bakarra zegoen ekimen horren aurretik homofobia eta hezkuntza sistemari buruz: “Geminik” egin zuen 2007-2008an, Herbehereetako Atzerri Gaietako Ministerioaren diru-laguntza xume batek finantzatu “Deafening silence: the case in my school” proiektuaren baitan. Proiektuaren xedea zen eskola giroa hobetzea. Eta horretarako etnia, sexu joera arrazoiengatik edo gutxiengoen aurkako bereizkeriari aurre egiteko politikak sustatuko zituen.

Aipatu ikerketaren arabera (14-17 urteko 181 ikasle hartu zituen), LGTBI nerabeek bereizkeria eta jazarpena pairatzen dute eskoletan. Datuek azaltzen zuten, curriculumak genero bereizketa nabarmendu eta emakume eta gizonezkoentzako rol sexistak inposatzen zituen. Ikerketaren arabera, LGTBI ikasleen % 70a eskola utzi edo etxean geratu dira pairatzen duten jazarpenarengatik; eta % 50a buruaz beste egiten saiatu da. Ez du joera horien aurkako erreakziorik edo prebentzio neurririk aipatzen Hezkuntza Ministerioaren edo gobernuko beste erakunde bateren aldetik. Era berean, ikerketak dio nabaria dela LGTBI norbanakoek bereizkeria eta jazarpena pairatzen dutela hezkuntza sistemaren baitan. Ondorioz, esan genezake LGTBI adingabe eta nerabeek eskola errendimendu zein gizarte gaitasun eskasak agertzen dituztela eta, ondorioz, besteak baino zaugarriagoak direla lan merkatuan.

¹ ISBN: 9789546700681

² ISBN: 9789547191691

Egun, LGTBI eskubideen eta homo/transfobiari buruzko eztabaida ekitaldi edo kanpaina zehatzen harira ematen da: urteko Gay Pride eguna, zinema jaialdiak, sexu joerarengatik eginiko krimenak, eskandalu politikoak, etab. Eta, bestalde, EBK legea aldatzeko egin duen eskaerari esker ere. Zentzu horretan, eta Bulgarian Helsinki Committee batzordearen urteko txostenari esker, jakin badakigu 2012an Bulgariako norbanako trans- eta intersexualen inguruko lehen azterketa sakona egin zela: *“Changing the gender of trans and intersexual people in Bulgaria. Study of the legal framework and case law and strategies for their improvement”* lana, “Bilitis Resource Centre” Fundazioak egina.

Datu sendoen eta ikerketa sakonen falta horrek asko zailtzen du politika eta ekimen zehatzak diseinatzeko ariketa eta ezinbestekoa zein premiazkoa egiten du babes sistematiko bat ezartzea gizarte maila guztietan.

3 Familien diskurtsoa aniztasun afektibo eta sexualaren inguruan

Arrazoi ezberdinegatik, nabaria da oso zaila egiten zaiela sexualitateari buruz hitz egitea bai LGTBI gurasoei bai LGTBI adingabeen gurasoei ere. Bi kategoriek argi uzten dute “nola edo hala” lortzen dutela “haurrak nondik datozen” azaltzea baina “oso zaila” zaiela gai sakonagoez aritzea (10etik 7).

Aurreko lanetan bezala, argi gelditzen da eskolek ardura gurasoen esku uzten dutela, eta alderantziz, gai honi dagokionean. Erronka bat da homosexualitateari buruz hitz egitea aipatu bi girotan. LGTBI adingabeen gurasoek uko egiten diote hitz egiteari edo, hitz eginez gero, “nerabeak direnean eta bere sexualitatearen inguruko susmoak” dituztenean egiten dute. Guraso guztiek baieztatzen dute denbora asko behar izan zutela (urteak ere) “horri” buruz hitz egin ahal izateko beren seme-alabekin. Izan ere, gazte helduak direnean egingo dute eta denbora asko eman ostean gaiarekin borrokatzen.

Bestalde, LGTBI gurasoen (4tik 4) ustez sexu bereko gurasoak duen famili batean hazteak “familia zertxobait ezberdina” dela aditzera ematen du eta hori nahikoa da gaiaz ez hitz egiteko edo aipatu hitzaldia seme-alabak helduak diren arte atzeratzeko.

Gai hauei (sexualitatea batez ere) buruz hitz egiteko zailtasuna eta ohitura eza nabaria da Bulgariako historia sozial eta politikoan. Egungo gurasoen belaunaldiak, alderdi politikoen laguntzarekin, ez du gaia gurasoekin tratatzeko inolako ohiturarik, tabua izan baita orain arte Bulgariako gizartean. Ondorioz, egungo gurasoek borroka latza dute: isilezko iragan horrekin bukatu eta seme-alabekin bizitzako alderdi guztiez hitz egiteko gai izaten lortzea. Aldi berean, seme-alabek ez dakite gurasoei nola galdetu sexu joera, homosexualitatea, genero identitatea edo beren sexualitateari buruz. Gurasoek diotenez beren seme-alabek ez dute galderarik egiten; edo, egitekotan, zeharka egiten dute.

Elkarrizketek argi utzi zuten seme-alabek gaiaz galdetuz gero une apartaren batean (LGTBI bikote baten eszenaren bat duen film bat ikusi ostean, nerabe famatu baten istorio batengatik, etab.) edo armairutik atera nahi dutenean (pauso txikiz beteriko

gurasoen babesa lortzeko prozesua) egiten dutela. Ondorioz, komunikazio arazo handia ikus daiteke guraso eta seme-alaben artean, bai ohitura ez izateagatik komunikazio mota honetan bai komunitateak babesik eskaintzen ez duelako (kultura mailan eta jarrerai edo erreminta praktikoei dagokienean). Eta, horrenbestez, gurasoek zein beren seme-alabek ez dute gaitasunik sexu joera, homosexualitatea, genero identitatea edo beren sexualitateaz hitz egiteko.

4 Hezkuntza komunitatea aniztasun afektibo eta sexualaren aurrean

Lan-taldetako kideek baieztatu zuten, indarkeriak orokorrean gora egin du azken urteotan eta, halaber, adingabeen arteko indarkeriak gora egin du ere. Horren zioak konplexuak dira eta homofobia/transfobiaz haraindi doaz. Partaideek ikuspegi ezberdinak agertu zituzten fenomeno horren zioak eztabaidatzerakoan. Hezkuntza sistemako ordezkariak (irakasleak) errua “gurasoena” dela adierazten dute, adibideak emanaz: gurasoen kontrol eza indarkeria azaltzen duten filmak galarazteko edo “kontrol (orokorrean) eta zigor eza”. Gurasoek, bestalde, eskola aktiboagoa izan beharko litzatekeela uste dute, beren seme-alabek denbora asko pasatzen baitute bertan, haurtzaroan batez ere.

12 Nabarmenezkoa da eskola jazarpenaren adibideak izendatzea eskatzen zaienean irakasle zein gurasoek ez dutela irainak, isekak edo isolamendua jazarpenzat jotzen. “Hazkunderen osagai ohiko eta naturala” dira beraiantzat. Eraso fisikoez kezkatuta agertzen dira ordea. Erregistratuta daudela diote eta baita ez direla arruntak ere.

Eskolan jazarpena pairatu duten adingabeen gurasoek, ordea, sentikorrago azaltzen dira eta beren esanetan irainak eta isolamenduak eragin handia dute adingabeen autoestimua erangan eta bizitza emozionalarengan.

Eztabaida sutua eta gero, lan-taldeko kideek aipatuak jazarpenzat jo daitezkeela aitortu eta horrelako kasuetan jazarpena hitzezko eraso bilakatzen dela adierazi zuten.

Jarrera homofoboaren adierazpenaren inguruan galdetuta, kide gehienek aipatua “marika”, “maritxiko”, “amazulo” eta gisa horretako irainekin lotzen dute. Partaideek aitortzen dute adingabeek aurreko hitzak beren esanahia zehazki jakin gabe edo argi izan gabe erabiltzen dituztela.

Horrelako jarreraren aurrean, homo/transfobokitzat jo ala ez, normalean “horrelakorik ez esateko” eskatzen zaio adingabeari, baina beren esanahia edo zergatik ezin diren erabili azaldu gabe.

Argi geratzen da orduan irakasle zein gurasoek arazoak dituztela homo/transfobiari edo sexualitate berari buruz ere hitz egiteko.

Gurasoen hitzetan, sexu heziketa (sexu joera ezberdinen gaia barne) eskolan landu beharko lirateke eta, beste behin, ardura gurasoena edo eskolena den eztabaidara bueltatzen gara.

Irakasleek partekatu beharreko erantzukizuna dela defendatu eta "horrelako gaiak haurrekin joratzeko gai ez direla" aitortzen dute. Zenbait jazarpen mota gutxiesteko eta beren definizioa ekiditeko joera badago ere, aipatuak eskola giroan sartuta daude eta horrek gurasoen erantzun emozionala pizten du, normalean eskolako agintariek ez baitiete inolako informaziorik ematen, haurrek baizik.

Normalean eskola gurasoekin harremanetan jarriko da beren seme-alaba erasotzailea denean; ez ordea biktima denean. Nolanahi ere, eztabaidak argi utzi du eskola – guraso – eskola komunikaziorik ez dagoela.

5 Jazarpen homofobia

Hitzezko eraso eguneroko osagaia bilakatu da LGBTBI adingabeen bizitzan. Normalean barregarri uzteko hitzen edo marika, maritxiko, amazulo eta gisa horretako irainen bidez gautzen da. Aipatu umiliazioa ezezaguna eta ezberdina denari erasotzaileak dion beldurraren isla da eta beldur horren iturria, aldiz, adingabeek sexualki heldu egiteko laguntzarik ez dutela beren gizartean, familia eta eskola barne.

Normalean, guraso eta seme-alabaren arteko harremana zaila denean adingabeak depresioan erori, bortitz bilakatu edo bere buruari min egiteko arriskua azalduko du. Eskolak, bestalde, ez du sexu heziketarik emateko aukerarik eta indarkeria kasuak identifikatu eta konpontzeko mekanismorik -dena dela- ez du gehienetan. Kasu-azterketek argi utzi dute ez dagoela partekatutako ardurarik eskola eta familiaren artean; izan ere, ez dago komunikaziorik bi erakunde horien artean eta komunikazioa badagoenean kasu zehatzen inguruan izaten ohi da (arazo baten inguruan ia beti).

Kasu-azterketek azaldu dutenez ere hitzezko indarkeriaren eta indarkeria fisikoaren arteko marra oso fina da. Kasua larria bilakatu eta hirugarren baten (medikua, polizia, haurtzaroa babesteko saila, etab.) arreata deitu ezean, familiari arazoa eta indarkeriaren eta jazarpenaren emaitza ezkututzen zaio normalean eta azken hori itsu dago gertatzen denaren aurrean, hau da, bere seme-alabaren sexu joera ezberdinaren aurrean.

Baliabide xumeak badaude ere komunitatean, esaterako GKEen zentroak babes psikologikoa emateko eta LGBTBI elkarteak (hiriburuan) esaterako, normalean ez dira beren zerbitzu guztiak erabiltzen, bai informazio ezagatik bai laguntza eskatzeko ohitura faltagatik. Hiriburutik kanpo informazio falta itzela dago laguntza talde eta LGBTBI elkarten presentziari dagokionean. Normalean LGBTBI kolektiboak informalki daude antolatuta, komunitate itxi eta txikietan, kanpoko mundu horretatik aldentuta.

Komunitate mailako zerbitzuetako profesional ezberdinek indarkeria orokorraren aurka borrokatzeko prestutasuna agertu badute ere, indarkeria sexu joerarekin lotuta dagoen kasuetarako egun ez duten prestakuntza zehatza eta berezia beharko zutela aitortzen dute. Hau da, nahiz eta baliaabideak egon komunitate mailan, ez dute emaitza eta eragin positiborik lortuko guraso eta seme-alaben arteko harreman irmo bat gabe. Gurasoen aurrean armairutik ateratzeko adingabeek agertzen duten beldurrak agerian uzten du

oso latza dela konfiantzazko eta elkar-ulertze harreman bat berreraikitzea eta azken hau funtsezkoa da komunitatearen jarrerak aldatu ahal izateko.

Nabarmenezkoa ere LGBTI adingabeei laguntzeko mekanismoez gain beharrezkoa dela ere laguntza mekanismoak ezartzea LGBTI seme-alabak dituzten familientzat ere. Aipatu estrategiak gaizki-ulertuak eta errefusak gutxituko lituzke eta, aldi berean, elkar-ulertzea sustatuko luke.

6 Aniztasun afektibo eta sexualari eta jazarpen homofoboari aurre egiteko proposamenak

- Gurasoek eta eskolak laguntza behar dute jazarpenari aurre egiteko, horrek sentikortasuna eta indarkeria identifikatzeko gai izatea eskatzen baitu. Zentzu horretan, garrantzitsuagoa da pentsamolde bat eta jarrerak sortzea aipatuak aldatzea baino. Eta horretarako, arreta berezia eskaini beharko zaio irakasle eta profesionali unibertsitatean ematen zaien heziketari.
- Sexu heziketa ematea eskolan, jazarpen homo/transfoboa gutxitzeko mekanismo gisa. Erronka itzela da eskolentzat eta erronkari egiteko prestutasun gutxi azaldu dute orain arte. Hirugarrenen laguntza, hau da, kanpoko adituen presentzia ikasgeletan sexualitateaz eta ezberdintasunaz hitz egiteko, arazoa konpontzeko modu bat izan daiteke.
- Funtsezkoa da gurasoen eta eskolen arteko komunikazio irmoa ezartzea erasoak gelditu litzaketen balioak eta baldintzak sustatu ahal izateko. Gurasoek eta eskolak adingabearen errendimenduari buruz eztabaidatzen dituzten gaiak zabaldu beharko dituzte, gizarte errendimendua sartzeko.
- Gay eta heterosexuaren arteko aliantza urriek eta beren ospe eskasak zail egiten dute jazarpena prebenitzea eta aurka borrokatzea.
- Nazio mailako LGBTI gaien inguruko ikerketak oso erabilgarriak izan daitezke LGBTI norbanakoek beren buruaz duten pertzepziorako eta aipatuak gizartean onartuak izan daitezken.
- Gaitzespenari aurre egiteko, LGBTI kolektiboko ordezkariak beren jarrera aldatu beharko dute: babestu beharreko biktimak izatetik beren eskubideak defendatzen dituzten eragile aktiboak izatera pasa beharko dute.
- Premiazkoa da sexu bereko ezkontzak aitortu eta onartuko dituen lege bat onartzea. Aipatua ez denez errealista egun, esfortzu guztien xedea izan beharko luke bikote-bizikidetzaren aitortzea, oraindik aitortu gabe baitago (ezta bikote heterosexuarentzat ere).

1.2 E S P A I N I A

1 Sarrera orokorra eta metodologia

Hasteko, dokumentu ezberdinak aztertu ziren, horien kritika bibliografikoa eginaz, eta euskal eta Espainiako testuinguruetan aztertu beharreko gaiak zehaztu ziren ere. Ondoren, metodologia kualitatibo bat gauzatu zen, ondorengo ikerketa-teknikak aplikatuz:

- 10 elkarrizketa familia orokorrekin.
- 5 kasu-azterketa jazarpen homofoboa pairatu duten familien inguruan.
- 5 kasu-azterketa sexu bereko gurasoak dituzten familien inguruan.
- 3 lan-talde guraso-irakasleen elkarrekin, LGTBI taldeekin eta irakasleekin.

2 Testuingurua

Homosexualitatearen eta sexu bereko gurasoak duten familien onarpena nabarmen handitu da azken hamarkadan Espainian, gazteen artean batez ere. Homosexualen arteko ezkontzak legeztatu eta sexu bereko gurasoak dituzten familiak arautu zituen 2005eko legeak eztabaida publikoa sortu zuen eta, ondorioz, LGTBI pertsonak, beren harremanak eta familia motak ikusgarriago eta onartuago egin zituen. Gizarte mailako onarpena handiagoa da gizonen arteko homosexualitateari dagokionean, ikusgaitasun handiagoa izan baitu. Transexualitatea, ordea, ezkutatua jarraitzen du oraindik eta jendearen iritzia oso baldintzatua eta estereotipatua da oraindik norbanako transexualei buruz.

Familiari dagokionean, familiaren kide bat homosexuala den kasuetan horren onarpena eta adierazitako babesa baldintza dezaketzen zenbait aldagai zehaztu dituzte ikerketa ezberdinek. Familia erakunde kontserbadoretzat hartzen da oraindik, erabat erratua

generoen patroia heterosexualetan eta, ondorioz, homosexualak zailtasunak dituzte beren homosexualitatea familiaren baitan azaltzeko. Eskolan dauden nerabeentzat, onarpena osoa handia da familiaren baitan, gelakideen artean dutena baino askoz ere handiagoa, eta bereziki nesKentzat.

Familia heterosexualaren ideia oso errotuta badago ere jendearen pentsaeran, gauzak aldatzen doaz egungo espainiar edo euskal gizartean. Sexu bereko gurasoak dituzten familiak legezkoak direnetik eztabaida publiko bat sortu da familia horiek haurrak hazteko agertzen duten balizko egokitasunaren aurrean. Aipatu eztabaida akademikoen arreta deitu du eta azken urteotan ikerketa ezberdinak argitaratu dira, familia horiek beren seme-alabak hazteko duten balizko gaitasun eza ukatzeko.

Hezkuntza komunitateak aniztasun afektibo eta sexualari eta genero identitateari aurre egiten dion heinean, ikerketa gehienek jazarpen homofoboan eta bere ondorioetan jarri dute arreta eta ondorioa da jazarpena orokorra bada ere hezkuntza komunitateak ez duela nahikoa egiten aipatua identifikatu eta tratatzeko. Familiek jazarpen homofoboaren inguruan dituzten iritziak eta estrategiak azaltzeko lanak oso urriak dira ordea eta familiak jazarpena onartu eta beren babesa eman behar dutela esatera mugatzen dira.

Sexualitatea, homosexualitatea, transexualitatea eta jazarpenaren aurkako zerbitzu eta protokoloen inguruko programak irakasle eta ikasleetan oinarritzen dira nagusiki eta ez dago familiak sartzan dituen esperientziarik aurkitu. Nolanahi ere, guraso-irakasleen elkarrekin eta heziketa ikastaro ezberdinek ekintza eta jarduera ugari gauzatzen dituzte aniztasun afektibo eta sexuala eta genero identitatea bezalako gai ezberdinen inguruan. Esaterako, jazarpen homofoboa, elkarrekin lan egitea ikasgelan, gatazken konponketa positiboa, baterako hezkuntza, sexualitatea, aniztasunaren kudeaketa eta, horren barruan, familiarena.

16

3 Familien diskurtsoa aniztasun afektibo eta sexualaren inguruan

Sexualitatearen tabuak bizitzako geruza guztiak bustitzen ditu, familia barruko harremanak barne. Izan ere, familiek beren seme-alabak beren sexualitateaz seguru egon daitezen babestu behar dituztela uste baitute ere, ez dago komunikaziorik aipatua bermatzeko eta seme-alaben sexualitateari eta sexu harremanei dagokienean esku hartzeko. Hau da, familia gehienak ez dira konturatzen sexualitateaz esplizituki hitz egiten ez duten bitartean tabua mantentzen eta elikatzen ari direlax. Ezta beren eguneroko ekintzak sexuen rol eta ikuspegi heterosexualak errepikatzen dituztelax ere.

Heterosexualitatea denez normaltasuna, familia gehienek beren seme-alabak heterosexualak direla uste dute. Edozein kasutan, homosexualitatea erabat onartzen dute homosexualak hirugarren bat denean; beren seme-alaba denean baina, etsipen puntu bat dago onarpen horretan. Gizon batzuek, gainera, camp jarreraren aurkako iritzia agertu dute; LGBTI komunitatearentzat kaltegarriak direla eta beren ikusgaitasuna desegokia dela adieraziz.



Osagarriak diren aurkakotzat hartzen diren feminitatea eta maskulinitatearen biko kontzeptuak oso errotuta daude gure gizartean. Gizonezko homosexuali buruzko estereotipoak femeninoak diren ezaugarriak islatzen dituzte eta biko genero rolak esleitzen zaizkie ere sexu bereko gurasoak dituzten familiei (hau da, batek amaren funtzioak hartzen ditu, emozio eta zaintzarekin lotuta daudenak, eta besteak aitarekin lotzen diren autoritatea eta erantzukizunaren funtzioak hartzen ditu). Eta gainera, biko genero eredu horiek botere eta hierarkia harremanen inguruan egituratzen dira, non gizonak aitorten eta ospe sozial handiagoaz gozatzen duen. Emakumezkoen homosexualitatea, horrenbestez, zailagoa da onartzeko eta, ondorioz, gizarte onarpen txikiagoa dauka.

Familia heterosexualaren eredua harremanen ikuspegi heterosexualen nagusitasunaren bermea da. Izan ere, familia mota ezberdinak badaude ere egungo euskal gizartean, betiko familia heterosexualak ideala jarraitzen izaten du, eta haurrak hazteko eredurik onena. Sexu bereko gurasoak dituzten familiek adierazten dutenez, onartuta daude beren inguruko giroan baina aldi berean, eta gizonek batez ere (haurrak zaintzeko desegokiagoak direla uste baita), beren etxeak haurrak hazteko giro aproposa eskaintzen duela frogatzera behartuta sentitu direla esaten dute ere.

4 Hezkuntza komunitatea aniztasun afektibo eta sexualaren aurrean

Denek onartzen dute familiak direla hezitzaile nagusiak, nahiz eta eskolak haurren heziketan eta gizarteratzean duen paperaren inguruko iritziak oso ezberdinak diren. Familia batzuek hezkuntzaren ikuspegi baliagarria dute eta etorkizunerako erabilgarriak izan daitezkeen irakasgaiak eta prestakuntza lehenesten dituzte. Besteek, ordea, eskolaren gizarteratze funtzioa lehenesten dute, bizikidetzeta, lankidetzeta eta elkarren arteko errespetuaren balioak sustatzeari dagokionean. Sexu bereko gurasoak dituzten familiek bigarren aukera horren aldeko joera handiagoa azaltzen dute familia heterosexualak baino. Eta eskolak aniztasunaren balioa eta ospea nabarmendu beharko lituzkeela gehitzen dute. Familia gehienek sexu heziketa eskolaren esku uzten dute. Ikasgelan jorratzen diren eduki eta ikasgaien informazio gutxi dutela onartzen badute ere, horiek egokiak direlaz seguru daude. Sexu bereko gurasoak dituzten familiek ordea interes handiagoa azaltzen dute sexualitateari, sexu harremanei eta familia ereduari buruz ematen diren edukien inguruan. Halaber, aniztasun afektibo eta sexuala eta familia eredu ezberdinak azaltzen dituzten edukiak erabiltzea eskatzen diete irakasleei.

Aniztasun afektibo eta sexualaren tratamenduaren inguruan, familien ustez ikasgai orokorrako baten barruan aztertu beharko litzateke: esaterako, aniztasunaren errespetua eta balioa, sexu heziketa edo baterako hezkuntza. Nolanahi ere, lehentasunezko gaia ez dela adierazten dute, LGTBI kolektiboak onarpen nahiko duelako gizarte mailan eta eskolak leku seguruak direlako haurrentzat. Sexu bereko gurasoak dituzten familia, LGTBI pertsonetako familia eta irakasleek ordea aniztasun afektibo eta sexualak bere marko propioa izan behar duela uste dute, beste ikasgaiek gaia jorratzeko eskaintzen dituzten aukerak aztertu beharko liratekeelarik ere.

Ikuspegi ezberdin horiek beste isla bat dute: irakasleek aniztasun afektibo eta sexuala ikasgela jorratzeko eta jazarpen homofoboari aurre egiteko dituzten gaitasunen inguruko iritziak alegia. Familia gehienek irakasleek gaitasun eta prestakuntza nahikoa dutela uste badute ere, irakasleek mugatuta eta segurtasunik gabe sentitzen direla aitortzen dute. Sexu bereko gurasoak dituzten familiek, beren aldetik, irakasleen borondate ona aitortzen dute baina irakasleekin bat datoz: gaitasun eta heziketa eskasa dutela gaiari behar bezala aurre egin ahal izateko.

Bestalde, familia-eskola harremana banakatua eta pertsonalizatua da. Haurren eskola errendimenduaren eta jarrera gatazkatsuaren inguruko informazio truke hutsa da funtsean. Sexualitatearen tabua beti dago hor familia eta eskolen arteko harremanetan: bileretan haurren sexualitateari edo beren sexu joerari buruzko aipu zuzenak ekiditen dira. Aipatu isiltasuna jazarpen homofoboan kasuetan ematen da ere eta, ondorioz, asko zailtzen du arazoari ematen zaion tratamendua. Seme-alaba jazarpen homofoboaren biktima izan duten zenbait familiek ez zuten irakasle edo eskolaren esku-hartzea eskatu. Eta aipatua eskatua izan zenean, ez zen konpromiso gehiegirik lortu irakasle edo eskolaren aldetik.

Azkenik, nabarmentzekoa da guraso elkarte gehienak ez direla eragile aktiboak eskolaren politika eta funtzionamenduaren zehazketari dagokionean. Elkartetako kideek aitortu dutenez, interes gutxi dago aipatu erakundetan sartu eta parte hartzeko eta beren jardura eta lan gehiena pertsona gutxiaren esku geratu da. Kultura ezberdinen arteko harmonia-hausteren bat edo jazarpen kasu bat balego, familiak interes komunen bat dagoelako edo haurrak lagunak direlako konprometituko lirakeke, eta ez guraso elkarte bitartez.

Eta gainera, guraso elkarte federazioek sexualitatea eta aniztasun afektibo eta sexualari buruzko prestakuntza eskaintzen badute ere, oso eskaera gutxi jaso dituzte. Familiek gai honen inguruan agertzen duten interes faltaren zioa da aniztasun afektibo eta sexuala eta genero identitatea gai pribatu eta pertsonaltzat hartzen direla, loturarik gabekoak familia gehien arazoekin. Interes falta hori ezagututa, sexu bereko gurasoak dituzten familiek uste dute ezin dietela sexu edo familia aniztasunaren inguruko ikasgai inposatu guraso elkarre, beren iritziz jorratu beharreko gaiak badira ere.

5 Jazarpen homofobia

Ikerketen arabera jazarpena zurituta dagoen ohiko fenomeno bat da. Familia gehienek normalizat jotzen dituzte haurren arteko jazarpen egoerak. Haurrek ezberdin den guztiaren aurka egiten dutela eta naturalki ankerrak direla adierazten dute; jazarpena giza harremanen ordena naturalaren baitan dagoela. Halaber, irain eta eraso sistematikoak (hitzezko zein fisikoak) ematen direla aitortzen badute ere, zenbaitek "jazarpen" hitza ekiditen dute. Horrek jazarpenaren identifikazioa zailtzen du, erasotzailea babestu eta biktima isolatu. Jazarpen homofobia pairatu duen seme-alabaren bat duten familietako zenbaitek jazarpena zurrizko joera dute eta beren seme-alaba gatazka batean bere burua defendatzeko ahulegia dela adierazten dute. Zenbaitetan biktima erruduna dela diote ere, lagunak egiteko gaitasunik ez izateagatik.

Ondorioz, ahulezia fisiko edo emozionala diskurtso gehienetan ageri da jazarpena erakartzeko faktore gisa. "Ezberdina" izatea ahulezia bat dela aitortzen dute horrenbestez. Nolanahi ere, familia gehienek genero rola eta patroi heterosexualak mantentzeko gizarteak egiten duen presioari muzin egiten diote eta, ondorioz, eredu horietatik at bizi direnek jazarpenaren biktima izateko duten arriskua gutxiesten dute. Irakasle, jazarpen homofobia pairatu duten adingabeen familia eta sexu bereko gurasoak dituzten familiak askoz ere kontzienteago dira gizarte-presio horretaz eta bere ondorioez.

Izan ere, sexu bereko gurasoak dituzten familiak jakitun dira ezohiko eredu bat osatzen dutela eta egoera horrek bere seme-alabei gaitzespen edo bereizkeria egoeretara bultzatzen dakiekeela aitortzen dute gehienek. Horrenbestez, gertutik jarraitzen dute beren seme-alaben onarpen-maila eta jarrerak eta harremanak eratzeko duten modua eta baita homosexualitateak edo sexu bereko gurasoak izateak ikasgelan edo lagun artean izan dezaketen papera ere. Praktikan, harreman estuagoa dute irakasleekin, lehen jazarpen zantzua agertu eta segituan esku hartzen dute eta beren familia eredu dela eta jaso

ditzaketen mota guztietako galdera eta irainen aurrean argudioak eta erantzunak izateko baliabideak ematen saiatzen dira seme-alabei.

Aztertu ditugun bi jazarpen homofoboko kasuak izan dira maskulinitatearen eta heterosexualitatearen nagusitasunetik datozen ereduekin bat egiten ez duten bi mutil. Gizonezkoen genero patrioiak emakumezkoenak baino zorrotzagoak dira eta status sozial hobea daukate. Ondorioz, aipatuetatik aldentzeak ulertezintasun eta gizarte gaitzespen handiagoak dakartza. Erasotzaile gehienak mutilak dira ere eta maskulinitatearen eredu nagusitik at dauden horiek gaitzesteak berak maskulinitatea agertzeko modu bat da, indarkeriaren erabilerarekin nabarmentzen dena.

6 Aniztasun afektibo eta sexualari eta jazarpen homofobikoari aurre egiteko proposamenak

- Jazarpen homofoboaren eta jazarpen orokorraren arteko ezberdintasuna da biktimaren homosexualitatea zalantzan jartzen duela eta, ondorioz, sexualitatea, homosexualitatea eta genero identitatea bezalako tabuei aurre egiteko beharra dakar. Eta gai horiek kezka eta beldur berriak sortaraziko diete sexologo edo LGBTI laguntza zerbitzuen laguntza bilatuko duten familiei. Ezin ahaztu gainera sexualitatea familiek haurtzaroan zehar ekiditen duten tabu bat dela, baita jazarpen homofoboari aurre egiten zaionean ere.
- Jazarpen homofoboa zuritu eta ezkututzen duen testuinguru honetan, zenbait familiek isolatzeko joera azaltzen dute: ez dute egoera gertuko pertsonekin partekatzen, ezta jazarpenari egiteko babesa eraiki ere. Eta adingabearen heziketari buruzko zalantzak agertzen dute: aukeratzeko askatasuna eman ala jazarpena eta bereizkeria ekar dezakeen jarrera mugatu? Orduan, bereizketa argia egiten dute bizitza pribatu eta publikoaren artean: lehena askeago eta berezkoagoa da; bigarrena, mugatuagoa gizarte arau zehatzei dagokienean.
- Ikusgai denez, transexualitateak ez du arazo berdina planteatzen: familia egoera azaltzera eta publikoki jorraztera behartuta dago. Kasu hauetan familiek gertuko pertsonekin hitz egiten dute eta egoerari aurre egitera behartzen diote hezkuntza komunitateari, jazarpen homofoboa saihesteko.

1.3 I T A L I A

1 Sarrera orokorra eta metodologia

Ondorengoak izan ziren RAINBOW HAS proiektuaren ikerketa eta azterketak Italian:

- Gaiari buruz herrialdean idatziriko lanen biltze eta azterketa.
- Kalitatezko elkarrizketak 11 lekukorekin. Seme-alaba eskolan duten gurasoen artean hautatu genituen estereotipoei eta LGTBI gaien inguruko beldurren, familiaren barruko jarrera homofobo/transfoboaren, horien kudeaketaren eta aniztasun afektibo eta sexualari buruzko diskurtsoaren inguruan genituen datuak osatu ahal izateko.
- Jazarpen homofoboa pairatu duten adingabeen kasu-azterketak elkarrizketa, liburu eta berrien bidez (6 kasu-azterketa).
- Haurrak eta sexu bereko gurasoak dituzten familien kasu-azterketa, elkarrizketa sakonen bidez (4 kasu aztertuta).
- Lan-talde ezberdinak LGTBI elkartetako ordezkariekin, guraso elkartetako ordezkariekin eta hezkuntza arloko hiru mailetako irakasleekin. Xedea zen ikerketa fasean garaturiko ekintza eta jardueren emaitzak eztabaidatzea eta jorraturiko gaiak konpontzea ahalbidetzen duten esku-hartze estrategiak identifikatzea (3 lan-talde, 17 partaide guztira).

2 Testuingurua

Gai honi buruz Italian dagoen ikerketa enpiriko gehiena nahiko berria da eta homosexualitatea familian onartzeko moduak eta familiek beren LGTBI adingabeekin dituzten harreman motak aztertzen ditu. Baita gay eta lesbianak armairutik ateratzeko

dituzten zailtasunak ere. Familiaren erreakzioak aztertu dira eta, bereziki, adingabearen garapenaren aurrean familiak duen erreakzio txarrak dakartzan efektu eta balizko arazo psikologikoak. Antza denez, seme-alaba armairutik ateratzen denean familia italiarrak duten arazo nagusia da zaila egiten zaiela onartzea beren seme-alabak ez duela familia “normal” bat izango.

Argitalpen italiarrek aztertu duten beste gai bat da gurasoen homosexualitatea eta adingabearen hazkundearengan duen eragina. Aipatu familiak ikusgai ez badira ere Italian, babesten dituen legerik ez dagoelako, sexu bereko bikoteen gaiak eztabaida publikoa sortu du azken urteotan. Zehazki, eta familia homosexualak handituz doan heinean, horiek adingabeengan dituzten ondorio psikologiko/sozialak eta gaiak behar duen lege babesak eztabaida publiko handia sortu dute.

Eskoletan ematen den jazarpen homofoboari dagokionean, “Schoolmates” proiektuaren emaitzen arabera (ikasleei buruz dagoen azken ikerketa), galdetutako enpresa mutilei zuzenduriko irain homofoboaren lekuko izan da. Ikasleen % 15 inguru ikasle homosexual baten aurkako isolamenduaren lekuko izan da. Jarrera homofoboak arruntagoak dira mutilen artean nesken artean baino eta erasoaren lekuko izan direnen % 4a soilik ateratzen da sistematikoki biktima aktiboki defendatzera. Ikasleak homofobiaren eta jazarpen homofoboaren inguruan sentsibilizatzeko eskolek ezarri dituzten politikak ez daude orokorki hedatuak Italian zehar.

Italiako LGTBI elkarteek paper garrantzitsua daukate eskola jazarpenaren aurkako borrokan. Informazio-eskuliburuak, urteko txostenak eskolan ematen den homofobiari buruz eta aniztasun afektibo eta sexualari buruzko heziketa emateko liburuak eskaintzen dituzte. Gizarte elkarteek gain, zenbait erakunde publikok ere babesak eskaintzen diete LGTBI pertsonari. Nabarmentzekoa da Turingo Udaleko kasua, LGTBI pertsonen Turinen bizi duten egoerari buruzko ikerketak sustatzeko zerbitzua ireki baitu. Lurralde hartako jendeak homosexualitatea nola hartzen duen aztertu eta LGTBI gaiei buruzko informazioa eskaintzen du. Italia mailan, Aukera Berdintasunerako Ministerioaren mende dagoen UNAR³ saila (arrazakeriaren aurkako saila gisa hasi zena) geroz eta lan handiagoa egiten ari da LGTBI kolektiboaren bereizkeriaren aurkako politikak ezartzeko. 2012ko otsailean Europako Batzordeko LGTBI kolektiboaren bereizkeriaren aurkako programa sinatu zuen, Italiaren izenean.

3 Familien diskurtsoa aniztasun afektibo eta sexualaren inguruan

Elkarrizketatu guraso heterosexual guztiak aitortu zuten oso gutxitan jorratzen dutela afektibotasuna eta sexualitatea (heterosexuala eta homosexuala) beren seme-alabekin; izan ere, galdera zuzenak egiten dituztenean jorratzen dute gaia bereziki. Gai deseroso eta gatazkatsua da beraientzat. Salbuespen bakarra egoera zehatzak dira: seme-alabak

³ Ufficio Nazionale Antidiscriminazioni Razziali (Arrazakeria Bereizkerien Aurkako Bulego Nazionalea).

honekin loturiko zerbait ezagutu eta galderak egiten dizkienean gurasoei. Orokorrean, beren iduriz seme-alabak duen iritzira “egokitzen” dira gurasoak. Guraso gehienek aitortu dute beren seme-alabek ez dituztela “horrelako gaiak” jorratu nahi, edo gazteegiak direla; eta, beste behin, gurasoak deseroso sentitzen direla seme-alabekin sexualitateaz hitz egiten, nahiz eta familia “irekia” edo “askea” dela esan.

Testuinguru horretan, homosexualitatearen inguruko diskurtsoak arantzatuak dirudite. Ez da gauza berdina gertatzen, ordea, arrazakeriaren edo minusbalioengatik bereizkeriarekin, gurasoak preparatuagoak baitirudite (eta sentitzen baitira) aipatuak joratzeko.

Guraso homosexualen ustez, hasieran ugaltzeari buruz hitz egiten diete seme-alabei, ez dutelako sexuari buruz hitz egiteko beharrik. Baina, lehenago edo beranduago, sexuari buruz hitz egitera behartuta ikusten dira, guraso biologikoari buruzko galdera saihestezina prebenitzeko.

Orokorrean, sexualitatea eta harremanak tabua direla ikusi dugu, jorratu beharko ez liratekeen gaiak alegia. Gurasoek ardura eskolaren esku uzten dute. Esan beharra dago halere tabua helduentzako dela soilik; adingabeek askatasun osoz hitz egiten dute gaiari buruz. Homosexualitateaz hitz egitea tabua da aniztasunaz aparte sexualitatea ere hartzen duelako. Guraso heterosexualak galderak daudenean hitz egiten dute soilik sexu eta harremanez; LGTBI gurasoek, ia berdin. Gaia lehenago jorratzen badute, beren seme-alabek lehenago galdetzen dutelako da, gelakideekin (haur-eskolak edo lehen hezkuntzan) alderaketak egiten hasten direnean etorriko diren galdera saihestezinak prebenitzeko. Ezberdintasun nagusia da homosexualak askoz argiago dutela gaiaz hitz egin beharko dutela seme-alabekin eta, ondorioz, hobeto prestatzen direla.

4 Hezkuntza komunitatea aniztasun afektibo eta sexualaren aurrean

Galdeketako guraso guztiak adierazi dute eskolaren esku-hartzeak askoz ere eraginkorragoa izan beharko lukeela, bai jazarpena prebenitzerakoan bai ikasleei heziketa afektibo eta sexuala ematerakoan. Zenbait gurasoek aipatu zuten ere eskolak genero ezberdintasuneko eta sexu joera ezberdinei buruzko heziketa eman beharko lukeela.

Bestalde, irakasleek normalean ez dute informazio nahikorik eta ez dakite nola egin aurre sexu berdineko gurasoak dituzten seme-alaben arazoei. Prestakuntza berezia behar dute gaia joratzeko. Orokorrean, eskolek ez dute erreminta aproposik eskaintzen. Alde batetik, galdetu gurasoek sistema jotzen dute errudun, ez baitago erakundetan garaturiko programa aproposik (Hezkuntza Ministerioa edo udaletxeak); bestetik, irakasleek beren errua dutela diote ere, gaia ikasgelan joratzeko sortzen diren aukerak ez dituztelako aprobetxatzen eta gurasoek eskaintako laguntzari uko egiten diotelako (hau da, ez dute jaso liburu/materialik erabiltzen ikasgelan). Eskoletako sexu eta harremanen inguruko heziketa programak ez du homosexualitatea eta familia aniztasuna hartzen; izan ere,

ez ditu harreman heterosexualak hartzen ere: sexualitatea ikuspegi zientifikotik eta ugaltzearen ikuspegitik azaltzen da. Halaber, adingabeak eskola errendimendu ona azaltzen badu politikarik hoberena gai hau saihestea eta ezkutatzea dela pentsatzen da oraindik. Gaia jorratu zuten irakasleek beren ekimen pertsonalaz egin zuten (informazio eta materialak eskatuz, ikastarotara joanaz, etab.), eta sekretupean zenbaitetan, atentzioa deitu gabe.

Nolanahi ere, irakasleen paper garrantzitsua agerian gelditu da ere: galdeketako pertsonen iritzi, egoera zehatzak sortzen direnean irakasleek gai hauek jorratu behar dituzte ikasgelan, autoritatea diren heinean sexu joera ezberdinak eta sexu bereko gurasoak dituzten familiak legitima baititzakete, ikasleen ahotsa balioetsiz honela.

LGTBI gurasoek aitortzen dutenez, jendea homosexualitateaz hitz egitera eramatea lorpen handia da. Jendea sentsibilizatzeko bi modu daude:

- 'Pasiboki', eskolako jardueretan parte hartuz, guraso eta irakasleekin egonaz eta besteekin hartu-emanak sortuz. Nahikoa izaten da batzuetan jendea sentsibilizatu eta jasanbera egiteko;
- 'Aktiboki', beren egoera azalduz eta hitz eginaz (oraingoan, jendeari zuzendu eta hitz egitera behartuta daude etengabe). Lan-taldetako guraso homosexualek ondo prestatuta eta dokumentatuta zeuden. Beren iritzia dokumentuen bitartez frogatzera behartuta daudela ematen du (beste herrialdetako zenbaki, estatistika, ikerketa eta jardute onak aipatu zituzten). Eskolari materiala (liburuak edo kartelak) eskaintzen diotenak dira normalean, trans/homosexualitatea jorra ditzan. Hein batean, hezitzailearen papera hartzen dute, beren seme-alabekin ez ezik beste adingabe, guraso eta irakaslerekin ere.

24

5 Jazarpen homofobia

Hein batean, ez dago ezberdintasunik jazarpen homofoboaren eta jazarpen orokorraren artean. Batek edo bik dute taldearen kontrola, biktima isolatzen dute eta jazarpena hitzen bidez zein eraso fisikoen bidez gauzatzen da; aztertu genituen kasuetan, halere, hitzeko jazarpena zen nagusi. Jazarpen homofoboari dagokionean, hitzeko erasoak errazenak eta arruntenak dira ziurrenik, jendeak "gay" hitzari ematen dion esanahi iraingarria dela eta. Espresio iraingarriak alde batera utzita ere, "gay" hitzaren erabilerak konnotazio izugarria dauka, ez da inoiz ere deskriptiboa.

Eskola eta irakasleek ez dute prestakuntza nahikorik gai hauek jorratzeko. Informazio eta baliabide eza nabaria agertzen dute. Sexualitatea eta homosexualitatea, zehazki, ez daude eskola curriculumean sartuta. Irakasleek gaiari muzin egiten diote gehienetan, baita ikasgelan jazarpena gertatu denean ere. Ekintza proaktiboa irakasle/zuzendari zehatzen ekimenez dator soilik. Ez dago protokolorik edo ministerioak eman zuzentzaraurik. Honela sailka daitezke irakasleek jazarpen homofoboko kasuetan agertzen dituzten ekintza/erreakzioak:

- Ukapena/Ezaxola: ez zaio aurre egiten arazoari, irakasleak bere existentzia ukatu (“ez dago jazarpen homofoborik eskolan”) edo arazoari muzin egiten diolako;
- Delegazioa: irakasleek ez diote pertsonalki aurre egiten arazoari eta hirugarren baten esku uzten dute (klinika bat, adibidez);
- Ekintza: Norbaitek jazarpenari aurre egiteko ekimena hartzen du (adibidez, manifestazio batera deituz);
- Partaidetza: Irakasleek, erasotzaileak zigortu ordez, irainean parte hartzen dute.

Partaidetza aukerarik okerrera badirudi ere ukapena/ezaxola aukera lehena bezain tamalgarria izan daiteke, erasotzaileen ekintza legitimatu eta bere jarraipena ahalbidetzen baitu. Ondorioz, argi dago irakasleak sensibilizatu eta kontzientziatu beharra dagoela. Irakasleen aurreiritziekin bukatu behar da adingabeen aurreiritziekin bukatu ahal izateko.

6 Aniztasun afektibo eta sexualari eta jazarpen homofobikoari aurre egiteko proposamenak

Aniztasun afektibo eta sexuala eta jazarpen homofoboari aurre egiteko estrategiaren osagai nagusiak ondorengoak dira:

- ‘Heziketa programa; trans/homofobia eta trans/homosexualitateaz gain aniztasunaren onarpen orokorra eta norbanakoaren identitatearen garapena jorratuko ditu.
- ‘Heziketa- eta presio-jardueren xede izango direnak zehaztea ahal den neurrian, irekita eta prestu agertzen diren pertsonak bereziki, aipatuak interes eskasa duten familia eta irakasle heterosexual ugariri zuzendu beharrean.
- ‘Eskolan erabiltzen den lengoaiaren garrantziaz kontzientziatzeko beharra (irakasleek ikasleen familiaren egoera aintzat hartu behar dute; eta liburu eta materialak egokitu beharra dago ere).
- ‘Irakasleek konfiantza nahikoa izan behar dute gai hauen inguruan (bai ezagutzari dagokionean, bai hezitzaile gisa duten garrantziaz jakitun izateari dagokionean).
- ‘Gurasoak hezi eta prestatzeko beharra; bestela, homosexualitatea eta sexualitatea orokorrean tabu izaten jarraituko dute.
- ‘LGTBI guraso, guraso heterosexual eta eskolaren arteko triangulazio bat mesedegarri oso izan badaiteke ere, garrantzitsua da ere guraso heterosexualak inplikatzeko (interesik bakoak ere), jarduera komunak antolatuz edo eztabaida-guneak antolatuz, egon daitezkeen beldurrak uxatu ahal izateko.

1.4 E R R E S U M A B A T U A

1 Sarrera orokorra eta metodologia

Elkarrizketa eta lan-taldeen bitartez, proiektuak jazarpen homofoboarekin bukatzeko funtsezkoak diren familia homosexualen arazo, behar eta estrategiak aztertu ditu. Halaber, jazarpen homofoboa pairatu duten adingabeen kasuak aztertu nahi izan ditu ere. Honela, RAINBOW HASen xedea da aipatu gaiak jorratzeko jardute onak zehaztea eta elkarrizketak garatzea eskola eta gizarte elkarte nagusiekin.

Elkarrizketak egiteko, elkarrizketa-egitarau bat osatu zen. Elkarrizketa guztiak grabatu ziren. RAINBOW HAS proiektuaren kideak, aldagai ezberdinak aplikatuz (etnia, jatorria eta udalerrria), familia ezberdinak aukeratu zituen mendebaldean, erdialdean eta Londresen familia mota guztien benetako lagin bat osatzeko. Azkenean, denbora eta baliabideak mugatuak zirenez, zazpi familia elkarrizketatu ziren soilik. Bost familiak elkarrizketetan parte hartzeari uko egin zioten, arazoak baitzituzten horien izaera "sentikorra"rekin. Elkarrizketatu familia gehienak heterosexualak ziren. 7. familiak aitona-amona homosexual bat zeukan.

2 Testuingurua

Sozializazioa da LGBTI gaien inguruan jendeak duen jarrera baldintzatzen duen funtsezko osagaia. Sexu ezberdintasunaz kontziente den komunitate batean hazi den pertsonak errazago onartzen du ezberdintasuna, aurreiritzi gutxiago dauzka.

Partaide guztiak erlijio ezberdinetako fededunak badira ere, erantzule bakar batek jarraitu du ikuspegi kristau normatiboa delakoa. Ondorioz, esan beharra dago erlijioak ez

duela eragin handirik pertsonen jarrerengan; edo behintzat sozializazioak duena bezain boteretsua.

Partaideen artean ikusitako ezberdintasunik nagusienetako bat sexu identitatea aukeratzeari buruzko iritziei lotuta dago. Erantzule bakar batek esan zuen bere seme-alabak heterosexualak izatea nahiago zuela. Besteek beren seme-alabak zoriontsu izatea nahi zuten; halere, egungo gizartean harreman homosexualak bizi duten egoera ikusita, harreman homosexual batean zoriontsu izatea zailagoa zela aitortzen zuten.

Seme-alabak izateari dagokionean, bikote homosexualek izan ditzaketen arazo eta erronken inguruko kontzientzia altua zen; halere, seme-alabak izateko gogoa duen familia batek aipatua egiteko askea dela aitortzen dute guztiek ere, dena dela bere sexualitatea. Arriskuan dauden adingabeak hartzeko familia onak aurkitzea oso zaila den une honetan, gehienen iritziz gai hau premiazkoa bilakatu da eta, ondorioz, gurasoen sexualitateak ez luke zertan baldintzatu beharrik adingabeen segurtasun eta osasuna.

3 Familien diskurtsoa aniztasun afektibo eta sexualaren inguruan

HAS proiektuko atal honi dagokionean, bost guraso gay eta lesbiana elkarrizketatu genituen, eskolan beren seme-alabekin izan dituzten esperientziaz –familia motarengatik batez ere- eta paira izan dezaketen homofobia arazoei buruz galdetzeko ere.

Gurasoen lagina osatzeko proiektuaren langileen kontaktuak erabili, eskaerak egin genituen lehen eta bigarren hezkuntzako eskoletan eta iragarkiak bidali genizkien gure ikertzaile batek iragan proiektu batean ezagutu zituen zenbait familia lesbianeiei. Familia guztiek esana zuten eskoletan guraso gay edo lesbianak zirela. Eskolak Londres eta Londres Handia eremuan kokatuta zeuden.

Elkarrizketa malguak egin genizkien aukeratu bost familiei. HEUROPEAN HAS proiektuko zuzendaritzak zehazturiko aztergaiak egokitu eta zuzendu genituen, Erresuma Batuko familia eta pertsonen sentiberatasunak islatzeko. Adibidez, “sexu bereko gurasoak dituzten familiak” esaldiaren orde, familia gay eta lesbianeiz hitz egiten dugu guk. Itzulpenarekin loturiko gauza izan daiteke. Nolanahi ere, gure ikertzaileek jorratu beharreko hiru gaiak eta hauekin loturiko galdera ezberdinak adostu zituzten. Elkarrizketen xede nagusia familiek beren esperientzien inguruan duten kontaketa lortzea zenez, nabaria zen okerra izango zela partaideen kontaketa etetea atal edo alderdi zehatzen narrazio kronologikoa bermatu ahal izateko. Ondorioz, galdera nagusiak gaika antolatuta zeuden eta beste galdera guztiak lehenak osatzeko baino ez ziren.

4 Hezkuntza komunitatea aniztasun afektibo eta sexualaren aurrean

Txosten honetarako, bildutako datuen gaikako azterketa European HAS zuzendaritza batzordearen gidalerroekin bat egin da. Elkarrizketan erabili galderak Europa mailako

zuzendaritza batzordearen gidalerroekin bat egin ziren. Zehazki, ikertu nahi genituen gaiak honako hauek ziren:

- familiek eskoletan izan dituzten arazoak eta hauek konpontzeko garatu diren estrategiak;
- harremanak familiaren baitan;
- familia/eskola aliantzak.

Goiko gaiak ikerketa fasean zehar aurkituriko hausnarketa-alderdi nagusienak egituratzea zuten helburu.

Familia guztiek beren familia egitura bereziarekin loturiko eskola giroko arazo bat antzemana zeukaten. Irakasle, adingabeen eta gurasoen aurrean behin eta berriz “armairutik ateratzeko” beharra aipatzen zuten familia guztiek. Halere, gurasoek agerian utzi dute beren estrategia propioak garatu dituztela beren seme-alabei ahalik eta hezkuntza esperientziarik hoberena bermatu ahal izateko. Aipatu estrategien artean zeuden: irakasleari familiaren izaera azaltzea kurtso hasieran, guraso-irakasle elkartean sartzea eta aktiboki parte hartzea eskolako bizitzan eta ikusgai izatea jolastokian.



Gurasoek, era berean, garatu beharreko arlo ezberdinak azpimarratu zituzten. Horretarako, eskolak gai eta arazo hauei aurre egiteko dituzten estrategia eta ekintzak berraztertzea behartuta daude. Zenbait gurasoek adierazi zuten, beren sexualitatea ez du inolako garrantzirik bere seme-alaben hezkuntzari edo eskolari dagokionean. Garrantzitsua da aniztasunaren inguruko –orokorrean, ez LGTBI kolektiboari mugatua- erakunde-politika irmo eta irekia aplikatzea eskolan.

Bigarren hezkuntzako ikasleei dagokionean, adingabeek aliantza ezberdinak era ditzakete babes moduan. Azkenik, ondorengo faktoreak funtsezkoak dira: eskolak politika aproposa izatea, legeak berdintasunari buruz dioenaren inguruko ezagutza nahikoa izatea, jarrera proaktiboa izatea norbanakoen eskubideak babesean eta aipatu babesa komunitatearen eragileekin hasiriko hartu-eman eraginkor batean oinarritzea.

5 Jazarpen homofobia

Elkarrizketa ezberdinak egin genituen bigarren hezkuntzako eta herri erakundetako laguntza zerbitzuetako zenbait eragilerekin, txosten honetan aurkezturiko kasu-azterketei buruzko materiala bildu ahal izateko. Middlesex HAS taldeak adingabeekin ez hitz egitea erabaki zuen, jorratuko zen gaiak dakartzan osagai etikoak zirela eta.

Normalean egiten den bezalaxe, galdera zerrenda zehatz bat erabili genuen, herrialde ezberdinetan bilduriko informazioen arteko koherentzia ziurtatzeko. Halere, elkarrizketa malguak izan ziren, irakasle edo eragileen kontaketa osoa jaso ahal izateko.

Horrenbestez, kasu-azterketen bilketa askoz errazagoa izan zen. Txostenaren lehen atalak lau kasu-azterketa azaltzen ditu, kasu bakoitzari buruzko iruzkin txiki batekin. Bigarren atalak bosgarren azterketa bat aurkezten du eta aipatu kasuetatik eta txostenaren inguruan eginiko zenbait elkarrizketatik ateratako osagai komunak zehazten ditu.

Aipatu kasu-azterketatan osagai komunak aurkitu dira eskolek jazarpenari -orokorrean- aurre egiteko aplikatzen dituzten estrategiaiei inguruan.

- Eskolak politika zehaztu bat izatea ez da nahikoa.
- Eskolak jazarpenari aurre egiteari dagokionean duen kultura garrantzitsua da; hau da, jaso duten jazarpen salaketei irakasleek ematen dieten erantzuna.
- Jazarpen homofoboaren kasuan, jendearen balore eta aurreiritziak beren eragina izan dezakete aipatu erantzunarengan. Eta berdin bestelako jazarpen motekin ere.
- Zenbaitetan, zio ezberdinengatik zaurgarriak diren adingabeen kasuan, erakunde ezberdinen arteko erantzun bateratu bat aplikatu beharra dago.

Irakasle guztiek jazarpena pairatu duten adingabeei eman beharreko laguntzari buruzko oinarritzko prestakuntza izan beharko lukete. Eta honela, adingabeak izan behar du jomuga, prozedura baino.

6 Aniztasun afektibo eta sexualari eta jazarpen homofobikoari aurre egiteko proposamenak

Txosten honen xede nagusia da Erresuma Batuko –eta Ingalaterrakoak bereziko– lehen eta bigarren hezkuntzako eskolek eskolan ematen den jazarpen homofoboari aurre egiteko agertzen dituzten jardute onak zehaztea. Horretarako, elkarrizketa ugari egin zitzaizen lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleei, eskolak jazarpen homofoboaren inguruan zuen jardute ona ezagutu ahal izateko. Hautaketa-metodo zehatzak erabili genituen, kontaktu eta arlo honetan aditu diren pertsona ezberdinen gomendiotan oinarrituta. Kasu-azterketa batzuk aurkeztuko ditugu eta, aipatueta oinarrituta, eskuragarri dauden jardute onen inguruko ondorioak zehaztuko ditugu.

Ondorioak

Gomendioak aipatu kasu-azterketatik, Stonewall heziketa-saio ezberdinetatik (ikus 2.5 kapitulua) eta Stonewall webgunean zehazturiko eskola giroko jardute onetatik atera ditugu.

- Eskolan egon daitezkeen balizko arazoak onartu eta benetan ebaluatu beharra dago. Hasi aurretik, garrantzitsua da eskolak izan ditzakeen arazoak ezagutzea eta aipatuei aurre egiteko modurik onenak aztertzea. Aniztasuna eta ezberdintasuna goraiatzeko lanak diskurtsoez haraindi joan beharko luke; kaltegarria izango litzateke bestela. Horren ordez, eskolarik hoberenek aipatu gaia curriculumean eta eskolaren bizitzan txertatu dute.
- Goitik hasi: Eraginkorra izateko jazarpen homofoboaren aurka, eskola osoa hartuko duen estrategia aplikatu beharra dago eta arduradunek lidergo eta eredu bikaina izan behar dute. Eskolako arduradunek lan horrek duen garrantzia eskola komunitate osoari argi adierazteko ardura dute. Arduradunen jokabidea gaiari ematen zaion garrantziaren isla da eta arazorik balego zuzendaritzaren babesa izango dutela adierazten die langileei. Homofobiari aurre egiteko erantzukizuna pertsona bakar baten esku utziz gero borroka hori hutsala izango da, eraginik gabekoa, eta arazoak ekarriko ditu. Zilegi da egin beharreko lanaren koordinazioa eta lidergoa norbaiten esku uztea, baina eskolako langile guztiak beren ardura argi izan behar dute; halaber, arduradunen babesa eta laguntza jaso beharko dute jazarpen kasuren bat agertuz gero.
- Ikasleak inplikatu: Langileez gain, eskolarik onenak ikasleak dituzte inplikaturik ere; eta estrategia abiarazi bezain laster. Ikasleek egin beharreko lanean lagun dezakete eta esku-hartzea beharrezko duten guneak adierazi ere. Ikasleek jazarpenaren aurkako strategiaren diseinuan inplikaturik gero, ostera horren aplikazioan lagunduko dute ere. Eskola batzuetan eskola batzordea izan da estrategia diseinatu duena; ondorioz, bere kideak strategiaren enbaxadore bilakatu dira. Ikasleen ordezkariak, halaber, paper aktiboa dauka strategiaren garapenean.
- Jazarpen homofoboa espresuki adierazi beharra dago jazarpenaren aurka eskolak duen estrategian: jazarpenaren aurkako estrategia ikusgai egin eskola komunitatearen

aurrean; horretarako, irakasleen gidaliburuak, ikasleen agendak, eskolako liburuxkak, webgunea eta iragarki taulak erabili. Estrategia eta bere prozedurak behar bezala aplikatzen direla bermatu.

- Jazarpen homofoboarekin lotu gertaerak artxibatu eta jarraitu itzazue: egungo artxibatze eta jarraipen sistemak zabaldu jazarpen homofoboaren erantzeko, eta arrazakeria gertaerekin jarraitzen den ereduak aplikatu iezaiozue ere jazarpen homofoboari.
- Heziketa programak gauza itzazue eskolako langileentzat: Heziketa apropos baten falta arazo latza izan daiteke eskoletan jazarpen homofoboari aurre egin ahal izateko. Heziketa langile guztiei eskaini. Eskolak eskaintzen duen laguntzak jasangarria izan behar du; ez da komeni ardura irakasle lesbiana, gay edo bisexualen esku uztea soilik, edo aditu diren langileen esku. Heziketari esker langileak, konfiantza handiagoa izateaz gain, eraginkorrak dira jazarpen homofoboaren aurkako borrokan (Stonewalleko Celebrating Difference DVDak heziketa bikaina eskaintzen du eta erraz asko sar daiteke langileei zuzenduriko heziketa jardunaldi batean).

Jazarpen homofoboarekin bukatu eta hizkuntza aproposaren erabilera bermatzeko, ikasleak familiaren arloan dagoen aniztasun eta ezberdintasunaren inguruan sensibilizatu beharko ditu eskolak. Eta, horretarako, aukeretako bat da familia aniztasuna eskolako curriculumean sartzea -sexu bereko gurasoak dituzten familiak barne-.

- Curriculum inklusiboa diseinatu: adingabeentzako betiko ipuin gehienak homosexualak eta familia ezberdinak baztertu eta harreman heterosexualetan oinarritu ohi dira. Halere, sexu bereko gurasoak agertu eta estereotipoak apurtzen dituzten kalitatezko haurrentzako liburu ugari dago egun. Eskola gehienak jendea eta kulturen arteko ezberdintasuna islatzen duen eskola materialez hornituta daude egun. Zabaldu itzazue aurrekoak irakasleen artean; halaber, eduki horiek erabiltzen treba itzazue irakasleak. Aipatu liburuak lehen hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude eta beren adinera egokituta daude. Liburuak taldeka erabil daitezke, ariketetan sartu edo apaletan bertan utzi beste liburuekin batera. Egoki daitezkeenez, ipuinak jarduera, joko, eskola-antzerki edo ipuin-kontaktetan oinarria izan daitezke.
- Jazarpen homofoboaren aurkako kartelak jarri eskolako paretetan: Stonewalleko Different Families kartelak aproposak dira hasteko. Eskola leku tolerantia eta aniztasun delako argi uzteaz gain, eztabaida sortuko dute ikasleen artean; halaber, ikasleek dauden familia ezberdinak ezagutuko dituzte. Kartelak taldeka azter daitezke ere; ikasleek kartelak ikusi eta gero, beren familia marraztuko dute eta, ondoren, gelakideekin alderatuko dute familia ezberdinak ezagutzeko. Azkenik, familia bat zerk egiten duen familia eztabaidatzeko oinarria izan daitezke kartelak: honela, ikasleak “maitasuna”, “babesa” eta “elkarren arteko errespetua” direla -eta ez familia-kideak- ohartuko dira segituan.

1.5 P O L O N I A

32

1 Sarrera orokorra eta metodologia

RAINBOW HAS proiektuak Polonia gauzatu zituen ikerketa jarduerak ondorengoak dira:

- Poloniako LGTBI familien eta LGTBI seme-alabak dituzten familien inguruko datu zientifikoen bilaketa eta analisisia; LGTBI pertsonen posizio sozialarengan eragin handiago duten gizarte jazoera eta praktiken (aktibista eta diskurtso politikoak bereziki) hautaketa eta adierazpena, arreta berezia eskainiz familiari loturiko gaiei; GKEek familia eredu aniztasuna eta aniztasun afektibo eta sexuala eskola arloan sustatzeko egin dituzten esfortzuen deskribapena.
- Kalitatezko 10 elkarrizketa hezkuntza arloan aktiboki aritzen diren 10 gurasorekin (eskola elkarteak, eskolan inplikaturiko gurasoak eta hezkuntza sistemako aktibistak). Parte-hartzailetako batek, Joana Tomaszewska doktoreak, gizarte bazterketa, bereizkeria, aniztasuna eta ezberdintasunari buruzko heziketa eskaintzen die irakasleei, erreminta berezien bidez, eta Europako diru-laguntzak jaso ditu horretarako. Sexu bereko gurasoek dituzten familien kasuan, ordea, elkarrizketatu pertsona gehienek ez dute aktiboki parte hartzen hezkuntza arloan, beren familiaren izaeragatik batez ere.
- Adingabeen kasu-azterketak – Eskolan jazarpen homofoboa pairatu duten haurrak (5 kasu-azterketa).
- Haurrak eta sexu bereko gurasoak dituzten familien kasu-azterketak (8 elkarrizketa; txostenean 4 azaldu dira) RAINBOW HAS Rights through Alliances: Innovating and Networking Both Within Homes And Schools – Aliantzak Eskubideen Alde: Berrikuntza eta Lankidetzaren Etxe zein Eskoletan.

- Azkenik, lan-taldeak osatu ziren LGTBI erakunde, guraso elkarte, irakasle eta abarren ordezkariekin. Gizarte testuinguruak ez zuen aipatu metodologia ahalbidetzen eta, ondorioz, eragile bakoitzeko ordezkariak banan bana elkarriketatu behar izan genituen. Ondoren, ikertzaileek beren ikuspuntuak alderatu eta eztabaidatu zituzten (2 lan-talde orain arte, 7 partaide).

2 Testuingurua

Datu zientifiko gutxi dago Polonian gai honen inguruan, batez ere sexu bereko gurasoak duten familien eta haurrak eta LGTBI seme-alabak dituzten familien egoera psikologikoari eta ongizateari dagokionean. Gai hauek jorratzen dituzten adituek oso gutxitan aipatzen dituzte Poloniako datuak. Aipatu egoera bukatzeaz egon daiteke, ordea, aipatu familien egoerak ikertzaile eta psikologo poloniarren arreta deitu baitu eta diru-laguntza ezberdinak eman baitira gaia aztertu ahal izateko.

Orain arte, ikerketa eta argitalpen gehienak Poloniako GKEak eginak dira: Campaign Against Homophobia eta/edo Lambda adibidez. Familia eta hezkuntzari buruzko galderak ondorengo gaiak jorratzen zituzten bereziki: 1. Indarkeria eta jazarpena; 2. Irakasleen heziketa bereizkeriari dagokionean (atera dugun ondorioa da irakasleek ez dutela mota horretako heziketarik eta aipatua ez zaiela inoiz eskatzen beren laneko bizitzan zehar. Zenbaitetan gai honen inguruko mintegietan parte hartu badute ere, horrek ez du esan nahi LGTBI kolektiboaren aldeko jarrerak gara dituztenik); irakasle eta heterosexualak ez diren ikasleentzako heziketa materialak (armairutik nola atera eta inguruko babesa nola ziurtatu jorratzen dute batez ere). Homofobiaren Aurkako Kanpainaren ikerketak frogatu zuenez, indarkeria jazoerak eskola eta unibertsitatean zein familian ematen dira gehienetan. Indarkeria mota arruntenak honako hauek dira: hitzezko jazarpena, xantaia eta indarkeria fisikoa pairatzeko mehatxuak.

Deigarria izan zen irakasleak eta ikasleak bi mundu ezberdineko biztanle diruditelako. Irakasleek homofobiaren gaia zuzenean eta sarritan jorratzen dutela dioten bitartean, gaiak eskolan apenas ez duela presentziarik uste dute ikasleek.

Jazarpen kasuetan LGTBI ikasle, adingabe eta familiek jasotzen duten babesa GKEetatik dator batez ere. Laguntza psikologiko eta juridikoa eskaintzen dute. Egun arte, GKEak izan dira ere irakasleei eskaini bereizkeriaren aurkako heziketaren ardura izan dutenak. Poloniako gobernuaren politika askoz ere zuhurragoa izateaz gain, gerturatze prozesu aktiboagoa erakutsi du ere.

3 Familien diskurtsoa aniztasun afektibo eta sexualaren inguruan

Elkarriketatu guraso heterosexual gehienek beren seme-alaben hezkuntza sexualaren arduradunak direla diote eta hezkuntza sexuala eskolan halabeharrez emateko aukeraren aurka ageri dira. Gorputz, fisiologia eta sexualitatearen gaia jorratuz gero, kontu handiz egiten dute. Eta ez badute jorratzen (gutxiengoak ez du egiten) beren seme-alabaren

garapenaren baitan aukera hobeto baten zain daudelako edo eskolak egitea espero dutelako da. Gaiari buruzko hitzaldiak hasteari dagokionean, guraso eta adingabeek egin dezakete. Guraso heterosexualek homosexualitatearen gaia baztertzen dute. Seme-alabak gai horren inguruko hitzaldi bat "jarraibidetzat" har dezakeelaz ere beldur dira (eskolan batez ere). Homosexualitatea aukera kontua dela uste dute funtsean. Beren ustez, seme-alaba homosexuala balitz erabat babestuko lukete baina balore-gatazka bat biziko lukete ere. Seme-alaba homosexuala balitz deitoratuko luketena ez da familia tradizionalik ez lukeela izango, familia barruko balore-transmisioaren galera baizik. Nolanahi ere, guraso heterosexualek LGBTI bikoteen alde ageri dira eta beraiantzako irtenbide juridikoen alde bozkatuko lukete. Nabarmentzekoa ere horietako zenbait adoptatzeko eskubidea aitortzen dietela bikote homosexuali (emakumezkoen bikoteei bereziki). Halere, familia horiek ezberdinak direla adierazten dute eta eskola hezkuntzak edo gizarte diskurtso orokorrek alderdi hori ezkututzen saiatu beharko lirakeela diote. Betiko familia tradizionala funtsezkoa bada ere, guraso heterosexualek hezkuntza sisteman aldaketak egitearen alde daude (guraso bakarreko familiak, bikote dibortziatuak, etab.), aniztasunaren gaia jorratu ahal izateko.

Guraso heterosexualek ez dute arazorik sexualitatearen gaiarekin. Horietako zenbaitek beren seme-alabak oso goiz hezten dituzte fisiologia, ugaltzea eta abarren inguruan. Guraso heterosexualek gehiago nabarmentzen dute hezkuntza sexuala eta bereizkeriaren aurkako gaiak eskolan jorrazteko dagoen beharra. Itxaropen gutxi dute halere beren iduriz irakasle poloniarrek konbentzional, tradizionalista eta lanaz unatuta baitaude. Guraso heterosexualek bereizkeriaren hezkuntza ez dagoela irakasleen esku uzterik uste dute ere, sinesgarritasun falta handia agertzen baitute. Guraso guztiek nabarmendu dute ere irakasleak beren gainbegiralearen mende daudela askotan eta honek irakaslearen jarrera sustatu edo muga dezakeela. Ondorioz, guraso guztien ustez irakasleak trebatu beharra dago hasteko. Erljioa garrantzi handia duen osagai gisa ageri zaigu. Hiru alderdi aipatu ziren: galdetu pertsonen sineste eta baloreak, erlijioaren irakaskuntza eskoletan eta Eliza Katolikoak Poloniako biztanleriarengan duen eragina (hezkuntza sistemara ere hedatzen den eragina).

Aipagarriak dira ere sexu bereko gurasoak dituzten familiei egin elkarrizketetatik ateratu ondorioak. Lehenik, familia gehienek ez zuten arazorik izan armairutik ateratzeko eta gizarteari beren errealitatea ezagutzeko aukera eman behar zaiola uste dute. Ondorioz, mota honetako familiek bizitza irekiagoa izan beharko luketela uste dute. Aldi berean, galdetu familiak ezkutututa bizi dira balizko arazoetatik babestuta egoteko edo beren seme-alaben "jarraibide"ei jarraitzeko egoerari aurre egiteari dagokionean. Sexu bereko gurasoak dituzten familiek beren seme-alaben nahiak betetzen dituzte, bizi duten gizarte estigmaren zama handiena daramatelako ustean. Nabarmentzekoa ere familia heterosexualen kasuan senarraren erreakzioak pisu handia duela familiaren gizarte ongizaterako. Halaber, sexu bereko gurasoak dituzten familiek oso gutxitan izan dute beren egoerari buruz irakasle batekin hitz egiteko aukera (gizarte eskoletan salbu).

Findings

- 1.3 children and young people who have experienced homophobic bullying
- Voice of the child
- Authenticity of the school's response - having policies is not enough on its own
- Role of lgbt staff not being 'out' in school – why that might be.
- All staff should know how to respond to bullying

"Alright, straight boy"

"ANYONE CAN EXPERIENCE HOMOPHOBIC BULLYING NO MATTER WHO YOU ARE"

35

Irakasleak beren lanaz unatuta daudela uste denez, ulertzekoa da aurrekoa. Zertarako hitz egin bost axola bazaie?

4 Hezkuntza komunitatea aniztasun afektibo eta sexualaren aurrean

Guraso guztien ustez, Poloniako hiri handietan bizi diren adingabeek eta hiri edo herri txikietan bizi diren adingabeek aldera ezinak diren gizarte egoerak bizi dituzte. Varsovia bizi direnek ez dute homofobiarik pairatu eskolan eta ez dute apenas horren inguruko berririk izan. Halere, "marika" ikasleen artean gehien erabiltzen den hitza dela adierazten dute denek. Homofobia gutxi dagoela adierazten bada ere, bitxia da sexu bereko gurasoak dituzten familietako adingabeek beren egoera ezkutatzan dutela. Guztiek (gizarte eskoletara doazenak ere) ikasi dute beren egoera maneiatu eta ezkutatzeko modua. Eta honela argi gelditzen da gutxiengo bateko kide den adingabeak (LGTBI adingabea edo sexu bereko gurasoak dituzten familietako adingabeak) beren izaera gutxitua bikoizteko aukera dutela (erlijio eskolak hartzen ez duen edo sakramentuetan parte hartzen ez duen gutxiengo horretakoa, adibidez).

Guraso guztien ustez "familia bizitzarako heziketa" ez da irakasgairik aproposena sexualitatea jorrazteko. Galdetu pertsonen artean inork ez zuen eskolako curriculumaz ezagutzen. Homofobiaren biktima izan direnen kasuek frogatu dutenez, ordea,

irakasgaiak aukera ezin hobe eskaintzen du bereizkeria jorrazteko eta homosexualari buruzko jarrerak ebaluatu ahal izateko.

Guraso zein ikasle guztien iduriz (kasu-azterketen kasuan), irakasleak ezgauza ageri dira homofobia kasu bat agertzen denean. Ez dakite nola erreakzionatu, ezin dituzte hitz aproposak aurkitu eta, zenbaitetan, erasotzailearen beldur dira ere. Galdetu pertsona guztien iritziz irakasleek heziketa eta trebakuntza behar dute bereizkeriaren aurkako estrategiak aplikatzen hasi aurretik. Zertarako beharko luketen aipatu heziketa?

Ba sexualitatea, genero identitate eta abarrei buruz duten jarrera eta iritzi pertsonalak aldatzeko, beren hizkuntza gaitasunak hobetzeko (gauzak nola izendatu, zer esan daitekeen eta zer ez), homofobia modu arruntenak identifikatu ahal izateko (irainak esaterako), eta erasotzaile zein biktimarekin nola lan egin ikasteko.

Dirudenez, datu zientifikoei jo ordez, irakasleek homosexualitateari buruz duten iritzi eta jarrera pertsonaletan oinarritzen dira.

5 Jazarpen homofobia

Ikerketan lorturiko datuez frogatzen dutenez, Poloniako LGTBI adingabeek normalean ez badute homofobiarik pairatzen ere -eta mota horretako kasu gutxi ezagutzen badituzte ere-, homofobia kasu bat agertzen denean irakasleak ezgauza dira aipatuei aurre egiteko, ez dira egoerari aurre egiteko gai, eta adingabeak bakarrik gelditzen dira. Horrek egoera arriskutsuak ekar ditzake LGTBI adingabeentzat, buruaz beste egiteko saiakerak barne. Garrantzi gutxiko homofobia kasuetan, adingabeak irakaslearen babesa lor dezake. Kasu serioak badira, ordea, irakasleak ez du kasuari aurre egiteko gaitasunik, bere aurreiritzi pertsonalen gatibu da. Ukapena eta ezaxola erreakzio bat da; babes hotzila bestea, askoz ere urriagoa. Eta bien artean, ia ezer. Erasotzaileari ezartzen zaion zigorrik arruntena da elkarrizketa bat zuzendariarekin, bere jarreraren inguruan. Erasotzaileak ez du eskola aldatzeko beharrik ikusten. Biktima da eskola aldatu behar edo nahi duena.

6 Aniztasun afektibo eta sexualari eta jazarpen homofobikoari aurre egiteko proposamenak

Aniztasun afektibo eta sexuala eta jazarpen homofoboari aurre egiteko estrategiaren osagai nagusiak ondorengoak dira:

- Heziketa saioak irakasleentzat. Halere, gainbegirale zuzenarekiko (zuzendaria normalean) duten mendekotasuna gutxitzen joateko, Poloniako agintariak emantzipazioaren alde daudela argi utzi beharko liekete irakasleei.
- Heziketa saioek aniztasuna jorratu beharko lukete orokorrean, eta familia eredu ezberdinak, ez LGTBI familiak bakarrik.
- Arreta berezia jarri beharko litzateke LGTBI adingabeen esperientzia afektiboan.
- Hizkuntza eta lengoia jorratu beharra dago ere.

- Irakasleek ez dute gaitasunik erasotzailearekin hitz egiteko eta, ondorioz, heziketan jorratu beharreko alderdia izan beharko litzateke hori.
- Tradizionalagoak diren inguruetan lan handiagoa egin beharra dago, hiri eta herri txikiak.
- Hezitzaileek LGTBI gaien erlijio alderdiez hitz egiteko gaitasuna eta heziketa izan behar dute.
- Oso zaila da guraso heterosexualak inplikatzeko, ez baitute inolako interesik guraso LGTBI eta heterosexualen aliantza bat sortzeko eskolaren baitan. Jarduera ezberdinak abiaraztea komeniko litzateke (Italiako atalak azaltzen duenez).





Jardute onak - Sarrera

Atal honek aniztasun afektibo eta sexuala eta genero identitatearen inguruan laguntza eta heziketa erakundeek familiei eskaintzen dizkieten estrategien arteko jardute onak aurkeztuko ditu. Eta hori parte hartu duten bost herrialdetan: Bulgaria, Espainia, Italia, Polonia eta Erresuma Batua.

Guztira, 22 jardute on bildu dira: 3 Bulgarian, 6 Espainian, 7 Italian, 2 Polonian eta 4 Erresuma Batuan. Jarduteek egoera anitzak hartzen dituzte LGTBI kolektiboaren onarpenaren testuinguruan, eta bereziki eskola eta familiei dagokienean.

Oso zaila izan zen familiak eskola jardueretan inplikatzeko ahalbidetuko zuten jarduteak aurkitzea eta ezinezkoa aniztasun afektibo eta sexualari eta jazarpen homofoboari aurkako borrokan familiak eta irakasleak batzen zituen jarduterik lantzea, ikerketa lanaren ondorioa berresten duena (ikus 1. kapitulua):

lehentasunezko gai horien inguruko jardute onak eskasak izaki, jomuga hedatu eta gai eta estrategia ezberdinekin loturiko jardute onak bilatu ziren, ondoren laburtzen den bezala. Nabarmenezkoa bilduriko jardute on gehienak ondoren zerrendaturiko estrategietako bat baino gehiago hartzen dituztela.

- Sentsibilizazio kanpainak familia, adingabe eta eskolei zuzenduta.
- Aholkularitza eta babes zerbitzuak LGTBI norbanakoentzat, beren familientzat eta, orokorrean, indarkeriaren biktima diren adingabeentzat edo gizarte bereizkeria pairatzeko arriskuan dauden pertsonentzat.
- Aniztasun afektibo eta sexualari buruzko heziketa. Irakasleei zuzenduta bereziki; baina baita polizia, udal langile edo familiei ere.

- Esku-hartze eta jarduteak eskoletan, bizikidetza eta aniztasuna sustatu eta jazarpen homofobia prebenitzeko. Aipatuetan sartuko dira ere heziketa programak eta materialen diseinu eta hedatzea, ondorengo gaien inguruan: aniztasuna, generoa, sexualitatea eta aniztasun afektibo eta sexuala.
- Xede bakar batekin eraturiko lankidetzak eta auzolan proiektuak; esaterako, guraso bakarreko familiak babesteko abokatu sarea.

Azpimarratu beharra dago hautaturiko zenbait esperientzia eragile ezberdinen arteko lankidetzaren fruitu zirela. Ondorioz, balio erantsia ematen diote proiektu honi, bere xedetako bat eragile ezberdinen arteko aliantzak eta sareak sortzea eta sustatzea baita. Era berean, zenbait esperientzia erakunde publikoen eta LGTBI elkarten arteko lankidetzaren fruitu dira. Unibertsitate arloko ikerketa taldeek, hezkuntza erakundeek, ongintzako elkarteek eta enbaxadek paper garrantzitsua izan dute ere jardute onen garapenean.

Ondoren zehazturiko praktika onek balorazio positiboa jaso eta eragin positiboa izan dute beren ingurugiroan. Horrenbestez, esperientzia arrakastatsuak beste testuingurutan errepikatzeak gakoak izan daitezke gure ustez, ideia praktikoak eskainiz edo indarreko jarduteak hobetuz. Eskema moduan azaltzen ditugu, formatu berbera jarraituz: azalpena, justifikazioa, xede eta hartzaileak; gai zehatzak, indarrak, ahuleziak eta berrikuntza maila; eta elkarrekin edo sarean lan egiteko mekanismoak.

2.1 B U L G A R I A (1. KASUA)

Erakunde Mota:

Gobernuz kanpoko erakundea (GKE)

Erakundearen Izena:

“Action” LGTBI gazte erakundea

Galdetutako pertsonak eta erakundearen duten posizioa:

Nadejda Teneva

Proiektuaren Izenburua

“My Disclosure”

Proiektuaren Justifikazioa

Istoriek Bulgariako homosexual, bisexual eta transgenero gazteek bizi duten errealitatea islatzen dute, egiazki: beren hitz propioez.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Xede nagusia da bihotz ematea beren hazkundera bizirik kalte emozional eta psikologikoekin borrokan dauden Bulgariako homosexual eta transgeneroei. Bilduma aurreiritziak gainditu eta beren seme-alaba homosexualak babestu nahi dituzten gurasoei laguntzeko diseinatua izan zen.

Gauzaturiko esku-hartzea

“My Disclosure” proiektua 2010eko urrian hasi zen, Disclosure LGTBI pertsona eta beren familiei zuzenduriko lehen webgune bulgariarra sortu zenean. Sortzaileen nahia zen pertsona arrunten istorio eta kontseilu pertsonalak eskaintzea armairutik ateratzeko prozesuaren hastapenetan zeuden pertsoneri.

Indarrean egon zen bi urtetan 6.000 erabiltzailek bisitatu zuten www.razkrivane.org webgunea.

Ziberespazioko proiektu hori denontzat eskuragarri egongo zen liburu-bilduma bilakatzeko ideia 2012n agertu zen. Egileek, aipatu bilduma gai garrantzitsu honen inguruko eztabaida publikoa eta hezkuntza publikoa sustatuko zuela uste zuten.

25 egile dira eta bilduma osatzen duten liburuetan beren esperientziak azaltzen dituzte, haurtzarotik helduarora arte: oroitzapen txarrak zein anekdota barregarrien bidez, bizitako etsipena eta jasotako babesa azaltzen dute. Adin askotariko lagunak dira, 17-40 urte bitartekoak. Ingurune ezberdinetan hazi ziren, Tutrakanetik Sofiara, eta bizipen ezberdinak dituzte: batzuk onartuak izan baziren ere, beste zenbaitzuek ukapena eta indarkeria ere pairatu zuten. Beren ogibideak ugariak dira ere: programatzailea, margolaria, linguistika ikasleak, ostalaritzako langilea, abokatua, profesionala, militarra eta abar. Komunean duten osagaia honakoa hau da: beren barneko izuak, kanpoko jazoerak gainditzeko eta bizitza zintzo bat eraikitzeke kemena.

42

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

- Beren hazkundean zehar genero rol heterosexualak sustatzen dituen gure gizartearen presioari aurre egiteko arazoak izan dituzten homosexual, bisexual eta transgeneroak.
- Aurreiritzi, estereotipo eta hezkuntzaren inguruko printzipioak direla eta beren seme-alaben laguntza-eskaera ozena entzuteko gai izan ez diren gurasoak. Laguntzeko nahiak bultzatuta, kalte handiak sortzen dituzte.
- Jendarte orokorrean, sexu joera ezberdineko pertsonen eta beren familien arazoak hedatzeko xedearekin.

Proiektuan inplikaturiko langileak

“My disclosure” bilduma idazteko eta argitaratzeko proiektua “Action” LGTBI gazte erakundeko boluntarioen esku egon da. Proiektuak Gazte Ekimenak Babesteko “Alert” eta “Fund 2012” Herbehereetako Funtsen laguntza jaso du.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Sexu joera ezberdineko pertsonen benetako arazoak “azalarazten ditu”. Jendeari “bakarrik ez dagoela” adierazten dio, armairutik atera eta sexu joera onartzera arte

bizi daitezkeen arazoak gaintu dituzten pertsonak daudela erakusten du. Familiak adingabeen ongizaterako duen garrantzia azpimarratzen du, elkarren arteko loturak sendotu eta indarkeria eta bereizkeriarengandik babesten baititu.

Bilduma guztiontzat dago eskuragarri, erakundearen webgunean. Doan behera karga daiteke.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Ahuleziarik ez.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Proiektua aitzindari izan da Bulgarian: lesbiana, gay, bisexual eta transgeneroen istorioak argitaratu dituen lehen bilduma bulgariarra da.

B U L G A R I A

(2. KASUA)

Erakunde Mota:

Gizarte zerbitzuak, udal erakundea

43

Erakundearen Izena:

Arrisku Egoeran dauden Adingabe eta Familientzako Gizarte Zerbitzuak Bourgas Udalerrian

Galdetutako pertsonak eta erakundearen duten posizioa:

Maria Atanasova (Kudeatzailea)

Proiektuaren Izenburua

“BLUE ROOMS” GELEN ALDE; aipatuak gela adiskidetsuak dira, adingabeek testigantza eman dezaten epaitegietan. “Especializatutako” gelak dira. Adingabeek legegatazketan testigantza eman dezaten prestatuta daude, audio eta bideo ekipamenduz hornituta. Bulgarian 13 “Blue rooms” gela daude guztira.

Proiektuaren Justifikazioa

Indarkeriaren edo edozein motako krimen baten biktima edo lekuko den adingabea, jazarpen eta/edo jarrera homofoboaren ondorio den krimen baten biktima edo lekuko diren adingabeak barne.

Eraikinak indarkeriaren biktima diren 50 adingabe inguru artatzen ditu urtean. Indarkeriaren biktima edo lekuko diren adingabeekin daukagun urtetako esperientziak frogatzen duenez, adingabeen parte-hartzea oso frustragarria da, normalean bilerak polizia-etxean edo epailearen bulegoan egiten direlako. Ondorioz, ingurune adiskidetsu

bat jarri beharko genuke adingabeen esku. Egindako azterketen arabera, aurreikusitako galdeketak 15-20 bat izango dira urtean.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Xedea da trauma berri bat saihestea hurrari ikerketa eta epaiketari zehar eta, halaber, adingabearen eskubide eta interesak defendatzea, kasu zehatz bati buruzko ahalik eta informaziorik zehatzena bilduz gero benetako justizia eraginkor bat bermatuko baita.

Gauzaturiko esku-hartzea

“Blue room” gela atsegina da eta adingabeei jolasteko aukera ematen zaie. Giroa ere atsegina da, haurra lasai egon daiteke, konfiantza eta segurtasuna ematen dio eta, ondorioz, bere esperientzia adierazten laguntzen dio. Gelaren barruan, langile espezializatu batek krimenaren biktima edo lekuko den haurra galdeketa edo epaiketarako prestatzen du. Galdeketa zehar fiskala, ikertzailea, akusatua eta bere abokatu eta beste pertsona guztiak prozesua ikus-entzunezko baliabideen bidez jarraituko dute, beste gela batetik. Bi gelak etengabe komunikatuta daude, ekipamendu tekniko berezien bidez.

Epaiketa kriminala denean, langile espezializatuaz gain ikertzaile bat egongo da; epaiketa zibila denean, ordea, epaile bat. Gizarte Jarduera eta Jardutetako Institutuak garatu eta onartu metodoari jarraiki, langile espezializatuak izango da adingabea prestatu eta galdeketa egingo duena eta beste inplikatu guztiak beste gela batetik ikusiko dute.

Indarreko legediak dienez, “blue room” gela batean lorturiko informazioa frogatzat har daiteke epaiketa batean. Gela adingabe bati galdeketa egiteko erabili nahi izanez gero, interesaturiko erakundeak eskaera ofiziala egin beharko du, epaiketa baino astebete lehenago. Gela lege aginteen esku dago, 24 orduz eta astean 7 egunez. Adingabeen galdeketak langile espezializatuaren agendaren arabera egingo dira.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Adingabeei galdetzeko gela berezi hauek ireki zirenetik 2013ko amaiera arte 120 haur galdetuak izan dira guztira (за България). Iaz soilik, 300 adingaberi zegokien “blue room” gela galdeketa batean erabiltzeko eskubidea. Baina denbora behar dugu zerbitzua inplikaturiko eragile guztiekin koordinatu eta komunitate profesionalaren baitan hedatu ahal izateko.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Psikologoak, gizarte langileak, epaile bat, abokatu bat, poliziako ordezkariak. “Blue Room” gelak Bourgaseko Gizarte Zerbitzuetako Eraikinean daude, eta beharrezko altzairu eta ekipamendu tekniko guztiez hornituta daude. Psikologo eta gizarte langile ezberdinez osaturiko talde batek kontsultak egingo ditu adingabearekin, pairatu jazarpenaren trauma gaindi dezan eta jarrera agresiboak edo aurkako ingurune intolerante baten presentziaz ohartzeko gaitasunak gara ditzan. Aipatu taldeek familiarekin lan egiten dute ere,

gurasoek erantzukizun positiboak gara ditzaten, adingabea den bezala onar dezaten eta behar bezala babes dezaten bere hazkundera zehar.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

- Edozein jazarpen mota pairatu duten adingabeekin lan egiten du, sexu bereko gurasoak dituen adingabearen aurkako jazarpena eta sexu joera ezberdina izateagatik (zenbaitetan ezberdin janzteagatik edo jarrera ezberdinak izateagatik, nahiz eta sexu joera ezberdina ez izan) adingabe bati familian edo eskolan egiten zaion jazarpena barne.
- Ingurune segurua sortzen du eta adingabea bertan babestua eta seguru sentitzen da; honela, adingabeek paira ditzaketen estresa eta trauma psikologikoak gutxitzen dira (biktima zein lekuko).
- Erakundeen arteko koordinazioa hobetzen du, hau da, epaitegia, fiskaltza, polizia, udala edo tokiko agintariak, indarkeria edo bereizkeria arrazoiengatik indarkeria pairatu duten adingabeak babesteko gizarte zerbitzuak. Adingabeei eskaini justizia zerbitzuak hobetzen ditu ere –biktima, lekuko, erasotzaile, legea apurtu dutenak–.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

- Indarreko legediak adingabeak ingurune adiskidetsutan elkarriketatzeko betebeharra ager dezake, baina hori inplikaturako erakundeen nahia eta gogoaren mende dago.
- Proiektu honen aplikazioak talde anitzen eta erakunde anitzen arteko koordinazioa eta lankidetzaren eskatzen du.
- Legeak frogatzen pilotu bat legeztatzen beharko luke; legeak eskainitako zerbitzu-sorta hau aitortu beharko luke.
- Diru-laguntza eta finantzazio handiagoak behar ditugu zerbitzuen kalitatea eta jasangarritasuna bermatzeko.
- Esperientzia berri bat abiarazi ahal izateko, inplikaturako eragile guztien eskarmentua eta esfortzua funtsezkoa izango da.
- Gobernuak ahalegin handia egin beharko luke frogatzen pilotu bat hedatzeko herrialde guztian zehar eta aipatua egin ahal izateko beharrezkoak diren lege-aldaketak sartzeko, hau da, lege-gatazketako galdeketa/epaiketetan adingabeei aplikaturako zaizkien printzipioak legean sartzeko.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

- Diziplina anitzeko taldeak eta diziplina anitzeko sareak aldaketak ekarri zituzten araudia mailan eta baita printzipio eta estandar berrien diseinua adingabeen galdeketarako –biktima edo lekuko–.

- Gizarte Zerbitzuetako Eraikineko Diziplina anitzeko taldeek “Lege-prozeduretan inplikaturiko adingabeak galdetzeko estandarrak” garatu dituzte.
- Gure herrialdeak berretsi duen Europako legediarekin, Nazio Batuetako Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioarekin eta Bulgariako legeekin bat, hamahiru estandar onartu ziren.

Lankidetzeta eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeen izena eta azalpena

Fiskaltzak “Blue room” gela eskatuko du adingabeari galdetu ahal izateko.

Poliziak eta fiskaltzak epaile bat eskatzen dute epaitegian.

Gizarte zerbitzuetako aditu bat bileran egongo da adingabearekin batera, horren ongizatearen arduraduna baita. Ondorioz, bere jarrera eta egoera emozionala aztertu beharko ditu.

Beste zerbitzu/erakundeen funtzioak

CPS Gizarte Zerbitzuak aditu osagarri bat jartzen du, beharrezkoa denean, adingabearen esku. Esaterako, gizarte langile, psikologo eta pedagogoen adingabea aztertu eta behar duen babesa eta aholkularitza eskaintzen diote. CPS-ek gurasoekin eta adingabeak inguruan dituen pertsonekin lan egiten du.

Koordinazio ereduak

13 “blue room” gela daude Bulgarian eta arrisku egoeran dauden adingabeak babesteko gizarte zerbitzuetako mende daude. Erakunde eta adituen arteko koordinazioa aldakorra da. Ez dago koordinazio horretaz arduratzen den erakunderik herrialde mailan.

Ekimena bere hastapenetan dago. Jardun ahala gauzak nola hobetu ikus dezakete erakunde eta espezialistek. Ondorengo ahuleziak aipa daitezke:

- Saila eta Erakundeen artean adosturiko eta onarturiko koordinazio mekanismo ofizialik ez izatea.
- Egun, legeak ez du “blue room” gela adingabe bati galdetzeko erabiltzera behartzen.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan?

Orain arte, batere ez.

B U L G A R I A**(3. KASUA)****Erakunde Mota:**

Elkartea

Erakundearen Izena:

"Dose of love" elkarte

Galdetutako pertsonak eta erakundearen duten posizioa:

Kamen Penkov (Presidentea)

Proiektuaren Izenburua

"Gizonekin sexu harremanak dituzten gizonek (MSM) GIBaz infektatzeko duten probabilitatea gutxitzea prebentzio jardute ezberdinak hedatuz aipatu taldearen baitan".

Proiektuaren Justifikazioa

Proiektuak jorratzen dituen oinarrizko beharrak ondorengoak dira:

- Osasun zerbitzuak eta GIBa prebenitzeko zerbitzuak MSM komunitatearentzat, konfidentzialtasuna mantenduz eta bakoitzaren beharren arabera.

Egungo programa MSM kolektiboaren baitan GIB/HIESak ageri duen infekzio- eta hedatze-arriskua eta herrialde mailan gaitz berak ageri duen arrisku eta presentzia aztertzen dituen ikerketaren arabera diseinatu da. MSM kolektiboa Bulgariako "GIB/HIESa prebenitu eta kontrolatzeko programa" hasi eta zenbait urtetara sartu zen, talde horren arriskuak eta beharrak zehazteko. Arrisku handiena duten hiriak zehaztu ziren oinarrizko azterketa batean eta, ostera, elkarriketak egin ziren inplikaturiko eragile eta erakundeekin.

Informazio aproposa genuela bermatzeko, nazio mailako eta tokiko ikerketak garatu ziren erregularki, MSM taldearen baitan, bere benetako beharrak zehaztu ahal izateko.

Hartzaileen azalpen txikia:

- Gizonekin sexu harremanak dituzten gizonak, 15-45 urtekoak, eta beren bikotekideak.
- GIB/HIESa izateko arrisku gehien duten taldeak gizonekin sexu harremanak dituzten gizonen artean: gizonezko prostitutuak eta beren bikotekideak, drogazaleak, maitale ugari dituzten gizonak; migratzaileak.

Gizarteak alde batera uztearen ondorioz bereizkeriaren biktima diren taldeek "oso arreta eskasa" jasotzen dute osasun, psikologia eta gizarte zerbitzuetatik.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Proiektuaren xede nagusia: gizonekin sexu harremanak dituzten gizonek (MSM) GIBaz infektatzeko duten probabilitatea gutxitzea prebentzio jardute ezberdinak hedatuz aipatu taldearen baitan.

Urtetan zehar, aurreikusita ez zeuden xedeak lortu dira baina MSM komunitatearen lehentasun eta beharrei eta komunitate horren azpimultzoei kalitatezko zerbitzuak emateko nahiari lotuta daude.

Gauzaturiko esku-hartzea

Egungo proiektuak jarduera ugari hartzen ditu, ondorengo gaiak jorratzen dituztenak: lan zuzena talde hartzailearekin, komunitate profesionalarekin lan egitea, eta baita jendarte orokorarekin ere. Zehatzago izateko, ondorengo gaiak jorratzen dituzte jarduerak:

1. Mapa osatzea – Mapa osatzeko ariketa egitea, landa-azterketa baten bidez, hartzaileak normalean bisititzen dituzten klub eta gunek zehaztuz.
2. Landa-azterketa – MSM komunitatearen baitan lan egitea, GIBaren eta STGen (sexu-transmisioko gaixotasunak) hedatzea prebenitzeko:
 - Kondoiak, lubrifikatzaileak eta abar ematea sexu segurua bermatzeko;
 - Osasun kontsultak eskaintzea (taldeka edo banaka), jarrera arriskutsuak dituzten pertsonen ondorioz talde honetako pertsonen GIB/HIESaren aurrean agertzen duten zaurgarritasuna gutxitzeko;
 - Aholkularitza psikosoziala eskaintzea, jarrera arriskutsuak dituzten pertsonen gizarte eta osasun egoera egonkorra mantentzeko;
 - Osasunari buruzko heziketa materialak hedatzea;
 - Bitartekaritza lanak erakundeekin;
 - Bizitza normala eta eraginkorragoa izateko aukera ematea GIB/HIESa duten pertsonen;
 - Laguntza ematea GIB/HIESa duten pertsonen, bizitza duina izan dezate.
3. GIB, B hepatitis, C hepatitis eta sifiliaren inguruko frogak eta kontsulta zerbitzuak eskaintzea.
4. Diagnosi eta tratamendu zerbitzuak eskaintzea, sexu-transmisiozko gaixotasunen inguruan, MSM komunitateari, hirian zein landa-eremuan.
5. MSM kolektiboko liderrak heztea.
6. Lan berezia egitea arrisku mailarik handiena agertzen duten taldeekin.
7. Osasun gaiei buruzko heziketa zentro bat kudeatzea.
8. Osasun bulego mugikor bat kudeatzea.
9. Aholkularitza-sare bat osatzea, MSM kolektiboko ordezkariekin, landa-azterketa egiteko: mintegiak, tokiko eta nazio mailako bilerak eta kanpainak.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Ez dago diferentziarik hartzaile eta erabiltzaileen artean.

Urtero, gure taldeak 16-70 urte bitarteko eta gizarte status eta etnia jatorri ezberdineko 1.000 pertsonekin jartzen da harremanetan.

MSM taldearen baitan pertsona ezberdin ugari dago; era berean, azpimultzo ezberdinak hartzen ditu ere:

- Bere burua homosexualtzat hartzen duten pertsonak;
- Bisexualak;
- Transexualak;
- Prostitutuak;
- Presoak;
- Esperimentatzen duten gazteak;
- Etnia jatorriaren arabera azpimultzoak;
- Turistak.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Honako hauek dira proiektu-kideak:

1. Proiektu koordinatzaile bat
2. Bi proiektu laguntzaile
3. "Lan-azterketa"rako laguntzailea
4. Erizain bat
5. Komunitateko laguntzaileak

Kide gehienek eskarmentu handia dute talde ahulen aldeko gizarte eta osasun prebentziorako lanean. MSM komunitateko azpimultzo zailenekin harremana duten eta aipatuetakoa kideei laguntzen dieten komunitateko laguntzaileak proiektu-kideak dira ere.

Beren posizioaren arabera, proiektu-kideen erantzukizun eta ardurak ezberdinak dira.

Kideen batez besteko adina 30-35 urtekoa da eta gehienak gizarte langile eta psikologo tituludunak dira. Erizain bat daukagu ere. Zenbaitetan, gaixotasun benereotan aditu den mediku baten laguntza jasotzen dugu ere.

49

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektu/zerbitzuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Proiektuaren indar nagusiak dira:

1. Erabat ezberdin eta dinamikoak diren hartzailerekin lan egitea – malgutasuna.
2. Talde lana. "Dose of love" elkarteko kide guztien lanari esker aurrera atera dugu.
3. Hartzaileren inguruan eginiko beste zenbait proiektuen lanetik abiarazitako proiektua izan da.
4. Lankidetzaren aktiboa hartzaileren ordezkariarekin, harreman berriak lortu ahal izatek.
5. Hartzaileren komunitateko azpimultzoetako pertsonarekin lan egin dugu.
6. Kalitatezko zerbitzua eskaini dugu, urtetan frogatu den bezalaxe.

Arrakastaren gakoak:

- Malgutasun eta egokitzeko gaitasuna;
- Zerbitzu boluntario, konfidentzial eta anonimoen eskaintza, zuzenean, komunitatearen baitan;
- Iraunkortasuna, bezeroen beharretara egokitua, ikuspegi pertsonalizatua.

Zeintzuk izan dira proiektu/zerbitzuaren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektu/zerbitzua?

Proiektuaren ahulezia eta erronkak:

1. Jasangarritasun eza, emailea dela eta.
2. Erakunde publikoek gure hartzaileak talde arriskutsutzat har ditzakete, GIBa hedatzeari dagokionean.
3. Zenbait bezerok proiektu osagarriak behar dituzte gizarte, lege eta psikologia mailako beste behar ezberdinak ase ahal izateko.

Proiektua nola hobetu:

- Gure lanaren xedea handitzea osasun, gizarte eta lege mailako zerbitzu/proiektu osagarriekin.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila? Aurreko proiektu baten hobekuntza al da, ala lehenengoz gauzaturiko proiektu bat? Hobekuntza bada, nola izan zen berrikuntza prozesua?

"Dose of love" Elkarteak antzeko proiektuak garatu ditu urtetan zehar, nahiz eta txikiagoak izan diren.



Eskainitako zenbait zerbitzu beste proiektu ezberdinekoak dira; esaterako, kartzelan egindako lana edo laguntzaileek egin duten lana. Komunitateko kideekin ezarri harremanak funtsezkoak izan dira.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundearen izena eta azalpena

Lankidetzaren eta sare egokiak izateak proiektuak izan duen eragina eta bere jasangarritasuna erakusten du. Gaur arte izan ditugun laguntzaileak ondorengoak dira:

- Bulgariako Osasun Ministerioa;
- Bourgas Lurraldeko Osasun Saila;
- Gaian inplikaturiko nazioarteko, Bulgariako eta lurralde mailako GKEak;
- Bourgas Hiriko Udala eta beste hainbeste.

Beste zerbitzu/erakundearen funtzioak

Beste erakunde batzuk daude ere gai hau lantzen, eta bereziki MSM komunitatearekin, hiri zein lurralde mailan. Eta "GIB/HIESa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Programak" erakunde eta GKEen arteko sare bat sortu du GIB/HIESaren aurka borrokatzeko.

Koordinazio ereduak

"GIB/HIESa Bulgarian Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Programa" da erabakitze prozesuaren koordinazio-mekanismo nagusia.

- Koordinazio Batzorde Nazionala – ministerioetako ordezkariak, GKEak eta hartzaileak hartzen ditu;
- Osasun Ministerioa – M3 kontrol erakundea;
- Beste hirietako GKEen sarea;
- MSM komunitateko eta GIB/HIESa dutenen elkarteak.

Lankidetzaren eta koordinazio ereduaren ebaluazioa

Koordinazio Batzorde Nazionala erakunde demokratikoa da eta ondo lan egiten du. Koordinazioa hobetzeko gomendioen artean aipatu eragile ezberdinekin egiten den lana heda daitekeela eta lankidetzaren sendoagoa eta aktiboagoa ezar daitekeela GKEen sarearekin, programa nazionalaren baitan. Egun, bilerak urtean behin egiten dira, baliabideak mugatuak baitira.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduek

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagaiak eta erakusleak?

Osasun Ministerioaren Jarraipen eta Ebaluazio Unitateak aktiboki jarraitu eta ebaluatzen du "GIB/HIESa prebenitzeko eta kontrolatzeko programa".

Aldian-aldian ebaluatzen diren erakusleak ondorengoak dira:

- Proiektuan inplikaturiko hartzaileen kopurua;
- Lidergo ereduen inguruko heziketa egin duten MSM pertsonen kopurua;
- Doako laguntza boluntarioa eta GIBari buruzko frogak (emaitzak bilduta ere) jaso dituzten pertsonen kopurua;
- “Conducting a case” zerbitzuan parte hartu duten pertsonen kopurua.
- Banaturiko kondoiaren kopurua.

“Dose of love” elkarteak eta MSM komunitatearekin lan egin duen taldeak urteko jardueraren plangintza bat osatzen dute urtero, eta beharrezkoak diren kontrol eta ebaluazioak egiten dituzte zehazturiko emaitzak lortu diren ala ez aztertzeko.

2.2 E S P A I N I A

(1. KASUA)

53

Erakunde Mota:

Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

Erakundearen Izena:

Baikara

Galdetutako pertsonak eta erakundearen duten posizioa:

Nekane (aniztasun afektibo eta sexuarekiko formatzailea) eta Garbiñe (Federazioko presidentea eta aniztasun afektibo eta sexuarekiko formatzailea)

Proiektuaren Izenburua

Familia, ikasle eta irakasleei zuzenduriko formazioa, aholkularitza eta esku-hartzea, aniztasun afektibo eta sexualarekin loturiko gaien inguruan.

Hauek dira eskaintzen diren formazio saio ezberdinen izenburuak:

Gurasoentzako ikastaroak: "Gurasoak aniztasun afektibo eta sexualaren aurrean" (izenburua hainbatetan aldatua izan da, familia gutxik eman baitute izena)

Ikasleentzako: "Jolasean elkar ezagutzen dugu" eta "Jolasean erronkei aurre egiten diegu".

Ez dago formazio orokorrik irakasleentzako, baina aholkularitza eta laguntza eskaintzen zaie, eskaera berezietan erantzunez.

Proiektuaren Justifikazioa

Baikarak aurreko formazioa 10 urtetik gorakoen eskaintzan sartu du. Arrakastarik txikiena duen formazioa bada ere, Federazioak ez du alhora utzi nahi, bere ustez funtsezkoa baita elkarrenganako errespetua eta harmoniazko elkarrekintzak bermatzeko.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Bi esku-hartze mota bereiz ditzakegu: alde batetik, familia eta ikasleei eskainitako aniztasun afektibo eta sexuala eta genero identitateari buruzko formazio orokorra eta, bestetik, eskaera bereziei jarraiki eskaintzen den aholkularitza, gai edo gatazka zehatzen inguruan. Bigarrena irakasle eta familientzat da funtsean.

Kasu guztietan, hiru eragileak elkartzten saiatzen dira, hau da, ikasle, irakasle eta familiak, eta beren behar zehatzetara egokitzen. Ondorioz, eskola batek ikasleentzako formazioa eskatzen badu federazioa familiak inplikatzten saiatuko da ere; era berean, irakasleak direnean laguntza eske doazenak jazarpen baten inguruan, federazioa familia prozesuan inplikatzten saiatuko da. Esku-hartze mota zehatzenak ondorengoak dira:

Ikasleentzako formazioa: batez beste, 5 saio gelako. Gelako ikasle guztiek parte hartzen dute. Formazio mota hau bigarren hezkuntzan ematen da batez ere. Jolasean oinarrituriko metodologia aplikatzten dute, adingabeen esperientzietan inspiratuta. Xedea da talde guztia batzea ikasle guztiak, ezberdintasunen gainetik, onartuta eta baloratuta senti daitezen. Halaber, jazarpen gertaerak edo laguntza berezia behar duten haurrak identifikatzten saiatzen dira eta, ondoren, aipatu kasua modu pertsonalizatuan lantzen dute, irakasleekin bat -eta zenbaitetan familiarekin bat ere-. Aholkularitza behar izanez gero, LGTBI elkartetara jotzen dute (Gehitura batez ere).

Familientzako formazioa: Ikastaroa guraso elkarteei eta Familia Eskolei zuzenduta dago eta, batzaz beste, bi saio egiten dira. 2012-2013 ikastaroan, 10 eskolatan eman zuten ikastaroa. Eskaera txikiena duen ikastaroa da eta besteak baino feminizatuago dago. Ikastaroak aniztasun afektibo eta sexualaren balioa seme-alaben heziketan txertatzeko aholkularitza eta jarraibideak eskaintzen dizkie familiei. Elkarrizketatu langileek diotenez normalean parte hartzen duten familiek familientzako formazio orokorrean inplikatu familiak dira eta, bereziki, sexualitateari buruz tabu gutxi dituzten familiak. Seme-alaba homosexual, transexuala dela edo jazarpen homofoboaren biktima izan daitekeela susmatzen duten familiek ez dute normalean parte hartzen eta beren kezkek eta ardurak bestelako formazio ikastaroetan agertzen dituzte..

Egitaraua: Emozioak eta sexualitatea (emozioak adingabearen garapen afektibo eta sozialean duen garrantzia nabarmenduz) eta generoa. Ondoren, ikastaroak aniztasun afektibo eta sexuala eta generoa jorratzen ditu eta familiek agerturiko kezkei erantzuna ematen saiatzen da.

Kasu zehatzen inguruko esku-hartzeak: Normalen irakasle batek kasu zehatz bati buruzko aholkularitza eskatzen du. Saioak boluntarioak dira eta eskola-orduetatik kanpo egiten dira. Irakasle gehienek parte hartzen dute. Saioetan irakasleentzako erreminta eta jardute aproposak aurkezten dira. Zenbaitetan, irakasleak eta familiak ere inplikatzten saiatzen dira.

Guraso elkartearen esku-hartzea ere izan duten kasuetan, partaideek hasieran elkarren artean agertzen duten konfiantza falta hori behin gaindituta, oso esperientzia positiboak izaten ohi dira.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Goian esan bezala, irakasleak, familiak eta ikasleak dira hartzaileak.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioak eskola zuzendaritzetarako eta guraso elkartetarako formazioa eta aholkularitza eskaintzen ditu. Noizean behin, LGTBI elkarteek gai zehatzen inguruko aholkularitza eskatzen diote edo beren saioetara gonbidatzen dute, federazioak bere ikuspuntua eman dezan.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektu/zerbitzuaren indar nagusiak? Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak? Zeintzuk arrakasta bermatzeko osagai nagusiak?

- Baikararen lehentasuna da familia eta guraso elkarteekin eginiko lana eta bere gertutasunak partaidetza sustatzeko pizgarri bat eskaintzen du. Formazioak eskaera handia ez badu ere, bere existentzia berak gaia azter eta eztabaida daitekeela frogatzen du.
- Baikarak aniztasun afektibo eta sexualaren gaia proaktiboki eta jazarpen homofoboa prebenitzeko osagai gisa lantzeko erabakia hartu du eta eskaera txikia badu ere, bere egitarauan jarraitzen du.
- Zerbitzu espezializatua, egokitua eskaintzen du, talde edo kasu zehatz bakoitzeko behar bereziak asetzeko. Ikastaroaren dinamika oso praktikoa da, egunerokotasunerako baliabideak eskainiz.
- Baikarak bitartekaritza lana egiten du ere eta ikasle, familia, guraso elkarte eta irakasleen arteko inplikazioa eta lankidetzaren garatzen ditu (eskola bateko zuzendaritzak ikasleentzako formazioa eskatzen duenean Baikara familiak ere inplikatzeko saiatzen da). Horrek jarraitutasuna ematen dio familien baitan ikasleekin eginiko lanari.
- Ikasleekin erabiltzen den metodologiak irakasleen sumatu ez dituzten gatazken presentzia detektatzea ahalbidetzen du eta, ondorioz, aipatu gatazkek landu daitezke ondoren irakasle eta baita familiekin ere.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

- Familiekin ez dute izenik ematen ikastaroan; horrek arazo handiago bat dagoela esan nahi du.
- Ikastaro hau Baikarako ikastaroen artean eskaera gutxiena duena da. Hori sexualitateari buruzko tabuekin eta aniztasunean hezteak duen garrantziak gizartean duen presentzia txikiarekin lotuta dago. Eskaera irakasle zehatz baten edo guraso elkarte baten inplikazio edo konpromiso pertsonalaren mende dago.

- Homosexualitatea/transexualitatea onartua ez badago eta jazarpen homofoboa identifikatzen ez bada, formatzaileek ez dute esku-hartze eraginkor eta koordinatu bat egingo aukerarik izango.
 - Hurrek normalean ez dute aitortzen jazarpen homofoboko biktima direnik, ez dute hitz egiten.
 - Seme-alaba homosexualak dela susmatzen duten familiek ez dute aniztasun afektibo eta sexualari buruzko ikastaroan izena ematen.
 - Irakasleek familiak inplikatzeko errezeloak dituzte, sexualitatea familia, intimitatea edo pribatutasunaren eremuko kontua dela uste baitute.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Ikastaroa azken hamar urteotan eman bada ere, egokitu egin izan da sorturiko behar berriei erantzuna emateko. Formatzaileek heziketa jasotzen jarraitzen dute eta beren laneko metodologia aldatu egin dute, eraginkorrago egiteko.

Eskoletako behar eta gatazketara eginiko egokitzapena bere arrakastaren gakoetako bat izan da.

Lankidetzeta eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeen izena eta azalpena

- AMPGYL (Asociación de Madres y Padres de Gais, Lesbianas, Bisexuales y Transexuales/ Guraso Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Elkarte). 2013-2014 ikastaroan zehar, familientzako ikastaroetara gonbidatuko dituzte, beren esperientzia pertsonala azal dezaten. Baikarak lehenago lan egin du beraiekin, iragan proiektutan.
- Udal Berdintasun Sailak. Ikastaroak sustatu eta diruz lagundu dituzte.
- Berritzeguneak. Bitartekaritza lanak egin dituzte Baikara eta eskola ezberdinetan zehar.

Koordinazio ereduak

Ez da koordinazio eredurik aurreikusi, ikastaroak eskaeraren arabera sortu eta egokitu baitira.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak?

Formazio saio bakoitza bukatu eta gero ebaluazio orrialde bat ematen zaie partaideei. Kasu guztietan, egindako lana goraiatu dute, batez ere ikastaroaren izaera praktikoa eta behar berezietara eginiko egokitzapena.

Ikasleen ebaluazioa mural baten bidez egin zen. Partaideek adierazi zuten, aldaketa bat sumatu zuten beren jarreretan, eta taldeko kide sentitu izana zen gehien baloratu zuten alderdia.

E S P A Ñ I A

(2. KASUA)

Erakunde Mota:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Ingurumen sailen artean, eta bien diruarekin, eraturiko erakunde publikoa.

Erakundearen izena:

Ingurugela-CEIDA.

Galdetutako pertsonak:

Angel eta Josean, Ingurugela Donostiako langileak.

Proiektuaren Izenburua

Eskolako Agenda 21.

Proiektuaren Justifikazioa

Ingurugela-CEIDA erakundeak 1994. urtean hasi zen ingurumenaren inguruko heziketa eskaintzen.

1992ko Rio de Janeiroko goi-bilerak Agenda 21 ekimena onartu zuen, garapen jasangarria sustatzeko xedearekin.

Euskal udalerrriak Tokiko Agenda 21 proiektuak abiarazten hasi ziren. Aipatu tokiko ekimenen xedetako bat da eskola komunitatea osoaren partaidetza sustatzea. Eskolako Agenda 21 ekimena 2002an jaio zen eta Ingurugela-CEIDA, udalekin batera, aipatu programa Euskal Herrian sustatzeko ardura duen erakunde da.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Eskolako Agenda 21 ekimenaren xedea da jasangarritasuna garatu eta sustatzea, hezkuntzaren kalitatea bermatzea eta udalerrriaren garapen jasangarriari laguntzea.

Gauzaturiko esku-hartzea

Eskolako Agenda 21 ekimenaren exekuzioak ondorengo ereduak jarraitzen du normalean:

Udalak (Tokiko Agenda 21eko arduraduna) eskola ezberdinetako zuzendaritzak Eskolako Agenda 21 en inplikatzera gonbidatzen ditu. Galdetu pertsonen arabera, eskolak gonbiteari ukatu egin dion kasuetan arrazoia izan da irakasleen konpromiso falta edo eskolaren baliabide falta (eskola txikiak, beste programa asko martxan, etab.).

Ikastetxe publikoek eta itunpeko ikastetxeek inplikazio-maila berdintsua agertzen badute ere ekimenean, ezberdintasunak daude beren garapen ereduetan. Eskola publikoetan irakasleak dira programan sartu ala ez erabakitzen dutenak eta, ondorioz, interes zabala egon behar du irakasleen artean aipatua gerta dadin. Eta irakasleei zenbait eskola-ordu liberatzeko aukera handiagoa zegoen ere. Itunpeko ikastetxeen kasuan, halere, zuzendaritzak erabakitzen du. Ondorioz, ekimenean inplikatzeko ala ez organo horren mende zegoen funtsean.

Ingurugelak Agenda 21 ekimena sustatu eta kudeatzen ditu aipatuak udal babesik ez duen udalerrietako eskoletan, azken hauek ekimenean parte hartu nahi badute.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Lehentasuna zen programa derrigorrezko hezkuntzan (lehen eta bigarren hezkuntza) txertatzea, nahiz eta lehen hezkuntzako eta lanbide heziketako eskolak ere ekimenean sartu diren azken urteotan.

Egun, Euskal Herriko 489 eskolak parte hartzen dute ekimenean, eskoletako % 80-82a.

Ekimenaren xedetako bat da hezkuntza komunitate osoa inplikatzeko.

- **Irakasleek** programa lantzen dute, eta curriculum a egokitu ere.
- **Ikasleak** dira ordea hartzaile nagusiak, beren garapenerako fase guztietan, eta erabakiak hartzeko prozesuan aktiboki parte hartzeko aukera dute. Ingurumen arazoak aztertzen dituzte, datuak bildu eta prozesatu, konpromiso zehatzak egin, Jarduerak sustatu, proposamenak egin eta azken horiek Udal Eskola Foroan aurkezten dituzte.
- **Familiak** antolakuntzan eta jarduera ezberdinetan parte hartzen dute, eta bitzita eredu arduratsua eskaintzen dute etxean.
- **Irakasle ez diren langileak** programaren antolakuntzan, diagnostikan eta kudeaketan parte hartzen dute.

Proiektuan inplikaturiko langileak

- **Ingurugela:** Hezkuntza eta Ingurumen Sailek sustatu eta diruz lagunduta, Ingurugelak babes eta aholkularitza, langileak eta baliabide materialak eskaintzen die eskolei, eta parte hartzen duten zentroak koordinatzen ditu.
- **Udalak:** Udalek Eskolako Agenda 21 ekimena sustatzen dute, Tokiko Agenda 21 programaren baitan. Zenbaitetan, kanpoko aholkularitza eta babes teknikoa eskaintzen diete eskolei (bilerak antolatzeko, diagnostikoak egiteko, etab.).
- **Eskolak:** proiektua garatzen dutenak dira. Ingurugelatik eta kanpoko aholkularietatik jasotako aholkuek gain, Hezkuntza eta Ingurumen sailerako diru-laguntzak jaso ditzakete Eskolako Agenda 21eko jarduerak gara ditzaten.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektu/zerbitzuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

- Lehenik eta behin, aipatzekoa da arrakastaren gakoetako bat izan dela gizarteak ingurumenaren eta jasangarritasunaren inguruan duen sentsibilizazio maila handia. Gainera, gaiak jendearen egunerokotasunarekin loturiko jarduera erakargarriak egiteko aukera ugari eskaintzen ditu. Izaera askotariko pertsona ugari dago gaiarekin sentsibilizatua, nahiz eta ikuspegi eta eremu ezberdinetatik etorri. Ondorioz, adostasun eta akordio zabala dago oinarritzko gaien inguruan.

- Guri dagokigunean, ekimen honen lorpen nagusia da eskola komunitate osoa inplikatu nahi duela –arreta ikasletan jartzen bada ere-. Garatzeko zaila bada ere praktikan, elkarrekin lan egiteko beharra proiektu honen alderdi positiboetako bat bilakatu da.
- Eskolako Agenda 21 ekimena arrakastatsua izan dadin, eskolan eginiko lanak jarraipena izan behar du etxean. Ondorioz, eskolan landuriko ingurumen baloreak etxean sustatzea eskatzen zaie familiei, izan beharreko jarreraren benetako ereduak bilakatzen direlarik. Familiek beren seme-alaben hezkuntzaren gaineko erantzukizuna dute. Ingurugela-CEIDAK irakasle eta familiak batu eta koordinatzen ditu, xede bakarrekin lan egin dezaten. Halaber, familiek programaren gauzatzean lagun dezakete ere, Ingurumen Batzordearen eta jarduera zehatzen bidez. Ondorioz, familiek lankidetzaren eta koordinazio lotura ezberdinak eratzen dituzte eskolarekin: tutorearekin lan egiteaz gain, beste irakasleekin eta gaien interesaturiko beste familiekin lan egiten dute ere. Horrelakoetan, beren partaidetza ez da guraso elkartearen baitan gauzatzen; partaidetzaren motorra da gaien daukaten interes berezia. Galdetutako pertsonen arabera, familiak eta gizarte eragileek jarduera ezberdinen prestaketan eta gauzatzean daude interesatuta; ez ordea urteko plangintzaren jarraipen jardueretan..
- Udalak dira Eskoako Agenda 21 ekimena sustatu eta, zenbaitetan, gidatzen dutenak. Horrek proiektua babestu eta hobetzen du, egiazki zein sinbolikoki. Ikasleen eskaerak entzuteko, horiei erantzuteko eta, zenbaitetan, eskaerak gauzatzeko prest dagoen alkate edo zinegotzi bat izateak motibazioa eta babesa ematen die ikasle eta familiei. Eta normalean eskolak zehaztu dituen xedeak udaleko ingurumen mailako lehentasunekin bat datoz. Ekimena, ondorioz, eskolako mugez haraindi doa. Tokiko identitate eta beharrekin batera, beste zenbait gizarte eragile proiektuko partaide sentitzen dira eta, ondorioz, inplikatzeko dira.
- Sare bat sortu zen udalerriri edo barruti bereko eskolen lana koordinatzeko. Eskolek elkarrekin landuko duten gaia adosten dute, esperientziak trukatu eta parte hartuko duten foroak elkarrekin prestatzen dituzte. Zenbait kasutan, atzerriko ikasleekin harremana egon zen ere. Eskola ezberdinetako ikasleak xede bakar baten ingurua batzeko estrategia hezkuntza formala aberasteko eta berritzeko esperientzia bilakatu zen.
- Agenda 21 ekimena mundu mailako ekimen bat da eta ondorengo printzipioan oinarrituta dago: "Globalki pentsatu, tokian ekin". Eskolako Agenda 21 ekimenaren funtsa da aurrekoa. Mundu mailako mugimendu baten parte bilakatzen zaitu; mundu osorako xede baten aldeko aldarria eginaz eta, aldi berean, tokiko egoerak duen garrantzia nabarmenduz.
- Irakasleak ordurako gauzatzen zituen jarduera eta proiektuei sistematizazioa eta jarraitutasuna eman zien Eskolako Agenda 21 proiektuak.

Zeintzuk izan dira proiektu/zerbitzuaren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektu/zerbitzua?

- Irakasleek ingurumena eta garapen jasangarriarekiko azaltzen duten sentsibilizazio mailak eta interesak ekimenaren arrakasta edo porrota zehaztuko dute hein handi batean.

Batzuetan lan guztia koordinatzailearen esku uzten da; edo gaiarekiko sentsibilizazio handia duten pertsonak parte hartzen dute soilik. Horren jakitun, Ingurugelak irakasle guztiak hezi nahi ditu eta jarduerak demokratikoki esleitzen saiatzen da.

- Gizarte partaidetzaren ahulezia agerian gelditzen da ere Eskolako Agenda 21 en. Eragile eta familia gutxik egiten dute lan, sistematikoki, Ingurumen Batzordearekin. Galdetuek diotenez, urteko plangintzaren jarraipena abstraktua izan daiteke beraiantzat, baina jarduera zehatzak edo isolatuak prestatu edo gauzatzea eskatzen zaienean partaidetzak asko egiten du gora. Ondorioz, lan-ildo hori lehenesten saiatzen dira.
- Eskolek ekimenean zenbait denbora eman eta gero beren buruarekin pozik ageri eta beren lanak behera egiten duela ikusi du Ingurugelak. Ondorioz, Eskola Jasangarria Ziurtagiria sortu du, Eskolako Agenda 21 ekimenean 5 urtez parte hartu duten eskolentzako. Ziurtagiria jasotzeko, autoebaluazio inprimaki bat bete beharra dago, Eskolako Agenda 21eko baloreak sustatzeko xedearekin eginiko lana zehaztuz. Eta auditoria bat egiten da ere. 2012-2013 ikasturtean 26 eskolek eskatu zuten ziurtagiria, eta 24k lortu.
- Azkenik, esan beharra dago burokrazia asko murriztu dela irakasleentzat eta prozedurak ere asko erraztu dira ekimenak indarrean eman dituen urte hauetan.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Ondorengoak dira inplikaturiko taldeak, eta koordinazioa bermatzeko moduak:

Eskolako Agenda 21 ekimena zentroetan garatzen dituzten taldeak:

- **Ingurumen batzordea:** Partaidetza erakundea da hezkuntza komunitatearentzat. Gizarte talde ezberdinetako ordezkariak hartzen ditu: ikasleak, irakasleak, zuzendaritza taldeak, familiak, irakasle ez diren langileak (jangelako begiraleak, autobuseko begiraleak, etab.) eta udal ordezkariak. Proiektuko benetako protagonistak izateko, ikasleen ordezkariak beste partaide guztiak baino gehiago izan behar dute. Batzordearen eginkizunak dira jarduerak planifikatzea, proposamenak egitea, konpromisoak adostea eta ebaluazioa eta jarraipena egitea. Halaber, batzorde bereziak beharko dituzten jarduera zehatzak abiarazi ditzake (mendizale elkarteekin egindako txangoak, adibidez). Batzorde egokienak 12-15 kide bitartean izango ditu eta hiru hilean behin bilduko da, gutxienez, eskola-orduetan. Nolanahi ere, bere kideak eta funtzionamendua asko alda daitezke, eskolako ezaugarrien arabera.
- **Talde eragilea:** Irakasleez osatua, proiektuaren eguneroko gauzatze eta antolakuntzaz arduratzen da. Ingurumen Batzordea eta tutoreen arteko zubia da. Koordinatzaile bat izendatuko da ere, Ingurugela eta udalerriko edo barrutiko beste eskolekin koordinatuko dena bilera, telefono edo Interneten bidez. Koordinatzaileak liberatutako orduak izango ditu normalean, eskola publikoetan batez ere. Azken urteotan, ingurumenari buruzko heziketa berezia jaso behar izan dute.

Eskolako Agenda 21. Eskola arteko lan-taldeak:

- **Koordinazio bilerak:** Lankidetzaren aukerak eskaintzen dituzte udalerriko edo barrutiko eskolen artean. Eskola bakoitzeko koordinatzaileak bildu eta aholkuak jasotzen dituzte Ingurugelaren aldetik. Urte bakoitzean, gai zehatz bat aukeratzeko dute udalerriko edo barrutiko eskoletan garatzeko (mugikortasun jasangarria edo kontsumo arduratsua, esaterako). 6 bilera urtean egiten dira, batzuetan beste.
- **Eskola arteko foroak:** Ingurumen Batzordeko kide diren ikasleek osaturiko erakundea. Bere erantzukizuna da Udal Eskola Foroak prestatzea, urtean behin egiten direnak.
- **Udal Eskola Foroak:** Foro honetan ikasleek lorturiko lorpenak, urtean zehar eginiko lanaren emaitzak eta tokiko ordezkariak (alkatea, ministroak, etab.) zuzenduriko proposamenak aurkezten dituzte. Foroak urtean behin egiten dira.

Bi online plataformak tartekatzen dira koordinazioa eta lankidetzaren bermatzeko:

- **Moodle:** Eskolako Agenda 21-en parte hartzen duten eskola guztiek erabiltzen dute. Koordinatzailea da bere eskolako sarbidea kudeatzen duena. Ondorengo atalak hartzen ditu: informazio eta berriak; udal partaidetza; planifikazio, jakinarazpen eta dokumentuak; eta jardute onak. Aipatuz gain, ekimenarekin zerikusia duten beste foroetako baliabideak erabili daitezke ere: "Eskola baratza", "Lanbide heziketako Tokiko Agenda 21" etab., non eskolek beren esperientziak partekatzen dituzten.
- **IRAES sarea:** Mundu mailako sare birtuala, ikasleen partaidetza sustatzeko Jasangarritasun Ziurtagiria jaso duten eskoletan. Euskal Herriko 20 eskola inguruko ikasleek parte hartu eta erabiltzen dute egun, esperientzia berriak ezagutzeko.

Koordinazio ereduak

Eskolako Agenda 21 ekimenaren habetako bat da eskola komunitate osoaren partaidetza sustatzea. Gela aurkezteko bileran, tutoreak Eskolako Agenda 21 ekimenari dagokionean gauzatuko den urteko plana azalduko die gurasoei; halaber, eskolan egindakoari etxean jarraipena ematea eskatuko die ere. Azkenik, Ingurumen Batzordean eta jardueretan parte hartzeko deia luzatuko die. Eskola batzuek eskutitzak bidaltzen dituzte, ikasturtean zehar, proiektuari buruzko informazioa eman eta gurasoei jardueretan parte hartzera gonbidatzeko.

Normalean jarduera zehatzetan parte hartzen badute ere, aitortu digutenez oso zaila da gurasoen inplikazioa jarraitua lortzea.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduek**Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagaiak eta erakusleak?**

Ebaluazioa ikasturtean zehar egiten da. Ikasturte amaiera, ordea, unerik aproposena da egindakoaren eta lortutako emaitzen inguruko ebaluazio orokorra egiteko.

Ebaluazioa Ingurumen Batzordearen ardura bada ere, Ingurugelak koordinazio bileretan gainbegiratzen du. Hiru fase hartzen ditu:

- Hasierako ebaluazio/diagnostikoa.
- Ekintza Planaren ebaluazioa, hobekuntza-erakusle ezberdinen bidez.
- Azken ebaluazioa, ekaineko txostenean sartzen dena. Proiektu guztia, bere garapena eta lorturiko lorpenak barne, osotasunean ebaluatzen da.

RAINBOW HASentzat duen interesa

Ezberdintasun nabarmenak daude ingurumenaren eta aniztasun afektibo eta sexualaren artean, sentsibilizazio zein hezkuntza formalaren baitan izan duten bilakaerari dagokionean ere. Rainbow HAS proiektua Tokiko Agenda 21 ekimena baino askoz ere xumeago bada ere, azterketa hau interesgarria izan da proiektu zehatz bat gauzatzeko baldintzak ezagutu ahal izateko eta hezkuntza formalaren baitan eskola komunitate osoa xede baten inguruan inplikatzeko dauden zailtasunak ikusteko. Ondoren, Rainbow Has proiektuarentzat interesgarri izan daitezkeen Eskolako Agenda 21 ekimeneko ondorioak zerrendatzen dira.

Hasteko, esan beharra dago gobernu mailako eta politikagintzako inplikazioa ezinbestekoa izan zela Eskolako Agenda 21 proiektua gauzatu ahal izateko: Ingurumen eta Hezkuntza sailen babesaz gain, udal eta bestelako erakundeen babesa ere. Beharrezko materiala eta giza baliabideak proiektuaren esku uzteaz gain (Ingurugela, heziketa, liberatutako orduak, online plataformak, etab.), aurreko erakundeek ofizialtasuna eta zilegitasuna ematen diote ekimenari. Gure ustez, esperientziak argi uzten du erakundeek egitura egonkorrak sortu eta sustatu behar dituztela ikuspegi ezberdinak sistematizatu, koordinatu, hedatu eta gauzatu ahal izateko, eskolen sentsibilizazioa eta partaidetza sustatu ahal izateko.

Era berean, Eskolako Agenda 21 esperientzia mundu mailako ideologia komun batean oinarrituta dago eta bere lana tokiko testuingurura egokitzen du. Aipatu ikuspuntua erraz asko aplikatu daiteke Rainbow Has bezalako proiektu batean, Europa mailako ekimena izanagatik Euskal Herriko testuingurura egokitu beharra baitago, eta gero udalerrri eta eskola bakoitzeko testuingurura ere.

Gainera, hezkuntza komunitateko eragile ezberdinen inplikazioa bilatzea Eskolako Agenda 21 ekimeneko xedetako bat da. Aipatu ditugun partaidetza eta koordinazio ereduak eta proiektuaren potentzialen eta zailtasunen inguruko hausnarketak interesgarriak izan daitezke Rainbow Has proiektuak familia, LGTBI elkarte eta beste eragileekin egin behar duen lanerako.

Azkenik, nabarmentzekoa proiektu honen esperientziak argi utzi duela bi lan-ildo mantendu beharra dagoela irakasleei dagokienean. Lehenik eta behin, garrantzitsua da prestatutako eta inplikaturako irakasleak izatea jarduerak zuzendu eta koordinatzeko eta orduak liberatzea hauei beren lana egin dezaten. Bigarrenik, programa maila ezberdinetan gauzatzen duten zuzendaritza kide, irakasle eta irakasle ez diren langileak babestea ere oso beharrezkoa da.

E S P A Ñ I A

(3. KASUA)

Erakunde Mota:

Unibertsitateko ikerketa taldea, elkarte eta eskolak.

Erakundearen Izena:

Madrilgo Complutense Unibertsitateko Gizarte Antropologia Saila, *Espainiako Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Federazioarekin* (FELGTB), Transformarse para Transformar elkartearekin eta Google-ekin lanean. Hezkuntza arloko beste zenbait eragile ere: eskolak, irakasleak eta ikasleak.

Galdetutako pertsonak eta erakundearen duten posizioa:

Farapi, proiektuko blogetik ateratako informazioaren arabera eta proiektuko kide den Uge Sangili eginiko elkarriketa.

Proiektuaren Izenburua

Estudioaren izenburua "Aniztasun eta bizikidetzatza: hezkuntza aukera bat" da.

Azterketaren emaitzak zabaltzeko xedearrekin, bideo bat egin da eta bere izenburua "Aniztasun sexuala eta harmoniazko elkarrekintza eskoletan" da.

Proiektuaren Justifikazioa

Ikerketa taldeak eta FELGTB elkarteko kideek aniztasun sexualak gizarte mailan duen pertzepzioa nola aldatu den zehaztu nahi zuten eta, bereziki, jazarpen homofoboak eskoletan duen presentzia, sexu bereko ezkontzak onartu eta zortzi urtera.

Halaber, aniztasun sexuala aztertzeko koordinazio eredu bat eratu beharko zutelatik ikusi zuten, aipatu gaiak bestelako aniztasun motak hartzen baititu (kulturala, fisikoa, etab.). Gaiaren inguruan eginiko aurreko azterketetan ez zen aipatu metodologia aplikatu.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Proiektuaren xedea zen jazarpen homofoboak eskoletan duen eragina aztertzea eta irakasleek aniztasun afektibo eta sexualaren inguruan dituzten jarreretik aurre egitea.

Gauzaturiko esku-hartzea

Lidergo talde bat osatu zen: 6 ikertzaile eta FELGTBeko 3 ordezkari. Hasteko, ikerketak egin ziren aniztasuna eta harmoniazko elkarrekintzaren inguruko irakasle eta ikasleen diskurtsoak, jarrerak eta praktikak aztertzeko. Arreta berezia jarri zitzaion ere aniztasun afektibo eta sexualaren gaiari.

Metodologia kualitatibo eta kuantitatiboa erabili zen. 250 galdetegi jaso genituen irakasleengandik; bigarren hezkuntza, batxilergo eta lanbide heziketako ikasleen artean 3.236 galdetegi lortu genituen. Haur eta lehen hezkuntzako ikasleen kasuan, partaideak behatzeko teknikak eta mintegiak aplikatu genituen.

Datuak aztertu eta gero, ikerketa txosten bat, emaitzak laburtzeko 12 orrialdeko txosten bat eta bi ikus-entzunezko dokumental prestatu genituen. Lehen dokumentalak (2:57 minutu) ikerketan lortu datu nagusienak aurkezten ditu; bigarrenak (18:13 minutu), aldiz, aniztasun sexuala eskoletan errespetatzeko jardute onak azaltzen ditu.

Horrez gain, blog bat sortu genuen (<http://presentacionidyc.blogspot.com.es/>) proiektua azaldu eta euskarri ezberdinetan lorturiko datuak gora kargatzeko; eta aurkezpen publikoak egin ziren ikerketaren emaitzak aurkezteko (Madril, Melilla, Kanaria Handiko hiri ezberdinetan eta abar).

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Proiektuaren hartzaile nagusiak dira eskolak eta irakasleak eta hezkuntza arloan eskumena duten erakunde publikoak. Eta jendartea gai honen inguruan sentsibilizatzea bilatzen zuen ere.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Goian aipatu dira.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Proiektuaren indar nagusia izan da aniztasun afektibo eta sexualak eta harmoniazko elkarrekintzak eskoletan egun bizi duten egoera azaltzeko gaitasuna duen ikerketa garatu duela. Ikerketari jarraiki, aurre egin beharreko erronkak, egungo jardute onak eta garapena berma dezaketen jarduteak zehatz daitezke.

Horrez gain, barreiapen-prozesuak erakunde publiko, irakasle, gazte eta abarrei zuzenduriko euskarri ezberdinak erabili ditu eta, ondorioz, jende askoren inplikazioa ekarri du.

Ikerketa taldearen eta FELGTB federakuntzaren -47 elkarteren partaidetza barne- arteko lankidetzari esker, pertsona eta eragile ezberdin ugari parte hartu dute proiektuan, eta baita bere barreiatzean ere.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Ahulezia nagusia baliabide falta da; horren ondorioz, ikerketaren emaitzen hedatzea guk nahi genuena baino askoz ere mugatuagoa izan da.

Ikerketaren inpaktua ez da nahi adinakoa izan ezta ere, erakunde publikoak ez baitziren inplikatu proiektuan zehazturiko lan-ildoan sustapenean.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila? Aurreko proiektu baten hobekuntza al da, ala lehenengoz gauzaturiko proiektu bat? Hobekuntza bada, nolakoa izan zen berrikuntza prozesua?

Metodologiari dagokionean, nabarmentzekoa da online galdetegien erabilera zabala, berari esker testuinguru ezberdinetatik (geografikoa, hezkuntza mailakoa, etab.) etorritako informazio handia lortu baitugu. FELGTB Federazioaren elkarte sarea eta kontaktu pertsonalak funtsezkoak izan dira horretarako.

Edukiei dagokionean, jazarpen homofobia eskola giroan ematen diren bereizkeria adierazpen ezberdinen testuinguruan aztertu da eta aniztasun afektibo eta sexuala beste aniztasun motekin (kulturala, fisikoa, etab.) alderatuz aztertu da ere. Aipatu ikuspegia berria da.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundearen izena eta azalpena

Madrilgo Complutense Unibertsitateko Gizarte Antropologia Saila: Proiektuaren sustatzailea, Lidergo taldean parte hartu, landa-azterketa eta analisia diseinatu eta gauzatu, emaitza txostenak prestatu eta barreiatzean lagundu zuen.

Espainiako Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Federazioa (FELGTB): Lidergo taldean parte hartu zuen, ikerketa teknikak eta euskarriak kontrastatu, galdetegirako partaideak bilatu eta emaitzen hedatzea koordinatu eta kudeatzeaz arduratu zen.

Transformarse para transformar elkarte: Ikerketa taldearekin aktiboki lan egin eta emaitzak hedatzen lagundu zuen.

Google: Ikus-entzunezkoen atalean lagundu zuen.

22 eskola: galdetegian parte hartu zutenak, inplikazio maila ezberdinekin.

Koordinazio ereduak

Koordinazioa lidergo taldearen erantzukizuna zen (ikerketa taldeko 6 pertsona eta FELGTB Federazioko 3 ordezkari). Noizbehinkako bilerak egin ziren ere eragile ezberdinekin.

Lankidetzaren eta koordinazio ereduaren ebaluazioa

Koordinazio ereduak oso ondo funtzionatu zuen. Rol eta erantzukizunak garbi zehaztu zeuden proiektuan zehar eta komunikazioa erraza eta eraginkorra izan zen.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak?

Ez.

Erakunde Mota:

Eskolak batez ere, sare-lana familia eta LGTBI laguntza zerbitzuekin.

Erakundearen Izena:

Nuestra Señora de las Mercedes Ikastetxea. Gasteiz.

Galdetutako pertsonak eta erakundearen duten posizioa:

Galdetutako pertsonak: Ama eta tutorea, 2012-2013 ikasturtean zehar.

5-6 urtekoen gelako tutorea; 6 urteko neska transexual baten ama.

Proiektuaren Izenburua

Esku-hartzea eskola mailan, neska transexual baten aurkako jazarpen homofoboa saihesteko.

Proiektuaren Justifikazioa

Esku-hartzea egiteko beharraren zioa zen neska bat transexualitate prozesua hastear zegoela eta horrek jazarpen homofoboko jazoerak ekar zitzakeela.

Tutorearen eta amaren arreta deitu zuten bi gertaera egon ziren. Jangelako begirale batek amak akats bat egin zuela ohartarazi zion haurrari, neskako azpiko arroparekin jantzi baitzuen. Bigarrenik, zaharragoa zen mutiko batek iseka egin zion jangelan, neska ala mutila zen galdetuz eta galtzak jaiste aginduz bere sexua frogatzeko. Aipatu jazoerak gaiari aurre egiteko eta eskolan informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat garatzeko beharraz ohartu zituzten.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Xede nagusia zen neska transexualaren aurkako jazarpen homofoboa prebenitzea.

Bigarren mailako helburuak, ondorengoak:

- Transexualitatea azaltzea eta harekiko sentsibilizazioa sustatzea neskaren gelan, familietan eta haurrarekin harremana izango zuten irakasle eta langileekin.
- Askatasuna sustatzea, eskola mailan, aniztasun afektibo eta sexuala eta genero identitateari dagokienean.
- Neskaren gelakideen familiak sentsibilizatzea eta hezteak, transexualitatea azal diezaieten beren seme-alabei.

Gauzaturiko esku-hartzea**Aurrekariak:**

- Patricia mutil baten gorputzean jaio zen eta oso txikitatik adierazi du bere burua neskatzat sentitzen duela eta ideia horri jarraiki bizi izan du (neskentzako arropa eskatuz, bere izena aldatuz eta neska izena hartuz, etab). Familia egoerari muzin egiten saiatu zen, edo mutikoak

gaia albo batera uzten zuen arte itxaron, egoera jasanezina bihurtu zen arte. Orduan, transexualitateari buruzko informazioa biltzen hasi ziren, pediaterarena joan ziren, EMAIZE sexologia zentroa eta psikologo eta psikiatra ezberdinak bisitatu zituzten, Berdinduren (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako mende dagoen LGTBI pertsonak babesteko zerbitzua) aholkuari jarraiki.

- Familia eskolako tutorearekin jarri zen harremanetan, beren alabaren transexualitatea publikoa egin behar zutela jakinarazteko, eta tutorearen babes osoa jaso zuten.

Esku-hartze plana:

Eskolak ez zuen gai horren inguruko protokolorik eta familiak zein tutoreak jazarpen homofobia egoteko arriskua ikusten zuten, eskolan esku hartzeko, transexualitatearen inguruan sentsibilizatu eta hezteko plan bat garatzea erabaki zuten. Aipatu prozedura ez zegoen sistematizatuta eta ez zien aurretik finkatu faseei jarraitzen; horren ordez, aurkituriko beharretara egokitzen zen eta LGTBI laguntza zerbitzu ezberdinen aholkuei jarraitzen zien.

Honako hau da gauzatutako pauso eta fase nagusien laburpena:

- Familiaren beharrak, eskaerak eta erritmoa ziren lehentasuna.
- Familia eta tutorea izan ziren prozesuko gidariak, elkarrekin lan eginaz eta etengabe koordinatuz.
- Hezkuntza erakundeak eta giza eskubideen aldeko erakundeak kontaktatu ziren, aholkularitza eta informazio materiala eskatzeko. Arartekoaren erakundea eta Berritzegunea kontaktatu ziren ere.
- Aholkularitza, babesa eta heziketa eskatu zitzaizkien LGTBI elkarte eta LGTBI kolektiboa babesteko zerbitzuei: Berdindu.
- Eskolako zuzendaritzaren babesa eskatu zen ere.
- Bilera bat egin zen neskaren gelakideen familiekin, eta ondoko gelako familiekin ere, kasu berezi honetaz hitz egiteko, transexualitatearen inguruan informatu eta sentsibilizatzeko, gelan jorratuko ziren eduki zehatzak azaltzeko eta beren babesa eskatzeko. Bileran egon ziren: tutorea (konfiantzazko pertsona), neska transexualaren familia (beren esperientzia pertsonala azaltzeko) eta LGTBI gaien inguruko aditu bat (sentsibilizazioaz eta heziketaz arduratzeko eta galderei erantzuteko).
- Laguntza materiala prestatu zen: kasu honetan, haurrentzako ipuin bat, familia eta tutorearen artea egina, transexualitatea neskaren izena aipatu gabe azaldu ahal izateko.
- Bilera bat egin zen neska transexualaren gelan, transexualitatea era inpersonalean azaltzeko materialez baliatuz.
- Sentsibilizazio saioak egin ziren eskolako ikasle, irakasle eta langileekin, haurrekin harremana izango zutenekin bereziki, hau da, anai-arreben geletako ikasleak eta bere gelan irakasten duten irakasleak, adibidez. Eskolak xede garbia ezarri du 2014 ikasturterako: eskolako irakasle eta ikasle guztiei zuzenduriko heziketa plan bat garatzea.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

- Hartzaileak ziren eskolako irakasleak (maila ezberdinetan), ikasleak (neskaren gelakidetatik hasiz pixkanaka-pixkanaka eskola guztia hartzeko) eta neskaren gelakideen eta ondoko gelako ikasleen familiak.
- Guraso elkarteak edo eskolako bestelako langileak eta eragileak (jangelako langileak, eskola orduz kanpoko klubak etab.) proiektu honetan inplikatzeko aukera ez zen inoiz aintzat hartua izan.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Honako hauek dira eskolako esku-hartzean parte hartu zuten pertsona eta eragileak:

1. **Neska transexualaren familia:** amak rol aktiboa izan zuen prozesu guztian zehar eta bere erritmoa markatu zuena izan zen. Ekintza guztiak tutorearekin koordinatu zituen eta LGTBI kolektiboa babesteko zerbitzu ezberdinak erabili zituen.
2. **Tutorea:** babesa emateaz gain, familiaren aliatua izan zen uneoro eta familia eta zuzendaritzaren arteko bitartekaria izan zen ere. Transexualitatearen inguruko heziketa jaso zuen.
3. **Berritzegune eta Ararteko:** Heziketa saioak eman zituzten irakasleentzat eta familiak informatzeko saioetan parte hartu zuten ere.

68

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundearen izena eta azalpena

Familia, zuzendaritza, Aldarte, Errespetuz (Berdindu zerbitzuko administratzaileak), Ararteko eta Berritzegune.

Koordinazio ereduak

Bilera ezberdinak egin ziren inplikatu guztien artean. Proiektuak ez zuen liderrik edo lidergo talderik izan. Ama izan zen erritmoa markatu duena.

Lankidetzaren eta koordinazio ereduaren ebaluazioa

Koordinazio eredu zehatzik ez zegoenez, gure ustez proiektua hobetzeko aukera da sare bat osatzea: gurean, programak errepikatu eta bikoiztu baitira eta saihestu daitezkeen egoera gatazkatsuak egon baitira (ezinezkoak liratekeenak eragile bakoitzak argi eta garbi zehaztuta balu bere zeregina).

2013-2014 ikasturterako, eskolako zenbait irakaslez osaturiko babes talde bat eratu da. Transexualitatearen inguruko heziketa jaso eta kasuaren jarraipena egingo dute. Honela, eskolak barne kontaktu bat izango du (eskola eta irakasleen artean), gehi familiarekin eta inplikaturiko zerbitzu guztiekin (LGTBI kolektiboa eta hezkuntza zerbitzuak) kontaktua ere.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Ondorengoak dira proiektuaren arrakasta ahalbidetu duten gakoak:

- Tutorea proiektu osoan zehar egon zen inplikaturik, familiaren erritmoa eta beharrak lehenetsi zituen eta bitartekaria izan zen eskolako zuzendaritzarekin. Tutorea eta amaren arteko konfiantza eta lankidetzaren bikaina funtsezkoak izan ziren arrakasta bermatzeko.
- Zuzendaritzak esku-hartzea familiaren behar eta erritmora egokitu beharra zegoela onartu zuen.
- LGTBI kolektiboa babesteko zerbitzuek sentsibilizazio saioak egin eta kasuaren jarraipenean inplikatu ziren.
- Inguruko familien babesa bilatu zen. Kanpoko laguntza egon zen familiak informatzeko eta aipatuak jazarpen homofoboa prebenitzeko aliatuak bilakatzeko.
- Erakunde publikoak eta hezkuntza arloko erakundeak (Ararteko eta Berritzegune) inplikatu ziren ere eta lan eskergea egin zuten laguntza eta heziketa materiala eskaintzeko; halaber, Berdindu zerbitzuaren inguruko informazioa eskaini zuten.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

- Proiektua ez zegoen sistematizatua eta ez da protokolorik egin etorkizunean jazarpen homofoboko jazoerak prebenitu eta kudeatzeko.
- Sentsibilizazio lana neska zehatz baten aurkako jazarpen homofoboa saihesteko gauzatu zen eta heziketa eskola guztira hedatzeko asmoa badago ere, eskolak ez du aniztasunaren aldeko estrategia orokorrik ezarri.
- Irakasleez aparte, eskolako beste eragileek ez zuten parte hartu (eskola-orduez kanpoko klubeko begiraleak edo jangelako langileak, esaterako). Aintzat hartzen badugu familiaren eta tutorearen arreta deitu zuten gertaerak jangelan gertatu zirela eta horietako batean jangelako begirale batek parte hartu zuela, esan genezake proiektuak ez zuela eskolaren barruan neskekin harremana izan dezaketen eragile guztiak hartu.
- Barne gatazka egon zen uneren batean, iritzi ezberdinak baitzeuden LGTBI taldeen artean, eta horrek ez zion elkarren arteko lanari mesederik egin.
- Familiaren ustez inplikaturik zenbait elkartek ez zioten jaramonik egin bere iritziri, ez zuten parte hartu. Ondorioz, proiektuaren partaideak eta erantzukizunak hobetu zehaztu eta finkatu behar direla uste dugu.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Lehenengoz gauzaturiko proiektua izan da, baina LGTBI elkarte eta babes zerbitzuen esperientzia baliagarria izan zen, antzeko kasuetan aplikaturiko gakoak azaldu baitzizkiguten.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak?

Ez zen horrelakorik aurreikusi, proiektua arazoa agertu ahala garatu baitzen. Erabakiak sorturiko beharrei erantzuteko hartu ziren.

Nolanahi ere, esan beharra dago amak zein tutoreak (galdetutako pertsonak) oso balorazio altua eman diotela proiektuari.

E S P A Ñ I A

(5. KASUA)

Erakunde Mota:

UPV-EHU. Euskal Herriko Unibertsitateko Sexualitatearen Psikologia Saila

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Javier Gomez-Zapiain, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

Proiektuaren Izenburua

Sexumusu heziketa afektibo eta sexuala hezkuntza sisteman txertatzeko proiektu bat da. Ikasgai horren egitarauaren garapenean eta informazio teknologia berrietan oinarritzen da.

Proiektuaren Justifikazioa

2009an Eusko Legebiltzarrak Sexu eta Ugalketa Osasunaren Legeak prebentzioaren alorrean xedatzen duena garatzea eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. Jaurlaritzak ardura hori Osasun Sailaren esku utzi zuen eta honek proiektu bat garatzea eskatu zion Euskal Herriko Unibertsitateari, jendaurrean jarri baino lehen. Proiektua Sexualitatearen Psikologia Sailak garatu zuen 2010-2011 ikasturtean zehar, Javier Gómez Zapiainen zuzendaritzapean, azken honek eskarmentu handia baitzuen antzeko ekimenak diseinatzen eta garatzen⁴.

Proiektua 2011n bukatu zen. Bere aurkezpenak Jaurlaritzan egondako aldaketarekin bat egin zuen eta gobernu berriak proiektua gelditu egin zuen, Sexumusu ekimena hartuko zuen heziketa plan oso bat garatzeko asmoa zuela argudiatuz.

⁴ Esaterako, sexu heziketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumaren zirraborroan sartu nahi zuen Uhinbare proiektua sustatu zuen. 2000. urtean abiatu zenetik, 80 eskola inguruk parte hartu dute Uhinbaren.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Ekimenaren xede nagusia da ikasleak derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan beren behar afektibo eta sexualak kudeatzeko gai direla bermatzea.

Gauzaturiko esku-hartzea

Sexumusu ekimenak bi ardatz nagusi ditu: heziketa sexuala txertatzen duen curriculum-proposamen bat eta ikasleentzako bideojoko bat, heziketa sexuala landu dezaten.

“Nerabeen Sexualitatea Euskal Erkidego Autonomoan. Nerabeen sexu-portaera eta Sexu-hezkuntzaren egoera Euskadiko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan” hasiera ikerketa egin zen gaiaren egoera aztertzeko.

Proiektuko material nagusia *Irakaslearen Gida* da: nerabeen sexualitatea eta garapen psikosozialari buruzko oinarritzko edukiak biltzen ditu, eta heziketa sexuala hezkuntza sisteman txertatzeko gakoak ere. Bigarren hezkuntzako ikasgaiekin loturiko materiala eskaintzen du ere.

Irakaslearen Gidaz gain, Sexumusuk lan-sortak eskaintzen die irakasle eta ikasleei, informazio materialarekin. “Desira erotikoaren orientazioa” lan-sortak heterosexualitatea, homosexualitatea eta homofobia lantzen ditu. Lan-sortez gain, guztira 12 Sexumusu jarduera daude galdetegiak: bideoak eta elkarrekintzan eta esperientzian oinarrituriko jarduera dinamikoak.

Halaber, Sexumusu aplikazioak ikus-entzunezko baliabideak eskaintzen ditu, beren xedea harreman afektibo eta sexualak hasteko norbanakoak behar dituen gaitasunen garapena sustatzea delarik. Jarduera progresibo ezberdinez osaturiko bideojoko bat da. Ezagutzaren barneratzean eta eguneroko egoeretan sorturiko emozioak partekatzean oinarrituriko atazak eginaz ikasten du ikasleak.

Proiektuak irakasleentzako heziketa saioak aurreikusten zituen ere baina, azkenean, ez ziren egin, Hezkuntza Sailaren inplikazio faltagatik. Nolanahi ere, Sexumusu proiektua bukatu ostean irakasleen artean hedatu zen Berritzeguneen bidez. Adu ezberdinak gonbidatu zituen eta 40 pertsona inguruk parte hartu zuten.

Lehen esan bezala, diseinua bukatuta eta material guztia prest zegoenean, gobernu berriak babesa kendu zion proiektuari. Sexualitatearen Psikologia Sailak egindako materialak eta bideojokoa zabaltzeko euskarri bat sortu beharra zegoela erabaki zuen eta, ondorioz, webgune bat sortzea erabaki zuen proiektuaren diruarekin. Egun, online plataforma eguneratzen dabilta, proiektua ezagutaraziz eta informazioa eskatzen duen edonori laguntzen. Webguneak eduki berriak sartu ditu gainera: heziketa sexualari buruzko antzeko proiektuen loturak (esaterako, Rainbow Has edo GIB/HIESa, sexu-transmisioko gaixotasunak eta nahi gabeko haurduntzak prebenitzeko gidak) eta familientzako atal bat. Ondorioz, Sexumusu proiektua webgune horretan berpiztu da.

Azkenik, esan beharra dago erakunde publikoek proiektua zuzenean sustatzen ez badute ere Osasun Sailak bere webgunean sartu duela eta Berritzeguneek, eskolek edo irakasleek eskatuta, heziketa sexualari buruzko heziketa edo materialak eskaintzen dietela aipatuei.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Proposatutako curriculumaren derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago (12-15 urte bitarteko nerabeak). Sexumusu plataforma digitala, bere aldetik, bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta.

Hasierako ekimenak ez zuen familiekin lan egiteko aukera aurreikusten. Halere, webgunea sortu zenean, eskola batzuek familientzako atal bat sartzea iradoki zuten (irakasleentzako eta ikasleentzako atalez aparte). Honela, argia familiengan jartzen da ere eta hauek Sexumusu ekimena lantzen duten eskoletako ikasleek jorratzen dituzten edukiak ikusteko aukera dute. Webguneak ohiko galderei ("Zergatik ez du nire seme-alabak gurasoekin sexuaz hitz egin nahi?", adibidez) erantzunak, heziketa sexualari buruzko familientzako bibliografia, Sexumusu lan-sortak (ikasgelan landuriko materialean oinarrituta) eta Osakidetzako Sexu Osasun Zerbitzuaren lotura agertzen ditu.

Ekimenak egituratu edo sistematizatu exekuziorik izan ez duenez, ezinezkoa da partaidetzari buruzko datuak jakitea. Javierrek dakienez, Gipuzkoako 2 eskolak ekimena landu dute, eta baita Bizkaiko ikastola batzuek ere. Esan ere Internetarako sarrerek diotenez interes handia piztu duela Latinoamerikan. Hutsune horrek asko zailtzen du erabiltzaileen ebaluazioak eta iradokizunak jasotzeko aukera.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

- Ez da sexu heziketako programa bat, sexu heziketa hezkuntza sisteman txertatzen duen proiektu bat baino. Ondorioz, bere ikuspegia edukien garapenean edo kanpoko adituen partaidetzan oinarritzen diren beste esku-hartze programena baino askoz ere zabalagoa, berritzailea da. Sexumusuren nahia da programak integratzea eta partekatzea, ez ordea siloak bilakatzea.
- Sexumusuren webgunea ikuspegi integratzaile eta beste proiektuekiko iragazkortasun horren isla da, heziketa sexualari buruzko beste ekimen ezberdinetako lotura zuzenak agertzen baititu. Proiektuaren atzean daudenen iritziz, elkarte eta erakunde ezberdinen proiektuak hartu eta elkarlana eta sare lana koordina ditzakeen datu-basea bilaka daiteke ekimena.
- Sexumusu ekimeneko baldintzetako bat zen IKTetan oinarrituta egotea eta elkarrekintza metodologia bat aplikatzea. Eredu hori erakargarria da ikasleentzat eta egoera ezberdinetan erabiltzeko aukera ematen die.
- 2013ko irailean Sexu Osasunerako Munduko Elkarteak Bikaintasun eta Berrikuntzari saria eman zion, erakunde publikoetako programen kategorian. Sariak ospe eta balio handia ematen dio ekimenari eta pizgarria izan daiteke, erakundeek ekimena sustatzea erabaki dezaten.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Aurkitutako arazo nagusiak erakunde mailan izan ziren. Ondoren garrantzitsuena aipatzen dugu:

- Hasiera-hasieratik, desadostasunak egon ziren Hezkuntza eta Osasun sailen artean, bakoitzak bere interes zehatzak lehenesten baitzituen, mesede gutxi eginaz adostasunari.
- Jaurlaritzan egondako aldaketak ekimenaren garapena eten zuen eta webgunea martxan badago egun bere diseinatzaileen inplikazio pertsonalari esker izan da. Horrek erakundeek epe luzerako proiektuak garatu ahal izateko dituzten gabeziak agerian uzten ditu, eta baita pertsonalki inplikaturik dauden pertsonen beharra ere, erakundearen babesaz haraindi.
- Jaurlaritzako arauak oso zorrotzak dira teknologia berrien erabilerari dagokionean. Webgunea egun domeinu pribatua da baina publikoa bilakatzen bada, egin beharreko aldaketak hain dira neketsuak eta garestiak ezen ezinezkoa izango den webgunea eguneratuta izatea eta dinamiko mantentzea. Beste adibide bat: webguneak ezingo luke "Sexumusu" izenburua eraman, "sexu" hitzak eduki pornografikoaren aurkako alarmak pizten baitu.
- Eskolek ez dute baliabide nahikorik teknologia berriei dagokienean eta, ondorioz, ezin dituzte Sexumusu bezalako online programak erabili. Bideojokoaren plataforma pisutsuegia zen eta geldoegi zihoan eskola gehienetako informatika sistemetan eta hori desabantaila handia da.
- Sexumusu ekimenaren sustatze zein exekuzioa gaian sentsibilizatuta dauden irakasleengan sortu duen interesaren mende daude egun. Bere xedea sexu heziketa hezkuntza sisteman txertatzea denez, eskola guztiak inplikaturik egon beharko luke ekimenaren garapenean. Uhinbare aurreko proiektua interesa agertu zuten irakasleen eskoletan garatu zen. Irakasleen egonkortasuna ez denez handia gure eskoletan, oso zaila zen proiektua mantentzea eta ahitu egin zen.
- Sistematizaturik ez dagoenez eta ebaluazio eredurik ez duenez, ezinezkoa da jakitea egun ematen zaion erabilpena eta erabiltzaileek nola baloratzen duten.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan?

Ebaluazio erreminta garatzen ari gara egun eta baliozkotze fasean dago. Ezagutza baino, gaitasunak ebaluatzen ditu.

Erakunde Mota:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Aldarte, Errespetuz, Gehitu eta Guztiok elkarteen bidez sustatu duen zerbitzu publikoa.

Erakundearen Izena:

Berdindu.

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Farapi, Gehituko Jesús Estombari eginiko elkarrizketa bati esker.

Proiektuaren Izenburua

Berdindu, aniztasun sexuala eta genero identitateari loturiko gaiei buruzko informazioa eta laguntza eskaintzen duen zerbitzua.

Proiektuaren Justifikazioa

2000. urteko otsailaren 4an Eusko Legebiltzarreko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari Informazio, Laguntza eta Aholkularitza zerbitzu bat eratzea eskatzen zion mozio bat onartu zuen. Zerbitzuak, norbanako lesbiana eta gay eta beren familien alde lan egingo zuen, foru aldundia eta Euskadiko hiri nagusietako udalekin lanean.

2002ko azaroaren 4ean, Eusko Jaurlaritzak Berdinu Sexu eta genero aniztasunari buruz informazioa eta arreta emateko zerbitzua eratu zuen. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren mende zegoen orduan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren mende egun.

Aurretik, LGTBI elkarte batzuek aipatu laguntza eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen zuten ere; esaterako, Gehituko Ínfasis zerbitzuak edo Aldarte elkarteak. 2010era arte, paper hori betetzen jarraitu zuten Berdin zerbitzuarekin batera. Urte hartan, ordea, zerbitzua hiru lurraldetan lan egiten zuten elkarteen bidez kudeatuko zela erabaki zen.

Lehen hamarkadan zehar, zerbitzuak bere arreta LGTBI pertsona eta beren ingurukoetan jarri zuen. 2013tik aurrera zerbitzu berriak sortu ziren, identifikatutako behar berriei aurre egiteko. Berdinu Eskolak eratu zen, heziketa eta pertsonalizatutako aholkularitza jasotzeko eskaera geroz eta handiagoa baitzen. Aipatu eskaera bereizkeria arazoak zituzten euskal eskoletatik eta adingabe transexualetik zetorren, eta baita aniztasun sexualaren ikuspegia txertatzeko zegoen interesetik ere. Berdinu Familiak jaio zen ere, LGTBI seme-alabak zituzten familientzako erreferentzia gisa.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Proiektuaren xede nagusia zen guztiontzako berdintasuna bermatzea, beren sexu joera edo genero identitatea dena dela, eta lesbofobia, homofobia, bifobia eta transfobia adierazpen guztiekin bukatzea, testuinguru guztietan.



Proiektuak, ondorioz, informazioa eta aholkularitza eskaintzen die eragile ezberdinei, aniztasun afektibo eta sexualarekin eta generoarekin loturiko gaien inguruan.

Gauzaturiko esku-hartzea

Informazioa eta laguntza eskaintzen zaie lesbiana, gay, transexual eta bisexualei, eta beren ingurukoei. Informazioa eta laguntza eskaintzen zaie hezkuntza komunitateari eta gizarte orokorrari, homofobiarekin bukatzeko.

Zerbitzu ibiltaria eskaintzen da ere, euskal hiru lurraldetan dituen egoitzez gain.

Zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu, artatutako eragilearen arabera:

- **Berdinu Pertsonak:** Informazioa eta laguntza eskaintzen die lesbiana, gay, transexual eta bisexualei, eta beren ingurukoei ere, sexu joerarekin eta genero identitatearekin loturiko edozein gairen inguruan. Halaber, aholkularitza eskaintzen du homosexualitateari eta transexualitateari buruzko berdintasunaren aldeko eta bereizkeriaren aurkako politikak garatzeko. Hartzaileak dira erakunde publikoak, hezkuntza arloa, enpresak, elkarteak eta abar. Aldarte da arduraduna Bizkaia eta Araban; Gehitu Gipuzkoan.
- **Berdinu Eskolak:** Aholkularitza eta heziketa eskaintzen die aniztasun sexuala lantzeko, curriculumean sartzeko interesa duten irakasleei; baita LGTBI bereizkeriari eta jazarpen homofobo, lesbofobo eta transfoboari aurre egin nahi dieten irakasleei ere. Aholkularitza eta heziketa aditu, aholkulari, zuzendari, eta irakasleei zuzenduta dago. Guztiok elkarteak kudeatzen du zerbitzua egun.

- **Berdinu Familiak:** Zerbitzuak erreferentzia eta elkartasun gunea izan nahi du genero joera ezohikoa agertzen duten adingabeak dituzten familientzat. Partaideek beren esperientziak parteka ditzakete eta babesa agertu elkarri. Bere eginkizunak dira familian sorturiko emozio kontrajarriak bideratzen laguntzea, taldekako irtenbideak erabakitzea ingurugiro (eskola, parkea) seguruak sustatzeko, adingabeak egokiro tratatzen lagundu eta gizartean ez duten segurtasun sentazioa ematea familiei. Familiak hilean behin biltzen dira, igandean. Aldartek kudeatzen du zerbitzua.
- **Berdinu ibiltaria:** Pertsonaren batek laguntza edo aholkularitza behar dituen bakoitzean mugitzen den zerbitzu ibiltaria da. Errespetuz kudeatzen du.

LGTBI kolektiboaren gaien inguruko materialak eskaintzen dizkie ere eragile ezberdinei (fami­liak, irakasleak, etab.).

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Goian aipatu direnak.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Zerbitzuak kudeatzen duten elkartetako kideak dira proiektuan inplikaturiko langileak: Berdinu Pertsonak zerbitzua Gehituk ematen du Gipuzkoan eta Aldartek Bizkaia eta Araban; Berdinu Familiak zerbitzua Aldartek ematen du; Berdinu Ibiltaria Errespetuz elkartearen ardura da; eta Berdinu Eskolak zerbitzua Guztiok-en ardura da.

76

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Indarrak nagusia da Euskal Herriko LGTBI elkarte eta alde asko batzen dituela eta batasun horren ondorioz, proiektua sendoagoa eta indartsuagoa da. Elkarte ezberdinen lana zerbitzu publiko bakar batean zentralizatzeak jauzi kualitatibo handia suposatu du.

Halaber, proiektuari esker LGTBI elkarte berberak dira beharrak eta arazoak identifikatzen dituztenak eta, pixkanaka-pixkanaka, zerbitzuan sartzen dituztenak. Horrenbestez, zerbitzua etengabe eguneratu eta hobetzen dute (esaterako, Berdinu Eskolak zerbitzuaren sorrera).

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Proiektuaren abantailetakoa bat bere ahulezia nagusienetakoa da ere. Izan ere, elkarte ezberdinak direnez, koordinazioa eta adostasunak lortzeko gaitasuna funtsezkoak dira. Asko aurreratu bada ere elkarte ezberdinen koordinazioari eta elkarren arteko lankidetzari dagokienean, asko dago egiteko oraindik.

Gainera, zerbaitetan iritzi ezberdintasunak daude elkartearen artean arazo baten irtenbideari dagokionean eta horrek desadostasunak eta barne eztabaidak ekarri ditu. Elkarriketatutako pertsonaren arabera, erronka da balorea agerian uztea, ikuspegi eta iritzi ezberdinez haraindi.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Lehen esan bezala, elkarrekin laguntza eta aholkularitza eskaintzen zuten aurretik baina Berdinduk elkarrekin ezberdinak zerbitzu publiko bakar baten baitan batu ditu.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeen izena eta azalpena

Aldarte, Errespetuz, Gehitu eta Guztiok elkarrekin; zenbaitetan hirugarren zerbitzuen partaidetza egon da ere.

Koordinazio ereduak

Berdindu zerbitzu bakoitza nahiko independente da funtzionamenduari dagokionean. Urte amaieran urteko txostenean denak aztertzen dira. Sistematizatua ez badago ere, koordinazioa nahiko ona da Berdindu Pertsonak zerbitzua kudeatzen duten hiru elkarrekin artean (txostenak, kasuak eta iritziak partekatzen dituzte, etab.).

Lankidetzaren eta koordinazio ereduaren ebaluazioa

Lehen esan bezala, asko aurreratu bada ere barne koordinazioan, koordinazioa zerbitzuak dituen erronka nagusienetakoa da oraindik.

77

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagaiak eta erakusleak? Zeintzuk izan ziren emaitzak?

Ebaluazioa urteko txostenean egiten da.

2.3 I T A L I A

(1. KASUA)

78

Erakunde Mota:

Irabazi asmorik gabeko elkarte.

Erakundearen izena:

Avvocatura per i diritti LGBTI–Rete Lenford (LGTBI eskubideen aldeko elkarte - Lenford Sarea).

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Urrutiko ikerketa.

Proiektuaren Izenburua

LGTBI eskubideen aldeko elkarte – Lenford Sarea (Gizarte Garapenerako Elkarte).

Proiektuaren Justifikazioa

LGTBI eskubideen aldeko elkarte – Lenford Sarea Saveria Ricci, Francesco Bilotta eta Antonio Rotelli abokatuen ekimena da. Bere xedea da LGTBI eskubideen ezagutza eta errespetua sustatzea Italian. Lenford izena GIBa zuten pertsonen eskubideak defendatzeagatik eraila izan zen aktibista Jamaikarrarengandik hartzen du sareak eta helburutzat du homosexuali babes juridikoa ematera konprometitu diren abokatu italiarren sare bat sortzea.

Italia Europar Batasuneko herrialde nagusien atzetik doa LGTBI eskubideen ezagutzari eta sustapenari dagokionean. Ondorioz, sareak buelta eman nahi dio egoerari eta funtsezko eragilea bilakatu nahi du LGTBI eskubideen eta beren sexu joeragatik bereizkeria pairatu dutenen defentsan.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Elkarteak LGTBI eskubideak sustatu eta bermatu nahi ditu. Bere oinarria ez da sexu joera, justiziarekiko konpromisoa baino.

Lenford Sarearen xedea da, LGTBI eskubideei dagokienean, abokatu sare bat sortzea aipatuek informazio parteka dezaten, herrialdearen beste ingurutan gertaturiko jazoerak gertutik jarrai ditzaketen lankideak identifika eta eztabaida eta garapen kulturalerako aukerak identifika ditzaten; finean, lana eraginkorragoa izan dadin. Honela, LGTBI kolektiboaren eskubideak sustatuko dira eta LTGBI kolektiboarekin loturiko gai juridikoak aztertuko dira.

Gauzaturiko esku-hartzea

2007ko abenduan abiatu zenetik, elkarteak aktiboki lan egin du LGTBI eskubideen ezagutza eta ulermena sustatzeko abokatu italiarren artean. Horretarako, kanpaina proaktiboak gauzatu ditu eskubideen exekuzioa eskatzeko eta norbanakoak babesten ditu pro bono ekimenen bitartez. Italia osoan garaturiko ekimen juridiko nagusia "Ekintza Baikorra" deiturikoa izan da: sexu bereko bikoteei ezkontzeko eskubidea ematearen alde. Azkenean, Italiako Epaitegi Konstituzionalak babestu egin zuen, gaiaren inguruko lehen epaia emanaz. Elkarteak Europako proiektu ezberdinetan parte hartu du eta Italiako hegoaldean emandako LGTBI bereizkeriari buruzko ikerketa bat egin du, asilo politikoaren zain dauden LGTBI norbanakoak sartuz ere aipatuan.

Lenford Sarea sortu zen horrenbestez, Italia osoa hartuz, eta mintegi eta heziketa saio ezberdinak antolatu ziren, barruti juridiko ezberdinetan, sareko kideentzat –eta baita kide ez direnentzat ere–.

Norbaitek Lenford Sarea erabiltzen duenean abokatu batengana joateko, abokatuak gaiak eta jarraitu beharreko prozeduraz sare-kideekin kontsultatzeko aukera izango du, konfidentzialtasuna mantenduz beti ere. Sare-kideak doan eman beharko dute gatazka juridikoa zehazteko lehen aholkularitza saioa. Ondoren, tarifa minimoa aplikatuko dute.

Halaber, European Equal Jus Project proiektuari esker (<http://www.equal-jus.eu/>), elkarteak Lenford Ikerketa Zentroa sortu du (Sexu Joera eta Genero Identitateari buruzko Europako Ikerketa Zentroa), ekimen ezberdinak gauzatzeko: ikerketak egitea, LGTBI gai juridikoen inguruko liburutegi bat sortzea, datuak jasotzea, heziketa eta topaketak antolatzea eta LGTBI eskubideen eta gaien inguruko sentsibilizazioa sustatzea. Elkarteak LGTBI eskubideen inguruko zenbait liburu argitaratu ditu eta liburutegiak arlo juridikoko 500 liburu hartzen ditu egun; gehienak ingeleseraz daude.

Laburbilduz, LGTBI gatazken inguruko aholkularitza juridikoa eskaintzeaz gain, elkartearen ekintza nagusiak ondorengoak dira:

- Heziketa saioak antolatzea kide eta kide ez direnentzat;
- Jarduera bereziak antolatzea unibertsitateko ikasleak hezteko;
- Argitalpen zientifikoak sustatzea.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Hartzaile nagusienak beren sexu joera edo genero identitateagatik arazo juridikoak dituzten LGTBI norbanakoak dira. Lenford Sareari laguntza eskatzeko, posta-e bat bidal daiteke sos@retelenford.it helbidera.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Elkartekideak dira abokatuak –eta unibertsitateko ikasleak–. Halere, konpromiso maila ez da berdina LGTBI eskubideen aldeko elkarteko edo Lenford Sareko kideentzat.

- LGTBI eskubideen aldeko elkartean egoteak konpromiso handiagoa eskatzen du. Bere kideek beren denborako zati bat bilera eta komunitate ekintzei esleitzera, heziketa saioak ematen edo elkartearen jardueretan parte hartzen erabiltzera behartuta baitaude.
- 2009ko ekainean onartu legediari jarraiki, ordea, Lenford Sareko kideek heziketa erantzukizunak dituzte soilik. Ondorioz, denbora txikiagoa behar dute informatuta egon eta jarduera guztietan parte hartzeko. Abokatuak nahi duten partaidetza mota erabaki dezakete, beren aukeren arabera.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Elkartearen indar nagusiak honako hauek dira:

- Italia osoko abokatu eta profesionalak hartzen ditu;
- Kideak LGTBI kolektiboaren eskubideak defendatzera eta beren gaitasunak gizarte xede baten esku jartzera konprometitzen dira;
- Kide eta laguntzaile guztiek LGTBI gaien inguruko beren zerbitzu juridikoak gutxieneko kostuan eskaintzen dituzte;
- Heziketa eta sentsibilizazio jarduerak sustatzen ditu, kide zein kide ez direnentzat;
- Ikerketa zientifikoa sustatzen du.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Eta ahulezia nagusiak ondorengoak:

- Bergamon duen bulegoaz aparte ez dago beste tokirik (sukurtsal edo ordezkaritza eta abarrik) Italiako beste eskualdeetan, erabiltzaileak artatu ahal izateko.
- Webgunea elkartekide izan nahi direnentzat diseinatuta dago bereziki; eta posta elektronikoko helbide orokor bat dago laguntza eskatu nahi dutenentzat. Elkartek jorratzen dituen LGTBI arazo eta gai ezberdinen zerrenda sartuz gero webgunea asko hobetuko litzateke.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

LGTBI eskubideen alde lan egiten duten Italia osoko abokatuak hartzen dituen lehen elkartea da. Kide (LGTBI eskubideen aldeko elkartea) eta laguntzaileen (Lenford Sarea) artean

bereiziz, profesionalek lan eraginkorragoa egin dezakete, beren ekarpena eskura duten giza baliabideen eta denboraren arabera zehatz baitezakete.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundearen izena eta azalpena

Bat ere ez.

Koordinazio ereduak

Sarrera kuota ordaindu duten kide guztiak hartzen dituen batzar nagusiak Kontseilu Eragilea aukeratzen du (5-7 kide artean, presidentea barne). Kontseilu Eragileak Batzorde Zientifikoa aukeratzen du eta honek Lenford Sarea koordinatzen du. Heziketa jardueren kudeaketa bi Elkartekideren esku dago. Batzorde Eragileak hiru urtean behin izendatzen ditu aipatuak (Batzorde Zientifikoaren Idazkaritzaren proposamenez).

Kontrol eta Ebaluazio Ereduek

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan?

Bat ere ez.

81

I T A L I A

(2. KASUA)

Erakunde Mota:

Elkartea.

Erakundearen izena:

Polis Aperta, Europako herrialde ezberdinetan ezarrita dagoen elkarte sare bateko kidea (EGPA – Europako Polizia Homosexualen Elkartea).

Galdetutako pertsonak eta erakundearen izena:

Simonetta Moro (Polis Apertako presidentea).

Proiektuaren izenburua

“Corso di tecniche operative legate a tematiche LGBTI per operatori di polizia locale”

EU: “LGTBI gaien inguruko prozedura operatiboetarako buruzko heziketa ikastaroa tokiko polizientzat”.

Proiektuaren Justifikazioa

EGPA Europako Polizia Homosexualen Elkartean, Irlandako atalak batez ere, heziketa materiala garatu du ("LGTBI Komunitateak Babestu: Poliziaren Erreminta-sorta" deiturikoa) University College Dublin eta Europako Batzordearekin batera. Erreminta-sortak erreminta ezberdinak eskaintzen dizkie, polizia, agintari eta hezitzaileei, polizia gorpuek LGTBI buruzko heziketa saioak gara ditzaten.

Erreminta-sorta dokumentu irekia da, Europako polizia ezberdinen esku dagoena, eta erreminta malgua izatea du helburu. Aurreikusitako egoerak Europako testuinguru ezberdinetara egokitu daitezke eta tokiko erreferentziekin, tokiko lengoiaz eta tokiko lehentasunak aplikatuz berregin daitezke; honela, beren gailentasuna bermatzen da.

Italia izan zen erreminta-sorta egokitu zuen lehen herrialdea; zehazki, Bologna Hiriko polizia izan zen, Polis Apertak (EGPAk Italian duen eskumendekoa) antolaturiko jardunaldi batean egondako polizia kapitain baten proposamenez. Jardunaldi horretan zehar, ez berak ez bere poliziek egoera zehatzetan esku-hartzeko gaitasunik ez zutelaz ohartu zen kapitaina eta, ondorioz, aipatu heziketa sorta eskatu zuen.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Erreminta-sortaren xedea homofobiari aurre egitea da ordena publikoko indarren esku-hartzeari esker. Ondorioz, azken horiek benetako egoeren inguruko heziketa berezia behar dute. Bestela esanda, erreminta-sortaren xedea da LGTBI komunitateari loturiko egoera zehatzetan esku-hartzeko gaitasunak eta abileziak eskaintzea poliziei, komunitate horren beharrak jendarte orokorrenak ez bezalakoak izan baitaitezke. Esaterako, LGTBI norbanakoek pribatutasuna nahi dezakete, transgeneroek identifikazio arazoak izan ditzakete (hau da, trantsizioa egin aurretiko argazkia duen nortasun agiria emanez gero poliziar, honek bere benetakotasunaren inguruko zalantzak izan ditzakete). Gorputz miaketa batean, LGTBI norbanako batek bere genero identitatea duen polizia bat eska dezake, nahiz eta bere sexu biologikoaren kontrakoa izan.

Horrenbestez, heziketa sorta horren xedeak ondorengoak dira:

- Ezagutza eta ulermen egokia ematea polizia gorpuei, LGTBI kolektiboari ematen zaion zerbitzuaren kalitatea hobez dezaten.
- Eguneroko egoerei aurre egiten laguntzea poliziei.
- LGTBI kolektiboaren konfiantza eta lasaitasuna eraiki eta mantentzea, profesionaltasuna azalduz polizia prozeduretan.
- LGTBI pertsonen inguruko zein polizia barruko estereotipo eta aurreiritzi ezberdinen inguruko hausnarketa sustatzea polizien artean.
- LGTBI norbanakoekin dituen elkarrekintzetan poliziak aurreiritzirik gabeko giro bat sortzen lagun dezakeela agertzea.
- LGTBI kolektiboaren arazoak konpontzeko estrategia garatzea eta sustatzea.
- LGTBI polizien lan-giroa hobetzea.
- Lan-giro etikoa sortzea eta mantentzea.

Gauzaturiko esku-hartzea

Heziketa saio pilotua egin zen powerpoint aurkezpen, kasu-azterketa, taldekako eztabaida eta esku-hartze protokoloen definizioaren bidez. Zenbait kontzeptu teoriko, ikuspegi psikologikotik abiatuta eztabaidatu ziren (transgeneroei buruzko gaiak, adibidez). Bi heziketa saio egin ziren 2012ko azaroan eta 2013ko urtarrilean. Lehenean (4 orduko saioa) 20 polizia parte hartu zuten; bigarrean, 17 inspektorek (6 orduko saioa).

Erabili materialak LGTBI norbanakoekin izandako benetako esperientzietatik ateratako ondorioetan oinarritzen ziren. Erreminta-sortak ikuspegi praktikoa aplikatu zuen, egoera zehatzetan oinarritua eta arazoak konpontzeko xedearekin. Egoera ezberdinak azaldu ziren eta, taldeka, irtenbidea zehaztea eskatu zitzaizkien poliziei.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Heziketa saioetako hartzaileak poliziak eta inspektoreak ziren.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Heziketa saioa Polis Apertako presidentea eta hezitzaile baten ardura izan zen.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Heziketa ikastaroak hartzaileen gabezia nagusi bat landu zuen eta LGTBI gai orokorretan baino, poliziek beren egunerokotasunean bizitzen dituzten egoeretan oinarritu zen. Bere indar nagusiak dira pragmatismoa, zehaztasuna eta kasu-azterketen erabilera. Ikaskuntza eguneroko benetako jazoeretan oinarritu zen. Jorrraturiko egoera ia guztiak egileek beren lanean bizi izandako esperientzietan oinarritzen ziren. Hori garrantzitsua da, heziketak polizientzat duen gailentasuna bermatzen baitu. Halaber, bi saio ezberdin (polizientzat bata, inspektoreentzat bestea) egiteko ideia begi onez hartua izan zen, profesional ezberdin horiek beren behar eta lan egiteko modu bereziak baitituzte.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Heziketaren ahulezia nagusia bere iraupena da. Egun batean 6 orduko saio bat egin ordez, iraupena luzeagoa izan zitekeen eta zenbait egunetan banatua. Era berean, hezitzaile osagarriak sartuz gero (LGTBI elkarten ordezkariak, esaterako), heziketa dezente hobetuko litzateke. AEBetako kasuak agerian utzi duenez, heziketa eraginkorragoa da hezitzailea uniformedun LGTBI norbanako bat denean.

Azkenik, partaideek eginiko iradokizun bat: denbora gehiago esleitzea osagai psikologikoei, saio osoari esleitutako denbora baino denbora gehiago beharko litzuketenak.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Berrikuntza nagusia izan zen Europako heziketa sorta Italiako testuingurura itzuli eta egokitu izana. LGTBI gai orokorrak landu ordez, benetako polizia kasuak landu zituen mota honetako lehen heziketa esperientzia izan zen Italian.

Lankidetzeta eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeen izena eta azalpena

Hauek dira partaideak:

- Polis Aperta: EGPA Europako Polizia Homosexualen Elkarteko kide den elkarte italiarra. Presidentea Simonetta Moro da (boluntarioa ere).
- Amin Michel: EGPAko Aholkularitza Batzordeko kidea eta OSCE ODIHR TAHCLE heziketa programako hezitzaile egiaztatua.
- TAHCLE (Gorrito-delituen aurka ordena publikoa aplikatzeko heziketa programa) proiektuaren sustatzailea Europako Segurtasun eta Elkarlanerako Erakundea da eta bere xedea da gorrito-delitu guztiekin bukatzea. EGPA elkarteak LGTBI kolektiboaren aurkako gorrito-delituekin aurka lan egiten du.

84

Koordinazio ereduak

Simonetta Moro Polis Apertako presidentek zuzenean koordinatu zuen polizia kapitainarekin.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan?

Inplikaturako alde guztiek positiboki baloratu zuten heziketa programa.

Hasieran zalantzak eta kezak zeuden: ez zegoen garbi poliziek heziketa saio bat behar ote zuten edo ez. Halere, partaideek gabezia zehatzak zituztelaz jabetu ziren heziketa saioan zehar eta, azkenean, saioa positiboa eta eraginkorra zela aitortu zuten.

Ebaluazio galdetegi bat banatu zen saio amaieran, beren eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko (erabilgarritasuna, ikasitakoa, hezitzailea, materialak, etab.).

Heziketa ebaluazio positiboaren beste adierazle bat: agintariek heziketa Bolognako polizia guztiei emateko prestutasuna agertu dute.

Egun, Manganelli polizia gorpuetako buru ohiak LGTBI elkarte ezberdinen eskaerari jarraiki sortu zuen OSCAD Bereizkeriaren aurkako babesa sustatzeko behatokiak erreminta-sortan sarturiko kasu bat eskatu digu, 2.800 polizia hezteko erabili nahi baitu.

I T A L I A

(3. KASUA)

Erakunde Mota:

Tokiko agintea.

Erakundearen Izena:

Turingo Hiria, Aukera Berdintasunerako Udal Saila.

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Urrutiko ikerketa.

Proiektuaren Izenburua

Servizio LGTBI.

EU: LGTBI Zerbitzua.

Proiektuaren Justifikazioa

Azken urteotan, Turingo hiriak garrantzi handia eman dio aukera eta eskubide berdintasunari, bere ustez garapen ekonomikoa garapen sozialarekin bat baitoa, aniztasuna barne, eta identitate ezberdinen errespetuarekin bat ere.

2011ko ekainaren 17an Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak erabaki historikoa hartu zuen, giza eskubideen berdintasuna aldarrikatuz sexu joera eta genero identitatearen ginetik. Ondorioz, mugarri garbia jarri zuen LGTBI norbanakoen eskubideen garapenerako mundu osoan. Horren jakitun, Turingo Udalak bereizkeriaren aurkako borrokarekin jarraitu nahi du LGTBI Zerbitzuaren bidez. 2001ean irekitako zerbitzu horrek babesa eskaintzen die LGTBI norbanakoei, beren bizi baldintzak hobetzeko xedearekin.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

LGTBI Zerbitzuko xede nagusiak ondorengoak dira:

- LGTBI norbanakoen bizi baldintzak hobeto ezagutzea, beren behar nagusiak ulertu eta beharrezko esku-hartzeak egin ahal izateko;
- Homosexualitatea eta transexualitatearekiko jarrerak aztertzea, sentsibilizazio jarduerak abiarazteko;
- Praktika eta esperientzia ezberdinen trukea sustatzea (Italian zein nazioartean), LGTBI norbanakoen eskubideak babesteko (lege arauak, proiektuak, ekimenak, etab.);
- Bereizkeria identifikatzea legedian;
- Sentsibilizazioa sustatzea.

Gauzaturiko esku-hartzea

Eta bere jarduera nagusiak honako hauek:

- Komunitate osoari zuzenduriko sentsibilizazio jarduerak;
- Kultura ekitaldiak antolatzea elkarrizketa irekia sustatzeko;

- Heziketa, funtzionario eta eskoletako langileei zuzendua;
- Gazteentzako hezkuntza jarduerak, eskolan, homofobia eta transfobiari aurre egiteko;
- Transgenero/transsexualen enpleguari buruzko informazioa eskaintzea erakundeei;
- Osasun arreta prebentiboa;
- Lankidetzat tokiko erakundeekin, ekimen eta heziketa jarduera bateratuak sustatzeko;
- Lankidetzat ezberdinak tokiko, eskualdeko, nazio mailako eta Europako gobernuen.

Hasieran, Zerbitzuak LGTBI norbanakoek Turingo hirian zituzten bizi baldintzen eta horien inguruan jendarte orokorrak zuen pertzepzioaren inguruko ikerketa sustatu zuen.

Era berean, 2010/2011n Europar Batasunak diruz lagundu zuen homofobiaren aurkako proiektu batean parte hartu zuen zerbitzuak (AHEAD – Homofobiaren Aurka. Europako Tokiko Erakundetako Estrategiak <http://www.ahead-bcn.org/?lg=3>). Proiektuari esker, funtzionario eta irakasleentzako heziketa programa bat tokiko erakunde ezberdinetan probatu zen.

Zerbitzuak, halaber, transexual eta transgeneroen laneratzea eta gizarteratzea sustatzeko eskualde mailako sarea (ISELT) sustatu zuen eta 2006an RE.A.DY sarearen sorreran parte hartu zuen Erromako Hiriarekin batera (jardute onen partekatzearen bidez LGTBI bereizkeriaren aurka borrokatuko zuten herri erakundetako sare nazionala). Azkenik, Zerbitzuak LGTBI kolektiboari buruzko liburu ezberdinen argitaratzea sustatu du.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Zerbitzuak antolaturiko heziketa saioen hartzaileak ondorengoak dira:

- Eskolak (irakasle eta ikasleak);
- Funtzionarioak (udalak, lurraldeak eta abar);
- Gizarte Zerbitzu Nazionalako Boluntarioak eta Turin Pride Koordinatzeko Erakundeko boluntarioak.

Azkenik, hartzaile nagusiak LGTBI norbanakoak dira.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Heziketa garatu ahal izateko, LGTBI Zerbitzuak bere baliabide propioak erabiltzen ditu, Turin Pride koordinatzeko batzordeko Heziketa Taldeko boluntarioak eta LGTBI gaien inguruko kanpoko adituak.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Turingo Udaleko LGTBI Zerbitzua 2001ean jaio zen eta, ondorioz, ibilbide luzea dauka, lankidetzat sendoekin eta esposizio handiarekin Italia mailan.

Laguntzaile sare handi batekin lan egiten du eta, honela, gauzaturiko jardueren eraginkortasuna berma daiteke, pilotutako eskarmentuari esker.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Bat ere ez.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Turingo Hiria aitzindari izan da LGTBI Zerbitzuaren sorrerarekin. Mota horretako zerbitzu bakarra baita Italian.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeen izena eta azalpena

LGTBI Zerbitzuak laguntzaile dituen erakundeak:

- Coordinamento Torino Pride (Turin Pride Koordinatzeko Batzordea): 1999an sortua, aniztasunaren balioa Piemonten sustatu eta babesten duten LGTBI erakundeak eta LGTBI ez diren erakundeak hartzen ditu. Sentsibilizazteaz gain, elkarrizketa sustatzen du gobernu eta politika mailako erakunde, sindikatu, hezkuntza arloko eragile eta bestelako elkarteekin.
- Associazione Culturale Queer "La Jungla": Filiazio politikorik ez duen kultura elkarte honek LGTBI inguruko informazioa partekatu eta estereotipoen aurka borrokatzen duten gazteak biltzen ditu.
- Associazione Lambda Amici della Fondazione "Sandro Penna": 40 urtetik gorako homosexuali zuzenduriko jarduera bereziak eta kultura ekimenak antolatzen dituen elkarte.
- Associazione Quore: LGTBI eskubideak sustatzen dituen elkarte, nazioarteko ikuspegiarekin.
- Associazione Radicale Certi Diritti: Politika eta justizia arloko zentroa, eskubide zibilen babesa sustatzen dituen genero identitateari eta sexu joerari dagokienean.
- Centro Studi e Documentazione "Ferruccio Castellano" Fede Religione Omosessualità: Profesionalei zuzenduriko aholkularitza eskaintzen duen elkarte. Fedea, erlijioa eta homosexualitateari buruzko eztabaidak antolatzen ditu ere.
- Circolo di Cultura Gay Lesbica Bisessuale Transgender e Queer "Maurice": Giza eskubideak babesteko (LGTBI norbanakoenak batez ere) boluntario elkarte. Kultura ekitaldiak, liburu aurkezpenak, eztabaidak eta erakusketak antolatzen ditu.
- Spo.T Sportello Trans: Transexual eta transgenderoei laguntzeko zerbitzua.
- Gruppo Transessuali "Luna": Transexual eta transgenderoei laguntzeko telefono-zerbitzua. Hitzaldiak antolatzen ditu ere.
- L'altramartedi: Emakume lesbianentzako zentro politiko eta kulturala.
- Comitato Provinciale Arcigay di Torino "Ottavio Mai": Sexu joera guztietako pertsonentzako elkarte, National Arcigay-eko sukurtsala da.
- Consulta Torinese per la Laicità delle Istituzioni: Kultura sekularra sustatzen duten 70 elkarte eta kultura erakunde biltzen dituen gizarte garapenerako elkarte.

Bereizkeriaren aurkako 22 jardute on

- **Famiglie Arcobaleno:** Guraso homosexualak eta beren ingurukoak hartzen dituen elkarte.
- **Gaytineris:** Talde gay ireki eta informala, kirol eta aisialdi jardute eta ekitaldiak antolatzen ditu.
- **Gruppo Pesce:** Igeriketa talde amateurra; kide gehienak homosexualak dira.
- **L'Altra Comunicazione:** Ikus-entzunezko arteen eta filmen bidez LGBTBI kolektiboaren gaien inguruko sentsibilizazioa sustatu nahi duen kultura elkarte.
- **La Fenice:** Homosexualitatea eta erlijioa eztabaidatzen dituzten gazte kristau eta homosexualak biltzen dituen taldea.
- **Rete Genitori Rainbow:** Iraganean harreman heterosexual batean seme-alabaren bat izan zuten LGBTBI gurasoei laguntzeko sorturiko erakundea.
- **Agedo:** Homosexual/transsexual seme-alabak dituzten gurasoen elkarte.
- **Direzione Gaya:** Emakumezko lesbiana eta bisexualei laguntza eta aholkularitza psikologikoa eskaintzen dien zentroa.
- **Fondazione "Sandro Penna" (Fondazione Fuori!):** Italiako lehen gay mugimenduaren harira sorturiko fundazioa. Bere xedea da bere ibilbideari buruzko artxibategi bat mantentzea eta ikerketa eta analisi historiko, literario eta zientifikoak sustatzea.

Koordinazio ereduak

Ondorengo erakundeekin lan egiten du LGBTBI Zerbitzuak bere jarduerak gauzatu ahal izateko:

- LGBTBI Turin Pride Koordinatzeko Batzordea. Noizbehinkako bilerak egiten dituzte ekimen ezberdinak planifikatu eta antolatzeko;
- Zuzendaritza Taldea: udal sail ezberdinetako ordezkariak biltzen ditu (ondorioz, Turingo Udaleko sail ezberdinen arteko koordinazioa bermatzen da aurreikusitako ekimenen antolakuntzan).

88

I
T
A
L
I
A**(4. KASUA)****Erakunde Mota:**

Irabazi asmorik gabeko elkarte.

Erakundearen Izena:

Ala Milano Onlus.

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Urrutiko ikerketa.

Proiektuaren Izenburua

Sportello Trans (Ala Milano Onlus)

EU: Trans Laguntza Zerbitzua

Proiektuaren Justifikazioa

Ala Milano Onlus 2002an sorturiko irabazi asmorik gabeko elkarte bat da. Eskarmentu handia dauka adikzioen arloan, sexu-transmisioko gaixotasunei eta GIB/HIESari dagokienean. Sportello Trans zerbitzua 2009an sortu zen, elkarte eta Antonia Monopoliren arteko bilera batetik. Azkenak urte askoko eskarmentua zuen LGTBI mugimendu, elkarte eta eskubide zibilak babesten zituzten erakunde politikoeekin lanean. Zerbitzua transgenero/transsexualak egunerokotasunean eta beren identitatea azaltzeko dituzten zailtasun eta arazoak aintzat hartuta sortu zen. Sportello Trans zerbitzuak, ondorioz, transexual eta transgeneroen osasun fisikoa eta psikologikoa defendatzeko konpromisoa dauka. Horretarako, tokiko, eskualdeko eta nazio mailako lankidetzak garatu ditu.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Sportello Transen xede nagusiak ondorengoak dira:

- Babes, laguntza eta defentsa sekular, apolitikoa transgenero eta transexualen alde;
- Jardute onen garapena gizarteratzea sustatzeko;
- Laneratzea eta birlaneratzea sustatzea;
- Laguntza profesionala eskaintzea.

Gauzaturiko esku-hartzea

Asteazken goizetan irekita dago (9:30-12:30) eta ordua eskatu beharra dago. Telefono-linea bat dauka irekia astelehenetik ostiralera (Linea Amica Trans - 377.70.79.633): 9:30etatik 19:00ak arte.

Hauek dira eskaini zerbitzuak:

- Trantsizio prozesu eta prozedurari buruzko aholkularitza (baita legeari dagokionean ere);
- Tokiko zerbitzuen inguruko informazioa (Milan eta ingurua);
- Informazioa (sexua aldatzeko kirurgiaren inguruko arau eta legeei eta Gizarte Segurantzako datuak aldatzeari buruzko informazioa);
- Laguntza psikologikoa;
- Aholkularitza eta laguntza juridikoa;
- Osasun laguntza (endokrinologia eta andrologia);
- Bitartekaritza kulturala;
- Laneratzea eta birlaneratzea lortzeko laguntza;
- Autolaguntza taldeak;
- Genero identitateari buruzko arte tailerrak/bilerak;
- LGTBI gaien inguruko sentsibilizazioa.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Sportello Trans transexual/transgeneroei eta bere ingurukoei (gurasoak, lagunak, etab.) zuzenduriko zerbitzu bat da.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Antonia Monopoli, iraganean gizonetzko zen emakumea eta prostituta ohia da zerbitzuaren harremanetarako pertsona.

Xehetasunak/Berrikuntza**Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?**

Indar nagusietako bat da elkartearen harremanetarako pertsona; transgeneroa da bera eta, halaber, urte asko eman ditu gizarte jardueretan eta LGTBI mugimenduetan, aditu bilakatu urteen poderioz.

Sportello Transek transexualitatearekin loturiko gai guztiak hartzen dituen laguntza eskaintzen du: psikologikoa, osasun arlokoa, juridikoa, informatiboa, kulturala, etab. Webguneak, gainera, interesgarri izan daitezkeen baliabide ezberdinak eskaintzen ditu (liburu, artikulua eta filmak).

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Zerbitzua astean behin dago irekita soilik. Zerbitzua maizago eskainiko balitz eta telefono zerbitzua 24 orduz, 7 egunez emango balitz, asko hobetuko litzateke aipatua.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Gai hau jorratzen duten zerbitzu bakanetakoa da Italian; jardute ona dugu, ondorioz. Elkarte gehienak helburu orokorrago bat badute ere (LGTBI kolektiboa osotasunean), Sportello Trans Ala Milanok transexual eta transgeneroetan oinarritzen da, Ala Milano Onlusen eskarmentuari eta Antonia Monopoliren ezagutzari esker.

Lankidetzeta eta Sare-lana**Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeen izena eta azalpena**

- Milango Hiria;
- Milango Lurraldea;
- Lonbardiako Eskualdea;
- Osasun Ministerioa;
- Aukera Berdintasunerako Ministerioa;
- Tokiko Osasun Saila, Milan;
- Milan inguruko udalerrak;
- Tokiko eragile pribatuak;
- Nazioarteko eragile publiko eta pribatuak.

I T A L I A

(5. KASUA)

Erakunde Mota:

Psikologo eta Psikoterapeuta Profesionalen Elkartea.

Erakundearen Izena:

Istituto A.T. Beck.

Galdetutako pertsonak eta erakundearen duten posizioa:

Urrutiko ikerketa.

Proiektuaren Izenburua

Progetto UNAR - Educare alla diversità a scuola

EU: UNAR Proiektua – Aniztasunean Hezi Eskolan

Proiektuaren Justifikazioa

Lehen eta bigarren hezkuntzan, haur eta nerabeek harremanak eratzen dituzte beren kideekin eta beren buruaz kontzienteago egiten dira ere. Ondorioz, horietako zenbaitek beren genero identitatea eta sexu joera zalantzan jartzen hasi eta gay, lesbiana edo bisexualak direla ohartzen dira. Halere, inguruko gizarteak eta kulturak erabat baldintzatzen dituzte homosexualitateari buruzko gaiak Italian: familia, hedabideak eta LGTBI kolektiboa negatiboki eta gizartearen txarra den zerbait bezala islatzen duten bestelako taldeak. Eta horrela, erraz asko bihurtzen dira jazarpen homofoboaren biktimak eskolan. Ezizen xume bat erraz asko bilaka daiteke aurreiritzi eta jarrera baztertzaila.

Testuinguru horretan, irakasleek erronka bat dute: jazarpen homofoboaren aurka egitea LGTBI gaiari garrantzia ematen ez dien giro batean. Zaila izan daiteke irakasleentzat aniztasuna beren ikasgeletan sustatzea, ez baitute gaitasun edo erreminta nahikorik eta segurtasun falta senti baitezakete, pertsonalki zein profesionalki. Homosexualen aldekoa izatea ez da nahikoa. Gaia menderatu beharra dago. Horrexegatik, UNAR (Ufficio Nazionale Antidiscriminazioni Razziali – *Arazakeriarengatik Bereizkeriaren Aurkako Bulego Nazionala*) bulegoak "Diversità come Valore" (Aniztasuna, Balio) proiektu europarra abiarazi zuen. Eta proiektu horren baitan, eta MIUR Hezkuntza Saila eta Genero berdintasunerako Sailarekin batera, bulegoak irakasleentzako materiala sortzea eskatu zion A.T. Beck Institutuari.

Proiektuaren Izenburua

Orokorrean, proiektuaren xedea da bereizkeria mota ezberdinei aurre egitea (sexu joera eta genero identitatea, etnizitatea, minusbalotasuna, erlijioa, iritzi pertsonala edo adina). Zehazki, A.T. Beck Institutuak egin eskuliburuen xedea da LGTBI gaiak jorrazteko eta jazarpen homofoboari aurre egiteko erremintak ematea haur, lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleei.

Gauzaturiko esku-hartzea

Hiru eskuliburu egin dira, Italian dauden hiru hezkuntza maila ezberdinetara egokituta (haur, lehen eta bigarren hezkuntza). Eskuliburuen edukia aldatzen bada ere, haur eta nerabeen behar zehatzetara egokitzeko, egitura berdintsua da:

- Lehenengo atalak irakasleentzako informazioa agertzen du, aipatuek genero identitatea, sexu joera, barneratutako homofobia eta jazarpen homofoboari buruzko informazio zehatz eta eguneratua izan dezaten.
- Bigarren atalak erreminta ezberdinak azaltzen ditu: jazarpen homofoboa prebenitzeko eta borrokatzeko politika bat gauzatzeko jarraibideak.
- Hirugarren atalean ikasgelan lantzeko jarduerak ageri dira, jazarpen, aniztasun eta homofobiari buruzko eztabaida eta elkarrizketa pizteko.

Eskuliburuak online daude eskuragarri eta irakasleek doan behera karga ditzakete, pasahitza ematen zaienean.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Hartzaile nagusiak lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak dira baina azken onuradunak beren ikasleak dira.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Psikologo eta psikoterapeuta profesionalak biltzen dituen Istituto A.T. Beck elkarteko kideak dira eskuliburuaren diseinuan inplikatu eragileak.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Proiektuko eta eskuliburuetak indar nagusia da adin ezberdineko haur eta nerabeen beharretara egokituta daudela. Halaber, erreminta eta jarduera eraginkorrak uzten dituztela irakasleen esku, aipatuen gabeziak asebetez. Azkenik, formatu elektronikoak daudenez, nonahi eskuragarri daude eta erraztasun osoz parteka daitezke.

Zeintzuk izan dira proiektu/zerbitzuaren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Zenbait erlijio-buruk eskuliburuak sutsuki kritikatu dituzte, institutuak betiko familien balioak hezkuntza arloan zapuztu nahi izan dituela salatuz. LGTBI kolektiboak egungo Italian bizi duen egoeraren isla den erreakzio horren ondorioz, A.T. Beck Institutuak edukiak bere webgunetik atera zituen (nahiz eta online eskuragarri dauden oraindik). Ondoren, institutuak bere ikuspuntuaren izaera zientifikoa (izaera ideologikoaren aurkakoa) nabarmentzen zuen ohar bat argitaratu zuen. Bertan, beren xedea betiko familia gutxiestea baino sexu bereko gurasoek dituen familiaren eredua babestea zela argudiatu zuen ere.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Proiektuak eskolak eskaintzen ez dizkien erremintak eskaini nahi dizkie irakasleei. Sentsibilizazioa sustatzeko, homosexualen aldekoa izateaz gain gaia menderatzea ere funtsezkoa dela nabarmendu nahi du institutuak.

I T A L I A

(6. KASUA)

Erakunde Mota:

Elkartea.

Erakundearen Izena:

IREOS Centro servizi autogestito comunità queer (Florentzia).

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Urrutiko ikerketa.

Proiektuaren Izenburua

Le chiavi della città. Da Giove e Giunone a Barbie e Ken
EU: Hiriko giltzak. Jupiter eta Junotik Barbie eta Kenera

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Florentziako Udalak jazarpena eta genero rolen estereotipoen inguruko mintegiak antolatu izan ditu eta, zehazki, Le Chiavi della Città (Hiriko Giltzak) hezkuntza programa sustatu du bigarren hezkuntzako eskoletan.

Aurreiritzien eta bereizkeriaren dinamiken inguruan hausnartuz eta genero estereotipoen (hedabidetakoak bereziki) inguruko kritika eginaz, proiektuaren xedea da generoarekiko eta genero rolekiko jarrera irekia sustatzea adingabeen artean.

Orokorrean, proiektuko xede nagusiak ondorengoak dira:

- Gure gizarteko eta kulturako estereotipoen jatorri, adierazpen eta ondorioen azterketa kritikoa eskaintzea.
- Genero estereotipoak betetzen ez dituztenen kontrako bereizkeria mota ezberdinak aitortzeko erremintak eskaintzea.
- Genero rolen eta aukera berdintasunari buruzko jarrera malgu eta irekiak sustatzea.

Gauzaturiko esku-hartzea

Proiektuak heziketa saioak egin zituen irakasle zein ikasleentzat:

- Irakasleentzat, 3 saio egin ziren (6 ordu guztira). Lehenak topiko ezberdinak jorratu zituen; bigarrenak ikasgelako lana garatu zuen eta azkenak proiektua ebaluatu zuen.

- Irakasleentzako lau saio egin ziren (8 ordu guztira). Saio bakoitzean jarduera ludiko bat egiten zen, eta eztabaida jarraian.

Ikaskuntza esperimental eta partaidetza teknikak erabili ziren lau saioetans:

- **1. saioa:** "Genero estereotipoak gure gizartean". Joko baten bidez, ikasleek "estereotipo" hitzaren esanahia ikasi zuten, eta baita bere ondorioak ere (Etiketen jokoak: "ikastuna", "eskouta", "ilehoriduna). Ondoren, genero estereotipoen inguruan eztabaidatu zen.
- **2. saioa:** "Onarpen eta bereizkeria". Genero estereotipoak elikatzen dituzten telebista irudi ezberdinak aztertu ziren ikasleek programa mota horiek kritikoki ikusi zituzten. Ondoren, joko izaerako eztabaida bat egin zen norberaren gisakoen presioaren eta gizartean, eskolan dagoen eta historian zehar egondako bereizkeriaren inguruan.
- **3. saioa:** "Genero estereotipoetatik at dauden pertsonen aurkako bereizkeria". Gai hau aipatu bereizkeria jasan duten pertsonaien irudien bidez landu zen (Billy Elliot, Bend It Like Beckham, Little Miss Sunshine). Ikasleek homosexualitateari buruzko beren emozioak aztertu eta lagun homosexual bat izateko aukera eztabaidatu zuten.
- **4. saioa:** "Nola izan harberago eta estereotipoei gailendu". Azken saioa aurrekoetan landuriko gaiak eztabaidatzeko eta aniztasuna hartzeko modu berriak lantzeko erabili zen, rol-joko baten bidez.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Irakasleak eta 11-14 urteko ikasleak.

Proiektuan inplikaturiko langileak

IREOS Elkarteak psikologo eta boluntarioak.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Hiru urtetan, 11-14 urteko 1.500 ikaslelik gorak parte hartu zuen proiektuan, irakasle eta eragile ezberdinen lankidetzari esker (Arcilesbica, Florentziak Unibertsitatea, Florentziako Udala). Gelan egin beharrekoa prestatzeko, irakasleek beren heziketa saioak ikasleak baino lehen jaso zituzten.

Zeintzuk izan dira proiektu/zerbitzuaren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Lehen saioan parte hartu zutenek denbora gehiago eskatu zuten landuriko gaiez hausnartzeko eta, ondorioz, epeak aldatu egin genituen bigarren saiorako, partaideek edukiak barneratzeko denbora gehiago izan zezaten.

Halaber, jazarpen kasu bat zuten ikasgeletan proiektua alferrikakoa zela ikusi zen ordurako; ondorioz, aldaketak sartzera behartuta egon ginen jazarpen homofobia jorratu ahal izateko.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Berrikuntza nagusia da emaitzak hedatzeko modua, horizontalki zein bertikalki hedatu baitziren:

- Hedatze horizontala: Eskolen artean proiektuaren emaitzak partekatu eta lankidetzaren sustatzeko xedearekin, Florentziako Udaleko Hezkuntza Sailak atal berezia sortu zuten bere webgunean (www.comune.fi.it/chivi), materialak gora karga eta partekatu ahal izateko.
- Hedatze bertikala: Adostasun bereziak eratu ziren, erakunde publikoekin, proiektua ahalik eta eskola gehienetan hedatu ahal izateko.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundearen izena eta azalpena

Hauek dira partaideak:

- Florentziako Udala, Hezkuntza Saila.
- Florentziako Unibertsitatea, Psikologia Saila.
- Arcilesbica Firenze.

95

Kontrol eta Ebaluazio Ereduek

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak? Zeintzuk izan ziren emaitzak?

Proiektuaren ebaluazioak bi habe ezberdin izan zituen:

- Proiektuaren hasieran eta amaieran zabaldu galdetegi bat, ikasleen jarrerak neurtzeko.
- Azken txosten bat, galdetegien emaitzak eta irakasleen balorazioak aintzat hartuz egin zena.

Orokorrean, proiektuak balorazio positiboa izan du: ikasleek beren esperientziaz hausnartu zuten eta beren ikasgeletako talde dinamikak eztabaidatu zituzten (neska batek, adibidez, pairatzen zuen bereizkeria azaldu zuen). Esku-hartzeak eta gero, aldaketa bat egon zen: atzerriko ikasleek eta normalean pasiboagoak ziren ikasleak aktiboago bilakatu ziren.

Proiektua baliagarria izan zen irakasleentzat ere: aniztasun sexuala eta bere trataera sakonean ezagutu eta jazarpen homofoboari aurre egiteko eta gai hori bestelako gaiekin (zientziak, historia, geografia, literatura, etab.) lotzeko erremintak lortu baitzituzten. Irakasleek ziotenez, proiektuko saioak eta gero ikasleak zenbait gai berriren inguruko eztabaidak proposatu zituzten, jarrera irekiagoak eta estereotipoetatik aldenduagoak azalduz.

Erakunde Mota:

Udala.

Erakundearen Izena:

Veneziako Udala – LGTBI Behatokia.

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Urrutiko ikerketa.

Proiektuaren Izenburua

L'amore secondo noi

Euskara: Maitasuna, gure erara

Proiektuaren Justifikazioa

Proiektuaren xedea zen homofobiaren aurka borrokatzea eta jarrera homofoboaren garapena prebenitzea gazteen artean.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Xede nagusiak ondorengoak dira:

- Homofobiaren aurka borrokatzea eskoletan;
- "Sexua eta harremanak" atala "hezkuntza zibikoa" irakasgaiaren sartzea;
- Homofobiaren aurkako sentsibilizazio kanpaina bat abiaraztea.

Gauzaturiko esku-hartzea

Esku-hartzea 2006an abiatu zen. Urtarrila eta ekaina bitartean, bigarren hezkuntzako ikasleak homofobiaren aurkako sorkuntza laborategi batean parte hartu zuten. 9 bilera egin ziren guztira, 7 ikasleekin bakarrik eta 2 (hasiera eta amaieran) irakasleekin. Bileretan jarduera ezberdinak egin ziren (film bat ikusi, eztabaida, tailerrak, sentsibilizazio kanpaina baten diseinua, etab.).

Irailetik abendura arte, ikasle guztiek batera aurreko sentsibilizazio kanpaina garatu zuten, laborategi grafikoa barne (70x100 cm tamainako zortzi poster ezberdin inprimatu ziren, eta baita informazio eskuliburu bat ere).

2007ko urtarrila eta otsailean sentsibilizazio kanpaina abiarazi eta gauzatu zen: posterrak hiriko kale gehienetan jarri ziren. Esloganak erraz eta zuzenak ziren; esaterako: "Mutil bat musukatzen nuela amestu dut". "Homosexuala naiz. Ez barrerik egin nitaz. Irri egin niri". Edo, "Nire gelakidea lesbiana da. Eta?"

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Hartzaileak bigarren hezkuntzako ikasleak dira, eta baita beren irakasleak ere. Azken onuraduna komunitatea osoa da, sentsibilizazio kanpainaren bidez.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Hezitzaileak, artista grafikoak, kazetariak eta bestelako artistak.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Proiektuak xede zehatz bat dauka (homofobiari aurre egitea eskoletan) baina, aldi berean, "irekia" eta dinamikoa da, aurrez finkaturiko emaitzarik gabekoa. Ikasleek profesional ezberdinekin lan egin dute, beren gisakoei zuzenduriko sentsibilizazio kanpaina diseinatzeko. Irakasleek ez dute parte hartu, ikasleek konfiantzazko harremana era dezaten profesionalekin. Kanpainak arrakasta handia izan zuen, eskualdean eta herrialde osoan. Veneziako Probintziak kanpaina 2008an ere erabiltzea erabaki zuen.

Zeintzuk izan dira proiektu/zerbitzuaren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektu/zerbitzua?

Homosexualitatea –eta sexualitatea orokorrean– tabua denez oraindik Italian, irakasle eta gurasoek beren zalantzak agertu zituzten proiektuaren hasieran. Ondorioz, LGTBI Behatokiak bilera batzuk antolatu zituen aipatu zalantzak uxatzeko.

Sentsibilizazio kanpainak 3 poster ezberdin kaleratu behar zituen hileko, 3 hilabeteko epe batean zehar. Lehenengo hilabetea eta gero, ordea, kanpaina bertan behera gelditu zen elizaren eta zenbait politikariren gaitzespenagatik. LGTBI Behatokiak eta LGTBI elkarteek erakunde ezberdinengana jo zuten elkarrizketak egiteko. Aipatu elkarrizketa eta negoziazioa posterrak jarri aurretik gauzatuz gero, kanpainaren erabateko etenaldia prebenitzeko aukerak egon zitezkeen.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Sexu joera jorratu ordeztu –praktika arruntena dena-, sorkuntza laborategi honen xedea zen genero eta sexu estereotipoak zehaztea eta desmuntatzea.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeak izenda eta adieraz itzazu

Erakunde pribatu eta publikoen laguntza izan genuen proiektuan zehar:

- Bigarren hezkuntzako eskola: Liceo psico-pedagogico "Tommaso";
- Europako Kontseilua;
- (Italia) Aukera Berdintasunerako Saila eta Gazteria Saila.

Beste zerbitzu/erakundeen funtzioak

Europako Kontseiluak proiektua sostengatzeko beharrezkoak ziren funtzioak zati bat ordaindu zuen. Italiako sailek ere diruz lagundu zuten proiektua.

Proiektuak bigarren hezkuntzako ikasleak hartu zituen.

2.4 P O L O N I A

(1. KASUA)

98

Erakunde Mota:

Tokiko gobernu erakundea.

Erakundearen Izena:

Warszawskie Centrum Inicjatyw Edukacyjnych i Szkoleń WCIES (Varsoviako Heziketa eta Prestakuntza Zentroa).

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Jan Świerszcz (Laguntzailea, hezitzailea noizbehinka).

Proiektuaren Izenburua

Irakasleentzako heziketa eta prestakuntza, jazarpen homofoboa prebenitu eta LGTBI ikasleak nola babestearen inguruan.

Proiektuaren Justifikazioa

Proiektuaren xedea da laguntza eskaintzea irakasleei, gelan emandako jazarpen homofoboari aurre egin diezaioten, giro seguru eta errespetuzkoa sor dezaten gelan eta armairutik atera diren eta/edo jazarpen homofoboko biktima diren ikasleei laguntzeko gaitasuna izan dezaten.

Ondorengo txostenek heziketa saio horiek egiteko beharra agerian utzi zuten: Homofobiaren Aurkako Kanpainak 2012an egin zuen *"Berdintasun Lezioa: Eskolan dagoen Homofobiarekiko Irakasleek eta Gazteek dituzten Jarrera eta Beharrak"* txostena; eta Bereizkeriaren Aurkako Heziketa Elkarteak egin zuen *"Absente Nagusia – Bereizkeriaren Aurkako Hezkuntza Polonian. Ikerketa Txostena"* delako txostena.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

- 2-3 Irakasle eta/edo eskola aholkulari taldeak heztea. 12-16 partaide guztira.
- Ondorengoen inguruko ezagutza eskaintzea:
 - LGTBI kolektiboaren aurkako estereotipo eta aurreiritziak.
 - Sexu eta genero identitatearen garapena.
 - LGTBI gazteen behar zehatzak eta jazarpen homofoboarekin loturiko arazo psikologikoak.
- Ondorengo gaitasunen inguruko prestakuntza eskaintzea:
 - Jazarpenaren ondorio den indarkeria psikologiko eta fisikoaren aurka egitea.
 - Armairutik atera den eta/edo jazarpen homofoboko biktima den gazteari laguntzea.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Heziketa saioetan inplikaturiko irakasleak, beren irakasgaia eta adina dena dela ere. Emakumeak izan ziren guztiak. Guztira, 25 irakaslek parte hartu zuten.

WCIES erakundeak eskaintzen dituen doako heziketa zerbitzua Varsovia eskualdeko irakasle eta hezitzaileei zuzenduta dago soilik. Ondorioz, partaideak Varsoviako eskola ezberdinetako kideak ziren. Eskolak ere hezkuntza maila ezberdinekoak ziren.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Hezkuntza formaleko erakunde publiko batek LGTBI gazteen arazoak eta eskolako jazarpen homofoboa lantzen dituen lehen aldia izan da.

Zeintzuk izan dira proiektu/zerbitzuaren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Partaidetza sustatzeko promozioa oso eskasa izan zen. Heziketa saioak ez ziren nahitaezkoak eta (ziurrenik), jende askok ez zuen heziketaren berririk izan, batez ere eskola zuzendarien inplikazioa eta babesa ez zuela kontuan izanda. Heziketan landuriko gaiak tabua dira oraindik eta, horrenbestez, baliteke irakasle asko aipatu gaiak lantzeko gogorik ez izatea.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

GKE ezberdinek (bereziki, Homofobiaren Aurkako Kanpaina) heziketa saio berdintsuak eskaintzen dizkiete psikologia ikasleei. Baina gure proiektua hezkuntza erakunde publiko baten lehen ekimena izan zen.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundearen izena eta azalpena

Bat ere ez.

Beste zerbitzu/erakudeen funtzioak

Bat ere ez.

Koordinazio ereduak

Bat ere ez.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak? Zeintzuk izan ziren emaitzak?

Partaide bakoitzak ebaluazio galdetegi bat jaso zuen saioen amaieran. Heziketa saioek balorazio positiboa jaso bazuten ere, proiektua bertan behera gelditu da, saioetan parte hartu nahi duen pertsonarik ez baitago.

P O L O N I A

(2. KASUA)

100

Erakunde Mota:

GKE erakundea.

Name of the organization:

Homofobiaren Aurkako Kanpaina (KPH).

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Jan Świerszcz (Laguntzailea).

Proiektuaren Izenburua

Proiektuaren Izenburua:

Inplikatu Gurasoen Akademia 2012.

Proiektuaren Justifikazioa

KPH erakundearen ikerketaren arabera, LGTBI norbanakoen % 41 ak bere sexu joera gertuko senideengandik ezkututzen du. Ez dakiten, edo jakin nahiz ez duten gurasoek paper txikia joka dezakete beren seme-alaben bizitzan. Bereizkeriaren tamaina handituz doa denborarekin eta, horrekin batera, senideen arteko lotura gutxituz doa.

Proiektuak LGTBI norbanakoak onartu eta babesten zituzten taldeak bilatzeaz gain, LGTBI eskubideak publikoki defendatzera ausartuko ziren aliatu heterosexualak bilatzen zituen ere. Polonian, LGTBI komunitateak dira beren eskubideak defendatzen dituzten bakarrak eta oso gutxitan jasotzen dute bestelako taldeen babesa.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Proiektuaren xedea zen LGTBI norbanakoen guraso eta senideak publikoki hitz egitera eta beren seme-alaben egoera ezagutaraztera eta LGTBI eskubideen alde aktiboki lan egitera animatzea, LGTBI eskubideen babesak aliatu heterosexualak (gurasoak eta gertuko senideak) dituela ikus zezan jendarteak.

Baina aurreikusten ez zen emaitza bat ekarri zuen proiektu honek: inplikaturiko guraso talde batek, LGTBI norbanakoen aliatu egiteaz gain, bere elkarte propioa sortu zuen: "Onarpena" (Akceptacja) elkarte.

Gauzaturiko esku-hartzea

Proiektua gurasoak bilduz abiarazi genuen. Hasieran zaila suertatu zitzaigun ezezagunen aurrean gaiak hitz egiteko nahia zuten LGTBI seme-alaben guraso nahikoak aurkitzea. Ondorioz, lehen taldea LGTBI aktibisten gurasoez osatua zegoen. Behin taldea osatuta, tailerrak eta bilerak egin ziren, bi hilean behin. Epe luzeko proiektu honen izena zen "Inplikatu Gurasoen Akademia" eta bertan, Poloniako eskualde ezberdinetako gurasoak bildu ziren egunerokotasunean homofobiari aurre egin behar dioten LGTBI seme-alabak izatearen ondorioz bizi duten esperientziak hitz egitera. 2011n, "Gu, gurasoak" eskuliburua argitaratu zen eta 2012n Inplikatu Gurasoen Akademiaren lehen edizioa egin zen (Rosa Luxembourg Fundazioari esker). Estatu Batuetako Enbaxadaren laguntzarekin, KPH erakundeak Judy eta Dennis Shepard eta Jody Huckaby Estatu Batuetako LGTBI gurasoen mugimenduko aktibista ospetsuak gonbidatu zituen.

Eta, ondorioz, proiektuaren gizarte kanpaina abiatu zen: Guraso, Ozen Hitz Egin Ezazue kanpaina.

Kanpainaren protagonistak homosexual eta bisexualen gurasoak ziren. Kanpainaren aurpegi ezagunetakoa aktore poloniar famatu bat da, Wladyslaw Kowalski; eta Kuba bere semea. "Guraso, Ozen Hitz Egin Ezazue" kanpainaren posterretan hiru familia ezberdin ageri dira; ama, aita edo bi gurasoak seme-alabarekin, eta hiru eslogan ezberdin jaso dira ere:

- "Nire alabak kemena zer den erakutsi dit. Elzbieta, alaba lesbiana du".
- "Zu zeu izatea zein garrantzitsua den erakutsi dit nire semeak. Wladyslaw, bere semea gay da".
- "Gure alabak ozen hitz egiten erakutsi gintuen. Anetak eta Rafałek alaba lesbiana dute".

Posterrak hilabete batez jarri ziren ondorengo hirietako 140 kokapen ezberdinetan: Varsovia, Krakovia, Poznań, Wrocław eta Goi Silesia Industria Eskualdea.

Kanpaina osatzeko webgune bat diseinatu zen (www.OdwazcieSieMowic.pl). Bertan homosexualitateari buruzko oinarritzko edukiak, gay, lesbiana eta bisexualen gurasoek dituzten galdera nagusien erantzunak eta gurasoekin eginiko bideo laburrak ageri dira. Inplikatu Gurasoen Akademia ekimenaren edizio berri batek gizarte kanpaina osatu zuen, KPH-ek antolatu tailer ezberdinekin.

2014an, Inplikatu Gurasoen Akademia ekimenaren hirugarren edizioa martxan dago eta KPH erakundeak diru-laguntzak eskatu ditu proiektuarekin jarraitu ahal izateko. Proiektuaren

onuradun zuzenak dira akademian parte hartu duten 40 gurasoak. Zeharka, halere, 120 onuradun inguru egon dira (gurasoen bikoteak, adingabeak, gertuko ez diren senideak).

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa


Hartzaile nagusiak LGTBI norbanakoen gurasoak ziren, amak bereziki. Adin ezberdineko (37-60) 10-15 gurasok parte hartu zuten (kopurua ezberdina zen hilabete bakoitzean). Zeharkako hartzaileak gizarte kanpainaren hartzaile berberak ziren: Poloniako biztanleria.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Proiektu koordinatzailea, proiektua diseinatu eta abiarazi zuen pertsona. Homofobiaren Aurkako Kanpainako langile bat. Koordinatzaileak tailer guztietan parte hartu du eta lan boluntarioa egin du proiektuan.

Hezitzaileak: 4 hezitzaile, guztiek ere emakumeak. Tailerretan gurasoekin landu ziren gaiak hauek izan ziren: bereizkeriaren aurkako borroka, LGTBI psikologia eta kultura, proiektuaren garapen eta exekuzioa, presio taldeak eta aholkularitza eta hedabidetarako aurkezpenak. Hezitzaile guztiak adituak ziren.

Boluntarioak: adin eta kopuru ezberdinak, baina gazteak batez ere. Boluntarioek prentsa agerraldia, Judy Sheperden hitzaldia, gizarte kanpaina eta bestelako ekitaldiak antolatzen lagundu zuten.



Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektu/zerbitzuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Indar nagusia hedabideen estaldura izan zen, eta proiektuak zein gizarte kanpainak izan zuten oihartzuna. Judy Sheparden bisitak Poloniara eta Gobernuko Eraikin batean eskaini zuten hitzaldiak (indarkeria homofoboak familiengan duen eragina zen gaia) presentzia handia izan zuten hedabidetan. Gainera, guraso eta seme-alaba homosexualak agertzen zuten posterrak Poloniako hiri ezberdinetan egon ziren ikusgai. Bi pertsona ospetsuk (seme-alaba homosexualen guraso) inplikatu ziren ere proiektuan eta kanpainaren "irudi" bilakatu ziren: Agnieszka Holland (zuzendaria) eta Władysław Kowalski (aktorea).

Zeintzuk izan dira proiektu/zerbitzuaren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Zailtasun nagusia izan zen LGTBI norbanakoen guraso ziren gizonen inplikazioa lortzea.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

"Homosexual eta heterosexualek arteko aliantza" bat Polonian sortzeko eta gurasoei laguntza eta aholkularitza ematez gain beren inplikazio aktiboa bilatzea ere xede zuten lehen proiektua izan da.

103

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeak izenda eta adieraz itzazu

Estatu Batuetako Enbaxada.

Gizarte Irekia Institutua.

Herbehereetako Enbaxada.

Rosa Luxembourg Fundazioa.

Tratamendu Berdintasunerako Bulegoa, Alkatetzan.

Tratamendu Berdintasunerako Guztiahalduna.

Beste zerbitzu/erakundearen funtzioak

Estatu Batuetako Enbaxada – emaila. Judy Sheparden bisitaren antolaketa eta exekuzioa.

Gizarte Irekia Institutua – emaila.

Herbehereetako Enbaxada – emaila.

Rosa Luxembourg Fundazioa – emaila.

Tratamendu Berdintasunerako Bulegoa, Alkatetzan - babeslea.

Tratamendu Berdintasunerako Guztiahalduna - babeslea.

Koordinazio ereduak

Homofobiaren Aurkako Kanpainako Batzordeak proiektu honen jarduera eta ekimen guztiak aztertu eta baloratu zituen, proiektu koordinatzailearekin batera.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da projektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak?

Proiektuaren talde ebaluazio bat egin zen, AIAM ereduak aplikatuz, eta emaitzak Inplikatu Gurasoen Akademiako hurrengo ediziorako proposamen bat idazteko erabiliak izan ziren.

2.5 ERRESUMA BATUA (1. KASUA)

Erakunde Mota:

Stonewall: LGTBI kolektiboaren aldeko ongintzazko erakunde nazionala.

Erakundearen Izena:

Stonewall: <http://www.stonewall.org.uk/>

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Francisca Hall, Bitarteko idazkaria.

Proiektuaren Izenburua

Stonewall: www.stonewall.org.uk/at_school/education_for_all/default.asp

Stonewall 1989. urtean jaio zen, Tokiko Gobernuko Legearen 28. Artikuluari erantzunez, artikulu iraingarri horren xedea homosexualitatearen "promozioa" eskoletan prebenitzea baitzen. Homosexualak estigmatizatzeaz aparte, komunitatea zutik jarri zuen.

Proiektuaren Justifikazioa

Stonewall LGTBI elkarte eta presio talde handiena eta zaharrena da Erresuma Batuan eta hamar urte baino gehiago daramatza eskolako jazarpen homofoboaren alderdi ezberdinei aurre egiten.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Stonewall presio talde profesional bat da eta azken urteotan LGTBI norbanakoen aldeko berdintasuna agenda politiko nagusiaren baitan sartu du, alderdi politiko nagusien babesa lortu baitu. Egun, ordezkariak ditu Ingalaterra, Eskozia eta Galesen. Bere lorpenen artean nabarmentzekoak dira: berdintasuna adostasun adinari dagokionean, gay eta lesbianak

armadan hartzeko debekua bertan behera uztea, sexu bereko bikoteei adoptatzea ahalbidetzen dien legedia bermatzea eta 28. Artikulua bertan behera uztea. Azken urteotan, bikote zibilen onarpena ziurtatu zuen eta Berdintasun Legeak ondasun eta zerbitzuei dagokienean gay eta lesbianak ere babes ditzan lortu du.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Eskolako jazarpen homofoboari dagokionean, xede nagusia zen presioa egitea legea alda zedin; zehazki, Erresuma Batuko Hezkuntza Ministerioa.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Stonewallek heziketa eta aholkularitza eskaintzen die eskola zuzendaritza eta guraso elkartei. Noizean behin, LGTBI elkarteek gai zehatzen inguruko aholkularitza eskatzen diote edo beren saioetara gonbidatzen dute, Stonewallek bere ikuspuntua eman dezan.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Stonewallek eragile askorekin lan egiten du lesbiana, homosexual, eta bisexualen komunitate orokorraren beharrak asetzeko; halaber, aholkularitza eta babesa eskaintzen die 600 erakunde ingururi, IBM, Barclays, Barnardos, DCLG eta Errege Itsas Armada tartean. Halaber, ziurtagiri bat ematen du, erakundeak "LGTBI langileei lana ematen diela" adieraziz. Jarduera ezberdinak antolatzen ditu aipatu laneratzea gauzatzen duten erakundeak sustatzeko, urteko sari emanaldi bat barne.

Stonewall erakunde oso arrakastatsua eta boteretsua da eta lan itzela egin du, 1989an jairo zenetik, Erresuma Batuko paisaia juridiko eta politikoa aldatzeko. Bestelako erakundeen lanari buruzko datuak biltzen ditu ere (eskolako jazarpen homofoboa, esaterako) bere presio-jarduera oinarritzeko eta, ondorioz, LGTBI komunitateak dituen arazo nagusietako ezagutza zuzena dauka.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Stonewallek heziketa programa sofistikatu eta eraginkor bat garatu du, lehen eta bigarren hezkuntzako eskolei zuzendua. Aipatu heziketa eskuragarri dago, eskolak edo guraso elkarteak aipatu heziketa lantzeko eta barneratzeko PREST BADAGO. Eskola edo komunitate edo talde etniko batek ez baditu LGTBI gaiak onartzen edo babesten, heziketa horren eragina eta eraginkortasuna oso txikia da. ■ Homosexualitatea/transsexualitatea onartua ez badago eta jazarpen homofoboa identifikatzen ez bada, Stonewalleko hezitzaileek ez dute esku-hartze eraginkor eta koordinatu bat egiteko aukerarik izango. Hain zuzen ere:

- Adingabeek jazarpen homofoboko biktime direnik uka dezakete. Ez dute hitzez esango.
- Baliteke seme-alaba homosexuala dela susmatzen duten familiek izenik ez ematea aniztasun afektibo eta sexualari buruzko ikastaro batean.

- Irakasleek familiak inplikatzen direla errezeloak izan ditzakete, horrek sexualitatea familiaren eremuan, intimitatearen eta pribatutasunaren eremuan sartzen dela pentsa daitezake.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Stonewallek 2005eko urtarrilean abiatu zuen "Guztionezko Hezkuntza" kanpainak eskolako homofobia azalarazten eta jazarpen homofoboari aurre egiten lagundu du. Eragile ugari biltzen dituen proiektu honek eskolako jazarpen homofoboari buruzko zenbait ikerketa txosten plazaratu ditu. Stonewallek aktiboki parte hartu du LGTBI gazteentzako hezkuntza zerbitzuen hobekuntzan ere: Schools Champions, College Champions eta Education Champions ekimenak sortu ditu, arloan dauden jardute onak sustatu eta beren partekatzea errazteko. Lan ugari argitaratu ditu bere esku-hartze ezberdinak osatzeko. Gehienak webgunean daude eskuragarri, doan.

Stonwallek tailer, mintegi eta jardunaldi ezberdinak antolatzen ditu, urtean zehar, LGTBI gaien inguruan. Bere lanaren eragin politikoa azpimarratzeko modukoa izan da. Ondorioz, Hezkuntza Saileko aurreikuspenen arabera eskola guztiak jazarpenaren aurkako (jazarpen homofobo barne) estrategiak indarrean dituzte. Eskola guztiak jazarpenarekin, jazarpen homofobo barne, bukatzera behartuta daude eta ezin diote sexu joerarengatik bereizkeriarik pairatzen utzi inori, ikasle edo irakasle. Azkenik, adingabe guztiak eskola komunitateko kide sentitu behar dira. Erantzukizun Publikoak diotenari jarraiki, erakunde guztiak (eskola eta akademiak barne) bereizkeriaren aurka borrokatu, berdintasuna sustatu eta harreman osasuntsuak ahalbidetu behar dituzte. Horrek esan nahi du eskolek jazarpen eta lengoia homofoboaren aurka egin eta familia eredu ezberdinak landu behar dituztela.

107

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundearen izena eta azalpena

PACE; www.pacehealth.org.uk

Osasun Mentaleko aholkularitza zerbitzua LGTBI norbanakoentzat.

GALOP; www.galop.org.uk

LGTBI komunitatearen aurkako indarkeria eta abusuekin bukatzeko Londreseko ongintzako erakundea.

LGF; <http://www.lgf.org.uk>

Etxerik gabeko LGTBI norbanakoak. Telefono bidezko aholkularitza zerbitzua ere.

Koordinazio ereduak

Stonwalleko webguneak osotariko heziketa egitaraua finkatzen du. Eskolei dagokienean, sistema integralaren ikuspegia aplikatzen du, Schools Champions programa gauzatuz nazio mailan.

Lankidetzaren eta koordinazio ereduaren ebaluazioa

Stonewallek hogeita bost urte daramatza lanean eta ospe handia lortu du, bai Erresuma Batuan bai nazioartean ere. Tokiko, eskualdeko, nazio mailako eta nazioarteko lankidetzaren sare zabalak ditu. Urtetako esperientziaren poderioz, bere heziketa saila eta heziketa egitaraua bikainak dira. Ez du nabarmendu daitekeen ahuleziarik agertzen.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduek**Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak?**

Formazio saio bakoitza bukatu eta gero, ebaluazio orrialde bat ematen zaie partaideei. Kasu guztietan, egindako lana goraiatu dute, batez ere ikastaroaren izaera praktikoa eta behar berezietara eginiko egokitzapena.

Ikasleen ebaluazioa mural baten bidez egin zen. Partaideek adierazi zuten, aldaketa bat samatu zuten beren jarreretan, eta taldeko kide sentitu izana zen gehien baloratu zuten alderdia.

ERRESUMA BATUA (2. KASUA)**Erakunde Mota:**

New Family Social: LGTBI bikoteei hurrei abegi emateko eta haurrak adoptatzeko laguntza eta babesa ematen dien nazio mailako LGTBI erakundea.

Erakundearen Izena:

NFS (New Family Social).

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Webguneko informazioa: <https://www.newfamilysocial.org.uk/>

Proiektuaren Izenburua

New Family Social Erresuma Batuko LGTBI abegi eta adopzio familien sarea da. 2007an sortua, ezkondu gabeko bikoteei, sexu bereko bikoteei barne, haurrak (Ingalaterran eta Galesen) bien artean adoptatzeko eskubidea eman zien adopzio legea onartu eta gutxira, New Family Social ongintzako erakundea da babesa eta informazioa eskaintzen diena LGTBI abegi eta adopzio familiei.

Proiektuaren Justifikazioa

NFS haur bat adoptatu nahi duten LGTBI bikoteei laguntza eta aholkularitza ematen dizkien Erresuma Batuko erakunde handiena da.

Egun, 600 familia eta Ingalaterra, Gales, Eskozia eta Ipar Irlandako 151 erakunde (tokiko gobernuak eta arlo honetako elkarte boluntarioak barne) biltzen ditu. (www.newfamilysocial.org.uk/). "Ezinbesteko" sarea da abegi emateko edo adoptatzeko nahia duten bikote homosexualentzat. Adopzio agentzia gehienek elkartarekin lan egiten dute eta berarekin kontaktatzea gomendatzen diete adoptatu edo abegi eman nahi duten bikote homosexualiei. Bere webguneak doakoak diren baliabide bikain ugari eskaintzen ditu. Halaber, "kideentzako" atal bat hartzen du ere: bertan, kideen arteko solasaldiak; urtean zehar kideentzat antolatzen diren ekitaldien egutegi eta informazioa; NFS aldizkaria eta baliabide zentroa aurki daitezke.

Proiektuaren Xede eta Helburuak

Hauek dira bere zerbitzuak:

- gizarte sare bat eskaintzea gurasoei, informazioa truka dezaten; eta haurrei, beren familia berriengan duten konfiantza sendotzeko;
- LGTBI familiak sustatzea;
- laguntza zuzena eskaintzea familia eta agentziei.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Abegi eman edo adoptatu nahi duten LGTBI bikoteak, babesa edo aholkularitza nahi duten LGTBI familiak.

Proiektuan inplikaturiko langileak

NFS elkarteak heziketa eta aholkularitza eskaintzen die guraso elkarte, LGTBI bikote eta tokiko sareei.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Kidetako erantzunek iradokitzen dutenez, NFS elkarteak gabezia bat estali du: kideek gai ezberdinen inguruko informazioa trukatzeko aukera dute. Webguneak "zerbitzu integrala" eskaintzen du: Ingalaterrako bikote homosexualen adopzioari buruzko informazio guztia eskaintzen du. Baliabide ezberdinak daude LGTBI guraso, guraso izango diren eta adopzio agentzientzat. Gizarte topaketak daude ere: eztabaidatzeko eta laguntza jasotzeko aukera eskaintzen dute. "Iragarki eta mezu taula oso aktiboa da. Kide nahiko berriak bagara ere, esperientzia honi esker egoera berdina edo antzekoa bizi duten lagunak egin ditugu: adoptatu duten gurasoak, adoptatu duten gizonak, adoptatu duten gizon homosexualak eta adingabea beren mende duten gizonetakoak. Talde zabalago batean alderdi horietakoren bat

partekatzen duen jendea ezagutzeko aukera izango bagenu ere, NFS erakundeak fardel bakarrean eskaintzen dizkizu. Eta orain arte adoptatu duten gurasoek esan digutena barneratu eta errepikatzeke aukera baino ez badugu ere, badakigu etorkizunean antzeko familietako adingabeekin egoteko aukera oso baliagarria izango dela gure seme-alabentzat ere." "Niretzat, NFS elkarteak eskaintzen dituen osagai garrantzitsuenetako bat da kide diren guztiak erabaki berbera hartu dutela: guraso izatea. Adopzio mundu orokorrean, normalean jendea haurrak izaten saiatu eta gero hasten da adopzioarekin. Talde honen energia eta baikortasuna oso garrantzitsuak dira eta adingabeen eta beren ezberdintasunen eta jaso behar duten arreta ezberdin horren onarpena oso freskagarria da". "Sexu bereko bikoteen adopzioa oso ezberdina da, normalean sortzen ez diren gaiei aurre egin behar baitiegu eta bikaina da jakitea zure egoera berdina bizi duten pertsonak daudela: prozesuan murgilduta egon ala haurra esleitua eduki. Guk edo gure semeak bizi beharko ditugun aurreiritziez eta antzeko gaiez errespetuz eta era positiboan hitz egiteko aukera izatea bikaina da. Iragarki taula sexu bereko bikoteen adopzioari buruzko informazioz beteta dago eta adoptatu nahi duen bikote homosexual orori izena ematera gonbidatzen diogu."

Zeintzuk izan dira proiektu/zerbitzuaren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

NFS elkartearentzat ezinezkoa da LGTBI zehatzen arazo konplexuak konpontzea, gaia beren seme-alaben eskolari lotuta dagoenean bereziki. LGTBI gurasoek beren seme-alabaren beharren mende dauden egoera berriak bizi beharko dituzte gure gizartean. Hezkuntza derrigorrezko eskubidea da 4 eta 17 urte bitarteko adingabeentzat eta, ondorioz, guraso guztiei eragiten dien errealitate bat da. Bikote homosexualek prozesu hori bizi behar dute, beren seme-alabaren eskolaratzea kudeatu behar dute eta homofobia pairatzeko arriskua asko handitzen da eskola giro horretan. LGTBI gurasoen ardura da prozesu hori ahalik eta ondoen kudeatzea beren seme-alabarentzat.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

Webguneak iragarki taula anonimo bat dauka eta kideek, bertan, eskola giroan LGTBI gurasoak izatearen ondorioz bizi dituzten esperientziez hitz egin dezakete. Esaterako (John ezizenarekin): "Gure gizarte langilearekin sakontasunez hitz egin genuen eskolei buruz, adopzioa baino lehen, baina guraso homosexuala izatearen errealitateak bortizki jo nau, espero ez nuen moduan gainera. "Gay irekia" naizela uste dut baina, pentsatzen jarrita, haurrak izan arte ez nuen nire sexualitateaz hitz egiten aurreko pertsona ondo ezagutu arte edo pertsona horrekin denbora bat eman arte. Orain haurrak ditudala, kontzienteegia naiz nire sexualitateaz, eta imajina ez nezakeen moduan gainera. Nire bikote eta semeekin kalean zehar goazen bakoitzean mundu osoak familia "arraro" hau ikusten duela dirudi, argi handi bat bagenu bezala gure gainean. Haurrekin bakarrik nagoenean, aita heterosexualek ulerkorki begiratzen naute, "zaila da haurrak zaintzea" esanez; gizon homosexualek beste homosexual bat talde batean ikusten dutenean egiten duten bezalaxe. Guraso talde berri horren kide bazina bezala ematen du baina iruzurretan zaudela sentitzen duzu, beraiek

uste duten aita hori ez zarelako. Eskolako atean, nire denbora behar izan nuen beste ama eta aitekin hizketan hasi aurretik. Gure haurrak ikasturtea hasita sartu zirenez eskolan, argi zegoen familia berri bat zegoela auzoan. Gehienek ez zuten inolako interesik agertu. Haurdun zeudenetik eta haur-eskolako urtetatik elkarri ezagutzen ziren ama talde ezberdinak zeuden. Ni han egoten nintzen kieto, denei begira, guri buruz hizketan ari zirelax beldur. Baina, egia esan, oker nengoen. Guraso gehienak seme-alabak hezteak dakarren estresaren baitan murgilduta daudenez, inork ez dio kasurik egiten auzora iritsitako familia berriari. Oraindik ere, hilabeteak pasa direnean, gutako batek haurrak urtebetetze ospakizun batera eramaten dituen harridura erabatekoa da, etxekoen artean, bestea denean haurren bila doana. Beren gelakide guztiek gure semeek bi aita dituztela badakite ere, dirudienez guraso askok ez dakite oraindik. Zezena adarretatik hartu eta galdetzen digutenean egoera azaltzen diegu. Haurrak adoptatu dituzten bi aita homosexual gara. Haurren pribatutasuna apurtzen badugu ere, lotsa unea segituan uxatzen da. Ez dugu inolako arazorik izan. Iruzkun inozo asko entzun ditugu baina ez dugu arazo larririk izan. Orain dela zenbait hilabete hotel batean egon ginen. Arratsaldean aire egokituak porrot egin zuen eta haurrak bero zeudelaz kexatu ziren. Teknikariari deitu genion eta arraroa izan zen, harridura aurpegia jarri baitzuen gelan bi gizon eta bi mutil ikusi zituenean. Datorren astean antzeko egonaldi motz bat egin behar dugu. Batek daki zer pentsatuko duten beste familiek. Iraganean bost axola zitzaidan. Anonimotasunaren babespean bizi nezakeen baina orain, gure hurrekin, armairutik berriz atera beharra dugula sentitzen dut.

Lankidetzaren eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundearen izena eta azalpena

PACE; www.pacehealth.org.uk

Osasun Mentaleko aholkularitza zerbitzua LGTBI norbanakoentzat.

GALOP; www.galop.org.uk

LGTBI komunitatearen aurkako indarkeria eta abusuekin bukatzeko Londreseko ongintzazko erakundea.

LGF; <http://www.lgf.org.uk>

Etterik gabeko LGTBI norbanakoak. Telefono bidezko aholkularitza zerbitzua ere.

Koordinazio ereduak

Gizarte sarea; aholkularitza juridikoa; babes eta aholkularitza pertsonalizatua.

Lankidetzaren eta koordinazio ereduaren ebaluazioa

NFS elkarteak ezinbesteko baliabideak jartzen ditu LGTBI bikoteen esku. Baliabide bikaina da aipatuaz gozatu dezaketen horientzat. Baina diru murrizketak direla eta, zaila da eskaini zerbitzuek duten eskaera guztiari erantzutea.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak?

Bat ere ez.

ERRESUMA BATUA (3. KASUA)

Erakunde Mota:

Albert Kennedy Trust Fundazioa (AKT): Erresuma Batuko Ongintzazko Erakundea.

Erakundearen Izena:

AKT: www.akt.org.uk/

Galdetutako pertsonak eta erakundean duten posizioa:

Wendy Hodges: Zerbitzu Orokorretako Zuzendaria.

Proiektuaren Izenburua

AKT etxerik gabeko gazte lesbiana, gay, bisexual eta transexualei laguntzen dien ongintzazko erakundea da, boluntarioz osatua. Bulegoak ditu Londres, Manchester eta Newcastlen.

Proiektuaren Justifikazioa

Armairutik atera ostean estigmatizazio arriskua duten gazteek, edo familia edo lagunak gaitzespena jaso duten gazteek arrisku egoera berezian bizi dira LGTBI norbanakoen artean. Egoera guzti horren ondorioetako bat da etxerik gabe gelditzen direla. AKT erakundearen xedea da aipatu LGTBI norbanakoei laguntzea.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Etxea galtzeko arriskuan edo etxerik gabe dauden LGTBI gazteak.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Boluntarioak (senideak, lagunak, bizilagunak edo tokiko komunitateko kide diren inplikatu biztanleak), etxerik gabe geratu diren LGTBI gazteei behin-behineko ostatura emateko prest daudenak.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Gela hutsen bat duten boluntarioak (ezkongabe, bikote eta familiak) behin-behineko ostatura ematen diete LGTBI gazteei: zenbait egunetik urte batzuetara. Boluntarioek heziketa jasotzen dute, beren eginkizuna bete behar dezaketela bermatzeko. Boluntarioek Tutoretza eta Adiskidetzaren Zerbitzua bat ematen dute ere: astean ordu pare batez, lagun bat edo laguntza praktikoa behar duen LGTBI gaztea boluntario batengana doa. Halaber, telefonoz, posta elektronikoz eta aurrez aurreko laguntza eskaintzen da. Fundazioak bizitza autonomoa eramateko prestakuntza eta heziketa eskaintzen die ere hartzaileei, aginteen oniritzia jaso duen heziketa programa bati esker. Azkenik, Larrialdiko Laguntza Proiektua abiatu du, krisi egoeran dauden gazteei berehalako laguntza emateko.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Ezinezkoa da AKT Fundazioarentzat etxerik gabe dauden LGTBI gazteen arazo konplexu guztiak konpontzea. Beren arreta epe motzeko larrialdi laguntzan jartzen dute. Aipatu laguntza funtsezko eta garrantzitsua da baina larrialdia bukatu bezain pronto konpontzeke dauden arazoak ageri daitezke: gizarte isolamendua, osasun mentaleko eta fisikoko arazoak, etab. Halere, fundazioak ez die aipatu arazoei muzin egiten eta epe luzerako laguntzan murgiltzen da baliabide nahikoak dituen bakoitzean. Fundazioaren laguntza ostatuan oinarritzen bada ere, ezinezkoa da aipatu gaia gazteen hezkuntza eta osasun beharrendandik eta gizarte eta familia mailako harremanengandik bereiztea. Zentzu horretan, AKT Fundazioak badu bere eskarmentua eskola eta unibertsitateko homofobia eta jazarpen kasuak tratatzen. Hona hemen Michaelen kasu-azterketa dioena. Michaelen istorioa: "Irakasle batek gelan "aterarazi" ninduen egunean jazarpenak okerrera egin zuen. Etxera bidean, autobusean, ikasle zaharrenek iraintzen hasi ninduten eta batek labanarekin eraso ninduen. Autobusetik jaisterakoan izututa nintzen, aurreko ikasleengatik baino, nire amak gay izateagatik pairatu erasoaz entzuterakoan izango zuen erreakzioagatik baizik. AKT Fundazioak eskolako egoerari aurre egiten eta unibertsitatean izena ematen lagundu zidan tutore bat jarri zidan. Eta boluntario baten etxean hartu nuen ostatu denbora txiki batez, etxeko egoera konpontzen genuen bitartean. Askok eskertzen diet laguntza eta ez dut beldurrik orain...". (Michael, 16).

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

2013. urtean Fundazioak bi aterpe ireki zituen –Manchesterren bat, Londresen bestea-, boluntarioek eskaintzen zuten ostatura osatzeko. The Guardian egunkariak dioenez, Fundazioko zerbitzuen eskaerak gora egin du: 2010ean AKT Fundazioak 149 lagun artatzen zituen Londresen eta 85 Manchesterren. 2013n, Londreseko kopurua bikoiztu egin da eta Manchesterren 152 lagun artatzen dira. Halaber, AKT Fundazioak hitzarmen bat sinatu du etxebizitza merkeak eskaintzen dituen irabazi asmorik gabeko elkarte batekin. Hitzarmen horri esker, etxerik gabeko LGTBI gazteek aipatu etxebizitzetan bizitzeko aukera izango dute'.

Lankidetzeta eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeen izena eta azalpena

PACE; www.pacehealth.org.uk

Osasun Mentaleko aholkularitza zerbitzua LGBTBI norbanakoentzat.

GALOP; www.galop.org.uk

LGBTBI komunitatearen aurkako indarkeria eta abusuekin bukatzeko Londreseko ongintzazko erakundea.

LGF; <http://www.lgf.org.uk>

Etixerik gabeko LGBTBI norbanakoak. Telefono bidezko aholkularitza zerbitzua ere.

Koordinazio ereduak

Ostatua bermatzeko zerbitzua; gizarte laguntza; LGBTBI gazteentzako laguntza tutore eta boluntarioen bidez.

Lankidetzeta eta koordinazio ereduaren ebaluazioa

AKT Fundazioak ondorengo erakundeen babes ekonomikoa jasotzen du: Manchesterreko Udala, Diana, Galeseko Printzesaren Fundazioa Garapen Lana Sustatzeko Eskozia, Ipar Irlanda eta Galesen eta Londreseko Agintaritzaren Informazio eta Aholkularitza Zerbitzuak.

AKT Fundazioak ezinbesteko baliabideak jartzen ditu LGBTBI bikoteen esku. Baliabide bikaina da aipatuaz gozatu dezaketen horientzat. Baina diru murrizketak direla eta, zaila da eskaini zerbitzuek duten eskaera guztiari erantzutea.

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak?

Bat ere ez.

E R R E S U M A B A T U A

(4. KASUA)

Erakunde Mota:

Eskualde mailako ongintzazko erakundea.

Erakundearen izena:

Londres Ekialdea Kanpoan Proiektua (ELOP): www.elop.org

Galdetutako pertsonak eta erakundearen duten posizioa:

Claire McComb (Informazio arduraduna).

Proiektuaren Izenburua

ELOP osasun mentalaren arloan lan egiten duen ongintzazko elkarte gay eta lesbiana bat da. 1995ean saritua, Londres Ekialdean lan egiten du: www.elop.org/

Proiektuaren Justifikazioa

Armairutik ateratzeak dakarren estigmatizazioa eta gizarte bazterkerian etortzeko arriskua dela eta, LGTBI norbanakoek izaera eta larritasun ezberdineko arazo mentalak izateko joera handiagoa dute. ELOP erakundeak ikuspegi holistikoa, ekintzailea eta berria aplikatzen du arazo horien konponketan.

Hartzaileak eta erabiltzaileei buruzko informazioa

Osasun mentaleko arazoak izateko arriskuan dauden edo arazo mentalak garatu dituzten LGTBI gazteak.

Proiektuan inplikaturiko langileak

Behean ikusi.

Xehetasunak/Berrikuntza

Zeintzuk dira proiektuaren indar nagusiak? Zeintzuk bere arrakastaren gakoak?

Komunitatean sorturiko eta kudeaturiko erakunde honen xedea da osasun mentala, ongizatea, ahalduz eta berdintasuna sustatzea LGTBI komunitatearen mesederako. Eskaintzen dituen zerbitzuak honako hauek dira: informazioa, laguntza, aholkularitza eta babes zerbitzuak. Halaber, gizarte eta komunitate izaerako ekitaldi eta jarduerak antolatzen ditu Londres iparraldeko eta ekialdeko LGTBI komunitateentzat. ELOP erakundeak ikuspegi holistikoa aplikatzen du. Beren ustez, osasuna eta ongizatearekin loturiko arazoak –mentalak, psikologikoak, emozionalak, fisikoak, gizarte edo komunitate mailakoak– osotasunean ulertu eta landu beharra dago, hau da, “izaki osoa”ren egoera aztertu beharra dago konponbide egokiena aurkitzeko. Honela, eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinei esker, arazo zehatz bat konpontzeko artatu pertsona beste zerbitzuen esku jar dezake, beharrezkoa balitz, konponbide holistikoa eskaintzeko pertsona horri.

Zeintzuk izan ziren ahuleziak? Nola hobe daiteke proiektua?

Erresuma Batuak bizi duen krisia dela eta, tokiko erakundeei eskainitako diru-laguntzak % 40ean gutxitu dira azken bost urteotan. Eta datozen bost urtetan murrizketekin jarraituko dugu ere. ELOP bezalako erakundeak, ondorioz, nahiz eta zerbitzu bikainak eskaini, murrizketa ikaragarriak izan ditzakete datozen bost urtetako diru-laguntzetan.

Zein da proiektuaren berrikuntza maila?

ELOP erakundeak bigarren mailako zerbitzuak eskaintzen ditu ere: informazioa, heziketa, aholkularitza eta laguntza agintari, kudeatzaile, zerbitzu hornitzaile eta beren langileei.

ELOP erakundeak gazteen esku dagoen gizarte talde bat antolatzen du astero, LGTBI edo sexualitateari buruzko zalantzak dituzten 13-21 urte bitarteko (25 urtera arte behar bereziak dituzten gazteen kasuan) gazteentzat. Gizarte talde horri esker gazteek LGTBI gazteekin egoteko aukera dute, esperientziak partekatzeo aukera ingurune seguru, atsegin eta babesle batean: 'Etorri gurera jolastera, lasai egotera eta LGTBI liburu eta DVD liburutegia aztertzea. Zu zeu izateko tokia da hau, pertsona ezezagunak topatu eta lagun berriak egiteko. Zinema gauak, txangoak, gozotegia, sofa, joko, musika ugari, eta askoz ere gehiago daukagu!' ELOP Webgunea.

LGTBI familiak eta beren seme-alabak:

ELOP erakundeak jarduera ezberdinak antolatzen ditu LGTBI guraso eta beren seme-alabentzat, hilero biltzen den guraso talde bat barne. Landuriko gaien artean dago abegiz harturiko edo adoptatutako adingabeen heziketa. Taldeak Londres Ekialdeko beste LGTBI gurasoak ezagutzeko aukera ematen dio inguru horretako LGTBI familiei. Taldea guraso izan nahi dutenei irekita dago ere. Azkenik, ELOP erakundeak familia jarduerak antolatzen ditu hilean behin eta LGTBI guraso eta bere haur txikientzako ludoteka, astean behin.

Lankidetzeta eta Sare-lana

Lankide izan dituzun zerbitzu/erakundeen izena eta azalpena

PACE; www.pacehealth.org.uk

Osasun Mentaleko aholkularitza zerbitzua LGTBI norbanakoentzat.

GALOP; www.galop.org.uk

LGTBI komunitatearen aurkako indarkeria eta abusuekin bukatzeko Londreseko ongintzako erakundea.

LGF; <http://www.lgf.org.uk>

Etterik gabeko LGTBI norbanakoak. Telefono bidezko aholkularitza zerbitzua ere.

Koordinazio ereduak

Osasun mentalari buruzko aholkularitza holistikoa, malgua eta berritzailea eta zerbitzu ezberdinak koordinatzen dituen arreta zerbitzua. Bigarren mailako zerbitzu eta laguntza ezberdinak, beharrezkotzat jotzen direnean.

Lankidetzeta eta koordinazio ereduaren ebaluazioa

ELOP erakundeak estrategia berritzaileak aplikatu ditu krisiari aurre egiteko. Hona hemen egunkari batean argitaraturiko adibide bat. "Londres Ekialdeko LGTBI kolektiboaren aldeko ongintzako erakunde batek 3.000 liberako dohaintza jaso du, ikasle batzuek bere lana goraiatu ostean eskola proiektu batean. Londres Ekialdea Kanpoan Proiektua da (ELOP) dohaintza jasoko duena, Siddeley Road, Walthamstoweko Frederick Bremer eskolako ikasleek erakundearen lana epaileen aurrean goraiatu eta gero. 13-14 urteko ikasleak taldeka lan egin zuten, ongintzako erakunde bat aukeratu eta bere lanak komunitatean izan duen eragina

aztertuz. Taldeek beren proiektuak sei epaileren aurrean aurkeztu zituzten gero. Haurrentzako zerbitzuetako arduradun Clare Coghill zinegotzia epailetako bat zen. Saoirse Finnegan, Sheneil Francis eta Claire Armstrongen taldeak Zure Ekimen Filantropikoa Lehiaketa irabazi zuen, beste zortzi talde gaituz, epaileak eta bertaratutako 100 bat langile eta gurasoak beren argudioekin konbentzitu eta gero. Walthamstoweko Grove Roaden dagoen ELOP erakundeak LGTBI kolektiboaren alde lan egiten du babes, laguntza eta aholkularitza zerbitzu ezberdinen bidez. Halaber, aipatu komunitatearekin loturiko gaien inguruko sentsibilizazioa sustatzen du ere. Eskolako kultura ikasketetako arduradun Sue Parker irakasleak dioenez: "Ekitaldia arrakasta handia izan zen eta ikasle guztiek eta Kultura Ikasketetako taldeak proiektu honetan egin duten lan itzelaren ispilu ezin hobea izan zen. Oso pozik nago emaitzarekin." *East London and West Essex Guardian, 2013.*

Kontrol eta Ebaluazio Ereduak

Ebaluazio Eredurik sartu al da proiektuan? Horrela bada, zeintzuk izan ziren erabilitako aldagai eta erakusleak?

Bat ere ez.



Mintegi nazionalak eta nazioarteko mintegia

Lan-ildo honen xedea zen lankidetzaren sustatzea familia eta eskolen artean, guraso eta irakasleek elkarren artean lan egin dezaten, zintzotasunez, jazarpen homofoboarekin bukatzeko. Lankidetzaren horrek arduren partekatzea eta denbora, esfortzu eta baliabideen erabilera ahalbidetuko ditu, xede bakar batekin: adingabearen garapena, ongizatea eta segurtasuna ziurtatzea, eta aniztasun sexualaren eskubideak bermatzea eskoletan.

Jarraian, Bulgaria, Espainia, Italia, Polonia eta Erresuma Batuan mintegiak egin eta gero proiektu-kideek bidali dituzten materialen laburpen bat aurkezten dugu. Materiala herrialdeka aurkeztuko da, proiektuan parte hartzen duten herrialdeetako esperientzia ezberdinak nabarmentzeko.

3.1 B U L G A R I A

Bulgarian, bi eguneko mintegiak egin ziren Sofia eta Bourgas hirietan.

1 Xedea

Xede nagusia zen proiektuaren helburu eta zereginak eskaintzea partaideei, kide ezberdinei buruzko informazioarekin batera. Egindako ikerketa aurkeztea eta, halaber, jazarpenarekin eta gizarteak LGTBI kolektiboarekiko dituen jarrerekin loturiko arazoez eztabaida irekia izateko aukera eskaintzea. Azkenik, jardute onak partekatzea eta egoerari buelta emateko zailtasunak eta metodoak eztabaidatzea.

Mintegiek bi zati zituzten. Lehenengoan Bulgarian egindako ikerketa txostena aurkeztu zen. Talde txikitik egin zen, tokiko mailan egon daitezkeen homofobiari buruzko arazoak identifikatu eta partekatu ahal izateko. Bigarren zatian gomendioak ematen ziren etorkizunean homofobia prebenitzeko eta biktimak babestu ahal izateko.

2 Partaideak

Guztira, 40 partaide egon ziren: LGTBI kolektiboko ordezkariak, gazteak barne, bikote homosexualak, sexu joera ezberdinak dituzten seme-alaben gurasoak, GKEetako ordezkariak, irakasleak, gizarte langileak eta psikologoak. Ez zen tokiko agintean ordezkariarik egon.

3 Eduki eta Ondorioak

3.1 Mintegiko lehen zatian egondako talde eztabaidek sexu joera ezberdineko adingabeekiko jarrera baikorrak eta ezkorrak utzi zituzten agerian. Mundu guztiak aitortzen du bereizkeriaren aurkako jarrerak sustatu behar direla ezberdin direnekiko, baina batez ere minusbaliatuei eta etnia ezberdinetako pertsoneri (ijitoak bereziki) buruz ari garenean.

- I. Partaideen arabera, aurreiritzi eta estereotipo asko dago oraindik Bulgariako gizartean sexualitatea, genero, gizarte rol eta gizonezkoen eta emakumezkoen jarrera ezberdinei dagokienean. Arazoa da belaunaldi berriak estereotipo horien baitan hazten ari direla, familian, eskolan eta lagunaren artean.
- II. Partaideen iritziz, homofobia oso zabaldua dago eskoletan, irmoki errotua dago. Askotan, indarkeriaren erabilera sortzen du nerabeen artean, baita norbaiten sexu joerari buruzko zalantzarik txikiena dagoenean ere. Ohiz kanpoko jarrera, janzkera edo itxura duen norbaitek irainak, borrokak, jazarpena edo indarkeria fisikoa biziko ditu eskolan ziurrenik. Pedagogo eta psikologoek diotenez, gazteek beren homosexualitatea ezkutatzeko dute eskolan, hori egin ez ezean isolamendua biziko baitute nahiz eta LGTBI kolektiboaren aurkako areriotasun txikia egon eskolan.
- III. Lengoia homofobo gehiena normalizatzen da eskolan, bere egunerokotasuneko osagaitzat.
- IV. Eskolako jazarpen homofobo eta transfoboaren ondorioz, eskola-porrotak eta absentismoa handiagoak dira LGTBI ikasleen artean. Horrek, hezkuntzarekin jarraitzeko eta goi-mailako titulua eskuratzeko aukerak asko murrizten ditu eta, bereziki, bestelako arriskuak dakartza: droga eta alkoholaren gehiegizko erabilera, jarrera alderraia, oldarkortasun eta indarkeria, suizidioa eta norberaren buruari min egitea.
- V. Eskolek ez dute politika edo prestakuntzarik jazarpen homofoboari aurre egiteko. Eta hori, hein batean, zenbait irakaslek jarrera homofobo eta transfoboak dituztelako da.
- VI. LGTBI gaiak ez daude curriculumean sartuta. Ondorioz, ezjakintasun handia dago kolektibo horren inguruan. Sexu joerari eta genero identitateari buruzko eztabaidak edo lezioak erabat debekatuta daude hezkuntza erakundetan.
- VII. Esan ere psikologoek laguntza bilatzen duten gazteen kopuruak handituz doala aholkularitza zentroetan. Hasieran, laguntza indarkeria jazoera baten harira eskatzen da. Ostean, argi gelditzen da aipatua adingabearen gisako edo senideen artean dauden jarrera homofoboaren ondorio dela. Adituek aitortu dutenez, zailtasun handiak dituzte mota horietako arazoak konpontzeko. Diotenez, horren zioa da ez dagoela informazio eta prestakuntza teoriko zein praktikoa nahikorik, ez dagoela zerbitzu egokirik komunitatean (esaterako, LGTBI norbanakoekin lan

egingo duen zentro espezializatu bat), familia eta eskolen arteko lankidetzaz falta eta azkenik, baina besteak bezain garrantzitsua, ez dagoela gai honen inguruko jardute onen ezagutzarik.

- VIII. Mintegietako partaideen ustez LGTBI kolektiboarekiko tolerantzia eza arazo larria da oraindik hezkuntza sistemarako, "itsu" baitago oraindik aniztasunaren aurrean.
- IX. LGTBI komunitateko ordezkariak esan zuten, homofobiaren arazoa ez dagokio hezkuntza sistemari bakarrik, baizik eta baita osasun, gizarte eta kultura zerbitzuei ere. Polizia eta epaitegiek ez dute baliabide nahikorik gorroto-delituak ikertu eta epaitzeko. Sexu bereko bikoteak eta beren seme-alabak "bigarren mailako" jendetzat hartzen dira. Eta Estatuarentzat ez dira existitzen, kasualitatez bizi dira elkarrekin.
- X. Ez dago eztabaida publikorik homofobiaren inguruan Bulgarian eta sarritan gaia "manipulatua" izaten da hedabidetan eta politikagintzan. Normalean homofobia beste bereizkeria mota ezberdinekin lotzen da; ijitoen aurkako bereizkeriarekin esaterako.
- XI. Partaide guztien iduriz, informazio falta handia dago arlo guztietan: familia, eskola, unibertsitate eta erakundetan. Ez dago heziketa programarik eskoletan eta unibertsitateek ez dute etorkizuneko aditurik hezten gai honi dagokionean. Oso GKE gutxi dago gai honen inguruan lanean.
- XII. Ez dago tokiko politikarik homofobia prebenitu eta bere biktimak babesteko.

3.2 Mintegien bigarren zatiaren xedea zen *eskolan, familian eta gizarte mailan dagoen jazarpen homofoboarekin bukatzeko aukera ezberdinak azaldu eta eztabaidatzea.*

- I. Giza eskubide, tratamendu berdintasuna, sexu eta genero identitatea barneratzearen aldeko eta bereizkeriaren aurkako terminologia komuna ezartzeko behar handia dago.
- II. Partaideen arabera, homo, bi eta transexualen errealitateari buruzko ulermen positiboa eta partekatua sustatu beharra dago, ulermen horrek erreakzio eraginkorra ekarriko baitu sexu joera ezberdineko pertsonetikiko dauden jarrera ezkorren aurrean.
- III. Sentsibilizazio eta heziketa publikoa sustatu beharra dago, horrek mesede egingo baitio LGTBI komunitateak pairatzen duen bereizkeriaren aurkako epe luzeko borrokari.
- IV. LGTBI gaiak curriculumean sartu beharko lirateke, tolerantzia eta ulermena sustatzeko irakasle eta ikasleen artean eta ezohiko familiekiko sentsibilizazio publikoa sustatzeko ere. Eskola materialak gurasoekin partekatu beharreko liburuak hartu beharko lituzke, estereotipoekin bukatu eta aniztasun sexuala azaltzeko.



- V. Jazarpen homofoboaren eta jazarpen transfoboaren aurkako politikak onartu behar dira eskola guztietan.
- VI. Irakasle, psikologo, gizarte langile eta pedagogia aholkulariek LGBTI gaien inguruko heziketa jaso beharko lukete, jazarpen homofobo eta transfoboari aurre egiteko gai izan daitezten.
- VII. Homofobiaren prebentzioak ikuspegi holistiko bat izan beharko luke. Horretarako, LGBTI komunitatearen interesekin bat lan egingo duten zerbitzu eta sare profesionalak sustatu behar dira.
- VIII. Bereizkeriaren aurkako legedia garatu beharra dago, homofobia prebenitzeko eta bere biktimak babesteko, tokiko estrategiak garatzeko aukera aintzat hartuz ere. Tokiko bereizkeriaren aurkako batzorde, gizarte zerbitzu, GKE eta LGBTI eragileek paper garrantzitsua izan behar dute legedi eta estrategia horien garapenean.

3.2 E S P A Ñ A

Hezkuntza arloan dauden jarrera eta estereotipo trans-homofoboiei aurre egiteko diskurtso, behar eta estrategien inguruko ikerketa eta azterketak bukatu ostean, RAINBOW HAS proiektuak bigarren lan-ildoan abiatu zuen: mintegiak antolatzea eta egitea hezkuntzako eta inplikatu arlo eta eragiletako ordezkariekin. Hiru mintegi aurreikusi zirren, Madril, Bartzelona eta Bilbon, 2014ko lehen seihilekorako.

Lan intentsiboa egitea zen helburua eta mintegiak bi zatitan banatuta zeuden: 1) Edukia aurkezteko zatia, hau da, ikerketa, esperientzia eta hausnarketa/eztabaiden emaitzak; eta 2), elkarrekintza, analisi eta eraikuntzarako zatia.

1 Xedea

Mintegien helburua zen eztabaidarako gune bat eskaintzea. Xedea zen eztabaidatzea eta baita sentsibilizazioa sustatzea ere, gai honi aurre egiteko beharrezkoa zen estrategia politikoari buruz, ondoren inplikatu eragile ezberdinak (hezkuntza erakundeak, LGTBI elkarteak, guraso elkarteak eta irakasleak) lanean has daitezen, beharrezkoak diren ekimenak abiaraziz beren arlo ezberdinetan, aniztasun afektibo eta sexualak behar duen tokia izan dezan hezkuntza arloan.

2 Partaideak

Gaian inplikaturiko gizarte eragile eta erakunde ia guztiekin harremanetan jarri eta gero, mintegi bakoitzean 25-28 partaide bitartean egon ziren, ondorengo izenean:

Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Zerbitzu eta berdintasun ministerioak, Euskadi, Katalunia eta Andaluziako Hezkuntza eta Gizarte Gaietako sailak, LGTBI elkarte eta federazioak, guraso elkarteak, guraso homosexualen elkarteak eta seme-alaba homosexual eta transexualak dituzten familiak, irakasleak eta irakasle sindikatuak, giza eskubideen eta adingabeen eskubideen aldeko elkarteak, Espainiako Gazte Kontseilua, unibertsitateak eta Espainiako, Kataluniako (Sindic de Greuges) eta Euskal Herriko arartekoak.

3 Eduki eta Ondorioak

3.1 Bilboko mintegian:

Hauek dira analisi, elkarrekintza eta eraikuntza fasetik atera ideia nagusiak:

- I. Aniztasuna faktua, eskubide, ondasun eta pribilegio bat da. Defendatu eta aldarrikatu beharra dago. Publiko egin eta ikusgai egin behar dugu gure gizartean. Horretarako, aniztasun estrategiak garatu behar dira politika, hezkuntza eta lan (sindikatuak) arloetan. Erretorika hutsa baino, behar duguna da proposamen, irtenbide eta erantzun zehatzak, aginteen lidergoarekin.

- II. Tolerantziarik ez aniztasunaren aurkako erasoei. Tolerantziarik ez, errespetuzko ezezkoarekin. Gune seguruak eraiki behar dira eskola, auzo eta hirietan... Konfiantza eta elkarrizketa sustatuko duten guneak.

- III. Helduak vs. Haurrak: Arreta eskaini haurren emozioari eta testuinguru horretan lan egin.

Emozioa (atsekabea, mina, ulertua ez sentitzea, isolamendua, nahastea, etab.) benetakoa da. Batzuetan, halere, zaila da identifikatzea helduaren ikuspuntutik eta haurren emozioen arloan sartu behar du helduak. Haurra minduta dago baino ez du arazoa identifikatzen. Atsekabetzen duen hori bere buruaz kanpo dago, testuinguruan ("ezberdin dena" edo "estandarra ez dena"rekiko iragazgaitza dena).

Emozioen arloan sartu: enpatia eta errespetuz (haurrak esan nahi duena esateko aukera izan behar du, esan nahi duenean, etab.). Halere, arreta handiz jokatu behar dugu, eta kontuz ibili isiltasunarekin. Errespetu keinuaz gain (erritmoa, une aproposa), ukapenaren arrastoa izan baitaiteke ere isiltasuna. Ezin ahaztu solasaldia hasteko erantzukizuna helduarena dela beti.

Ondorioz, "konfiantza" eta "segurtasun" eremuak sortu behar dira emozioak azaldu ahal izateko eta gertatzen dena, estandarra zer den, onartua zer dagoen, aniztasuna eta abarren inguruko solasaldia izateko. Eremu horiek familian, eskolan eta komunitatean egon beharko liriteke presente.

- IV. Familiak: Informazio eta heziketa falta izugarria dago aniztasun afektibo eta sexualaren inguruan.

Familia guztiek, beren morfologia eta osaketa dena dela, segurtasuna eta babesa ematen dute.

Ohiko familiak (sexu ezberdineko gurasoak seme-alabekin) esfortzu handiagoa egin behar du bere egunerokotasunetik at dauden familia eredu ezberdinak barneratzeko.

Aniztasun afektibo eta sexuala gertutik bizi ez dutenek egoera horiei buruzko informazioa behar dute. Familia horiek “ikusteko beharra” dute.

Nola gainditu informazio eta heziketa falta hori?

- i. Ikusgaitasun handiagoarekin eta sentsibilizazioa sustatuz. Hedabideek beren ekarpena egin dezakete, jendartearentzako kanpainen, tratamendu berdintasunaren aldeko kanpainen, aniztasun afektibo eta sexualaren aldeko kanpainen bidez, etab. Eskolek ere lagun dezakete, familia eredu ezberdinak curriculumean sartuz. Ezohiko familiei ahotsa eman behar zaie. Ikusgai eta presente egon behar dute gure gizartean.
 - ii. Informazio gehiago eskainiz familiei. Informazio kognitiboa izan behar du baina, halaber, aitortu beharra dago ere mezu kognitiboek eragin txikia dutela ez badute konexiorik emozioekin eta, ondorioz, emozioaren arloa landu beharko litzateke ere.
- V. Nola alendu hezkuntza bateratasunaren eta estereotipoen alde gizarteak egiten duen presiotik? Nola neutralizatu presio hori?

126

Gizarte mailako eragileen eragina aintzat hartu behar dugu, hau da, familia, eskola, lagunena eta hedabideen eragina eta adingabeen kasuan bereziki, filmen eta telebistaren eragina; askotan paper ezkorra jokatzen baitute gai honi dagokionean.

Ez gara kontziente genero rola transmititzeko dugun eraz. Abiapuntua interesgarria izan daiteke, agian, homofobiak baldintzatuta hezi izan garela aitortzea eta, hortik, aniztasunari irekitzea.

Hizkuntza arazoak: Nola egin hizkuntza baikorra, “naturala”, errealitate afektibo sexual ezberdinak isla ditzan?

Legearen balio pedagogikoa: Aniztasun afektibo eta sexualaren onarpena legearen baitan, jendea (haur eta nerabeak barne) beren eskubideei dagokienean ahalduntzeko.

Ahalik eta azkarren hasten bagara lanean, hobeto; familian, eskolan eta komunitatean, arlo emozionala eta kognitiboa jorratuz, benetako “arazo” bat sortu aurretik. Esan halere testuinguru batzuek arlo emozionalarekiko joera dutela eta beste batzuek kognitiboarekiko joera. Testuinguru horietan “habitat” anitz bat sortzeko eta aipatua mantentzen duten osagaiak sendotzeko.

- VI. Eskolan (aurrean aipatu lan-ildoak osatu eta garatuz)...

Prebentzioa: Konfiantzazko guneak sortzea adingabea den bezala ageri dadin, bere aniztasunean, eta errespetu faltarekiko tolerantziarik ez duen gunea.

- i. Eta konfiantzazko gune horiez gain, elkarrizketarako ezinbesteko baldintza, segurtasuna (baita fisikoa ere) eskaintzen duten gune babestuak.
- ii. Tolerantzia ez izateak kontu etikoa da: “ezin da minik eragin, inorengan”. Honela, besteak bere burua den bezala aurkezteko aukera du eta nik hori errespetatu behar dut eta hori bermatzen duten arauak bete behar ditut.

Hezkuntza arloko zeregina:

- i. Aitortu beharra dago heziketa afektibo eta sexualak ez duela beharko lukeen arreta jasotzen.
- ii. Gaitasunetan oinarrituriko ereduak balekoa da eta gehiago garatu beharra dago.

Elkarrekintza harmoniatsua, funtsezkoa:

- i. Ikasle guztiak dira guztion ongizatearen arduradun: elkarri zaindu behar diote, harremanak sortu, arau komunak finkatu, eta abar.
- ii. Jazarpen protokoloen gehiegizko izapideak murriztea, ikerketa bat ahalik eta azkarren irekitzeko errezeloak uxatzea. Errezelo horien erruz beranduegi jarduten baita askotan.
- iii. Garrantzitsu eta beharrezkoa da lekukoekin lan egitea jazarpen, gehiegikeria eta errespetu falta kasuak daudenean. Nola azal daiteke “informatzea” eta “salatzea”ren arteko muga?
- iv. Segurtasuneko kanal birtual bat ezartzea.

Hezkuntza komunitate osoaren erantzukizuna:

- i. Familiak eskolan barneratu/inplikatzeko beharra dago.
- ii. LGTBI irakasleak ikusgaiago egin behar ditugu. LGTBI rol eredu gutxi dago, emakumezko homosexualen kasuan bereziki. Aipatu araua gizarte orokorrean aplikatu beharko litzateke ere, eskolatik kanpo.

3.2 Bartzelonako mintegia:

Hasteko, eskola giroko aniztasun afektibo eta sexualari eta gizarte eta erakunde eragile ezberdinak (adingabeen garapen afektibo sexual osoan inplikatuta daudenak alegia) jokatu behar dituzten rolei buruzko azterketa, elkarrekintza eta eraikuntza fasea; ondoren, eragile horien agendan sartu beharrezko lehentasunezko proposamen, estrategia eta erremintak zehazteko fasea. Aipatu proposamen, estrategia eta erremintak ondorengo funtsezko printzipioetan oinarritzen dira:

- Sexu joera edo genero identitateagatiko eskolako jazarpena.
- Genero jarrera ezberdineko adingabeen behar eta baldintza zehatzak.
- Familiaren partaidetza aniztasun afektibo eta sexualari buruzko heziketan.
- Esku-hartze neurriak.

Funtsezkotzat jotzen diren lau gizarte eta erakunde eragileek izan dezaketen rol eta ardura aztertu zuten: 1) LGTBI elkarte eta erakundeak; 2) hezkuntza eta biztanleria elkarte eta erakundeak; 3) hezkuntza eta prestakuntza erakundeak; 4) erakunde publikoak.

Azterketa, eztabaida eta proposamen fasea eta gero ondorioetan aipatzen diren bi funtsezko ekintzetan bil daitezkeen proposamen komunak egin ziren:

- I. Eremu *afektibo eta sexualaren araudia* sortu eta garatzeko beharra. Eskubide eta askatasunak babesteko erremintak hartu behar ditu, ez bakarrik LGTBI adingabeenak, baita LGTBI familietako adingabeenak ere. Arreta berezia (baina ez bakarra) jarri beharra dago hezkuntza arloan: eskolak aniztasuna osotasunean hartzen duen elkarrekintza harmoniatsurako gunea izan behar du. Horrenbestez:
 - Aniztasun afektibo eta sexualak leku berezia izan behar du eskolako curriculumean, harekin loturiko ikasgai guztietan.
 - Arlo honetan ardura duten irakasle eta funtzionarioek aniztasun afektibo eta sexualari buruzko heziketa berezia jaso behar dute. Eta sexu joera edo genero identitateगतिको bereizkeria eta jazarpena prebenitu beharra dago (edo aurre egin behar zaio).
 - Sexu joera edo genero identitateगतिको bereizkeria eta jazarpena prebenitu eta aipatuei aurre egiteko protokoloen ezarpena. Protokoloak biktiman jarriko du arreta.
 - Familia eta eskolaren arteko harremanak sustatu behar dira, egoerari aurre egin eta sentsibilizazioa indartzeko.
 - LGTBI arreta, aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen dituzten zerbitzu publikoak. (Aurrekoa LGTBI elkarten ardura izan daiteke).
 - Ikuskapen mekanismoak ezarriko dira, LGTBI errealitatea hedabidetan “estandar bilakatu” dela eta tratamendu aproposa jasotzen duela bermatzeko.
- Mekanismo horiek jarraitu eta ebaluatu egin beharko dira, aurrez finkaturiko adierazle ezberdinen bidez.
- II. *Inplikatu eragile guztien esfortzuak koordinatzeko eta eragileen arteko aliantzak* sortzeko beharra: LGTBI elkarte eta erakundeak, hezkuntza eta biztanleria elkarte eta erakundeak, hezkuntza eta prestakuntza erakundeak eta erakunde publikoak. Aipatu aliantzak inplikatu eragile



guztien konpromiso irmoa eskatzen du, eta beren erantzukizuna izango da ondorengo ekintzak eta jarduteak gauzatzea:

- Guztion adostasunarekin zehazturiko agendak (eragina edo politika publikoa sortzeko) gauzatzea.
- Legean zehazturiko erreminta eta mekanismoen aplikazio koordinatua.
- Legeen aplikazioaren gizarte kontrola.
- Jardute onak partekatzea.
- Gai honekiko sentsibilizazio publikoa sustatzeko kanpaina partizipatiboa.

Proposamen horietatik lor daitekeen garapenak mintegian parte hartu zuten eragileen konpromiso irmoaren mende zegoen. Hori da erronka nagusia.

3.3 Madrileko Mintegia:

Hauek dira analisi, elkarrekintza eta eraikuntza fasetik atera ideia nagusiak:

- I. Adingabe lesbiana, gay, transexual eta bisexualek eta generoarekin loturiko ohiko jarrerak jarraitzen ez dituzten beste adingabeek isolamendua, ikusezintasuna eta eskola gehienetako maila guztietan hedatu jazarpena pairatzen dituzte. Zenbaitetan irakasleak dira aipatu jazarpena abiarazten dutenak, eta adingabeek ez dute ezta familiaren babesa ere. Halere, eskola gehienentzat ez dago gisa honetako arazorik, larritasun handiko jazarpen kasu bat agertzen den arte.
- II. Hezkuntza komunitateak elkarrekin lan egin behar du gaiari aurre egiteko. Eta are gehiago, etengabeki egin behar du, haurtzaindegitik unibertsitatera. Sarritan familiak dira arazoaren konponketaren zama hartzen duten bakarrak. Egindako ikerketa guztien arabera familia gehienak aniztasuna (genero, sexu eta familiari dagokiona) babesten duen hezkuntza baten alde daude.
- III. LGTBI familietako kideentzako prestakuntza eta babesa garrantzitsuak dira ere, aipatu familiak ikusgai egiten baitituzte. Esan beharra dago familia horietako seme-alabek egoera bereziki ahulean daudela.
- IV. Aniztasun eta giza eskubideen aldeko lanak orokorra izan behar du; halere, garrantzitsua da gutxieneko aukerak eta/edo edukiak zehaztea, gaiari aurre egiten zaiola bermatzeko.
- V. Orokortasuna bermatzeko, irakasleek aniztasun mota guztiak lantzeko beharraz eta ezinbestekotasunaz kontziente izan behar dute, eta horretarako heziketa eta prestakuntza berezia behar dute. Hezkuntza fakultateek aniztasuna beren curriculumean sartzeko errezeloak dituzte. Halere, etorkizunean irakasle izan nahi duten ikasleak aniztasuna lantzerantz behartuz gero, arazoa konponduko litzateke.
- VI. LGTBI komunitatea gutxiengoa bada ere, aniztasun afektibo eta sexualari buruzko lana gizarte osoarentzat da garrantzitsua, generoari loturiko mugek guztiongan baitute eragina eta genero “estandarretatik” ateratzen den oro homofobiaren

biktima izan baitaiteke. Generoak ez luke inolako mugarik inposatu behar. Horren harira, genero espresioaren eta genero identitatearen arteko bereizketa egin beharra dago. Salaketak jaso, biktimak babestu eta kalteak ordaintzeko protokoloak ezartzeko beharra aipatu zen ere.

- VII. Sexu joera eta genero identitateagatiko jazarpen eta bereizkeria giza eskubideen aurka doaz eta, ondorioz, erakunde publikoek arazo horri jaramon egin beharko zioten eta datuak biltzen hasi beharko lirateke. Halaber, jazarpena norbanako baten identitatearen nahitaezko ukapena dela ere nabarmendu zen.
- VIII. Andaluziako Hezkuntza Sailburuak azaldu zuenez, aniztasun afektibo eta sexuala Hezkuntzako Bigarren Berdintasun Plangintzan sartuta dago. Eskoa bakoitzak baterako hezkuntza eta aniztasunaren gaineko ardura izango duen pertsona bat izango du. Hezkuntza sailak arazo ezberdinei aurre egiteko jarraibide zehatzak eskaini ditu. Eta estandarra ez den genero identitatea duten adingabeak babesteko protokoloa garatzen ari dira.
- IX. Seme-alaba transexualak dituzten familiek azaldu zuten, arazo gutxiago dituzte eskola publikoetan, itunpeko eskoletan baino. Aipaturiko beste kontu bat: eskola baten ideologiak zein neurritan baldintza dezakeen aniztasun afektibo eta sexuala edo familiarra bizi duten adingabeen segurtasuna eta askatasuna.
- X. Transexualitatea patologikotzat jotzeak asko zailtzen du tratamendu berdintasuna. Beste guztiaren gainetik, Espainiako Konstituzioak norbanakoari bermatzen dion pertsonalitatea garatzeko askatasuna gailendu behar da.
- XI. Intersexualitatea aintzat hartu beharra dago ere aniztasun afektibo sexualean.
- XII. Betiko genero rolen gailentasunetik sortu arazoei eta horrek dakarren bereizkeriari aurre egiteko protokoloak egitea garrantzitsua da, nahiz eta ezin daitekeen neurri bakarra izan.

Horrenbestez, ondorio orokor gisa:

- Sexu joera eta genero identitate arrazoiengatik gaitzestea edo oldartua izatea nahiko hedatua dagoen arazoa da Espainiako hezkuntza sisteman.
- Egoera horrek giza eskubideak larriki urratzen ditu. Ondorioz, konpromiso politikoa behar da homofobia, bifobia eta transfobiarekin bukatzeko, sistemikoak baitira.
- Arartekoan inplikazio proaktiboa garrantzitsua da ere.
- Sexu, genero eta familia aniztasunaren aldeko esku-hartzeak ezin dira krisi egoerentzako erantzuna izan bakarrik, izaera prebentiboa izan behar dute ere, eta aniztasun mota guztien arteko errespetua sustatu.
- Sexu, genero eta familia aniztasuna errespetatzeak, gutxiengo batengan eragiteaz gain, hezkuntza komunitate osoa aberasten du. Genero estereotipoetan oinarritu sistema bat kaltegarria da ikasle guztientzat.

- Estandarraz kanpoko jarrerak dituzten adingabeak babesteko protokoloa premiazkoa da. Zenbait ikasle transexualak dira, baina beren jarrerak ikasle guztiengan dute eragina.
- Administrazioak neurri zehatzak ezarri behar ditu, hau da, egoeraren ahalik eta diagnostiko zehatzena egin behar du, aniztasuna dagoela eta aniztasuna errespetatu beharra dagoela argiro ebazten duten neurriak ezarri (neurri orokorrak, baina baita neurri zehatzak ere), irakasleei heziketa eta prestakuntza eman, eskola eta familien arteko lankidetzaren sustatu, lankidetzaren proiektuak abiarazi LGTBI elkarteekin, eta baliabideak zehaztu eta hedatu adingabe eta beren familien alde.
- Eskolako dokumentu guztiek esplizituki aitortu beharko dute sexu, genero eta familia aniztasunari eman beharreko arreta.
- Jardute onen sare bat eratu beharra dago (Euskal Herria, Andaluzia eta Kanariar Irlak aniztasun afektibo eta sexuala plangintza zehatzetan sartzeko lanean ari dira).
- Aniztasun afektibo eta sexuala errespetatzeko esku-hartzeak nabarmen murrizten dituzte homofobia, bifobia eta transfobia mailak ikasleen artean.



3.3 I T A L I A

2014ko ekainaren 18an nazio mailako mintegi bat egin zen. Partaide bakoitzak bere iritziak azaldu zituen, arlo ezberdinetan izandako esperientzien arabera. Esku-hartzeen helburua izan zen erakunde bakoitzak gauzatzen dituen jarduerak azaltzea.

1 Xedea

Erakunde eta norbanako ezberdinek LGTBI eskubideekin loturiko gaiak aztertu zituzten, bereizkeriaren aurkako eta gizarteratzea eta ezberdintasunari errespetua sustatzeko politiken ikuspuntutik. Esku-hartze guztiek eskola eta familien arteko harremana aztertu ez bazuten ere, legedia eta araudiekin eta erakundeekin loturiko mintegi bat egitea erabaki zen eta bertan SINERGYako Di Stasio doktoreak RAINBOW HAS proiektuaren aurkezpen orokorra egin zuen.

2 Partaideak

Mintegiak erakunde publiko zein pribatuak eta norbanakoak bildu zituen: UNAR, Lonbardiako Eskualdea, RE.A.DY Sarea, Articolo 3 eta Lenford Sarea.

3 Eduki eta Ondorioak

3.1 UNAR-ek LGTBI Estrategia Nazionala aurkeztu zuen. Aipatu estrategia 2013ko Apirilaren 19an onartu zen, Ministerioaren Dekretu baten bitartez, sindikatuak, gobernu zentrala, tokiko aginteak eta gizarte eragileak hartu zituen estrategia garatzeko prozesu baten ostean.

ISTAT⁵ institutuak bereizkeriaren inguruan eginiko nazio mailako lehen ikerketaren arabera (sexu joera eta genero identitatean oinarritua eta 2012ko maiatzaren 17an, Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira egin zena):

- I. 18 eta 74 urte bitarteko italiarren % 60tik gorak uste du homosexualak bereizkeriaren bat pairatzen dutela. Portzentaje hori % 80raino igotzen da transgeneroen kasuan.
- II. Biztanleen % 74,8a ez dator bat "homosexualitatea gaixotasun bat da" esaldiarekin, % 73ak "homosexualitatea ezmorala da" esaldiarekin eta %74,8ak "homosexualitatea mehatxu bat da familiarentzat" esaldiarekin.
- III. % 65,8a bat dator "beste sexuko edo sexu bereko pertsona batekin maitemintza zaitzake; garrantzitsuena maitasuna da" esaldiarekin.
- IV. % 63a "justua da elkarrekin bizi den sexu bereko bikote bat ezkonduko bikote baten eskubide berdinak izatea" esaldiarekin bat dator. % 44aren ustez, "bikote homosexual batek ezkontzeko eskubidea izan beharko luke, hori balitz bere nahia". % 20ak soilik babesten du sexu bereko bikoteei adoptatzeko aukera ematea.

3.2 Era berean, RE.A.DY sareak (LGTBI bereizkeriaren aurkako tokiko aginteen sarea) indarrean dituen ekimenak hobetzeko eta aipatu ekimenak eskualde mailako erakundeekin partekatuzko bere helburuak aurkeztu zituen. Horretarako, ikuspegi horizontala eta partizipatiboa aplikatu behar dute: inplikatuaren ekarpen aktiboa sustatzea kudeaketa eta garapenean, tokiko sinergiak sustatzea indarreko baliabideak sendotu eta hobetuz eta jardute onak geografikoki sustatuz eta hedatuz.

- I. Azken urteotan, tokiko eta eskualde mailako zenbait gobernuk LGTBI norbanakoen gizarteratzea sustatzeko politikak abiatu dituzte eta sexu joera eta genero identitateagatiko jazarpenari aurre egiteko ekimenak eta administrazio neurriak garatu eta sustatu dituzte.
- II. Italian, izan ere, eta herrialdean eginiko azken ikerketak dioten bezalaxe (*Biztanleria homosexuala Italiako gizaratean*, ISTAT 2010), LGTBI kolektiboak bereizkeria pairatzen du familian, gizarte mailan eta lanean, betiko kulturaren oinarrituriko aurreiritziak bizirik dirautelako. Ondorioz, erakunde publikoen inplikazioa funtsezkoa da LGTBI komunitatearen beharrei erantzuteko politikak ezartzeko tokiko mailan. Politika horiek bere bitziza baldintzak hobetzeaz gain errespetuzko gizarte klima sortu eta aurreiritzirik gabeko solasaldia sutatuko dute.
- III. Horrenbestez, 2005eko azaroan bilera bat egin zen Bolognako COM.PA erakundearekin eta 2006ko maiatzean, PA FORUM foroak Erroman eginiko bilera batean, Erroma eta Tuingo udalek lesbiana, gay, bisexual, transexual eta

⁵ Istituto Nazionale di Statistica (Estatistika Institutu Nazionala).

transgeneroen aurkako jazarpen guztiekin bukatzeko jardute onak garatu eta partekatzeko sare nazional bat sortzeko borondatea agertu zuten.

- IV. 2006ko ekainean, Turinen, erakunde publiko ezberdinetako ordezkariak bildu ziren sare berri horren xede, helburu eta ekintza zehatzak hartuko zituen Intentzio-adierazpen bat erabakitzeko. Lehenengoz, tokiko eta eskualde mailako aginte Italiarrak biltzen ziren aniztasun kultural eta politikoa sustatzeko eta sexu joera eta genero identitateagatiko bereizkeriari aurre egiteko neurriak zehazteko. RE.A.DY Sareak arreta handiz jarraitzen ditu nazioarteko erakundeen lana, Oinarrizko Eskubideen Aldeko Europar Batasuneko Agentziaren (FRA) lana batez ere.

3.3 Lonbardiako Eskualdeak zenbait helburu zehatz finkatu zituen eta, ondoren, proiektuan parte hartzeko nahia zuten norbanakoak eskatu zituen. Bilatzen zutena zen a) gizarte zerbitzu publiko eta pribatuen arteko tokiko sareak garatzea eta koordinatzea, gaiari aurre egiteko; b) ekintzak garatu eta gauzatzea UNAR, Lonbardiako Eskualdea eta ISMUren artean sinaturiko hitzarmen ezberdinek diotenari jarraiki; eta c) hitzarmen eta akordio berriak eta babes jarduerak sustatzea UNAR-ek eta Lonbardiako tokiko aginte ezberdinek aurretik sinatuta zituzten akordioekin bat.

Eskualde mailako sare bat osatu zen, ondorengo helburuekin:

- “Espazio” bat sortzea operatzaile eta UNAR-ari loturiko operatzaileentzat.
- Informazio, prestakuntza eta sentsibilizazio aukerak sustatzea.
- Sukurtsal eta bulegoen eskuragarritasuna eta kokapen geografikoa hobetzea.
- Bereizkeria kasuei aurre egiteko ekintzak sendotzea eta prozedura estandarizatzea.

UNAR proiektuak bereizkeriaren aurkako behatzaile/gune/unitateak sortzeko prozedurak finkatu ditu:

- Tokiko erakunde eta elkarte guztietako ordezkariak bilduko dituen prozesu bat.
- Hedatze zabala bermatzea eta gertutasuna agertzea bereizkeria biktima potentzialei.
- Erreferentzia puntuak: elkargune, unitate, eta informazio-gune espaziala.

3.4 E R R E S U M A B A T U A

Bi mintegi egin ziren Erresuma Batuan. Lehenak, egun erdikoa, martxoaren 18an, Middlesex Unibertsitatean; bigarrena ekainaren 19an, East Anglia Unibertsitatean. Mintegiak ikuspuntu ezberdinetatik egin ziren. Lehenak *“Jazarpen homofoboa osasun mentaleko zerbitzuen testuinguruan”* izenburua zuen. Bigarrenak, *“Estereotipo, Jarrera Transfoboak eta Homofoboak Hezkuntzan”*.

1 Xedea

Lehenak LGTBI norbanakoek osasun mentaleko zerbitzuetako erabiltzaile gisa dituzten arazoak aztertu zuen. Bigarrenaren xedea zen jarrera homofoboak identifikatzea eta horiei aurre egitea ikasgeletan.

2 Partaideak

Lehenak, egun erdikoa, osasun mentaleko hezkuntza eta prestakuntza sare nazionaleko, tokiko zerbitzuetako, erabiltzailetako eta osasun mentaleko zerbitzuetan tratatuak izan direnetako 25 ordezkari hartu zituen.

Bigarrenean 50 delegatuk parte hartu zuten: Erresuma Batuko Ekialde eskualdeko LGTBI elkartetako ordezkariak, akademikoak eta eskoletako eta tokiko aginteetako ordezkariak; nazio mailako erakunde batzuen ordezkariak parte hartu zuten ere.

3 Eduki eta Ondorioak

3.1 Middlesex Unibertsitateko Mintegia:

Azken urteotan estigmaren aurkako kanpainak egin diren arren Erresuma Batuan, osasun mentaleko arazoak izan dituztenen esperientziek diotenez estigma arazo handia da oraindik. Bazterturiko talde bateko (kasu honetan LGBTBI komunitatea) kide izateak dakarren estigmari –ezaugarri sozioekonomiko, pertsonal edo kultural/etnikoetan oinarritzen dena– osasun mentalaren estigma gehitu behar zaio. Estigmatu talde baten kide izate berak osasun mentaleko arazoak izateko arriskua dakar.

Azken hamarkadan zehar, lan handia egin da osasun mentaleko arazoak izan dituzten norbanakoen esperientziak aldatzeko: zehazki, pairatzen duten estigma murrizteko. New Horizons dokumentuak (2010) estrategia nazionala ezarri zuen, Ingalaterrako osasun psikologikorako, 2010. urtetik aurrera. Xedetako bat zen “biztanleriaren osasun mentala hobetzea eta ongizatea hobetzea”, berdintasuna sustatuz eta berdintasun eza murriztuz (DH, 2010). Horretarako, erakunde publikoen funtsak dituzten estigmaren aurkako programak abiatu dira azken urteotan. Osasun mentaleko arazoak dituzten norbanakoen iragana sakontasunez ikertzen dugunean gaixotasun mentalaz gain beste estigma bat dagoela ikusiko dugu, eta osasun mentala bera baino kaltegarriagoa izan daitekeena gainera: bazterturiko talde bateko kide izatearen estigma, norbanakoak lesbiana, gay edo transexuala dela iragartzen duenean agertzen dena. Aipatua, gainera, beste ezaugarri ezkor eta desabantailekin lotu daiteke: baliabide ekonomiko eskasak, pertsonen arteko eta gizarte harreman eskasak, langabezia eta diru-sarreraren galera, gizarte babeseko sare mugatuak, laguntza beranduago eskatu eta medikazio psikiatriko gutxiago hartzen dute, bizitza kalitate eskasa, depresio sintomak eta tristura eta identitate eraikuntza negatiboak, autoestimua txikia barne (Chakroberty, 2011). Chakrobertyk ondorioztatzen duenez: “ikerketa honek nazioartean atera ondorioa berresten du, hau da, heterosexuala ez den joera duten norbanakoek osasun mentaleko arazo gehiago dituztela eta osasun mentaleko zerbitzuak gehiago erabiltzen dituztela. Horrenbestez, esan genezake gizartean baztertuta dagoen talde bateko kide izateak osasun mentaleko arazoak pizgarria dela aipatu norbanakoen artean”.

Myerrek (2003) marko kontzeptual bat proposatzen du gaixotasun mentalaren prebalentzia handiago hori eta dakartzen arazo negatibo horiek (gutxiengoaren estresa deitzen du) azaltzeko: estigma, aurreiritzi eta bereizkeriak gizarte ingurugiro ezkorra eta estresagarri bat sortzen du eta horrek osasun mentaleko arazoak ekartzen ditu. Bere ereduak estres prozesuak azaltzen ditu: aurreiritzien jomuga izatea, bereizia izateko izua, ezkutatzeko eta ukapenak, barneratutako homofobia; eta horiei aurre egiteko prozesuak ere. Marmorrek (1980) argi eta garbi azaltzen du egoera: “Funtsezko arazoa ez da homosexual gehiegi edo gehienek arazo neurotikoak dituztela. Homosexualak baztertzen eta zokoratzen dituen (oldartzen dituela ez esatearren) gure gizarte honetan, ezinezkoa litzateke pentsatzea homosexual gehienek autoestimua handia dutela eta ez dutela nolabaiteko tristurarik sentitzen beren egoera estigmatuari buruz; hori bai litzatekeela harrigarria”.

- I. IOsasun mentaleko zerbitzuen erabiltzaile izateak dakarren “estigma bikoitza” eztabaidatu zen: bitan ateratzen baitira armairutik, gizartearen aurrean eta osasun mentaleko zerbitzuen aurrean ondoren, baina osasun mentaleko zerbitzuek normalean ez dute aintzat hartzen LGTBI norbanakoa izateak dakartzan estres eta tentsio gehigarri horiek. Ondorioz, osasun mentaleko zerbitzuen erabiltzaile diren LGTBI norbanakoen azaro bikoitza hori eztabaidatu zen.
- II. Peter Ryanek osasun mentaleko zerbitzuek LGTBI gaiei ematen dieten tratamendua orokorrean aurkeztu zuen. Ingalaterrako Osasun Mentaleko Institutu Nazionalak (NIMHE) 2007an egin zuen ikerketa baten arabera LGTBI norbanakoek buruaz beste egiteko eta beren buruari min egiteko joera dute. Buruaz beste egiteko arriskua lau bider handiagoa da gizon gay eta bisexualen artean eta depresioan erortzeko arriskua bider bat eta erdi handiagoa zen LGTBI kolektiboan. Stonewallek antzeko emaitzak azaltzen zituen txosten bat argitaratu zuen ere (2008): emakumezko lesbiana eta bisexualak heterosexualek baino buruaz beste egiteko edo beren buruari min egiteko joera handiagoa azaltzen dute. Eta horri LGTBI norbanakoek bereizkeria pairatu eta babes zerbitzu eskasagoak dituztela gehitu behar zaio eta horrek eragin handia izan dezake osasun mentalarengan. LGTBI norbanakoek alkohol eta drogarekiko menpekotasun handiagoa agertzen dute, emakumezko lesbiana eta bisexualak batez ere. Osasun mentaleko arazoak dituzten LGTBI norbanakoak ere, sarritan, alkohol eta drogak neurritz kanpo erabiltzen hasten dira, sentitzen duten presioa jasan ahal izateko. Kalkuluen arabera, gizonezko homosexualen % 14-20ak anorexia edo bulimia dauka (Russell, 2002).
- III. Thurstine Bassettek osasun mentaleko heziketa eta prestakuntza aztertu zituen eta ikusi ahal izan zuenez, osasun mentaleko heziketa gehienek ez diote jaramonik egiten LGTBI kolektiboaren gaiari; eta osasun mentaleko zerbitzuen erabiltzaile ziren LGTBI norbanakoek oso gutxitan dute homosexuala izateak eta osasun mentaleko arazoak izateak dakarren konplexutasun hori agertu eta partekatzeko gune berezi bat beraien esku. Aipatu konplexutasunak ez zuen islarik osasun mentaleko heziketa eta prestakuntzan eta LGTBI arazoek ez zuten lekurik, edo oso leku eskasa zuten, erizain, gizarte zerbitzuetako psikologo eta gizarte langiletako heziketa eta prestakuntza programetan. Mintegiak oso harrera ona izan zuen eta bertaratuek aktiboki parte hartu zuten eztabaidetan.
- IV. Azken ondorio gisa, esan beharra dago egindako ikerketen arabera argi gelditu dela LGTBI norbanakoek osasun mentaleko arazoak izateko arrisku handiagoa dutela bizi duten estigma eta bereizkeria egoerak direla eta, garrantzitsua dela arrisku hori ulertzea eta estresa murriztu eta osasun mentala sendotzen duten aldagaiak ezagutzea. Horrela bakarrik izango dute, erakunde publikoek, LGTBI norbanakoek gizartean bizi duten estigmari aurre egiteko aukera. LGTBI norbanakoen osasun mentaleko arazoan inguruan dagoen psikiatria literatura

epidemiologiko eskasak egoera ezkutatu eta gai garrantzitsu honen ukapena ekarri du.

3.2 East Anglia Unibertsitateko Mintegia:

Orrialde bateko aurretiko txosten batek egoera orokorra azaldu zien bertaratuei. LGTBI gazte eta LGTBI ez diren gazteen hitzaldiak egon ziren ere. Horietako bat Gazteria Zerbitzu Boluntarioetako Batzorde Nazionalako Bideratzaile Gazte eta Erresuma Batuko Parlamentu Gazteko kide ohia zen. Bertaratu gazteen partaidetza sustatu zen egindako eztabaida eta mahai-inguru guztietan. Eskolako estrategiak eta politikak diseinatzeko prozesuan ikasleak sartu eta inplikatzeko beharraren alde beren argudioak bikainak eta oso garrantzitsuak izan ziren. Eskoletan ikasle ordezkarien sare bat eratzea izan zen azterturiko aukeretako bat, Norfolkeko Udalak sortu duen estrategia garatzeko taldeak aintzat hartu duen ideia gainera. Goizean zehar, Erresuma Batuko RAINBOW HAS proiektua aurkeztu zen, Norfolkeko Udalak (Ingalaterrako Ekialdean dagoen konderrria) homofobiari aurre egiteko garatu duen lan bikaina laburbildu zen, eskualdeko eskola ezberdinek homofobia ikasgeletatik desagerrarazteko egiten duten lana aurkeztu zuten eta LGTBI elkarte gazte batek bere ekimenak aurkeztu zituen. Horietako bat lehen hezkuntzako ikasleei zuzenduriko jarduera partizipatiboa da: haurrek mozorroto eta "PRIDE" desfile txiki bat egiten dute, beren buruaz harro egon daitezten.

Eguerdiko saioan, Stonewall ongintzako elkartearen heziketa bideo bat ikusi zuten bertaratuek. Lehen hezkuntzako eskoletarako egina, adingabe ezberdinetako bizitzen "kasu-azterketa" ezberdinen bidez identitate, kultura, pertenezia eta aurreiritziekin loturiko zenbait gai aztertzen ditu. Mintegian, halaber, postu ezberdinak muntatu ziren erakunde ezberdinek beren lana azal dezaten; horien artean, tokiko aginte baten liburutegi zerbitzua eta komunitate mailako proiektu boluntario bat (FIXERS proiektua), jazarpen homofoboaren aurkako beren poster bikainak aurkeztu zituztenak.

Bazkalosteko saioan Unibertsitate batek Europako funtsekin egin duen indarkeria homofobo eta transfoboaren aurkako LGTBI gazteen ahalduntzeari buruzko bere ikerketa aurkeztu zuen. Ondoren, Erresuma Batuko bi eskualdek eskolako homofobiaren aurkako beren jardute onak aurkeztu zituzten. Azken saiorako, bertaratuek taldetan banatu ziren ondorengo hiru gaiak aztertzeko:

- *Familia guztiak eskola komunitateak homofobia eta jazarpen homofoboaren aurka dituen politikan inplikatzeari:*

Printzipio eta ideia on ezberdinak agerian gelditu ziren eztabaida honetan. Lehena da "Ikuspuntu unibertsal" batek ez duela emaitza onik ematen. Eskola bakoitza ezberdina da eta ikasle eta familiak eskola hartzen duen komunitate horretan erakargarri diren estrategiekin inplikatu beharko dira. Horretarako, oso garrantzitsua da homofobia eta jazarpenari buruz hitz egiteko eraikitako gune seguruak adingabeen gertu eraikitzea

eta adingabeek aipatuak erabiltzen dituztela bermatzea; bestela, ez dute inolako zentzurik.

Baina eskolek normalen arreta gutxi jartzen diote gai horri, guraso eta aginteen gaitzespenaren beldur. Baina prozesu hori positiboki gauzatu duten eskolen iritziz aipatuak ez du inolako arazorik suposatzen. Eskolek “xarma” eta “gidoiak” erabil ditzakete inplikazioaren gaiari dagokionean. Hona hemen batzuk: Ofsted inspektzioak eta gutxieneko itxaropenak gaiak eskola estrategietan eta prozeduretan duen tokiaari dagokionean; berdintasunaren trataera, LGTBI gaiak barne; bizitza zeharreko trantsizioak eta aipatuak curriculumean sartzeko beharra (PHSE).

Berlaratuen iritziz, funtsezkoa da etengabeko lana egitea gai honi dagokionean, familiekin lanean hasiz haur-eskoletatik, haur eta lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan (trantsizioak barne), erlijio komunitateetan (erlijio eskolak) eta liburutegi zerbitzuetan. GTBI gaiak lantzeko aukera handiagoa badirudi ere bigarren hezkuntzako eskoletan, ikasleen adina eta sexu eta harremanetan duten interes handiagoa direla eta, funtsezkoa da familiak aipatu hezkuntza baino lehenagoko fasetan inplikatzea. Partaideek lehen hezkuntzako eskoletarako Stonewallek egindako bideoa goraiatu zuten. Ikus-entzunezko euskarriak oso eraginkorrak dira eskolan egiten den lana eta eskolako baloreak azaltzeko. Eta guraso eta tutoreek beren seme-alaben eskola bizitzan inplika ditzakete. Kanpoko adituek paper garrantzitsua dute ere, irakasleek konplexutzat jo ditzaketen gaiak errazago landu baititzakete irakasle beraiekin edo ikasgelaren baitan. Eta eskolak gai honen inguruan hitz egiten eta hausnartzen jar baititzakete. Eskolaren barruan “eredu” izan daitezkeen irakasle eta ikasleak identifikatzea eta beren gaitasunak garatzea gai hauen tratamenduaren jasangarritasuna ziurtatzeko eta eskolak tokiko eremuan sorturiko gaiak aztertzeke gaitasuna eta ezaguerak garatzen jarraituko duela bermatzeko era bat izan daiteke.

▪ *Adingabe eta familien aldeko gizarte lanean homofobiari aurre egiteko erronka:*

Partaideen iritziz, LGTBI gaiak berdintasunaren alorrean gizarte zerbitzuek gutxien lantzen dituzten gaiak dira. Gabezia ezberdinak topatu ziren arlo honen inguruko ikerketa eta prestakuntzan. Heziketa jasotzeko aukera dituzte gizarte langileek. Gizarte zerbitzuek gay eta lesbianen gaiei ematen dieten trataerari buruzko ikerketa gutxi daude eta hezitzaileek heziketa eta prestakuntza aukera gutxi dituzte. Ondorioz, berlaratuen iritziz langileek “antsietatea” agertzen dute gai hauek tratatzeko eta ikertzeko unean. Wakefield Batzordea aipatu zen (Parrott et al, 2007), abegi ematen zuten bi gizonezko homosexual beren ardurapean zuten adingabeak bortxatzeagatik salatuak izan eta gero abiatutako ikerketa batzordea. Gizarte langileek ez zuten esku hartzeko kemenik izan, homofobotzat salatuak izango zirelakoan. Ondorioz, garrantzitsua litzateke gizarte langileek gai honi dagokionean dituzten aurreiritziak lantzen hastea.

Ebaluazio prozesuek gai hau nola lan dezaketen aztertzeke orduan, ebaluazioak “txekeo” izaeratik aldendu eta zerbitzuko erabiltzailearekin sorturiko harremanean oinarritu

beharko litzatekeela defendatu zuten partaideek. Eta ez litzateke aurreiritzirik eraiki behar zerbitzuko erabiltzaile den LGTBI norbanakoak sexualitateak bere bizitzarengan duen eraginaz duen pertzepzioaz.

- *“Topiko homosexualak”- Lengoaia homofoboak gure kulturaz duen paper nagusiarekin apurtzea:*

Taldeak lengoaia homofobiaren erabilerak eskolan agertzen duen konplexutasuna eta gaiari aurre egiteko zailtasunak nabarmendu zituen. Zenbait eskolek lengoaia homofoboarekin bukatzeko politikak dituzte, lengoaia arrazistaren kasuan duten bezalaxe, eta adibide arrakastatsuak aurki daitezke gai honi dagokionean. Cambridgeshire eskualdeko eskolak dira 2011ko Stonewall Hezkuntza Berdintasuneko Indizean lehen postua lortu dutenak eta, beren esanetan, garrantzitsua da politika hori eskoletan ezartzea, eta aipatu politika familia eta ikasleekin batera garatzea.

Partaide gehienek hitzetan, lengoaia homofobia eguneroko gertakaria da oraindik beren eskoletan. “Gay” hitza “zikinkeria” hitzaren sinonimotzat hartzen da, iraina balitz bezala, eta bere erabilera hain dago hedatua non ikasle eta irakasle gehienek sorgor bilakatu diren. Partaideek, halaber, hitz horien erabilera irakasle eta ikasleen artean landu beharra dagoela esan zuten eta agenda orokor baten osagaia izan beharko lukeela. Stonewalleko azken kanpaina ildo beretik doa: iruzkin horien aurrean sorgor izan ordez, bere erabilerarekin bukatu beharra dagoela dio, estrategia eta jardute zehatzen bidez.

- I. Ingalaterrako gobernu zentralak babesa eskaintzen die ikasgelaren baitako homofobiari aurre egiten dioten eskolei. Lengoiaren gaia geroz eta arruntago diren inspekzioetan aztertzen diren gaietako bat da eta, ondorioz, eskolek geroz eta desira handiagoa agertzen dute aipatuari aurre egiteko. Halere, lengoaia homofoboaren aurkako estrategia abiarazten duten eskolek erronka ezberdinak dituzte aurrean. Erronka horietako batzuk entzun ziren mintegian (erlijio eskoletako gurasoengandik, adibidez), baina aipatuak gainditzeko strategiak azaldu ziren ere.
- II. Irakasleentzako heziketa, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzako saio interaktiboak eta sentsibilizazioa sustatzen duten zenbait tokiko sare eraginkor daude. Gai honi aurre egiteak elkarte eta erakunde askotako (nazio mailakoak, juridikoak, boluntarioak eta komunitate mailakoak) pertsona ezberdinen babesa eta konpromisoa eskatzen du. Lan bikaina egin da Ingalaterrako ekialdean eta, aurretik, Norfolk Stonewalleko Hezkuntza Berdintasuneko Indizeko lehen 10en artean ageri da lehenengoz, eta Hertfordshire eta Cambridgeshire tokiko aginteen arteko lehen 10en artean ageri dira beste behin.
- III. W LANak ez du etenik. Tokiko aginteez bilera erregularrak egiten dituzte arlo honetako garapenera jarraipen estrategikoa bermatzeko. Inplikatu taldeen artean gazteak daude. Gobernuak eta GKE ezberdinek tokiko aginteen lana ebaluatzen dute eta aipatu ebaluazioa mesedegarria da lan horren garapenerako.

3.5 P O L O N I A

Landa-azterketak azaldu zuenez, elkarrekintza gutxi dago Poloniako gizarte eta politika eragileen artean LGTBI gaiei dagokienean. Esaterako, akademikoek eta GKEetako langileek oso gutxitan egiten dute lan elkarrekin eta ikerketen emaitzak publiko egiten, eta eskolek ez dute GKEekin lan egin nahi, baina unibertsitateko irakasleekin lan egiteko prest egongo lirateke. Politikariek talde berezi bat osatzen dute eta beren inplikazioa LGTBI gaietan funtsezkoa bada ere, ez da beti eraginkorra. Ondorioz, oso garrantzitsua zen talde guzti horiek batzea landa-azterketaren emaitzak beraiekin partekatzeko eta oso gutxitan azalerazten den giza esperientzia (sexu bereko gurasoak dituzten familia bereziki) beraien aurrean jartzeko. LGTBI kolektiboaren alde eraikitzen ari zen aliantzan inplikatzeko prest zeuden eragile eta ordezkari berriak aurkitzea funtsezkoa zen ere.

1 Xedea

Mintegiaren xedea zen gomendio komunak proposatzea, Poloniako hezkuntza sisteman LGTBI gaien inguruko bereizkeriaren aurkako ikuspegia ezarri ahal izateko. Gomendioen xedea, aplikatuko balira, LGTBI kolektiboaren askapenerako praktiken gizarte ospea handitzea da, eta LGTBI gazteen eta adingabeak dituzten sexu bereko bikoteen ongizatea bermatzea.

2 Partaideak

Horretarako, berrogeita hamar bat eragile biltzen zituen zerrenda prestatu zen. Arlo politikoko eragileak (Hezkuntza Ministerioa, Tratamendu Berdintasunerako Komisarioa), adingabeak eta giza eskubideak babesteko elkarteak, GKEak, unibertsitate irakasleak,

Poloniako Psikologoen Elkarteak, polizia, scoutak, eta abar. Europako bereizkeriaren aurkako proiektuen garatze edo gauzatzean ardura zuen norbaiten partaidetza bilatu genuen ere erakunde bakoitzean. Ordezkariek identifikatu ezean, gonbitea erakundearen egoitza nagusira bidali zen. Hiru fase zituen estrategia aplikatu genuen erakundeekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoz edo posta ofizialaz. Zenbait kasutan, telefonoa erabili genuen. Berrogeita hamar gonbidapen inguru bidali ziren, hiru aldiz. Halere, jasotako erantzuna nahiko eskasa izan zen.

Hamalau partaide izan zituen mintegiak eta bederatzi ebaluazio orrialde bete ziren (ikus beherago). LGTBI eta bereizkeriaren aurkako GKEetako ordezkariek izan ziren gehienek (Bereizkeriaren Aurkako Hezkuntza Elkarteak eta Lambda Varsovia, esaterako). Unibertsitateko irakasleek interes handia erakutsi zuten. Sei etorri ziren, ondorengo izenean: Varsoviako Unibertsitatea, Poloniako Zientzia Akademia eta Hezkuntza Bereziko Maria Grzegorzewska Akademia. Adingabea eta giza eskubideen aldeko elkarteak ordezkariek bertaratu ziren ere.

Hasieran, taldea xedea lortzeko txikiagia zela zirudien. Baina kontrakoa gertatu zen, bertaratu zirenek oso inplikaturik eta eraginkor baitziren bereizkeriaren aurkako arloan, eta gomendio ugari proposatu zituzten amaieran.

3 Eduki eta Ondorioak

Bertaratuak bi taldetan banatu ziren aurkezpena eta gero, eztabaida sutua piztu baitzen mintegian. Talde baten argudioa zen ezberdin izate hutsak (ezberdintasun mota guztiak) arazo bat dela hezkuntza sisteman eta jazarpena ekar dezakeela; besteak aldiz, LGTBI jazarpenak ezaugarri bereziak dituela eta beste "ezberdintasunez" aparte landu beharra dagoela zioen.

Mintegiaren bigarren zatia talde lan kontzeptualera egokitu gela txiki eta eroso batean egin zen. Xedea zen gaiaren inguruko gomendioak proposatzea. Xedea zein zen gogoratu genienean partaideek erreakzio sutu, eta negatiboak agertzen zituzten. Urteak daramatzatenez bereizkeriaren aurka lanean, gomendioak egiteko prozesua behin baino gehiagotan egin dute baina inoiz ez du emaitza zehatzik eman, aginte publikoek ez baitituzte aipatu gomendioak onartu eta barneratu. Halere, esfortzua berriz egiteko prest agertu ziren. Testuinguru horretan, garrantzitsua da azpimarratzea ez zela Poloniako hezkuntza sistemaren ordezkaririk bertaratu (Poloniako Hezkuntza Ministerioa, eskualde eskola aginteak, polizia, etab.). Halere, ordezkaririk horien falta besteen arteko aliantzak eta lankidetzak ezartzeko beharra nabarmendu zuen: GKEen langile eta aktibista, unibertsitateko irakasle eta Poloniako Psikologoen Elkarteak bezalako elkarte profesionalen artean. Poloniako Psikiatria Elkarteak Familia Terapiak ataleko kide den Michal Melonowski LGTBI komunitatea babestera konprometitu zen, eskola materialek homosexualitatea eta transexualitatea egungo psikologia ezagutza modernoekin bat ez datorren moduan azaltzen duten kasu guztietan (esaterako, homosexualitatea eta transexualitatea arazo mentala direla esaten badute).



- I. Mintegiak landa-azterketak eta RAINBOW HAS programaren beste zenbait atalek ziotena berretsi du: Poloniako arlo politikoak ez du interesik bereizkeriaren aurkako eta LGTBI gaien aldeko borrokan. Halaber, oso zaila da talde eta eragile ezberdinak batzea. GKEak eta unibertsitateko irakasleak aktiboenak dira arlo honetan, baina oso gutxitan lan egiten dute elkarrekin. Ondorioz, mintegia aipatu lankidetzaren beharra azpimarratzeko eta aliantza berriak sortzeko unea bilakatu zen. Adingabeentzako Arartekoa eta giza eskubideen aldeko elkartetako ordezkariak bertaratu ziren ere eta bien arteko lankidetzaren harremanak abiatzea erabaki zuten.
- II. Hezkuntza eta gizarte testuinguru orokorraren inguruko gomendio ezberdinak egin ziren saioan zehar. Hezkuntza Ministerioaren politiketan bereizkeriaren aurkako eta LGTBI kolektiboaren aldeko neurriak sartzeko beharra aipatu zen ere (bereizkeriaren aurkako estrategien ebaluazio eta ziurtagiriak eskolentzat, eskola materialak berrikusteko prozesua, bereizkeriaren aurkako koordinatzaile bat Ministerioan, etika oinarri sendoa ematea hezkuntzari, etab.). Beste gomendioen jomuga zen etorkizuna aldatzea (ezagutza oinarria eta datu-basea, etorkizuneko irakasleak LGTBI gaien alde heziz eta prestatuz).
- III. Mintegiak balorazio oso positiboa izan zuen eta aliantza berriak jaio ziren mintegian zehar. Lankidetzaren aukera berriak sortu ziren eta partaideen ustez positiboa da gaitasun ezberdinak dituzten eragileak, ikuspuntuak eta estrategiak batzea.

Ondorengo arazoak aztertu eta horien inguruko gomendioak egin ziren:

- Poloniako Hezkuntza Ministerioak ez du bereizkeriaren aurkako unitaterik bere egituraren baitan. Garrantzitsua litzateke harremana sortzea ministerioarekin, aipatu unitatea sor dezan.
- Eskola material guztia berrikusi beharra dago, baina berrikuspen prozesua nahiko opakua da. Prozesuaren arduraduna eta berrikuspena egingo dutenak zeintzuk diren jakinarazi beharko litzateke.
- Irakasleek bereizkeriaren aurkako borrokan dituzten gaitasunak sustatu behar dira. Arreta berria eskainiz irakasle izateko ikasten eta prestatzen ari diren gazteei. Aliantza bat sortu beharra dago irakasleak hezten dituzten unibertsitate eta akademiekin, bereizkeriaren aurkako neurriak sar ditzaten beren curriculumean.
- Herbehereetan 3 urteko haurrei eskaintzen zaien hezkuntza sexuala Poloniara egokitu beharra dago.
- Poloniako Hezkuntza Ministerioak publikoki aitortu beharko luke jazarpen homofoboa arazo bat dela Poloniako eskoletan.
- Adingabeen eta giza eskubideen aldeko elkarteen partaidetza funtsezkoa izango litzateke bereizkeriarekin bukatzeko. Ondorioz, eskutitz komun bat bidaliko balitz Hezkuntza Ministeriora, bereizkeriaren aurkako politiken alde, pizgarria izan zitekeen aipatu ministerioak gaiari aurre egin diezaion.
- Bereizkeriaren inguruko ebaluazioa egin beharko litzateke Poloniako eskola publikoetan.
- Ebaluazioaren emaitzak aldagai garrantzitsua eta ofiziala izan daitezke eskolak ebaluatzeko. Bestela, ez dute aldaketak sartu eta bereizkeriaren aurkako estrategiak finkatzeko beharrik ikusteko.
- “Ezagutza oinarri” bat sortu beharko litzateke, “haizeak alde non jotzen duen jakin dezagun” (partaide batek esan zuen bezalaxe).
- Unibertsitate irakasleak LGBTBI bereizkeriaren aurkako figura garrantzitsuak izan daitezke Poloniako arlo publiko eta politikoan.
- Telebistako programek rol eredu anitz gehiago islatu beharko lituzkete.
- Erljioaz aparte, etika ikasgai sendoa ezarri behar da eskoletan. Orain arte aldarrikatua izan da, baia ez da zinez irakasten.
- Gomendio taktiko bat: LGBTBI bereizkeriaren eta jazarpenaren aurkako neurriak “segurtasun” kontu bat bezala aurkeztea. Poloniako irakasleek segurtasunarekiko sentsibilizatuago daude, berdintasunarekiko baino.

Mintegiak 3 orduko iraupena izan zuen eta landuriko gaien inguruko elkarrizketa informal batekin bukatu zen. Partaideek, RAINBOW HAS proiektuaz haraindi lanean jarraitzeko aukerez aritu ziren batez ere.

E R A N S K I N A

Nazioarteko Mintegia: 2014ko azaroaren 18a, Brusela

Nazioarte mintegia azaroaren 18an egin zen, Eusko Jaurlaritzako Bruselako ordezkariak bildu zituen mintegiak: Ararteko, Farapi, Middlesex Unibertsitatea, FLG, Nelfa, ECIP, Jekino, Maria Grzegorzewska Akademia, Milango Udala, Madrilgo Complutense Unibertsitatea, ILGA Europe, East Anglia Unibertsitatea, Trentoko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza, Comberton Academy Trust, Voyager School, FECE, Cavarria eta Coface.

Saioa 2013 eta 2014an eginiko ikerketaren aurkikuntza eta ondorio nagusien, tokiko eta nazio mailako mintegi eta tailerren eta Europako ekintza sarea sortzeko proposamenaren aurkezpenarekin hasi zen.

Hiru jardute on aurkeztu ziren ere: horietako bi Erresuma Batukoak ziren; hirugarrena, Euskal Herrikoa (Berdindu programa). Era berean, Jekino proiektu-kide belgikarrak Erresuma Batuko Comberton College Academy eta Voyager School erakundetan grabatu zituen bi bideoak ikusteko aukera izan zuten bertaratuek.

Roberta Metsola parlamentari europarrak (Europako Parlamentuko LGTBI taldearen izenean) eta Katty Pallàsek (NELFA, LGTBI Familia Elkartearen Sare Europarraren izenean) eman zituzten mintzaldi nagusiak.

Halaber, mahai-inguru bat egin zen ondorengo partaideekin: Sophie Aujean (ILGA Europe), Alexander Schuster (Trentoko Unibertsitatea) eta Ignacio Pichardo (Madrilgo Complutense Unibertsitatea). RAINBOW HAS proiektuaren eta beren lanaren arteko ezaugarri komunei, eskolako jazarpen homofoboari aurre egiteko aukerei eta tokiko eta Europa mailako aholkularitza taldeak harremanetan jartzeko moduei buruz hitz egin zuten.

Ikus argitalpen honen 6. Kapituluaren mintegiko partaideek onartu ondorio eta gomendioak.





2014ko uztaila-abuztua Farapi (Euskal Herria, Espainia)

147

SARRERA

Atal honek RANBOW HAS proiektuko hirugarren lan-ildoaren emaitzak agertzen ditu. Lan-ildo horren xedea zen heziketa eredu komun bat sortzea irakaskuntzako langileentzat (irakasleak, batez ere), eta familientzat (gurasoak, funtsean). Familien baitan jarrera homofobo eta transfoboak sustatzen dituzten estereotipoen eta aniztasun afektibo eta sexuala onartzeko arazoengatik inguruan familiekin eginiko lan-azterketan funtsezko gaiak finkatu eta gero, heziketa saio bat diseinatu zen ondorengo gaiak lantzeko: homofobiaren prebentzioa, LGTBI identitatea eta gela barruko jazarpena. Era berean, aipatu gaiak ikasgelan sartu eta lantzeko erak aztertu ziren. Eta, halaber, lan-azterketaren dinamikak haurren segurtasuna eta ongizatearen alde eskola eta familiak lanean elkartuko zituzten prozesuak zehazteko. Aipatu saioak Middlesexeko Unibertsitatearekin diseinatu eta gero, lan-ildo honen liderrak gonbidatu genituen –bi eskola⁶ – froga pilotu batean parte hartzera. Jarraian, metodo guztia sakontasunez azaltzen da.

⁶ Herri bateko eskola txiki batean hirugarren saio bat egitera konprometitu ginen. Gure ardura ez diren arrazoiengatik, baina, saioa bertan behera gelditu zen bat-batean eta ekaina amaiera zenez, aipatua bertan behera gelditzen zela jakinarazi zigutenean ezinezkoa suertatu zen beste eskola bat aurkitzea.

ARRAZOIBIDEA

RAINBOW HAS proiektuaren emaitzak aintzat hartzeaz gain, lehen RAINBOW Proiektuaren 2012ko ikerketa erabili zen ere. Ikerketa horrek zioenez, hezkuntza komunitate osoak egin behar zien aurre jazarpen eta izaera homofoboko indarkeria guztiei. Zentzu horretan, hezkuntza komunitateko eragile guztientzako erronka elkarrekin lan egitea zen. Horrexegatik, egungo RAINBOW HAS proiektuko xedetako bat zen hezkuntza komunitateko eragile guztien arteko (eta hezkuntza komunitatea eta gizarte orokorraren arteko) lankidetzaren ahalbidetuko zuten estrategiak zehaztea.

Ikerketatik atera beste ondorio bat da oso arreta gutxi eskaintzen zaiola sexualitatearen ezagutza eta komunikazioari, adingabeen garapen osoa bermatzeko osagai gisa, eta bereziki haur hezkuntzan. Arreta falta horrek erakusten duenez, sexualitateak tabua izaten jarraitzen du helduentzat, hezkuntza komunitatean zein gizarte orokorrean. Eta aniztasun afektibo eta sexuala ikasgela barruan lantzeko hezkuntza komunitateko arduradunek dituzten errezeloak azaltzen ditu.

Irakasle eta familiako helduen pertzepzio eta diskurtsoen inguruan Espainian egindako ikerketak azaldu duenez ere, aipatuek ez dute ia kontzientziarik adingabeen gizarteratzea hartzen duen marko heteronormatiboari buruz. Heterosexualitatea estandarra da, jaiotzatik naturalki garatzen den sexu joera hoberena dela barneratuta dute. Bestalde, jazarpen homofoboaren presentzia eta lengoia homofoboaren erabilera oso zabalduta daude, gutxietsi egiten da askotan, eta irakasle zein familiek ez diote arretarik jartzen. Helduek jarrera atzerakoia hartzen dute normalean eta isil gelditzen dira generoa, sexualitatea, adingabeen eskubideak eta LGTBI gaien (transexualitatea bereziki) aurrean. Azkenik, argi gelditu da irakasleek eta familiek oso gutxitan egiten dutela lan elkarrekin aipatu gaiei aurre egiteko, nahiz eta RAINBOW HAS proiektuko kideak baieztatu duten jendartea orokorrean sentsibilizatua dagoela gai horiekiko eta erraz ulertzen duela eragileen arteko lankidetzaren oso onuragarria dela indarkeria prebenitzeko eta adingabeen garapen osoa, segurua eta askea bermatzeko.

SAIOAK

XEDEA

Ondorengo bost xedeak zehaztu ziren. Hiru lehenak RAINBOW HAS proposamenean nabarmenduta daude, beste biak proiektuan zehar antzeman ziren, tokiko testuingurua aintzat hartzeko.

1. Irakasleak eta familiak batera heztea, transfobia eta homofobia prebenitzeko estrategiak zehazteko.
2. Heziketa saioetarako eredu bat diseinatzea guraso elkartetan banatu eta eskolaz kanpoko jardueretako curriculumean sartzeko.
3. Ereduaren egitura eta edukiak aplikatu eta frogatzea.

4. Familia eta irakasleentzako programa bat sortzea aniztasunaren eta, zehazki, aniztasun afektibo eta sexualaren balioaren inguruko sentsibilizazioa elkarrekin landu eta gara dezaten.
5. Ekintza-ildoak zehaztea jazarpen homofoboari aurre egin eta adingabe guztientzako eskola seguru bat sustatzeko.

EGITURA

Saioen egitura hiru zatitan banatu zen:

Lehenengoak (1,2) hezkuntza komunitateak bere baitako jazarpenari eta aniztasun afektibo eta sexualari aurre egiteko dituen kontzeptu eta emaitzen (familien ikuspegiak barne) inguruko heziketa hartzen du.

Bigarrenak (3) hausnarketa eta eztabaida hartzen zituen. Lehenago landuriko kontzeptu eta gaiak aztertzen dituen dokumentala eskaintzen da hasteko. Ondoren, beren iritzia ematea eskatuko zaie partaideei.

Hirugarrenean (4), partaideak taldetan banatzen dira, beren iritziz funtsezkoak diren gakoak zerrenda ditzaten eta eskola-familia irtenbide bateratuak proposa ditzaten ondoren eginiko batzarrean.

Azkenik, partaide guztiak saioa ebaluatu behar dute. Ondorengo zen egituraren eskema:

1. - RAINBOW eta RAINBOW HAS ikerketa emaitzen aurkezpena.
2. - Funtsezko kontzeptuen azalpena.
3. - Dokumental emanaldia, hausnarketa eta eztabaida. RAINBOW-ek eginiko DVDaren bi film erabili ziren: "Sticks and stones" IES Minas BHI eskolan eta "Omar" CEIP Agirre-Aperribai HLHI eskolan.
4. - Talde-lana, talde txikitik, ondorengo galderen inguruan:
 - Zeintzuk dira guztientzat segurua den eta aniztasuna sustatzen duen eskola baten ezaugarri idealak?
 - Zer egin dezakete irakasle eta familiek, elkarrekin, aurrekoa lortzeko?
5. - Ebaluazioa, azken hausnarketa eta amaiera.

MINAS BHI-KO SAIOA

Lehen saioa Bigarren Hezkuntzako MINAS BHI eskolan egin zen. Institutu publiko horrek 12-16 urte bitarteko adingabeak hartzen ditu, derrigorrezko hezkuntzako azken lau urtetan. Ondoren, Batxilergoa edo Erdi-mailako Lanbide Heziketa egin daiteke. Eskola Barakaldon dago (Bizkaia), Euskal Autonomia Erkidegoko laugarren udalerririk handiena biztanleriari dagokionean. 1950ko hamarkadan hazkunde handia izan zuen, burdingintza eta altzairugintzaren garapen itzelagatik. Eta hortik eskolako izena, *Minas* (Meategiak).

Saioa eskolak ikasturte osoan zehar antolatzen duen “Familia kaferako orduan” ekimenean sartu zen. Hilean behin egiten da, “Bizikidetzeta Foroa” eramaten duen irakaslearen zuzendaritzapean. Parte hartzera gonbidatuta daudenak dira guraso elkarteak eta ikasleen familiak, orokorrean. Foroa eskolako bilera aretoan egiten da. Saio zehatz hau martxoak 14 ostiralean egin zen, 10:45etatik 12:30ak arte.

Saioak 16 partaide zian zituen, horietako 3 eskolako langileak zirela (bi irakasle eta erizain bat⁷). Gurasoen artean, emakumezkoak ziren gehienak. Gizonezko bakarra bertaratu zen. Ohiko antolakuntza fisikoa mantendu zen: karratua osatzen zuten mahaitan eseri ziren partaideak. Kafea eta pastak eskaini ziren saioan zehar.

Lehen zatian zehar kontzeptu ezberdinak azaldu ziren eta bertaratu guztiak aitortu zuten, inork ez zekien LGTBI akronimoaren esanahia. Beren iduriz Euskal Herriari eta proiektuko Europako herrialdeei buruzko diagnostikoa bat zihuan errealitatearekin eta ez zuten aurkako aipamenik egin.

“Sticks and Stones” dokumentala ikusi eta gero, partaidetzak gora egin zuen bigarren zatian eta galdera gehiago egin zituzten, dokumentaleko sexu bereko gurasoak dituzten familiek harridura sortu baitzuten bertaratu artean. Ama batzuek ez zutela horrelako familiarik ezagutzen esan zuten, eta ez zekitelako zer esan edo pentsatu familia horien inguruan. Halere, guztiak onartzen zuten familia horietako adingabeek ez zituztela zertan egoera horren ondorioak pairatu behar eta beren segurtasuna garatu beharra zegoela.

Hirugarren zatian partaideek hiru talde osatu zituzten eta lan bikaina egin zuten hiruek. Eskola seguruen ezaugarriei inguruko ondorengo batzarrean egindako ondorioek erakunde, profesional eta familien erantzukizuna nabarmendu zuten.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zenbait gaien gaineko erantzukizuna hartu beharko zuela aipatu zen, eta jazarpena detektatu edo prebenitzeko behatoki edo erakunderen bat sortu beharko lukeela. Honela, eskoletako langile guztiak beharrezko heziketa izango zuten eta kasu horietan zer egin jakingo zuten. Askotan aipaturiko beste ideia bat izan zen ez dela adingabeen egoera eta garapen fasea aintzat hartzen eta aipatua funtsezkoa dela etorkizuneko programak garatu ahal izateko.

Familiek, sozializazio eragile gisa, aniztasun afektibo eta sexualaren errespetua eta onarpena eta sexu hezkuntza irekiaren garrantzia sustatzeko duten garrantzia azpimarratu zen ere. Halere, ez zen aurrekoa bermatzeko modu zehatzik aipatu.

Familien ekarpenari eta familia eta irakasleen arteko lankidetzari dagokienean, ondorengo ondorioak nabarmendu ziren:

Taldearen iduriz, funtsezkoa da konfiantzazko giro batean eginiko lankidetzaren harremana ezartzea familia eta irakasleen artean, bi aldeek beren sentimendu eta iritzia

⁷ Erizaina gonbidatu genuen bera delako eskolako ikasleen sexu heziketa gainbegiratu eta kontrolatzen dituen, kontrazepzioa batez ere.

askatasunez aipa ditzaten. “Guraso/irakasle” tutoretza bileraren ordean, “kaferako ordua”ren alde egin zuten, beraien ustez lehena ez baita egokia konfiantzazko harreman bat bermatzeko eta edozein motako arazo edo gaia aipatu eta lantzeko.

Partaideen ustez, talde txikitik lan egitea mesedegarria izan daiteke lankidetzaren eta elkarren arteko konpromisoa lortzeko familia eta irakasleek behar dituzten berdintasun eta apaltasuna ziurtatzeko. Ordutegiaren arazoa aipatu zen, hau da, irakasleek proposaturiko orduak ez datozela bat gurasoek lanetik at duten denbora askearekin. Elkarrekin lan egiteko aukera hori irakasleentzako eta familientzako erantzukizun zehatzak zehazteko modua izan daitekeela aipatu zuten, familientzat bereziki, normalean ez baitakite zer egin eskolako ekintzak eta jarduerak berresteko.

Eskolak bere zerbitzuak koordinatzeko esfortzua egin beharko lukeela ere aipatu zuten familiek. Azkenik, irakasle zein familiek aitortu zuten ikasleen partaidetza ezinbestekoa izango zela ezarri nahi zuten programaren garapen eraginkorra bermatu ahal izateko.

AGIRRE APERRIBAI HLHI-KO SAIOA

Bigarren saioa AGIRRE-APERRIBAI HLHI eskolan egin zen. Eskola publiko honek 3-12 urte bitarteko adingabeak hartze ditu. 6 urtetik aurrera, derrigorrezko hezkuntzak bi-hiru urteko ziklotan banatzen da: 6-8 urte bitartean lehena, 8-10 urte bitartean bigarrena eta 10-12 urte bitartean hirugarrena. Eskola Galdakaon dago (Bizkaia). Udalerriak 30.000 biztanle inguru ditu eta bere ekonomia behera doan industria arloan eta zerbitzu-sektorean oinarritzen da.

Saioa Berdinu Eskolak programaren⁸ baitan egin zen. Eskolak ikasturte hartan hasi zuen programa. Heziketa saioak aniztasun afektibo eta sexuala eta jazarpena izan zituen hizpide eta eskolako guraso elkarteak antolatu zuen. Partaide gehienak emakumezko gurasoak izan ziren. Saioa ikus-entzunezko eta ordenagailu gelan egin zen martxoak 31 astelehenean, 15:00etatik 16:30ak arte.

Guztira, 7 lagunek parte hartu zuten saioan eta horietako bik eskolan lan egiten zuten (zuzendari andrea eta irakasle bat). Familiak ordezkatzeko, bost ama. Aipatu gela irakasleen heziketarako erabiltzen da normalean eskolan.

Saioaren lehen zatian, bertaratuek azalpen teorikoa eta Euskal Herriari eta proiektuko Europako herrialdeei buruzko diagnostikoa arretaz entzun zuten. Ez zen galderarik edo iruzkinik egon.

Bigarren zatian, “Omar” film laburra ikusi ostean, partaidetzak gora egin zuen eta bertaratuek filmean gertatukoarekin identifika zitezkeela esan zuten, batez

⁸ Eusko Jaurlaritzak Euskal Erkidego Autonomoko eskoletan aniztasun afektibo eta sexuala et genero identitatea eta LGTBI bereizkeria landu nahi duten irakasleei eskaintzen dien aholkularitza eta heziketa zerbitzua da. Heziketaren hartzaileak dira hezitzaileak, aholkuariak, eskoletako zuzendaritza eta irakasleak, nahiz eta kasu honetan familiek ere parte hartzen duten guraso elkartearen bidez.

ere homosexualak dela jakiterakoan Omarren⁹ ingurukoek (familia barne) duten erreakzioarekin. Ama batzuek esan zuten normala zela beraientzat indarkeriazko erreakzioa, Omarren aitarena bereziki. Testuinguru honetan egoera horri aurre egiteko balizko aukerei inguruko eztabaida egon zen. Gehienek adierazi zuten eskolak adingabe homosexualak babestu behar dituela, batez ere familiak babes hori ezin duela eman jakinez gero. Beren ustez familiak funtsezkoak dira eskolak babes hori berma dezan eta aipatu babesa kaltetua izaten da familiek ikuspegi homofoboa agertzen badute. Eztabaida sortu zen ondoren eskolek familia eredu ezberdinen ikusgaitasuna bermatzeko egiten duten esfortzua inguruan. Partaideek azken urteotan gai horri dagokionean egon den hobekuntza aitortu zuten. Sexu bereko gurasoen onarpena izan zen adibidea. Normalean guraso horrek amaren rola hartzen duela esan zen ere. Horren harira, azaldu zuten haur hezkuntzan emakumezkoak (amak) direla oraindik ere eskolako bilera eta heziketa saio guztietara joaten direnak. Gizonezkoak geroz eta gehiago joaten direla ere baina ez dutela rol aktiborik hartzen eta agertzen direnean kexaren bat agertzeko izaten ohi dela

Hirugarren zatian partaideek hiru talde osatu zituzten eta lan bikaina egin zuten hiruek. Eskola seguru baten ezaugarriak buruz atera ondorioak, beste taldearekin bat doazenak funtsean, ondorengo bi gaietan labur daitezke: genero sistema eta aniztasunaren onarpena, zentzurik zabalenean. Beste ekarpenek bi gai horien inguruan eskolan egin zitezkeen jarduerak aipatzen zituzten.

Bi taldeek aitortu zuten emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna eta izateko eta bizitzeko era ezberdinen errespetua erronka handia direla egungo eskola eta gizartearentzat. Baina aurrera egin daitekeela adierazi zuten; eta eskola funtsezkoa dela horretarako. Gauzaturiko zenbait jardura azaldu ziren eta erronka hori gainditzeko aipatu jarduerekin jarraitu beharra dagoela esan zuten bertaratuek.

Baterako hezkuntzari eta emakumezko eta gizonezkoen berdintasunari dagokienean eskolak ezarritako estrategia eta jarduerak azaldu ziren gero. Partaideek begi onez ikusi zuten jarrera ez sexistak eta lengoia ez sexistaren erabilera sustatzen dituzten liburu eta materialen erabilera. Familientzako ere antzeko zerbait egon beharko litzatekeela uste dute. Aipatuak hedatzeko, baterako hezkuntzako programan gauzaturiko jarduerak eta erabilitako materialak sustatuko zituen blog bat abiaraztea proposatu zen.

Baterako hezkuntzaren arloan, jolas-orduetan jokalekuak eta pilotak erabiltzeko eskubidea arautu da. Honela, futbola gustuko ez duten neska-mutilen aurkako bereizkeria murriztu da. Halere, futbolak soinketa eskoletako jardura nagusia izaten jarraitzen du.

Partaideek etorkizunerako proposamen bat egin zuten: ohiko roletatik kanpo aldentzen diren jarrerak dituzten tokiko pertsonak (familien edo eskolako langileen gertukoak)

⁹ Omarrek 17-19 urte ditu, bere familia Afrikatik dator eta Pariseko aldirietan bizi da.

eskolara gonbidatzea beren ezohiko jokamoldeak ager ditzaten: etxeko lanak egiten dituzten gizonak, LGTBI norbanakoak, etab.

Gai hauek haur hezkuntzako adingabeekin lantzeko baliagarria ikusten duten erreminta bat antzerkia edo rol jokoak dira. Horiekin, beste haurren edo beste pertsonen egoera eta sentimenduekiko enpatia lantzen baita.

Gai hauen inguruko nazioarteko eguna ospatzea proposatu dute ere: Giza eskubideen Eguna, Aniztasun kulturalaren eguna eta abar, gai horiek ikusgai bihurtzeko.

Bestelako jarduerak aipatu ziren ere, familien eta irakasleen arteko lankidetzaren sustatzeko. Irakasleek esan zuten baterako hezkuntza harmoniatsua bermatzeko batzorde bat eratu zutela ikasturte hartan. Batzordeak udalaren babesa zuten eta bere kideak ziren berdintasun aditu bat, zuzendaritza, ikasketaburua, jangelako arduraduna, aholkularia eta guraso elkarteko bi ordezkari, familien izenean¹⁰. Bere erronka nagusia da gai hauek, aniztasun afektibo eta sexuala eta familia eredu ezberdinak, 12 urtetik beherakoekin lantzeko estrategiak garatzea. Halere, ez du ekintzarik abiatu gaur arte. Blog edo webgune bat irekiko da epe motzera, batzordearen lana eta jarduerak azaltzeko.

Nabarmentzekoa da saioan parte zuten ama bakar batek ere ez zuela batzorde horren berri. Pozik hartu zuten berria eta mota horretako programak elkarrekin lan egiteko eta sensibilizazioa sustatzeko funtsezkoak zirela esan zuten. Bere poztasuna agertzeko, ondorengoa esan zuten ama batek: "pozten nau jakiteak nire alaba lesbiana bada eskolaren babesa jasoko duela, eskolak zer egin jakingo duela eta adingabeei garapen osoa lortzen lagunduko diela".

Familia eta irakasleen arteko eztabaida egiteko gune egonkorrik ez dagoenez, partaideek gune bat eratu beharko litzatekeela adierazi zuten eta gai hauek filmen bidez landu daitezkeela gehitu zuten, hau da, film-saioak eginaz noizean behin. Bukatzeko, filmena adin txikiko haurrekin erabil daitekeen estrategia dela aipatu zuten.

EBALUAZIO ETA ONDORIOAK

Saio amaieran partaide guztiek saioa ebaluatzeko orrialde¹¹ bat jaso zuten. Atal honetako taulak azaltzen duenez, sei gai 1 eta 10 bitarteko puntuazioarekin puntuatzea eskatu zitzaion. Puntuatu beharreko gaiak hiru kategoriatan bana daitezke. Lehenik, saioaren metodologia ebaluatzen zen: egitura, edukiak, bideratzaileak; bigarrenik, saioaren giroa eta ikasitakoa puntuatu zuten eta, azkenik, saioaren xede nagusia eta irakasle/familia guneen garrantzia puntuatzea eskatu zitzaion.

¹⁰ Bertaratu guraso elkarteko kide ez izatea zen gure nahia, guraso elkarte horretako kideak zeregin eta erantzukizun gehiegi izan ez zitzaizkien amak baitira, baina ezinezkoa izan zen inplikatu norbanakorik aurtitzea.

¹¹ Ikus, mesedez, I. eranskina.

Ebaluazioa oso positibo eta altua izan zen bi saioetan. Egitura, eduki eta bideratzaileei dagokienean, puntuazioak 8,5 eta 8,9 bitartean ego ziren. Giroak puntuazioa hobea izan zuen "Minas" saioan. Ezberdintasuna izan daiteke Minas eskolan saio hauek erregulariki egiten direla eta badagoela konfiantzazko harreman bat familia eta irakasleen artean baina Aperribai eskolaren kasuan ez dute horrelako harremanik sortzeko aukerarik ikasturtean zehar. Ezberdintasun hori agerian dago ere guneen garrantziari dagokion atalean. Minas eskolak 8,5eko puntuazioa eman zion; Aperribai eskolak, ordea, 9,2koa. Hori goian aipatu arrazoi berberetatik izan daiteke, ala ez (familiak eta irakasleak erregulariki elkartzen direla). Zentzu horretan, Aperribai eskolak behar handiagoa ikusten du bete beharreko gabezia bat dagoelako eta, ondorioz, programen garrantzia zertxobait altuago puntuatu zuen.

Bi saioetan agerian gelditu zen familia zein irakasleen ustez ez dutela nahiko gaitasunik gai hauei aurre egiteko. Familiak izan ziren gaitasun falta hori argiro azaldu zutenak, eta sexu bereko gurasoak dituzten familien inguruko iritzi osatu bat sortzea oso zaila dela argudiatu zuten. Ondorioz, nahiago zuten gai hauek beren seme-alabekin ez jorratzea.

Halere, onartu zuten familia dela aniztasun afektibo eta sexualaren onarpenari buruzko adibide baikorrak islatzeko eragilerik garrantzitsuena. Eta onartu zuten ere helduak izan behar direla, hau da, irakasle eta familiak, segurtasun eta askatasun giro hori bermatu behar dutenak adingabeen garapen osoa ahalbidetzeko.

Azkenik, partaideek oso positiboki ebaluatu zituzten saioak eta beren ustez hezkuntza erakundetan egin beharko lirateke ere. Nolanahi ere, bien arteko harremana eskasa dela onartu zuten eta zaila dela bi aldeak batuko zituzten saioak antolatzea ohitura, denbora eta espazio arrazoiengatik. Ondorioz, erronka hori lehentasunezkoztat ezarri da jazarpen orokorrarekin bukatu eta, zehazki, homofobiari aurre egiteko.

2014ko martxoa-ekaina
“TEATRO ALLA SCALA”- “A. Manzoni”
BIGARREN HEZKUNTZAKO ESKOLA (Milan, Italia)

SARRERA

Milango Udaleko Gizarte Gaietako Sailaren mende dagoen Home of Rights –Eskubideen Etxea- (RAINBOW HAS proiektuko kide) ekimenaren xedea da eskola adinean dauden nerabeei hezkuntza jarduerak eskaintzea eta sentsibilizazioa areagotzea udaleko langileen artean (irakasleak eta Orientazio eta Gizarte Informazio Gunetako langileak) 2014ko abendurako.

LGTBI kolektiboaren testuinguru horretan, Eskubideen Etxea ekimeneko langileek adingabe eta helduei zuzenduriko heziketa saioak garatu eta emateko gaitasun nahikoa zuten norbanako ezberdinak identifikatu zituzten. Bilerak ezberdinak egin ziren Europa mailako proiektuaren eta bere diseinu komunaren inguruko oinarrizko ezagutzak partekatzeko.

ARRAZOIBIDEA

Bileren gaia izan zen jazarpen homofoboko jazoerak prebenitzea adingabeen artean eta eskoletan, eta ezberdintasunaren osagai positiboak eta aniztasunaren aberastasuna balioan jartzeko moduak bilatzea. Psikologo Elkarteko presidentek, esaterako, beren sexu joera zehaztu eta gero babesik gabe aurkitzen direnen sufrimendua aipatu zuten. AGEDO eta Arci Milango Psikologo Homosexualen elkarteek aukeratuak izan ziren bigarren hezkuntzako eta batxilergoko eskoletan gauzatu beharreko saioen arduradun izateko.

SAIOAK

XEDEA

Lehen saio horietan ikuspegi eta metodologia ezberdinak aztertu ziren, ikasgeletan gauzatuko ziren esku-hartzetarako erreminta gisa. Heziketarako proposaturiko rol-jokoak aztertu ziren, eskola dinamikak aztertu ziren ere. Esperientzia narratiboak (gay naiz / adingabe homosexual baten gurasoa naiz) aztertu ziren ere, komunikazio enpatikoa bideratzeko osagai gisa, eta elkarrizketa sortu eta alderaketak ahalbidetzeko.

Eskolak proiektua aurkeztu zuen familien aurrean, hezkuntza afektibo sexualeko programa abiarazteko azken urrats gisa. Zuzendariak gurasoen baimena eskatu zuen bere programa abiatzeko eta bilera jazarpen homofoboko jazoeren harira zetorrela adierazi zuen. Adingabeek parte hartzeko eta hitz egiteko askatasuna izan dezaten, irakasleei bilerara ez joatea eskatu zitzaizen.

EGITURA

Saioek bost jarduera ezberdin hartzen zituzten, eta xedeak ondorengoak ziren:

1. Aniztasunaren inguruan hausnartzea, bereizkeria eta gutxiengo baten kide izatearekin loturiko sentimendu eta emozioak azalaraztea, jazarpen homofoboaren inguruan hausnartzea, eta homosexualitatea aniztasunaren osagaitzat ulertzea.
2. Talde bateko kide izateak edo talde horretatik kanporatua izateak dakartzan emozio eta sentimenduak lantzea jendearekin, jendeak taldeen barruan agertzen dituen jarrerak aztertzea.
3. Joko bat erabiltzea jardute on ezberdinak aplikatuz jazarpenarekin buka daitekeela agertzeko.
4. Norberaren burua azaltzeak, armairutik ateratzeak, informazio pertsonala besteei eskaintzeak zer suposatzen duen aztertzea. Baieztapena bilatzea esperimientuek esperientzien partekatzea eta arazoen analisisa dakartzatenean.
5. Zera ikastea: a) besteen iritzia entzuten ikastea eta besteei beren burua adierazteko aukera ematera; b) norberaren iritzia defendatzea eta barneratzea; c) elkarrekintzak errespetuz egitea; d) norberaren sinesteak berraztertzea eta norberaren iritzia aldatzea.

156

ALLA SCALA ANTZOKIKO SAIOA

Maiatzaren 16ko saioa

“A. Manzoni” bigarren hezkuntzako eskola berezia da. Ikasleen zati bat neska eta mutil “arruntak” dira. Azken herena Alla Scala Antzokiko ikasleez osatuta dago. Aipatu ikasleek Italia osotik datoz, etxetik kanpo bizi dira, bakarrik edo talde txikietan beste familietako etxeetan. Beren eskola curriculum eta egitaraua ezberdina da, ez dituzte eskola “normalak” jarraitzen eta beren mundu propioan bizi direnez, arazoak dituzte harremanak sortzeko beste ikasleekin. Eta gainera, dantza mundua eta homosexualitatearekin loturiko estereotipoak direla eta, mutilek etiketa homosexuala jasotzen dute hasieratik. Eskola zuzendariak, zenbait irakaslerekin batera, mota horretako ikasleak elkartu eta beren berezitasunaz hitz egitera bultzatzea pentsatu zuten, guztien eskubideen errespetatua sustatzeko. Alderaketa bermatzeko, jatorrizko proposamena zen beste ikasle arruntekin biltzea. Baina dantza eskolako ikasleen gurasoek, arrisku eta irain berriak saihesteko, taldeak banatuta mantentzea eskatu zuten.

Ikasle “arruntak” taldea: 35/37 neska eta mutil inguru. Hiru jarduera ezberdin proposatu ziren saioaren hiru orduetan. Lehen jardueraren xedea zen taldeak nola sortzen diren aztertzea eta baita norbanakoaren sentimenduak aztertzea talde batetik kanporatuta sentitzen denean ere. Bigarren jardueran ikasleak hiru taldetan banatu ziren ikasle guztien partaidetza giro lasai batean bermatzeko. Gertaturiko jazarpen homofoboko jazoerak aztertu ziren, aipatuetan bakoitzak izan zuen rola eta alde guztietako sentimenduak azaldu ere. Azkenik, jazarpena prebenitzeko eta saihesteko beren esku

zituzten baliabideak landu zituzten. Hirugarren jardueran homosexualitatea landu zen. Hasteko, film labur batekin eta, ondoren, zuzendariak aurkezturiko testigantza batekin. Bukatzeko, galdera-erantzunen saio bat. Jardueraren xedea zen identifikazioa eta empatia sustatzea eta homosexualitatearekin loturiko estereotipoekin bukatzea. Ikasleek arreta handiz jarraitu zituzten jarduerak eta giro atsegina egon zen saioan zehar. Baina irakasleek lehendik susmatzen zuten bezalaxe, arazoak egon ziren zenbait ikaslerekin; hau da, lidergo sendoa egoteko beharra aldarrikatu zuten eta beren haserrea agertu zuten ere aginte posizio batean zeuden zenbait helduk ez zutelako erantzukizunik hartu gertaturiko jazoeretan. Nabarmendu beharreko osagai bat da arropa ezberdintasuna. Dantza eskolako ikasleek jantzi urdin bat daramate beti; besteek, ordea, ohiko arropa distiratsu eta alaiak. Ondorioz, arropak argiro markatzen ditu dantza ikasleak, ezberdin egiten ditu eta eredu sozial eta kultural zehatz batekin lotzen ditu. Honela, dantza ikasleek ez dute sentitzen eskolako parte direnik, baizik eta dantza ikasten dutenen taldeko parte soilik.

“Alla Scala” Antzokiko ikasleen taldea: 20-25 neska eta mutil inguru. Hiru ordu horietan, gaiarekiko sentsibilizazio handia agertu zuten. Esku-hartzearen bideratzailearen hitzetan, beste ikasleak baino askoz ere “helduago” ziruditen. Batxilergoko ikasleek egingo zituzten galderak egin zituzten, beren beharrak helduagoak ziruditen. Gorpuztasunaz, maitasunaz, sentimenduez eta sexualitateaz aiseago hitz egiten zuten. “Mutilen bat musukatu al duzu inoiz?” galdetu zitzaizenez mutil bat harro altxatu zen. Ondorioz, dantzarekiko zuten pasioak, nolabait, beren berezitasunaz edo “aniztasunaz” kontziente egin zituen eta askoz ere argiago eta barneratuago zuten beren sexu joera eta genero identitatea.

Maiatzaren 26ko saioa

Irakasleak “haurrak esku-hartzea jasateko gazteegiak izan zitezkeelaz” beldur ziren. Halere, zuzendaritzaren babes sendoari esker, heziketa saioa burutu zen eta emaitzak bikainak izan ziren, irakasleen prestakuntza areagotu eta informazio baliotsua eman baitzuten gurasoei. Jarduera ikasleen adinera egokituta egoteak heziketaren kalitatea azpimarratzen zuen. Eztabaidan zehar agerian gelditu zen irakasleek etorkizunean esku-hartzea eskolako maila guztietan gauzatzeko konpromisoa hartu nahi zutela, eta ez bakarrik hirugarren kurtsoko ikasleekin. Eta aztertuko ziren gaien inguruko informazio-eskaerak nabarmenki egin zuen gora, irakasle guztiek konpromiso irmoagoa azaldu zuten esku-hartzearekiko.

EBALUAZIO ETA ONDORIOAK

Esperientzia zinez izan zen positiboa. Ikasleek gogoz parte hartu zuten jarduera guztietan eta irakasleen esanetan, pozik azaltzen ziren. Halere, guztiontzako gune baketsua, segurua eta inklusiboa bihurtzeko eskolak egin behar duen bide horren lehen urratsa besterik ez zen izan.

2014ko irailaren 15a Hezkuntza Bereziko Maria Grzegorzewska Akademia (Varsovia, Polonia)

SARRERA

Txosten honetan RAINBOW HAS proiektuko hirugarren lan-ildoari jarraiki heziketa saioaren emaitzak laburbiltzen dira. Xedea zen jazarpen homofobia prebenitzea eta aniztasun afektibo eta sexuala sustatzea. Halere, programaren xedea ez da ikerketa hutsa, LGTBI adingabe eta familien segurtasuna eta ongizatea bermatuko dituzten aliantza berriak eraikitzea baizik. Ondorioz, landa-azterketaz gain (sexu bereko gurasoak dituzten familia, LGTBI adingabe, hezkuntza arloan inplikaturiko guraso, irakasle eta LGTBI GKEetako aktibistei eginiko elkarrizketak), nazio mailako mintegiak eta familiekin eginiko tailerrak garrantzitsuak izan ziren ere.

ARRAZOIBIDEA

RAINBOW HAS ikerketa 2012 RAINBOW proiektuaren jarraipena da eta Poloniak ez zuen lehenengoan parte hartu. RAINBOW programaren emaitzek, halere, argi uzten dute eskolako homofobia eta jazarpen homofoboaren aurkako ekintzen arrakasta bermatzeko hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa lortu beharra dagoela. Ondorioz, RAINBOW HAS proiektuaren helburua da komunitatearen inplikazioa lortzea eta aliantzak sortzea gizarte eragile ezberdinekin, aniztasun eta berdintasun sexuala sustatu eta intolerantzia prebenitzeko eta ezabatzeko erreminta eta estrategia bereziak garatzeko eskoletan.

RAINBOW HAS proiektuak beste herrialdetan gauzatu dituen landa-azterketaren eta beste atalen emaitzek azaltzen dutenez, helduek arazoak dituzte sexualitateaz, orokorrean, hitz egiteko; aniztasun afektibo eta sexualaz hitz egitea are zailagoa zaie oraindik. Aipatu gaiek normalean ez dute lekurik ikasgela barruan. Halaber, eredu heterosexualek eskolan duten gailentasuna agerian gelditu zen, eta baita ere jazarpen homofoboaren zenbait alderdik (lengoaia homofobia, adibidez) ez dutela jasotzen inolako tratamendurik, eskolako egunerokotasunaren partetzat hartzen direla.

Poloniako emaitzak beste herrialdetan lortu eta aipatu diren horien berdinak dira, baina arazoak larriagoak dira. Poloniako proiektu-kideak egin duen testuinguru analisisan agerian utzi den bezala (1. lan-ildoan), Poloniako egoera LGTBI gaiei dagokienean latza da. Izan ere, iraganean eta egun ere eman diren zenbait gizarte esperientzia direla medio, zaila da gizarte eta talde ezberdinak elkartzea. Talde eta eragileen arteko elkarrekintza oso mugatua da normalean eta LGTBI kolektiboaren egoera areriotasun (ezohikoa egunerokotasunean, normalagoa Poloniako bizitza publikoan) eta ezjakitearen (arruntago egunerokotasunean) artean mugitzen da. Lankidetzak eskasa da, eta zaila. Polonian, noizean behin eginiko guraso – irakasle bilerez gain, ez dago harremanik familia eta irakasleen artean. Arazo pribatuak, familia barrukoak, oso gutxitan dute lekurik hezkuntza

arloan. Gai hauei dagokienean, ez dago publikoaren eta pribatuaren arteko mugarik. Ondorioz, ezinezkoa da erantzukizunak finkatzea, eta gai gatazkatsuen inguruan bereziki (eta hori da LGTBI kolektiboa Polonian): bere arazoak, sexu heziketa, homosexualitate eta transexualitatea, homofobia eta jazarpen homofoboa. Esan beharra dago halere elkarrizketatu sexu bereko gurasoak dituzten familia gehienak ez zirela lan arloko jazarpenaren beldur eta beren ustez gizartea beraiena bezalako familiak onartzeko prest zegoela. Izan ere, egoerari aurre egiteko bi modu aurkitu genituen. “Gurasoen kontrolpeko” familien kasuan armairutik ateratzeko eta emantzipazio prozesua helduen kontrolpean dago (lesbianak elkarrizketatu genituen bakarrik) eta, ondorioz, bizitza nahiko irekia eramaten zuten. “Adingabeen kontrolpeko” familietan, ordea, helduek adingabeen “jarraibideak” jarraitzen zituzten eta, ondorioz, ezkutatuta bizi dira¹².

Landa-azterketan atera beste ondorio bat da irakasleak ez direla gai bereizkeriari aurre egiteko eskoletan. Ez dute ia heziketarik gaiaren inguruan, ezta prestakuntza edo laguntzarik. Ondorioz, urritan aurre egiten diete bereizkeria arazoei eta zailtasunak dituzte horiek identifikatzeko. Bereizkeria orokorrean landuz gero, bere alderdi eta arazo zehatzak ere landu dituztela uste dute.

Irakasleak LGTBI kolektiboaren arazoen inguruan eta bereizkeriaren aurka borrokatzeko hezi beharra dagoela diote elkarrizketatu familiek. Beren esperientzia irakasleekin partekatu nahi badute ere, kanpoko aditu baten bidez izan behar du. Bitartekaritza behar handia dago. Irakasleek oinarrizko heziketa jaso beharko lukete, gaiaren inguruko oinarrizko ezagutza izan dezaten aipatua ikasgelan landu baino lehen. Eta LGTBI familia eta adingabeekin bildu beharko lirarteke, gurasoen ustez. Emaitzak ikusita, Poloniako RANBOW HAS proiektu-kideak irakasleen heziketa gailendu eta eskoletan eta irakasle bileretan gauzatzeko heziketa saioak prestatu zituen. Ondorioz, irakasleen heziketa izan zen lan-ildo honen xedea.

Poloniako hezkuntzako erritmoa dela medio (udaberria eta uda hasiera azterketa garaia da lehen hezkuntzako 6. mailan, bigarren hezkuntzan eta unibertsitatean), saio bakarra egin da egun arte. Beste bi saio antolatuta zeuden iraila bukaera-urria hasierarako, baina zailtasunak egon ziren aipatuak behar bezala antolatzeko. Lau eskolarekin jarri ginen harremanetan baina bakar batek ere ez zuen saiorik hartzeko nahirik agertu. Lehen eskolara posta elektronikoko bat bidali genuen, baina ez genuen erantzunik jaso. Ondorioz, telefonoz deitu genuen eskolara. Eskolak bueltan deituko zigutela agindu ziguten, baina ez zuten horrelakorik egin. Bigarren eskolak uko egin zion saioa apirilean egiteari, baina irailean egiteko prest agertu zen. Zoritarrez, telefonoz deitu genienean (behin baino gehiagotan) aipatua antolatzeko, irakasleak ikasleekin eskolen arteko lehiaketa bat prestatzen lanpetuta zeudela esan zigun bozeramaile batek. Bozeramaile horrek hirugarren eskola baten harremanetarako informazioa eskaini zigun baina aipatu eskolak

¹² Esan beharra dago gertuko inguruak, adingabearen eskolako lagunak barne, familiaren egoera ezagutzen zuela. Adingabeak, halere, ez zuen gaia aipatu nahi.

ezetz esan zigun. Laugarren eskola bateko zuzendariordearekin jarri ginen harremanetan, posta elektronikoz, iraganean Homofobiaren aurkako Kanpaina batean parte hartu zuela jakinda, baina ez genuen erantzunik jaso.

Guzti horren zio nagusia izan daiteke sexu joera eta genero identitatearen gaia tabua dela Poloniako eskoletan. Horrelako gaiak landuz gero gurasoen edo hezkuntza aginteen gaitzespena jaso dezaketela (aproposak ez diren gaiak lantzeagatik) pentsa dezakete agian irakasleek. Errezelo izugarriak daude heterosexualak ez direnen gaia eskolan lantzeko. Saioak egiteko ukapenaren beste zio bat iraila lan handiko hilabetea dela izan daiteke ere, ikasturtea hasi berria baitago. Bozeramaile batek esan zigunez, irakasleak oso lanpetuta daude eta ezinezkoa izango litzateke beste ordu estra pare bat eskatzea aipatuei ordainik eman gabe. Uneren batean saioa ordu eta erdira mugatzea erabaki genuen baina, halere, ez genuen arrakastarik izan. Eskola bakar batek ere ez du saio bat hartzeko adostasunik agertu. Ondorioz, saioa apirilean egin zuen eskola bakar horretaz aparte, ez zen beste saiorik egin.

SAIOAK



XEDEA

Ondorengo helburuak, Polonian eta RAINBOW HAS programako herrialdeetan eginiko landa-azterketen ondorio dira.

Heziketa saioaren xedea zen:

1. Landa-azterketaren emaitzak eskoletara eramatea, eta irakasleak gai zehatzei buruz heztea: sexu bereko gurasoak dituzten familien berezitasuna eta beharrak, eta baita LGTBI adingabeen beharrak ere.
2. Homofobiarik eta jazarpen homofoborik gabeko eta bereizkeriaren aurkako ingurugiro bat eskolan sortzeko ahaleginetan laguntzea irakasleari.
3. LGTBI gaiak lantzeko erreminta eta teknikak eskaintzea irakasleei, bereizkeriari aurre egin eta jazarpen homofoboa prebenitzeko batez ere.
4. Sexu bereko gurasoak dituzten familiengana gerturatu eta beraiekin hezkuntza eta familia arloko gaiak lasaitasunez hitz egiteko modu indibidualak garatzen laguntzea irakasleei.
5. Irakasleen esperientzia eta beharretatik eta bereizkeriaren aurkako gaiak lantzeko dagoen aukera edo aukera ezetik ikastea, arreta berezia eskainiz homosexualitate, transexualitate eta jazarpen homofobo/transfoboari.

EGITURA

Saioa lau ataletan egituratu zen.

Lehen blokeak bi zati ditu. Lehenean (1.1) gaia aipatu eta giro ireki, seguru bat sortzen da. Eskola zuzendariak gonbidatuta badaude ere, beren presentziak irakasleen lasaitasunaren kontra joan daiteke, bigarrenek epaituak izateko beldurra izan baitezakete. Ondorioz, saioa RAINBOW programako film batekin hasi zen. "Bob" filma erabili zen. Lehen atal honetako bigarren zatiak (1.2) filmean ikusi arazoaren eta filmak homosexualitatea, homofobia, bereizkeriaren aurkako borroka eta antzeko gaiak zuzenean aurkeztu eta lantzeko dituen potentzialen inguruko eztabaida bat hartzen du.

Bigarren atalean RAINBOW HAS proiektuko ikerketaren emaitzak aurkezten dira, landa-azterketaren emaitzak bereziki. Arreta berezia jartzen zaio elkarrizketatu sexu bereko gurasoak dituzten familien esperientziari, gizarte testuinguru orokorrean eta, bereziki, hezkuntzari dagokienean bizi duten eguneroko errealitateari. Familien behar eta adierazpenen bilduma bat aurkeztu zen ere. Aurkezpena eta gero, entzundakoaren inguruan zuten iritzia ematea eskatu zitzaie bertaratuei eta LGTBI familia eta ikasle, jazarpena edo jazarpen homofoboa eta abarrekin zuten esperientzia profesionala azaltzea eskatu genien ere. Aurkezpenean aipatu gurasoen beharrak asetzeko aukerarik dagoen ala ez adieraztea eskatu zitzaie ere. Eta aurrekoa lortzeko zer egin beharko litzatekeen aitortzea ere.

Hirugarren atalak eztabaida pertsonalago bat hartu zuen: irakasleen estrategiak **a)** sexu

bereko gurasoak dituzten familiengana gerturatzeko zalantza eta beldurrik gabe eta b) eskolako adingabearengana gerturatzeko. Atala psikologo baten gidaritzapean egin zen eta elkarrizketatu familien gizarte esperientzia positiboak aipatu zituen. (Aipatzekoa da LGTBI gaietako dagokienean lengoia arazo bat dela ikusi dutela RAINBOW HAS taldeek, batez ere sexu bereko gurasoak familiei dagokienean. Jendeak normalen ez ditu irain dezaketen hitzak erabiltzen baina, aldi berean, adostasuna edo babesa adierazteko –etorkor edo ahalkegabe izan gabe– hitzak faltan ditu normalean. Ondorioz, saioaren zati bat gaia lantzeko lengoia eta komunikatzeko modu aproposak azaltzeko erabili zen. Psikologoaren presentzia oso lagungarria izan zen horretarako).

Laugarren atalak ebaluazioa, laburpena eta amaiera hartu zituen. Material ezberdinak banatu ziren saioan: RAINBOW DVD eta liburuak eta Poloniako GKEetako eskuliburuak.

VARSOVIAKO KAZIMIERZ WIELKI XLIII ESKOLAKO SAIOA

Saioa 2014ko apirilaren 25ean egin zen, Varsoviako Kazimierz Wielki XLIII Eskolan. Eskola hiriko Mokotów barrutian dago kokatua, bizitzeko eta haurrak hezteko toki "on" batean. Eskola nahiko berria da. 1990ean sortu zen, antzinako zeramika eskola tekniko baten eraikinean. Bere baloreak dira komunitatea eraikitzea eta harreman positiboak eta ulerkorrak sustatzea irakasle eta ikasleen artean eta eskola eta bere gizarte ingurugiroaren artean, ebaluazio estresanteak egin edo ikasle eta eskola sailkapenetan leku altuak lortu baino.

Varsoviako erdialdetik gertu dagoenez, gizarte jatorri ezberdineko hiri osoko ikasleak hartzen ditu. 16-19 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu. Eskolak segituan onartu zuen RAINBOW HAS saioa egiteko gonbitea, gonbidatu beste eskola guztiek ezetz esan zuten bitartean¹³.

Saioa hirugarren eta azken mailako ikasturte amaierako ekitaldi ofiziala bukatu bezain pronto egin zen. Aipatua ekitaldia garrantzitsua da eta eskola komunitate guztiak parte hartzen du. Irakasle eta pedagogoen bolondreski parte hartu zuten gure saioan, ekitaldiaren amaierak oporren hasiera markatzen baitu. Saioak lau ordu inguruko iraupena izan zuen. Guztira, bederatzi irakasle eta pedagogok parte hartu zuten.

Eskolako zuzendariak ireki zuen saioa, ongi etorria emanaz irakasle eta RAINBOW HASeko taldeari. Zuzendari andreak zalantzak zituen irakasleek ikerketarako izan zezaketen baliagarritasunaren inguruan, bere ustez ez baitzuten inolako esperientziarik sexu bereko gurasoak dituzten familiekin. RAINBOW HAS taldeko kideek, (Justyna Melonowska, Michał Melonowski) beren burua aurkeztu zutenean, irakasleengandik jaso

¹³ Eskola batek ezezkoa esan zion une horretan parte hartzeari eta 2014-2015 ikasturtean parte hartuko zutela esan bazuten ere, ezetz esan ziguten beste behin. Bestea ezaguna da bere profil katolikoagatik eta irakasleek familiaren baloreak sustatzen dituzte. Rainbow Has mintegian sexu bereko gurasoak dituzten familiak eta LGTBI adingabeen esperientziak soilik azalduko zirela esan bagenien ere, ez genuen erantzunik jaso.

baino irakasleei ematea zela helburua esan zieten bertaratuei, xede nagusia zela sexu bereko gurasoak dituzten familien eta LGBTI adingabeen esperientziak partekatzea beraien. Familiek elkarrizketetan azaldu zuten nahia betetzera gindoazela azaldu genien, bien arteko bitartekaritza egingo genuela, ez genuela aurreikusitako itxaropenik irakasleen jarrerari eta saioaren emaitzei zegokienean.

Ondoren, RAINBOW DVDa aurkeztu genuen. "Bob" filma gai orokor garrantzitsuak lantzen dituelako aukeratu genuen: identitatea eta gizarte aurreiritziak eta konnotazioak. Film laburra da, dibertigarri eta harrigarria eta giroa asko lasaitu zuen. Aipatu materiala gai horiek lantzeko erabil daitezkeen ala ez galdetu genien. Ordurako, xedea zen saioko gaia adieraztea eta eztabaidatzen hastea.

Beren lanean zehar sexu bereko gurasoak dituzten familiekin eta LGBTI adingabeekin harremanik izan duten eta LGBTI pertsonen hezkuntza arloan bizitzen duten gizarte esperientziez duten iritzia galdetu genien irakasleei. Irakasleek mota horretako familia gutxi daudela esan zuten, bizitza nahiko irekia eramaten dutela eta horrek ez duela inolako arazorik sortzen adierazi zuten. (Garrantzitsua da aipatzea saioaren xedea zirela sexu bereko gurasoak dituzten familiak, eta ez horrenbeste LGBTI adingabeak. Eta aipatu familiak erabat ezezagun direla Poloniako gizartean eta familiek zein irakasleek gai hauek azalarazi eta lantzeko nahia partekatzen zutela).

Landa-azterketako emaitzak aurkeztu genituen ondoren. Aipaturiko gai nagusiak:

- Ezkutatuta bizitzeko familien teknikak eta aldeko eta kontrako osagaien balantzea aipatu familiek bizitza irekia eramatea erabakitzen dutenean.
- Sexu bereko gurasoak dituzten familien esperientzia hezkuntza arloan (liburuak, erlijioa, guraso-irakasle bilerak, etab.) eta familien aldarrikapena zenbait alderdi aldatzeko beharraz.
- Hezkuntza arloan partaidetza aktiboa duten guraso heterosexualen erreakzioa aldarrikapen horiekiko (1. lan-ildoko jardueretako bat). Ikuspegi horien arteko akordio-guneak bereziki nabarmendu ziren.

Aurkezpen horren ondoren egon zen erreakzio emozionala sutsua izan zen, batez ere "ezkutatuta bizitzeko teknikak" inguruan (guraso bakarreko familia delaren plantak egitea, ama biologikoa amabitxia izatera gonbidatzea, honela haurrak bi emakume ezberdini "ama" deitzeko duen joera azaltzen delarik gainera, haurren informazioa posta elektronikoko bidez jasotzeko eskaera, etab). Irakasleei guzti horiekiko iritzia azaltzera edo iruzkinak egitea eskatu zitzaizkien.

Kontu garrantzitsu bat agertu zen segituan. Irakasle batek ez zuen ulertzen ezkutatu bizitzeko familien erabakia, inguruko gizartearen zapalkuntzaren beldur ez badaude. Zergatik hartu erabaki hori? Galderak adierazi nahi zuena zen familiek erabaki okerra hartzen zutela eta ondorioak erabaki horren emaitza zirela. Bizitza irekia eramanez gero esperientzia normalagoa izango zutela. Lan-azterketaren emaitzen arabera eman genion arrapostua izan zen ezkutatuta bizitzeko erabakia adingabeena dela normalean,

ez helduena. Orduan galderak “Zerk eramaten ditu adingabeak ezkutatuta bizitzeko erabakia hartzera? Zer dago beren eskola giroan, gauzak ezkutatzeko erabakia har dezaten?” Irakasleen ustez, erantzuna “agerikoa” zen. Batek esan zuen bezalaxe, “inork ez du gay izan nahi eskolan”. Horrenbestez hurrengo galdera zen zergatik ez. Irakasleek eskolako egunerokotasunean presente dauden irain mota ezberdinak aipatu zituzten: “gay” bezalako hitzak eta normalean jazarpentzat hartzen ez diren jazarpen homofoboko adierazpenak. Ondoren, egoera normalizatzeko aukerak eztabaidatu ziren. LGTBI familien aldarrikapenak aipatu eta eztabaidatu ziren, eredu heterosexualen gailentasunarekin bukatzea eta aniztasuna sexu eta etika heziketako eskola liburuetan sartzeari bereziki (ez bakarrik aniztasun afektibo eta sexuala, baizik eta aniztasuna orokorrean, hau da, familia mota guztiak: guraso bakarreko familiak, alargun edo dibortziatuen familiak, aitona-amonarekin bizi diren adingabeak, etab.).

Irakasle guztiek aitortu zuten eskola materiala aldatzea baliagarria izango litzatekeela. Beste zenbait aldarrikapen, halere, gatazkatsuagoak ziren. Esaterako, sexu heziketa emateko beharra onartzen zuten, baina ez zuten bere burua aipatua emateko gai ikusten. Eta, gainera, ez zeuden horretarako prest, ez baitzen beren lana edo beren erantzukizuna. Norbaitek geografia irakasle izatea aukeratzen duenean, geografia irakasle izan nahi du. Irakasleek ez dute aukerarik edo beharrik ikusten aniztasun afektiboa geografiako esku liburuetan sartzeko. Halere, bereizkeriaren aurkako borrokan edo sexu joeran aditu diren espezialistak egongo balira atsegin handiz egingo liekete tokia, beren irakasgaietan, aipatu gaiak landu zituzten.

Guzti hori entzun eta gero, zuzendariak sexu heziketa bezalako gaiak eskolan kudeatzen zuten esperentziaz hitz egin zuen. Bere esanetan, oso zaila zen kanpoko babesa lortzea heziketa horretarako. Laguntzeko prest dauden erakundeak daude baina ezin da jakin, inoiz, zein etorriko den gaia lantzera, eta zein ikuspegitik egingo duen. “Ponton” sexu hezitzaile taldea aipatu zuen, lagungarria eta konfiantzazkoa zela azalduz. Halere, sexu heziketa aproposa bermatzea zaila zela adierazi zuen.

Etika irakastea eta antolatzea beste kontu bat da, baina ez zuen ia presentziarik izan gure saioan.

Michal Melonowski psikologoak izan zuen hirugarren atalaren ardura eta bertan sexu bereko gurasoak dituzten familiek irakasleekin izan dituzten esperentzia positiboak aurkeztu ziren (landa-azterketako datuak). Irakasleak oso naturalak, seguruak eta positiboak ziren eta familiengana jotzen zutenean eskolako gai orokorrak aztertzekeo zen, eta ez familiarekin loturiko gai zehatzak aipatzeko. Egoera zehazki azaltzen zuten, argi eta garbi utziz. Sexu bereko gurasoak dituzten familiek defendatzen zuten gerturatze hori jarrera pertsonalen eta azken hauek guraso-irakasle harreman sendoak ezartzeko duten potentzialaren gaiari lotuta aztertu zen.

Atal honetan eskolako pedagogoak iragan eskolako sexu bereko gurasoak dituen familia batekin izan zuen esperentzia aipatu zuen. Bi emakumeren artean zaintzen

zuten adingabea (bere ama biologikoa prostituta zen) baina bi emakume horiek ama biologikoaren bikotekide ohiarekin bizi ziren (gizonezkoa). Amaren bikotekide lesbiana berriak adingabearen amaorde izan nahi zuen eta bi emakumeak jo eta ke aritu ziren aipatu estatusa lortzeko. Horretarako, haurraren eskolaren babes behar zuten (iritzi pedagogiko bat, etab.), eta baita lortu ere. Pedagogoa iritzi bereko gurasoekin bizitzeak ez zuen arazorik suposatzen. Gizonaren presentziari zegokionean, halere, bere zalantzak zituen. (Etxebizitza txikia zenez gizonezkoak eta adingabeak ohe berean lo egiten zuten eta horrek alarma sortu zuen pedagogoaengan, nahiz eta sexu indarkeriako inolako zantzurik ez egon). Bere ustez ama eta bere bikotekide berria askoz ere familia hobetuzko izango litzateke, bereziki amaren bikote berriak neskatza zaintzeko eta babesteko agertzen zuen adorea eta nahi irmoa ikusita¹⁴). Eskolaz aldatu eta gero pedagogoa aurreko eskolara deitu zuen kasuaren amaieraz galdetzeko. Harreman irekirik ez bazegoen ere familia eta eskolaren artean (laguntza eskatzeko goian aipatu kontaktuz gain), zurrumurruek zioten amaren bikotekide berriak haurraren jagoletza ofiziala lortu zuela.

Irakasleek ez zuten iruzkinik egin gai horren inguruan, baina arretaz jarraitu zuten kontaketa. Istorioak, horrenbestez, familia mota horien existentzia eta irakasle zein pedagogoen aipatuekin dituzten harremanak frogatzen ditu.

Laugarren atalean ondorioak laburbildu eta amaiera eman zitzaion saioari. RAINBOW programako argitalpenak aurkeztu eta banatu ziren ere.

EBALUAZIO ETA ONDORIOAK

Bederatzi ebaluazio orrialde jaso genituen. Saioaren egiturari eta antolakuntzari, eduki nagusiei, baliagarritasunari eta komunikazioari loturiko sei aldagai ebaluatu zituzten partaideek, 0-10 eskala batean. Ondorengo taulak emaitzak agertzen ditu.

Argi dago saio arrakastatsua izan zela esan dezakegula. Ondorioz, saioaren xedea lortu genuen: RAINBOW HAS taldeak sexu bereko gurasoak dituzten familien eta LGBTI adingabeen esperientzia irakasleen aurrean azaltzeaz gain, azken hauek arretaz jarraitu eta onartu zuten jasotako guztia. Eta, horrela, landa-azterketan (1. lan-ildoan) elkarrizketatu familiek azaldu zuten nahia gauzatu zen.

¹⁴ Istorioaren datu guztiak ez zeuden garbi, eta ez daude garbi oraindik. Esaterako, bikote ohiaren papera eta zergatik egiten zuen lo haurrak berarekin edo zergatik behar zuen haurrak amaorde bat. Narratiba, ordea, pedagogoa emozio eta esperientzian oinarritzen zen eta, ondorioz, ez genituen datu zehatz guztiak galdetu.

2014ko uztaila-abuztua
Voyager Academy eta Comberton Village College
(Cambridgeshire, Erresuma Batua)
Middlesex Unibertsitatearekin batera
(Londres, Erresuma Batua)

SARRERA

Txosten honek Rainbow Has proiektuko Erresuma Batuko kideen heziketa saioak eta emaitzak (3. LI) laburbiltzen ditu. Proiektuaren xedea zen heziketa eredu komuna sortzea adingabe, irakasle eta familientzat. Familiekin eginiko hasierako kontsulta bati esker, sexu eta genero estereotipoak eta jarrera homofoboak eta transfoboak familien baitan sustatzen dituzten estereotipoak zehaztu ziren. Horiekin, heziketa saioa diseinatu zen, ondorengo xedeekin: homofobia prebenitzea eta borrokatzea; (LGTBI) identitate lesbiana, gay, bisexual eta transgeneroak ulertaraztea eta ikasgela barruko jazarpenari aurre egitea. Arreta berezia eskaini zitzaion aipatu gaiei gela barruan aurre egiteko esfortzuari. Adingabeen segurtasuna eta ongizatea handitzeko xedea izango duten familia eta eskolaren arteko lankidetzak garatzeko prozesuak ikertu ziren. Heziketa saioak Middlesex Unibertsitatearen zuzendaritzapean garatu ziren. Bi eskola¹⁵ gonbidatu genituen Erresuma Batuan egingo zen froga pilotuan parte hartzera.

166

ARRAZOIBIDEA

Orokorra

RAINBOW Proiektuko 2012ko ikerketa bat erabili genuen, kontsultaren emaitzez gain, heziketaren diseinua eta edukia zehazteko. Ikerketa horrek gomendatzen zuenez, hezkuntza komunitate osoak egin behar ziren aurre jazarpen eta izaera homofoboko indarkeria guztiei. Ikerketak, halere, hezkuntzako komunitatearen baitako eragileen arteko lankidetzak eraginkorrak sortzeko erronkak finkatu zituen ere. Rainbow HAS proiektuaren nahia zen hezkuntza komunitateko eragile guztientzako estrategiak garatea, familiak barne, lankidetzak eta elkarrekintzak eraiki dezaten gizarteko beste eragile guztiekin. Proiektuko kontsultak agerian utzi zuenez ere, sexualitatea komunikatzeko moduak ez daude adin ezberdinetara egokituta, batez ere adin txikiko haurrei dagokienean. Horrek sexualitatea tabua izaten jarraitzen duela adierazten du, hezkuntza komunitateko helduen artean zein gizarte orokorraren baitan. Eta tabua izaera hori dela eta, hezkuntza komunitatearen baitan erantzukizuna duten helduek ez dute genero eta sexu aniztasuna ikasgela barruan lantzeko prestutasunik agertzen.

¹⁵ Comberton Village College eta Voyager Academy, Cambridgeshire.

Erresuma Batuko testuingurua

Ikerketa ezberdinen aurkikuntzen arabera, esan beharra dago jazarpen homofobo eta transfoboa arazo handia izaten jarraitzen dutela Erresuma Batuan. Erresuma Batuan eginiko ikerketek RAINBOW eta RAINBOW HAS proiektuetako prestatze-lanetan aurkituriko zenbait gai berresten dituzte. 2014an Erresuma Batuko¹⁶ lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta queer sexualitatea dituzten (LGTBI) gazteen artean eginiko ikerketa batean, bi herenek (% 65a) adierazi zuten eskolek babes eskasa ematen zirela sexu edo genero identitatearekin loturiko arazoak zituzten adingabeei. Halaber, "LGTBI gehienek eskolan emandako denbora areriotasunez eta beldurrez beterik egon zela aitortzen dute eta, ondorioz, bereizita sentitu zirela, nota txarragoak lortu eta eskolaz aldatu behar izan zutela" dio ikerketak (5. orr). Eta "sexu heziketak ez duela LGTBI harremanak hartzen eta ez diela behar duten osasun sexualeko informazio guztia ematen gaitzeei" gaineratzen du ere (5. orr). 11 eta 18 urte bitarteko 1.600 lesbiana, gay eta bisexualen (LGB) artean 2012an eginiko ikerketa baten¹⁷ arabera jazarpen homofoboa arazo handia zen Erresuma Batuko eskoletan, % 55ak zuzeneko jazarpena pairatu baitzuen. Eta irain homofoboen erabilera orokorra eta erabat hedatua zegoela adierazten zuten ere. Jazarpen homofoboko biktima izandako bost gaztetatik hiruk esan zuten jazarpenaren lekuko izan ziren irakasleek ez zuten ezertxo ere egin. Aktibista ugariaren ustez¹⁸, 1988ko Tokiko Gobernuko Legearen 28. Artikuluren edukiak funtsezko eragina izan du Erresuma batuko eskola eta irakasleen artean. Honela zioen artikuluak: 'tokiko gobernuak ezingo dute, beren ardura diren eskoletan, homosexualitatea familia mota bat balitz bezala sustatu.' Aipatu artikuluak 2000. urtean gelditu zen bertan behera Eskozian; 2003an Ingalaterra eta Galesen.

SAIOAK

RAINBOW-HAS HEZIKETA SAIOAK: Heldutasunera bidean: Identitatea, Aniztasuna eta Jazarpena Lantzea

Mary Martin (Comberton Village College), Rosalind Scott (Voyager School) eta Peter Ryan Katedraduna (Middlesex Unibertsitatea) izan ziren Erresuma Batuko heziketa programako diseinatzaileak.

¹⁶ METRO Youth Chances (2014) *Youth Chances Summary of First Findings: the experiences of LGBTIQ young people in England* London: METRO.

¹⁷ Guasp, A (2012) *The School Report: The experiences of gay young people in Britain's schools in 2012* London/Cambridge: Stonewall/University of Cambridge.

¹⁸ http://www.huffingtonpost.com/daniel-browne/the-lasting-legacy-of-section-28_b_4259545.html.

ARRAZOIBIDEA

Saioren xedea zen bigarren hezkuntzako ikasleak, eta beren gurasoak, bigarren hezkuntzako eskolako komunitatean inplikatzea, aniztasuna eta dibertsitatearekin loturiko gaiak sustatu eta jazarpen homofoboari aurre egiteko: guraso guztiak kezkatzen dituen gaia. Nerabezaroan zehar garapen emozional, intelektual eta fisiko azkarra ematen da. Gaien aldetik jarraipen bat zuten 90 minutuko hiru saioren bidez, bigarren hezkuntzako eskolan sartu berriak zeuden ikasleak, beren gurasoak eta eskolako errespetuzko kulturaren zeresana duten eta jazarpen mota ezberdinak eta jazarpen homofoboa bereziki desagerrarazteko inplikatuta dauden irakasleak elkartu ziren.

XEDEA

Lankidetzaren eraginkorrak sortzea guraso, eskolan berriak diren adingabe eta eskola beraren artean (arreta berezia jarritz lehenengo eta bigarren mailatan), ondorengo xedeekin:

1. Errespetuzko kultura sortzea eta mantentzea eskolan, aniztasuna aitortzea eta sustatzea genero, arraza, sexu joera eta minusbalioei dagokienean.
2. Lankidetzaren sustatzea jazarpen mota guztiei aurre egiteko, eta jazarpen homofoboari aurre egiteko bereziki.

168

Partaideak

Bigarren hezkuntzako eskolan sartu berri diren 11-12 urteko adingabeen guraso boluntarioak; adin horretako ikasleak; eskolako ordezkariak eta eskolako aginte eta arduradunak; tokiko komunitateko ordezkariak, hala badagokio.

Ordua

Guraso, adingabe eta eskolak erabaki zuten noiz egin saioak. Ordurik onena eskola-orduak bukatu eta jarraian da. Eskolak haur txikiak zaintzeko zerbitzu bat antolatzeke beharra izan dezake, gurasoak adin txikiko hurrekin etortzera behartuta badaude.

Maiztasuna

Hilean behin, hiru hilez.

Tokia

Funtsezkoa zen toki publiko egoki bat aurkitzea, irakasle eta familiak gustura egon zitezkeen inguru lasai, adiskidetsu eta arrunt batean eta lankidetzak eraiki zitezkeen.

Tokirik arruntena ikasgela bat izango litzateke, baina bi orduko bilera bat har dezakeen edozein toki izan daiteke.

EGITURA

Egitekoa	Xedea	Iraupena
1. Gizarte elkarrekintzarako epe motza, partaideak iritsi eta esertzen diren bitartean.	Aholkularitza eskaintzea familia, eskola eta eragile guztiei eskola eta familien arteko solasaldi honetan aipaturiko gai nagusien inguruan.	5 minutu
2. Arauak finkatu eta adieraztea, beroketa ariketak barne.	Gune emozional garbi, seguru eta fidagarri batek taldearentzat duen garrantzia nabarmentzea.	5 minutu (gehiago lehen saioan)
3. Saioko Ariketak.		
a. Eskolako ikasle baten irudia egitea (pipak garbitzeko eskuilekin) eta irudiari buruz eztabaidatzea.	Eskolan ikasle izateak suposatzen duen esperientzia zehazten laguntzea saioko partaideei.	15 minutu
b. Nola sortzen da jazarpena?	Jazarpen zioak testuinguru ezberdinetan identifikatzen laguntzea saioko partaideei.	15 minutu
c. Zer jazarpen mota daude?	Jazarpen homofoboak jazarpen mota guztien baitan kokatzea.	15 minutu
d. Zer sortzen du jazarpena?	Jazarpena sortzen laguntzen duten osagaiak ulertzen laguntzea partaideei.	15 minutu
4. Familia eta eskolaren arteko informazioa eta lankidetzaren.	Hirugarren fasean aztertutako gaiak eztabaidatzeko aukera ematea familia eta eskola bakoitzari.	20 minutu
5. Jarduera Plana	Partaideen erabakiak: 1. Zer 2. Noiz 3. Non 4. Zeinekin 5. Noizko 6. Emaitzak	20 minutu
6. Amaiera, elkarrekintza informalaren bidez.	Gizarte elkarrekintzako denbora txiki bat, amaieran, saioan landuriko osagai positiboak nabarmentzeko; ahal bada, mokadu txikiekin bukatu saioa.	10 minutu
6. Iraupen osoa		120 minutu

SESSION AT COMBERTON VILLAGE COLLEGE, COMBERTON, CAMBRIDGESHIRE

Comberton Village College eskola 11-18 urte bitarteko gazteak hartzen dituen bigarren hezkuntzako eskola da. Combertonen kokatua (Cambridgeshire), 1.370 ikasle inguru ditu. Comberton Academy Trust Fundazioko kide da eta 1960an sortu zen.

Saioak 36 partaide izan zituen: 4 guraso, 28 ikasle eta 4 irakasle.

Ikasleak eta beren ongizatea saioaren muina direla bermatzeko, lehen hezkuntzatik eskolara lehenengoz datorren ikaslearen figura egitea eskatu zitzaizen ikasleei. Figuraren harira, ikasleek norbanakoaren esperientziaz eta sentimenduz hausnartu eta eztabaidatu zuten.

Ondoren, jazarpen mota ezberdinen, jazarpenaren zioez eta nola gertatzen den hausnartzea eta beren ikuspegia ematea eskatu zitzaizen partaideei. Eta jazarpenari aurre egiteko zer egin daitekeen azaltzea eskatu zitzaizen ere.

Hezitzaileek hausnarketa eta eztabaida bideratu zuten. Ikasleek, talde txikitik banatuta, beren pentsamenduak idatzi zituzten paper handietan.

Zer jazarpen mota daude?

Guztira ikasleek lau jazarpen mota identifikatu zituzten. Ahozko jazarpena, jazarpen fisikoa, jazarpen mentala eta geroz eta presentzia handiagoa duen "ziberjazarpena", sarean eta gizarte-hedabideetan. Jazarpen fisikoaren adierazpen zehatzak aipatu zituzten: erasoak, bandalismoa edo norbanakoaren propietateen lapurreta eta armen erabilera (txakurrak barne). Ahozko jazarpenaren adierazpenak dira: adarjotzeak, txantxak, larderia, irainak eta norbanakoaren antzeratzeak. Jazarpen mentalaren (psikologikoa) adierazpenak dira "lagun faltuak" izatea, bereizkeria, gelakideen azpizokoak, xantxiak, isolamendua eta gisakoen presioa. Ziberjazarpenaren adierazpenetako bat da "jazarpen fotografikoa" edo "argazki maltzurak" gizarte-hedabideen baitan hedatzea.

Partaideek norbanakoaren ezaugarrien ondoriozko jazarpena aipatu zuten ere eta aniztasunak eta ezberdin izateak jazarpenaren zio gisa duten garrantzia azpimarratu zuten. Ikasleek jazarpena arrazakeria, sexismo, homofobia, minusbalioa, kultura eta fedearekin loturiko jazarpena nabarmendu zuten ere.

Zerk sortzen du jazarpena?

Jazarpenaren zioak aipatzea eskatu genienean, parte hartu zuten ikasleek biktimaren ezaugarriak eta jazartzailearen balizko motibazioak eztabaidatu zituzten. Beste behin, biktimaren ezberdintasun eta aniztasuna nabarmendu zituzten. Horiez gain, ondorengoak aipatu zituzten ere: generoa, arraza, adina, sexualitatea, erlijioa, minusbalioa edo gaixotasuna, itxura, pertsonalitatea, tamaina edo pisua, azal kolorea, ile kolorea, azentua, diru eta jabetzak, jantziak, popularitasuna, lagun taldea, adimena, aurpegi ezaugarriak, jatorria edo herritartasuna, interes eta hobbyak. Talde batek "ezberdintasun" hitza

erabili zuen gaia laburtzeko; beste batek bakartasuna aipatu zuen jazarpena pairatzeko arriskutzat.

Jazartzailearen motibazioei zegokienean, arrazoi ezberdinak aipatu ziren. Jeloskor izatea izan zen aipatuena; “ezjakintasuna” eta “gisakoen presioa” ondoren. Hona hemen jazarpena egiteko beste zenbait motibazio: plazera, nagusitza, jokoa, mendekua, haserrea, gorrotoa, “boterea bilatzea”, ospea, “besteak liluratu nahia” eta materialismoa. Talde batek hedabideen eta telebistaren papera aipatu zituen ere. Ikasle gehienek osagai psikologikoa eta zirkunstanzialak aipatu zituzten ere, eztabaidetan, jazartzailearen motibazioan artean: autoestimua baxua, estresa, etxeko edo familia arazoak. Jazartzailea bera jazarpenaren edo abusuen biktima izan daitekeela (etxean, esaterako) aipatu zuten ere.

Nola sortzen da jazarpena?

Ikasle taldeek jazarpenaren sorrera eztabaidatu zuten ondoren eta, beren ustez, “zurrumurrua” eta “traizioa” dira arrazoi nagusienak. Zehazki, jazarpena “txantxa batetik” edo “eskolan egindako iruzkin batetik” sor daitekeela aipatu zuten ere. Zurrumurrua eta txantxa, ondoren, erraz asko hedatzen da “gizarte-hedabidetako mezularitzari” esker eta, azkenean, “urrutiegia” doaz.

Nola prebeni edo borroka daiteke eskolako jazarpena?

Ikasle taldeek jazarpena prebenitzen edo borrokatzen lagun dezaketen estrategia eta esku-hartze ezberdinak aipatu zituzten. Zenbaitek biktimak hartu beharko lituzkeen neurriak aipatu zituzten; besteak, ordea, gisakoei eta lagunek biktimari eman beharko zioten laguntza. Ikasleek esanetan, egoera edo gertatutakoa familian, lagun artean eta irakasleei (edo eskolako agintariei) salatzea animatu behar zaio biktimari. Beren usten jazarpena pairatzen duenak egoera eskolaren jakinean (eskola agintariak) edo poliziaren jakinean (beharrezkoa balitz) jarri beharko luke. Egoera konfiantzazko lagun bati azaltzea lehen pauso garrantzitsua da ikasleen esanetan, isolamenduarekin bukatzeko bereziki (babesa eskainiko duten lagunak izatea garrantzitsua da ere zenbait ikasleren iduriz). Iradoki beste estrategia bat da jaramonik ez egitea jazartzaileari (bestela pozik egoteko zio bat emango bailitzaioke) edo jazartzaileari aurre egitea. “Gizarte-hedabideetan” tentuz jokatzeko gomendatu zuten ere. Gisako eta lagunek jazarpena pairatu duen biktima laguntza eskatzera animatu beharko lukete, hori da eskaini dezaketen laguntzarik nagusia. Eta ez lukete inolako tolerantziarik agertu beharko jazarpenaren aurrean, honela jazarpenaren garapena saihestuko bailukete. Iradokizun bat egin zuten ere: “hausnarketa” edo “aldarte” kutzak sortzea, jazarpen kasuen aurrean izandako erantzun emozional eta psikologikoak gorde eta ulertu ahal izateko.

Gurasoek eskolako jazarpenaren aurkako borrokan izan dezaketen papera aztertu zen ere. Guztion iritziz, seme-alabak pairatzen duen jazarpena jakinarazi beharko litzaieke gurasoei; eta biktimak egingo balu, are eta hobeto. Eztabaidan aipaturiko gai nagusietako bat izan zen babes emozionala: gurasoek seme-alabari entzun, ulermena eta kezka

agertzeko gai izan beharko lukete (nola dagoen galdetuz noizean behin, adibidez). Guraso eta familiaren babesaren isla nagusia da seguru sentiaraztea jazarpenaren biktimari, arreta eskaintzea eta giro atsegina ematea etxean. Harreman sendoa eratzeko uneak sortzea ere oso lagungarria izan daiteke. Jazarpena pairatu duten lagunek eta/edo bestelako familiek biktimari eta bere familiari jazarpen egoerari aurre egiten lagun diezaiekeela aipatu zuten ere zenbaitek. Esku-hartze eta arazoak konpontzeko estrategia praktikoak aipatu ziren ere: biktimari egoera salatzera animatzera edo aipatua salatzera biktima hori egiteko gai ez denean; adingabea, guraso eta tutoreen arteko bilerak; eta beste gela batera edo eskola batera eramateko aukera ere aztertzea. Talde batek aisialdia nabarmendu zuen ere: familiak jarduera atsegin eta interesgarriak egin ditzake, seme-alabarekin, ikasturtean zehar, adingabea entretenitzeko.

Jarduera planifikazio komunaren ondorioz, ikuspegi eta estrategia ezberdinak proposatu ziren eskolak eta familiak elkarrekin aurre egin diezaioten jazarpenari. Guraso eta irakasleen komunikazioa eta bilerak funtsezkoak dira eta gurasoen inplikazioa eskolan, jazarpenari dagokionean, oso garrantzitsua dela aldarrikatu zen ere. Gurasoek jazarpena irakasleekin aztertzekeo gai izan beharko lukete; irakasleek adingabearen jazarpenari aurre egiteko (edo jazarpenari orokorrean aurre egiteko) esku-hartzearen inguruko informazio eguneratua eskaini behar diete gurasoei telefono-deia, mezu edo posta elektronikoen bidez; gurasoekin eginiko bileretan jazarpena aztertu beharko litzateke; gurasoak babesteko taldeak era daitezke ere, beren gisakoen aholkuak eta babesa izan dezaten. Eskolaren beste zeregin garrantzitsu bat aipatu zen ere: jazarpenaren gurasoen inplikazioa lortzea jazarpenarekin bukatzeko. Eskolak online aholkularitza zerbitzu bat abiatu beharko luke, jazarpena pairatzen dutenek hitz egin eta egin beharrekoari buruzko beren iritzia eman dezaten. Eskolak gurasoen heziketa eta sentsibilizazioa bultzatu beharko lukeela aipatu zen. Horretarako, jazarpenaren zio eta ondorioen inguruko tailerrak edo ekintza egunak antola daitezke, adingabe eta gurasoen arteko harremana sustatzeko. Orokorrean, segurtasun gehiago eskatu zen gizarte-hedabideei dagokienean eta aipatuak blokeatzeko neurriak eskatu zituzten, ziberjazarpenarekin bukatu ahal izateko.

172

VOYAGER ACADEMY-KO SAIOKA, PETERBOROUGH, CAMBRIDGESHIRE

Voyager Academy eskola 11-18 urteko ikasleak hartzen dituen bigarren hezkuntzako eskola da. Peterboroughen (Cambridgeshire) kokatua, 1.380 ikasle inguru ditu. 2007an sortua, Comberton Academy Trust Fundazioko kide da.

Saioak 25 partaide izan zituen: 5 guraso, 15 ikasle eta 5 irakasle. Jazarpenaren Aurkako Arduradun eta Zuzendari Exekutiboak saioaren zati batean parte hartu zuen ere.

Ikasleak eta beren ongizatea saioaren muina direla bermatzeko, lehen hezkuntzatik eskolara lehenengoz datorren ikaslearen figura egitea eskatu zitzaizen ikasleei. Figuraren harira, ikasleek norbanakoaren esperientziaz eta sentimenduez hausnartu eta eztabaidatu zuten.



173

Ondoren, jazarpen mota ezberdinen, jazarpenaren zioez eta nola gertatzen den hausnartzea eta beren ikuspegia ematea eskatu zitzaizaien partaideei. Eta jazarpenari aurre egiteko zer egin daitekeen azaltzea eskatu zitzaizaien ere.

Hezitzaileek hausnarketa eta eztabaida bideratu zuten. Ikasleek, talde txikitik banatuta, beren pentsamenduak idatzi zituzten paper handietan.

Zer jazarpen mota daude?

Ikasleek eskola barruan eman daitezkeen bost jazarpen mota zehaztu zituzten. Ahozko jazarpena, jazarpen fisikoa, jazarpen mentala edo emozionala, jazarpen ekonomikoa eta ziberjazarpena (sarean eta Twitter edo Facebook bezalako gizarte-hedabideetan ematen dena). Ahozko jazarpenaren adierazpenak dira irainak, mehatxuak, ezizenen erabilera, adarjotzeak eta txantxak; jazarpen fisikoarenak, aldiz, txistua botatzea, iletik tira egitea, “kolpeak, ostikoak edo muturrekoak ematea”. Jazarpen emozional edo mentalaren adierazpenak izango liriateke norbaiten itxuraz barre egitea, “lagun faltsuak” izatea, “lagunengandik isolatua edo baztertua izatea”. Jazarpen ekonomikoa zer den galdetu zitzaizanean, dirua mehatxupean eskatzea dela erantzun zuten. Era berean, ikasleek bereizkeria (homofobia eta arrazakeria barne) aipatu zuten jazarpen motatzat.

Zerk sortzen du jazarpena?

Jazarpenaren arrazoiaren inguruko eztabaidak jazarpenaren motibazioak edo bere jarrera baldintzatzen duten aldagaiak izan zituen hizpide. Zenbait ikasleren arabera tratatu txarrak

jasotzea familia edo lagunengandik edo jazarpena pairatzea ere jazarpena eragiteko zioak izan daitezke; beste batzuek autoestimu baxua aipatzen dute. Beste batzuren ustez, jazarpenaren xedea zen “ahulago edo ezberdin den norbait” esplotatzea, horrela “jazartzailea ongi sentitzen delarik, beste norbait baino hobea”.

Nola sortzen da jazarpena?

“Talde mentalitateak” jazarpena ahalbidetzen du zenbaiten iritziz; besteen iduriz, “ahulezia bat esplotatzea” zen jazarpenaren dinamika nagusia. Kokapenari dagokionean, ikasle gehienek eskola barruan eta eskolatik kanpo eman daitekeela aipatu zuten; horietako zenbait “nonahi” esan zuten ere, bereziki ziberjazarpena. Ikasleek jazarpenak dituen osasun mentaleko ondorio latzak aipatu zituzten. Talde baten iritziz, biktima bere buruaz beste egitera edo bere buruari min egitera” eraman dezake.

Nola prebeni edo borroka daiteke eskolako jazarpena?

Eskolaren aldetik espero dezaketena aipatzea eskatu zitzaaien ondoren ikasleei eta jazarpena prebeni edo borroka dezaketen estrategia edo ikuspegi ezberdinak aipatu zituzten. Partaide guztien iritziz guraso eta eskolaren arteko lankidetzak funtsezkoa da jazarpen egoera zehatzari aurre egin eta ekintza plan eta estrategiak garatzeko. Eta aurrekoa bezain garrantzitsua izango litzateke ulermen eta komunikazio kultura sendoa ezartzea ikasle, guraso eta eskolaren artean, non hiru aldeak seriozki eta errespetuz tratatuak izango diren. Gurasoek eta eskolak ikasleen ahotsari arreta gehiago jarri beharko lioketela esan zuten ikasleek. Gehien iritziz, eskolak gune seguru bat izan behar du ikasle guztientzat, non aipatuek “ikasteko, bizitzeko eta lagunak egiteko gogo handia izango duten”. Eta eskola segurua izan dadin, “langile guztiek jazarpenaren aurka egon behar dute”. Seguru izateak dakarren beste aldagai bat da aditua izateko norengana jo beharko lukeela jakin behar duela ikasleak eta konfiantzazko langileak izan behar duela eskolak, “jazarpenaren aurka prestutasunaz arituko direnak”.

Prozedura osagaiak azpimarratu ziren ere jazarpena prebenitu eta borrokatu ahal izateko. Hauek dira egindako gomendioak: “diziplina sistema sendoa” edo jazarpenari “azkar eta eraginkortasunez” aurre egitea ahalbidetuko duen jazarpenaren aurkako prozedura ezarrita izatea eta jazarpen kasuak salatzeko sistema zehatza ezarrita izatea. Eskolak egitura argia, erantzukizun garbiak, aholkularitza zerbitzua ikasle, guraso eta irakasleentzat, garrantzizko osagaiak dira ere. Eskolak bitartekaritza lanak egin beharko lituzke jazartzailearen eta biktimaren gurasoen artean; onartua dagoena eta onartu ezin daitekeenaren inguruko mezu garbiak bidali behar dizkie ikasle eta gurasoei; partaide baten iritziz, “ikasle berrien gurasoentzako bilera ireki bat egin beharko litzateke jazarpenaren aurkako estrategia eta eskolaren baloreak azaltzeko”.

Halaber, beren seme-alabak eskolako jazarpena pairatzen duen kasuetan izaten dituzten arazoak zehaztu zituzten gurasoek. Askotan zer egin jakin gabe aurkitzen dira, eskolako zeinekin hitz egin edo eskolari jazarpena nola jakinarazi ez baitakite. Eskolako interes edo inplikazio faltak sortzen dien amorru eta etsipena aipatu zuten ere guraso batzuek. Aipatu

etsipena paira dezaketenak dira adingabea, errua botatzen zaiolako edo jazartzailearen gurasoak, liskarrak sortzen baitira beraiekin. Baina gurasoek jazarpena pairatzen duen seme-alabari eskaini diezaizkieten babesaren inguruko aipamen baikorrak egon ziren ere: seme-alaba lasaitzea “enpatiaz entzun diezaizogun eta egoera bere ikuspegitik ikus eta uler dezagun”.

Eskolak jazarpenaren aurka duen estrategiak gurasoak hartu beharko lituzkeela aldarrikatu zuten; gurasoek, honela, “beren ahotsa” izango lukete. Beste behin, argitasuna eta komunikazioa (bilerak eta jarduera planak barne) aipatu zituzten, partaideek, funtsezko osagai gisa, gurasoek eta eskoak elkarrekin lan egin dezaten jazarpenaren aurka. Beren iritziz, “eskolako jazarpenaren aurkako estrategiak eraginkorra, sinplea eta argia izan behar du, jazarpen egoera azkartasunez aztertzeko eta jazartzaileari arrazoizko zigorra jartzeko aukera emango duena” eta “bilerak egin beharko lirateke guraso, adingabe eta irakasleek elkarrekin lan egin dezaten jazarpenaren aurka”. Jazarpenaren inguruko heziketaren garrantzia nabarmendu zen ere.


Jarduera planifikazio komunaren ondorioz, ikuspegi eta estrategia ezberdinak proposatu ziren eskola eta familiak elkarrekin aurre egin diezaizoten jazarpenari. Komunikazioa edozein strategiaren arrakasta bermatzeko ezinbestekoa zela aldarrikatu zuten. Eta ondorengo ekintzak azpimarratu ziren komunikazio horri dagokionean:

- Gurasoen eta jazarpenaren aurkako taldearen bizpahiru irakasleen arteko komunikazioa, eskolako egoeraz hitz egiteko eta, inplikatuekin batera (jazartzailea eta biktima), irtenbide komuna emateko arazoari.
- Noizbehinkako posta elektronikoak, gurasoek eguneratuta egon daitezkeen beren seme-alabak bizi duen jazarpenari eskolak eman dion tratamenduari buruz.
- Gurasoek jazarpena salatzeke aukera izan behar dute, eskolaren ardura den erregistro batean.
- Elkarriketa ezartzea jazartzailearekin, justizia berrezartzeko ikuspegiaren testuinguruan.

EBALUAZIO ETA ONDORIOAK

Gurasoen, ikasleen (jazarpen homofoboko biktimak izan daitezkeenak gainera) eta irakasleen inplikazioa batzen dituen ikuspegi honek emaitza onak izan ditu Erresuma Batuan. Eskolaren babesa eskatzen du eta programa irakasleen erantzukizuna denean emaitzak hobetoak dira. Ikuspegi hori familiak eta eskolak lankidetzaren eraginkorren baitan batu nahi dituen Rainbow HAS proiektuko xede eta helburuekin bat doa.

Rainbow HAS proiektuko esperientziak garbi utzi duenez, ikuspegi horren aldeko heziketa saioak herrialde bakoitzeko ezaugarri kultural, sozial eta politikoetara egokitu beharra dago. Ondorioz, eredu hau Europako herrialde ezberdinetako baldintza kultural zehatzera egokitu beharra dago.





1 Presio-taldea: Adostasunak Sortzen

Presio ekintzak egingo dira Aniztasun afektibo eta sexualeko eskubideen sustapen eta babesa Europako erakundeen agendan sartzeko, arreta berezia eskainiz eskola eta komunitateei.

177

Aurrera egin dugu: aniztasun afektibo eta sexualerako eskubidearen aldeko nazioarteko, nazio eta komunitate mailako araudi juridikoak sustatzeko gizarte ekimenak garatu dira. Eta baita aniztasun sexualak Europak duen pertzepzioari dagokionean: tolerantzia eta errespetu handiagoak daude LGTBI kolektiboarekiko eta homofobiak geroz eta gaitzespen sendoagoa jasotzen du. Halere, aipatu garapen baikorrek ez dira egunerokotasunean islatzen beti: bereizkeria eta homofobia oso barreiatuta daude gure gizartean.

Hezkuntza arloak gizarte orokorrean ikus daitezkeen joera berdinak agertzen ditu. Rainbow Has proiektuaren diagnostikoak adierazi duenez, LGTBI adingabeen eskubideen egoera oso kezagarria da. Europako zenbait herrialdetan jazarpen homofobo eta transfobo ia orokortua egiten da LGTBI norbanakoen edo LGTBI norbanakoak diruditenen kontra (hau da, ohiko genero roletatik kanpo dauden norbanakoen kontra).

Homofobia heterosexualak ez direnen isiltasun eta ikusgaitasun ezaren bidez gauzatzen da, ezberdinen gaineko kontrolaren eta horien kontrako eraso fisiko eta linguistiko gogorren bidez.

Jazarpen homofoboak ondorio oso negatiboak ditu bere biktimgan: auto-estimua galera, antsietatea, estresa, depresioa eta, muturreko kasuetan, bere buruari min eragitea eta bere buruaz beste egitea. Jazarpenak zail egiten du eskolaratzea eta eragin zuzena dauka biktimgaren eskola emaitza eta ikaskuntza prozesuarengan.

Homofobiaren beldur izateak –eta eskolako axolagabetasuna edo gaitzespena jasotzeak– asko mugatzen du LGBTI adingabeen identitate adierazpena. Eta identitate sexuala ezkutatuta mantentzeak norbanakoaren garapena asko mugatzen du ere.

Irakasleek ez dute aniztasun sexuala ikasgela barruan lantzeko gogorik agertzen eta, gehienetan, eskolako jazarpen homofoboari nola aurre egin ere ez dakite.

Arazo hauen tratamenduari buruzko sentsibilizazio falta ikaragarria dago eskoletan. Eta, gainera, ez dago araudi juridiko, esku-hartze estrategia edo erreminta nahikorik. Eskola batzuek prebentzio ekintzak gauzatzen dituzte, automatikoki; hori da beren esku-hartzerik eraginkorrena.

Aniztasun sexuala ez dago eskoletako curriculumean sartuta eta, normalean, informazio programen baitan lantzen da, GIB/HIESari buruzko programak bereziki.

Eskola gehienek ez dute material zehatzik edo gune berezirik aniztasun sexualaz eta homofobiaz hitz egiteko. Izan ere, Europako herrialdetan arau zehatzak daude oraindik homosexualitatea ikasgela barruan era irekian eztabaidatzen galarazteko.

Testuinguru honetan, Europako erakundeen inplikazioa ezinbestekoa da aniztasun sexualeko eskubideak sustatu eta babesteko, arreta berezia eskainiz eskola eta komunitate arloei. Eskolek gune segurua izan beharko lukete ikasle guztientzat eta



LGTBI adingabeek beren eskubideen ariketa osoa bermatuta izan beharko litzukete. Jazarpen homofobo eta transfoboaren aurkako borroka esfortzu etengabe eta zehazta eskatzen du eskola eta hezkuntza aginteen aldetik.

Nahitaezkoa da elkarrekin lanean hastea, Europako erakundeek ondorengo egin dezaten:

Marko juridiko komuna onartzea –Giza Eskubideen aldeko nazioarteko erremintekin bat–, gizarte arlo guztiak hartuko dituen, Aniztasun sexualaren adierazpen guztien eskubideen babesa bermatzeko.

Hezkuntza arloan, legeak LGTBI adingabeen eta LGTBI familietako kide diren adingabeen eskubide eta askatasunak babestu beharko litzuke, beren garapena eta segurtasuna bermatu eta beren aurkako aurreiritzi eta estereotipoekin bukatu, eskola aniztasuna osotasunean onartzen duen guneguru eta egonkorra bihurtuz.

Aipatu legedia politika publiko proaktiboaren bidez gauzatu beharko litzateke, hezkuntza erakunde guztien jarduerak har ditzan; baina hezkuntzaz haraindi joanaz ere. Honela, hona hemen aintzat hartu beharreko zenbait adibide:

- LGTBI gaien inguruko arreta, aholkularitza eta heziketa zerbitzu publikoak sortzea (LGTBI elkarten ardurapean egongo zirenak).
- Jarraipen mekanismoak ezartzea, LGTBI errealtatearen “normalizazioa” eta bidezko trataera bermatzeko hedabidetan.

Marko juridiko horren eta bere ondorio diren erreminten aplikazioak jarraipen eta ebaluazio sistema apropos baten ezarpena eskatuko du.

Beste gaien artean, hezkuntza arloko marko juridikoak ondorengoak hartu beharko ditu aintzat:

- a) Aniztasun afektibo eta sexuala eskolako curriculumean sartzea –era zehatz eta zeharkakoan, adingabeek sexu joera eta genero identitatearen inguruko bereizkeriarik gabeko sexu heziketa jasotzeko eskubidea baitute. Lekua dago, ikasgai ezberdinen curriculumaren baitan, aniztasuna sustatu eta aurreiritziak eta estereotipoekin bukatzeko jarrerak bultzatzeko eta jazarpenaren gaitzespena hedatzeko.
- b) Aniztasun afektibo eta sexualaren inguruko eta sexu joeran edo genero identitatean oinarrituriko bereizkeria eta jazarpen mota guztiei aurre egiteko estrategia eta esku-hartzeen inguruko heziketa berezia irakasle eta arlo honetan erantzukizunik duten eskolako langile guztientzat. Eskola irakasleek ez dute informazio edo heziketa nahikorik LGTBI norbanakoen eskubideak proaktiboki defendatzeko. Aipatu heziketa unibertsitatean jaso beharko litzateke, irakasleek jarrera proaktiboa izan dezaten maila guztietan.
- c) Eskola bakoitzak erreminta eta estrategia aproposak izan beharko ditu sexu joeran eta genero identitatean oinarrituriko bereizkeria eta jazarpen mota guztiei aurre

egin ahal izateko (biktima jarriz erdi-erdian). Eskolak ingurune seguru, positibo, inklusiboak eta errespetuzkoak sortu beharko lituzke irakaskuntza prozesurako eta bere jokamolde kodeak jazarpena onartezina dela zehaztu beharko du. Aipatu kodeak eskolako jazarpenaren aurkako politikaren urraketei aurre egiteko jarduera eta estrategiak zehaztu beharko ditu. Eskolek, halaber, jazarpenaren inguruko sentibilizazioa eta ulermena sustatzeko ekimen eta programak gauzatu beharko dituzte.

- d) Gune bat prestatzea LGTBI gaien inguruko esku-hartzea eta sentibilizazio familia-eskola lankidetzaren bidez garatzeko.

Elkarrizketa-aukerak sustatzea LGTBI elkarte eta LGTBI kolektiboaren alde lan egiten duten gizarte mailako bestelako eragileekin, arreta berezia eskainiz hezkuntzari.

Estatu Kideek LGTBI kolektiboaren (orokorrean, eta hezkuntza arloan bereziki) giza eskubideen aldeko nazioarteko eta nazio mailako legeak nola aplikatzen dituzten jarraitzea.

Ikerketak egitea, noizean behin, Europar Batasuneko herrialde guztietako hezkuntza arloetan LGTBI adingabeek bizi duten egoera aztertzeke.

2 Jardute onak partekatzea CrowdMap bidez

RAINBOW HAS proiektuko xedetako bat da *Europako sareen sare bat sortzea aniztasuna eskolatan* babesteko. Helburua litzateke aniztasun sexualaren eskubideen gizarte onarpen eta errespetu osoa sustatzea eta eskolako homofobia eta transfobiaren aurkako ekimenak babestea.

Aipatu sareak plataforma egitura du RAINBOW HASentzat eta plataformak elkarteak, sareak, LGTBI elkarteak, guraso elkarteak (heterosexual eta LGTBI) eta aniztasun sexualaren eskubideen alde lan egiten duten eragile guztiak hartuko ditu. Parte hartu eta inplikatu nahi diren hezkuntza eta komunitate arloetako elkarteek (ikasle elkarteak, irakasle sindikatuak, GKE, nazioarteko erakundeak –Nazio Batuak-, etab.) toki berezia izango dute plataforma horretan.

Plataforma CrowdMapen oinarrituta dago eta ondorengo helbidean dago eskuragarri: <https://rainbowhasnetwork.crowdmap.com/>

Plataformak proiektuan eta antzekoetan zehazturiko jardute onen informazioa duen mapa bat hartzen du ere. Mapa irekia da eta jardute onak gehitzeko aukera eskaintzen du Twitter bidez (#RainbowHas), posta elektronikoz (network@rainbowhas.eu) edo webgunean bertan. Horrez gain, webguneak LGTBI elkarten, ekintza sareen eta LGTBI gaiekin loturiko ikerketa publiko zein pribatuen inguruko informazioa eskaintzen du.





Nazioarteko mintegiaren eta azken konferentziaren ondorio eta gomendioak (Brusela, 2014ko azaroa)

Ondorengo elkartetako ordezkariak bertaratu ziren bi eguneko bilera honetara: Ararteko (ES), Farapi (ES), Middlesex Unibertsitatea (Erresuma Batua), FLG (ES), Nelfa, ECIP (BG), Jekino (BEL), Maria Grzegorzewska Academy (PL), Milango Udala (IT), Madrilgo Complutense Unibertsitatea (ES), ILGA Europe, East Anglia Unibertsitatea (Erresuma Batua), Trentoko Unibertsitatea (IT), Eusko Jaurlaritza, Comberton Academy Trust Fundazioa (Erresuma Batua), Voyager School (Erresuma Batua), FECE (BG) eta Cavarria (BE).

183

NAZIOARTEKO MINTEGIAREN ONDORIOAK Brusela, 2014ko azaroaren 18a

1. RAINBOW HAS proiektuak egoera oso kezagarria azalarazi du LGTBI kolektiboaren eskubideei dagokienean¹⁹. Aipatu kolektiboko norbanakoek pairatzen duten eraso, jazarpena, estigmatizazioa eta bereizkeria, aurreiritzi, estereotipo eta ideia homofobo eta transfoboetan oinarritzen direnak, eragin handia dute beren osasunarengan. LGTBI gutxiengoaren oinarritzko eskubideak ez dira errespetatzen, ezta behar bezala babesten ere, nahiz eta nazio mailako legedietan, Europako legetan eta giza eskubideen inguruko nazioarteko legedian sartuta egon. Egoera ezkor horren ginetik, RAINBOW HAS ikerketak 22 jardute on aurkitu zituen aztertu bost herrialdetan.
2. LGTBI eskubideen egoera asko aldatzen da herrialde batetik bestera. Orokorrean, esan halere Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Aldeko Agentziak 2012an egin zuen ikerketaren arabera elkarriketatu % 19a jazarpenaren biktima ohiak zirela; eta beren ustez LGTBI kolektiboko kide izateagatik pairatu zutela jazarpena.

¹⁹ <http://rainbowhas.eu>

18 urte bete bitarteko eskola urtetan zehar, herrialde guztietako LGTBI azpimultzoko elkarriketatu % 80a LGTBI norbanako baten aurkako iruzkin edo jarrera negatiboan lekuko izana zen. Erantzun hori eman zutenen % 68ak aipatu jarrera eta iruzkin ezkorak 18 urte ez zituzten adingabeen aurka egin zirela aitortu zuten²⁰. Berdintasuna sustatzea eskatzen diogu Europar Batasunari.

3. Sexu Joera eta Genero Identitateari dagokienean Nazioarteko Giza Eskubideen Aplikaziorako 2006ko Yogyakarta Printzipioak gogoratu nahi ditugu hemen. Zehazki, 16. Printzipioa, Bereizkeriarik gabeko hezkuntza izateko eskubidea aldarrikatzen duena; eta 19. Printzipioa, "iritzi eta adierazpen askatasuna defendatzen duena, sexu joera edo genero identitatearen gainetik. Aipatu eskubidean sartzen da identitatearen edo izaeraren adierazpena hitzez, jarreraz, jantziez, gorpuzkeraz, aukeratutako izenaz eta beste edozein baliabideren bitartez; eta baita mota guztietako ideiak bilatu, jaso eta irakasteko askatasuna ere, giza baliabide, sexu joera eta genero identitateari dagokienean, edozein baliabideren bitartez eta muga guztien gainetik". Adierazpen eskubideak diskurtso homofoboa hezkuntza arloan ez duela babesten dioen Giza Eskubideen Europako Epaitegiaren irizpenarekin bat egiten dugu²¹. Yogyakarta Printzipioekin bat, adierazpen askatasunak ez duela diskurtso homofoboa egiteko eskubiderik ematen gogoratu nahi dugu..
4. Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak giza eskubide, sexu joera eta genero identitatearen inguruko 17/19 (2011ko ekaina) eta 27/32 (2014ko iraila) irizpenak gogorarazi nahi ditugu ere. Horietan, "gure kezka larria azaldu nahi da beren sexu joera eta genero identitateagatik mundu osoko norbanakoek pairatzen dituzten indarkeria eta bereizkeria gertaeren inguruan".
5. Giza Eskubidetako Komisario Nils Muižnieks doktoreak esan zuen bezalaxe, adingabeek sexualitateari eta genero aniztasunari buruzko informazioa zehatza jasotzeko eskubidea dute. Jazarpenaren aurkako borroka berdintasun, genero eta sexualitateari buruzko heziketarekin osatu beharra dago²².
6. Ikerketa ezberdinek azaldu duten bezalaxe, LGTBI familietako adingabeek familia heterosexualetako adingabeen nota berdina lortzen dituzte eskolan, askatasun, berdintasun eta tolerantziaren baloreak defendatzen dituzten bitartean (Mellish et al 2014; Golombok 2000; Patterson 2005; González eta López 2005).

²⁰ FRA EU LGTBI ikerketa (2013ko maiatzean argitaratua) online egin zen, Europar Batasuneko kide diren 28 herrialdetan, 2012ko apirila eta uztaila bitartean. Ikerketak Europar Batasunean bizi, 18 urtetik gora dituzten eta bere burua gay, lesbiana, bisexual edo transgenerotzat duten 93.079 norbanako elkarriketatu zituen. (<http://fra.europa.eu/en/publication/2013/eu-lgbt-survey-european-union-lesbian-gay-bisexual-and-transgender-survey-results>)

²¹ Giza Eskubideen Europako Epaitegia, Vejdeland eta beste vs. Suedia, 2012ko otsailaren 9ko Epaia.

²² LGTBI adingabeen inguruko txostena: <http://www.coe.int/en/web/commissioner/-/lgbti-children-have-the-right-to-safety-and-equality> (2014ko urria); Nazio Batuetako Errelatore Bereziaren txostena hezkuntzarako eskubidearen inguruan, 2010eko uztailak 3, UN doc. A/65/162; Gizarte Eskubideen Europako Batzordea Interights vs. Kroazia, Kexa 45/2007, Merituen Inguruko Erabakia, 2009ko martxoak 30.



7. Jazarpen homofoboak denoi kezkatzen gaituen gaia izan beharko luke. Politikari eta agintek gizartearen aurrean dira erantzule; ondorioz, LGTBI gaiak ezagutzeko eta lantzeko betebeharra dute.
8. Marko juridiko zehatza onartu beharra dago aipatu eskubideak babesteko. Marko juridiko zehatzik ez duten herrialdetan, oinarritik hasi beharko dugu, LGTBI norbanakoak gizarte kide eginaz eta eskubide guztiak emanaz aipatuei. Sexu bereko gurasoak dituzten familiak onartu eta babestu eta tratamendu berdintasuna eta bereizkeria eza sustatzen dituzten legeak onartu behar ditugu; eta lege zehatzak behar ditugu hezkuntza arloan, curriculumean, eskola materialetan, jazarpenaren aurkako protokolo eta abarretan esku hartu ahal izateko. Baina legeak ez dira nahikoak. Funtsezkoa da ere politika eta zerbitzu publiko proaktiboak eratzea LGTBI adingabeen eta sexu bereko gurasoak dituzten familien benetako berdintasuna bermatzeko. Aipatu politikak beharrezkoak dira ere adingabeen aurkako indarkeriarekin bukatzeko, beren garapen eta segurtasuna bermatzeko eta beraien kontrako aurreiritzi eta estereotipoekin bukatzeko. Nabarmenezkoa da ere genero aniztasuna eta aniztasun emozionala eta familia mota guztiak onartzeko lana, eta LGTBI kolektiboaren fobiaren aurkako borroka ez direla eskolara mugatzen. Aisialdia edo kirol guneak, bideojokoak, telebista programak, webguneak eta gizarte-hedabideak funtsezkoak dira ere giza eskubideen errespetuaren baloreak hedatzeko.
9. Herrialde ezberdinetako agintari publikoek inplikazio maila ezberdina agertu dute RAINBOW HAS proiektuarekiko. Hezkuntza arloko agintariek lidergo argia azaldu eta hezkuntza planak, jazarpen homofobo eta transfoboaren aurkako protokoloak

eta LGTBI guraso eta ikasleentzako informazio eta arreta zerbitzuak gauzatu behar dituzte. Hezkuntza komunitateko maila guztiek (administrazio, zuzendaritza, guraso, irakasle, ikasle eta bulego eta zerbitzuetako langileak) inplikazio aktiboa eta eraginkorra agertu behar dute LGTBI adingabeen oinarrizko eskubideak babesteko.

10. Gehiegitan, eskola irakasleek ez dute informazio edo heziketa nahikorik LGTBI norbanakoen eskubideak proaktiboki defendatzeko. Aipatu heziketa unibertsitatean jaso beharko litzateke, irakasleek jarrera proaktiboa izan dezaten maila guztietan. Guraso eta irakasleen arteko komunikazioa eta elkarrekintza hauskorra da oso eta, ondorioz, ez ditu behar bezala babesten LGTBI adingabeen eta sexu bereko gurasoak dituzten familietako seme-alaben oinarrizko eskubideak babesten. Beharrezko baldintzak sortu behar dira LGTBI irakasleak armairutik atera daitezen, hala nahi izanez gero. Genero eta sexu aniztasuna ulertzeko, prebenitzeko eta irakasteko estrategiak irakasleentzako etengabeko heziketan sartzeari gomendatzen dugu. Irakasleak hezteak eskolako kultura alda dezake eta ingurugiro seguruko bat sortu. Ikasle propioak izan daitezke hezitzaile onenak, beste ikasle ikuspuntutik.
11. Gizartean gailentzen diren baloreek, mendetan izandako familia eta gizarte ordena zehatz baten ondorio direnak, aniztasun afektibo eta sexualaren eta genero identitate ezberdinen existentzia ukatzen dute oraindik. Eta, horrenbestez, sexu bereko gurasoak dituzten familiak sarritan izaten dira alboratuta gizartean. Beharrezkoa da aipatu baloreak aldatzea eta aniztasun afektibo eta sexuala onartzea. LGTBI adingabeek eta sexu bereko gurasoak dituzten familietako seme-alabek baldintza eta aukera berdinak izan behar dituzte eskola eta gizartean beren askatasuna, garapena, duintasuna, autoestimua eta segurtasuna berma daitezen eta ikusgai izan daitezen gizartean. Horretarako, aldaketa handia egin beharra dago gizarte baloretan eta familiaren inguruko diskurtsoetan, tradizioa eta garapenaren arteko bikoia saihesten den bitartean.
12. Funtsezkoa da aliantza eta lankidetzaren sareak sortzea LGTBI kolektiboaren alde. Aipatuek ondorengo eragileak hartuko dituzte: guraso elkarteak, LGTBI adingabeen guraso elkarteak, sexu bakarreko familien elkarteak, LGTBI elkarteak, giza eskubideen aldeko elkarteak (adingabeen eskubideen alde lan egiten dutenak bereziki), irakasle elkarteak, arartekoak, agintari publikoak eta unibertsitateko eta aholkularitza enpresetako adituak. Guraso elkarteak LGTBI eskubideak sustatzeko eta defendatzeko erakunde gisa ahaldu beharra dago.
13. Europako Batzordeko Giza Eskubidetako Komisarioaren hitzetan, "LGTBI adingabeek beren partaidetza eskubideak bizitzako arlo guztietan gauzatzeko gai izan behar dute. Informazioa jasotzeko aukera oinarrizko baldintza da partaidetza eta erabakiak hartzeko prozesua ahalbidetzeko. Aldi berean, LGTBI adingabeak babestu behar ditugu etxean, eskoletan, Interneten, kirol jardueretan eta espazio publikoetan eman daitezkeen indarkeria eta jazarpenaren aurrean. Adingabeak babesteko zerbitzuek, arartekoek eta polizia esfortzu berezia egin behar dute LGTBI adingabeen eskubideak beren jardueren barruan sartzeko. Gobernuek ekintza sistematikoak abiarazi behar dituzte LGTBI adingabeen segurtasuna eta berdintasuna babesteko"²³.

²³ LGTBI adingabeen inguruko txostena (2014ko urria).

AZKEN KONFERENTZIA

Roberta Metsola parlamentari europarrak, Europako Parlamentuko LGTBI taldearen izenean, azken konferentzia ireki zuen giza eskubideak orokorrean errespetatzeak duen garrantziaren inguruko hitzaldiarekin. Lunacek txostena aipatu zuen homofobiak Europar Batasunean bizi duen egoera aztertzeko orduan aintzat hartu beharreko erreferentzia gisa. Txostenak nabarmentzen duenez, heziketa funtsezkoa da homofobia eskoleetatik ateratzeko eta horren inguruko jardute onak partekatu ahal izateko. Txostenaren arabera, LGTBI kolektiboaren aurkako bereizkeria onartezina da eta bere aurkako neurriak hartu behar dira. Amaitzeko, RAINBOW proiektuarekin lan egiteko bere konpromiso eta gogo pertsonala adierazi zuen. Parlamentari europarraren presentziaz baliatuz, bertaratu batzuek LGTBI pertsonen arteko ezkontza zibila onartzen duen legedirik ez duten Europar Batasuneko herrialdeetan LGTBI familiak dituzten arazoengatik inguruko kezka azaldu zuten; izan ere, familia horien mugimendu askatasuna erabat murriztua baitago. Hitzaldia eta eztabaida txiki bat eta gero, NELFAko ordezkari Katy Pallásek hartu zuen hitza, familia elkartearen Europa mailako sarea bilakatzeko prozesuan bizi dutena partekatuz.

Ondoren, Nazioarteko Mintegian aipaturiko bi jardute on aztertu ziren. Horretarako bi bideo labur ikusi ziren. Erresuma Batuko Comberton College Academy eta Voyager School eskoletan grabatuak, jazarpena pairatu duten adingabeei eginiko elkarrizketak azaltzen dituzte.

Azkenik, mahai-inguru bat egin zen, bertaratu hiru adituk hartu zutelarik hitza. ILGA Europe-ko Sophie Aujeanek gizarte eragile guztiak jazarpenaren aurkako politiken garapenean inplikatzeko duen garrantzia nabarmendu zuen, Europako Kontseiluko 2010. urteko gomendioa aipatuz, funtsezko erreminta gisa LGTBI kolektiboaren aurkako bereizkeriarekin bukatzeko. Ondoren, Trentoko Unibertsitateko Alexander Schuster irakasleak LGTBI adingabeentzako ingurugirorik hoberena sortzeko duen garrantzia aipatu zuen, beste adingabeak bezala hazi daitezela. Halaber, adingabeen eta beren senideen arteko harremana azpimarratu zuen eta norbanakoen eskubideak babesteaz gain, aipatu norbanakoek osatzen dituzten familien eskubideak babesteko beharra aldarrikatu zuen. Azkenik, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Ignacio Pichardok hitz egin zuen. Ikertzaile gisa izan duen esperientzia azaldu eta toki ezberdinetan gauzaturiko jardute onak azalarazteak duen garrantzia aipatu zuen; eta horretarako, gaineratu zuen, aginte publikoen partaidetza halaberrezkoa da.

Eztabaida sortu zen ondoren eta nazioarteko mintegian eta azken konferentzian aipaturiko gaiak aztertu ziren: jazarpen homofoboaren izaera, lankidetzaren arazoak Europa mailako eta tokiko elkarteak batu nahi direnean (legedi ezberdinen existentziaren ondorioz) eta aipatu lankidetzaren lanak dituen abantaila eta aukerak.





BIBLIOGRAFIA

SARRERA²⁴

189

Atal honetan testu eta euskarri ezberdinen selekzio bat aurkezten da: ikerketak, azterlan akademikoak, estatistikak, barreiapen materialak, prentsa artikulua, webgunean, planak, jardute onak, gomendioak eta aniztasun afektibo eta sexuala eta genero identitatea lantzen dituzten baliabide interesgarri eta garrantzitsuak; eta ondoren aipaturiko herrialdeetan jazarpen homofoboari aurre egiteko estrategiak: Bulgaria, Espainia, Italia, Erresuma Batua eta Polonia.

LGTBI norbanakoek bizitzen dituzten eguneroko egoerak eta familiek aniztasun afektibo sexualari eta transexualitateari aurre egiteko duten modua asko aldatzen da herrialde batetik bestera eta herrialde bakoitzean bilduriko dokumentuen kopurua eta ezaugarriak baldintzatzen ditu. Ondorioz, bibliografia guztia lau atal ezberdinetan egituratu bada ere, herrialde bakoitzak aukeratu dituen testuen izaera oso ezberdina da.

Ez zen erraza izan eskola komunitatean familia eredu ezberdinen partaidetza edo familia eta irakasleen arteko lankidetzak lantzen dituzten erreferentzia bibliografikoak aurkitzea. Ikerketa gutxi egoteak irakasle eta familien arteko harremanen izaera hauskorra berresten du, RAINBOW eta RAINBOW HAS proiektuetan landuriko gaien mesederako beharrezkoa litzatekeen harreman sendo horretatik urrun.

²⁴ Hemen [link-a](#), erabilitako material guztietara bideratzen.

B U L G A R I A

Familiaren baitako eta hezkuntza sistemako krisiek beren azalpen logiko eta objektiboa dute, egungo Bulgariako egoera politiko, ekonomiko eta soziala aintzat hartzen badugu. Ezinbestekoa denez, aipatu krisiek eskola eta familiaren arteko elkarriketa baldintzatzen du. Aipatu elkarriketa adingabeak ikasgelan tentsioa sortzen duten arazoak irakasle edo gelakideekin dituen ematen da bakarrik.

Eskola arloko lege nagusiak, Hezkuntza Publikoko Legea, eta aipatua garatzen duten araudiek hiru funtzio zehatzera mugatzen du gurasoen inplikazioa eskolan: adingabeak haurtzaindegira eta eskolara eramateko betebeharrak; hezkuntza material osagarriak eskaintzeko iturri izatea; eta eskola batzordeko kide izateko aukera. Argi dago gurasoen partaidetzak ez duela lehentasunik.

Guraso eta irakaslearen arteko bilera dira komunikazio-modu arruntena, familia-eskola arteko elkarriketa bakarra sarritan. Aurrez aurreko bilera indibidualak oso gutxitan egiten dira.

Eta egiten direnean erreakzio azkarra behar duten egoera desatseginekin lotuta daude; inoiz ez adingabearen garapenarekin. Gurasoen partaidetza eskola jardura edo batzordetan oso mugatua egon da azken urteotan. Guraso gehienentzat, bilera bidezko komunikazioa nahikoa da eta ez dago bestelako harremanik izateko beharrik eskolarekin.

"Bulgariako eskola komunitatean gurasoek duten partaidetzari buruzko lkerketa".

lkerketa txostena

[-http://www.see-educoop.net/aeiq/parents/bulgaria%20report%20final.pdf](http://www.see-educoop.net/aeiq/parents/bulgaria%20report%20final.pdf)

Azken bi urteotan familia eta eskolaren arteko elkarriketa egonkortzeko interesak zertxobait gora egin du. Webgune bateko -news.bg- artikuluko batek: (http://news.ibox.bg/news/id_834270365), "Guraso eta Adituek elkarlanean familia eta eskolaren arteko elkarriketa areagotzeko" izenekoa, ondorengo gaiak landu ziren: guraso eta eskolaren arteko giza harreman hutsaren garrantzia; guraso-irakasle bileren izaera aldaketa; gurasoak jardura boluntarioetan inplikatze beharra. Zuzendariari gurasoei mezuak bidaltzeko aukera ematen dion "E-diary" deiturikoa aipatzen da, komunikazioa bideratzeko funtsezko erreminta gisa. Partaide guztiak bat datoz gako nagusia zehazterakoan: guzti honen muina adingabea da.

I T A L I A

BEPPATO G. (2010). Il libro di Tommi: manuale educativo e didattico su scuola e omigenitorialità. Milano: Ildito e la luna.

Guraso homosexual bat edo gehiago duten adingabeen kopuruak gora egin du Italian azken urteotan. Eskolak dira egoera hori bizi duten lehen erakundeak. Eskolek egoera aurre egiteko gaitasunik ez dutela azaltzen du liburuak. Une bitxiak eta errepikatzen diren jazoerak islatzen dituzten adingabe, guraso eta irakasleen esperientzia zuzenekin

hasten da. Xedea da gomendio erabilgarriak eskaintzea guraso eta irakasleen arteko komunikazioa hobetu eta guraso homosexualak dituzten adingabeen onarpena eskola komunitatean sustatzea.

MONTANO A., ANDRIOLA A. (2011). *Parlare di omosessualità a scuola: riflessioni e attività per la scuola secondaria*. Trento: Erickson.

Milaka familia daude Italian guraso bat gutxienez homosexuala dutenak eta milaka dira "ezberdin" etiketa jasotzearen zama egunero pairatzen duten adingabeak ere. Gauzak okerrago egiteko, erakundeek ez diote egoerari aurre egiten; horren ordez, isiltasuneko geruza jartzen dute arazoaren gainean. Irakasle eta gurasoek homosexualitatea beren ikasle eta seme-alabekin askatasunez landu dezaten, Beck Institutuko bi psikologok aniztasunari buruzko beren aholkularitza eskaintzen dute. Liburuko edukiak guraso, irakasle eta ikasleentzako atal ezberdinetan banatuta daude. Xedea da ikuspegi integratua aplikatzea, hau da, helduak adingabeen bidez heztea eta adingabeak aldiz helduen bidez heztea.

P O L O N I A

Polonian oso elkarriketa gutxi dago familia eta irakasleen artean. Aipatu elkarriketa eskola edo ikasgela bateko testuingurua baino orokorrago den testuinguru batean ematen da, formalki zein informalki. Ondorioz, ez dago beste testuingurutara heda daitekeen eta erakusgarritzat har daitekeen jarraibide edo jarduterik azterketak egin ahal izateko. Familia (guraso edo tutoreak) eta eskolaren arteko lankidetzaren eskolak bi hilean behin antolatzen dituen guraso-irakasle bileretan ematen da soilik. Aipatu bilerek eskolako (ikasgelako irakasle nagusiarena zehazki) informazioa jasotzeko aukera ematen diete gurasoei eta kontaktu txikia izateko aukera ere adingabearen irakasleekin. Ez dago datu publikorik aniztasun afektibo eta sexuala lantzea helburu duten guraso talde ezberdinen (edozein direla ere) eta eskola sistemaren arteko lankidetzaren informalean inguruan. Lankidetzaren jardura xumeak daude gizarte mailako elkarte eta eskola zehatzen artean, giza eskubideen inguruko heziketaren baitan, baina familiak ez daude inplikaturik.

E S P A Ñ I A

Euskal Herrian eta Espainian, familiaren partaidetza eskola arlo formalean nahiko baxua da eta horren inguruko dokumentazioa oso urria da.

HERNANDEZ PRADOS, MARÍA ÁNGELES ETA LÓPEZ LORCA, ORTENSIA. *Análisis del enfoque actual de la cooperación padres y escuela*. Aula Abierta 87 (2006)

Artikuluak Murtziako Erkidegoan eta, orokorrean, Espainian ematen den guraso eta irakasleen arteko lankidetzaren aztertzea du. Familiak eskolari dagokionean dituzten itxaropenak eta irakasleek familiak eskolan jokatu behar zuten paperaz dituzten pertzepzioak lantzen ditu. Halaber, Espainiako esku-hartze eredu ezberdinak aztertu

eta aholkularitza praktikoa eskaintzen du harreman osasuntsuak ezartzeko irakasle eta familien artean.

<http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2583872>

GURASO ELKARTEEN HEZKUNTZA-JARDUERA ONEN LEHIAKETA

EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak urtero antolatzen duen lehiaketa da. Guraso elkarteek hezkuntza arloko beren jardute onak aurkezten zituzten. Horien artean, familia, eskola, hezkuntza arloko eta gizarte mailako eragileen arteko lankidetzak nabarmentzen dira.

2013an bilduriko esperientzia guztiak:

<http://www.ehige.org/praktikaonak/orriak/esperientziak2013.html>

Elkarteen Hezkuntza-jarduera Onen 3. Lehiaketako (2013) liburuxka:

http://www.ehige.org/praktikaonak/dokumentuak/liburuxka_3_lehiaketa.pdf

E R R E S U M A B A T U A

Literatura eta jardute onak ikertzeko jarduerak ez zuen Erresuma Batuko eskoletan dagoen jazarpen homofobo edo transfoboa eta familia-eskola harremanaren papera zehazki aztertzen duen ikerketarik, politika ekimenik edo proiekturik aurkitu.

HOMOSEXUALITATE/TRANSEXUALITATEA FAMILIETAN

HOMOSEXUALITATE/TRANSEXUALITATEA FAMILIETAN

LGTBI norbanakoen eta beren eskubideen onarpen-mailak herrialde ezberdinetan agertzen dituen ezberdintasun handia aurkituriko literaturan errepikatzen da ere. Bulgariako eta Poloniako ikerketek LGTBI kolektiboaren eguneroko bizitza eta pairatzen dituen bereizkeria eta indarkeria aztertzen badituzte ere, Erresuma Batuan, Italian eta Espainian xedea izan ziren homosexualitatea familiaren baitan, familia ereduak eta sexu bereko gurasoak. Erresuma Batuan, zehazki, sexu bereko gurasoak dituzten familietan hazteak ez duela eragin negatiborik izan adingabearen ongizate sozial eta afektiboan edo bere identitatearen garapenean frogatzen duten ikerketa asko daude.

Azpimarratzekoa da ere LGTBI seme-alabak dituzten familientzako edo adingabeekin orokorrean erabiltzeko bilduma, gida eta barreiapen material gehiena biografikoa dela, hau da, LGTBI norbanakoak eta/edo beren familiak idatziak daudela.

B U L G A R I A

Deutsche Welle – <http://www.dw.de/>

“Homosexualen bizitza Bulgarian” artikulua

Artikuluaren arabera, Bulgariako homosexualak “ilunpean” bizi dira normalean, bere sexu joera aitortzen duenak bere familia, lagunak eta lana galtzeko arriskua baitauka. Aipatuek ez dute maniobra-aukera handirik. Bere sexu joera dela eta arazoak sufritzen dituzten gazteek beren bizitza esperientzia agertzen dute.

GamaNews.bg – <http://stalik.wordpress.com/>

Albiste webgune honek Bulgariako LGTBI komunitatea aztertu zuen.

LGTBI blogak, bere aldetik, Bulgariako eta nazioarteko LGTBI komunitateko berri ezberdinak eskaintzen ditu. Informazioa modulu ezberdinetan banatzen da: homosexualitate, psikologia eta biologia; LGTBI etika eta eskubideak; homofobia eta LGTBI familia eta lagunak. Sexu bereko ezkontzen inguruko galdera eta erantzunak azaltzen ditu ere:

- Zer da ezkontza?
- 10 zio ezkontza homosexualak gaitzesteko.
- LGTBI familien inguruko galdera eta erantzunak.
- Guraso homosexualak dituzten adingabeen garapena, familia heterosexualetako adingabeen garapenarekin alderatuta.
- Guraso homosexualekin lanean diharduten LGTBI norbanakoen seme-alabak.

<http://semeistvo.rozali.com/mama/p18271.html>

Webguneak iritzi ezberdinak eskaintzen ditu: “Bikote homosexualak adoptatzeko eskubidea izatea, bai ala ez?” Bikote homosexualek guraso onak izan daitekeen ala ez aztertzen du galderak. Iritzi arruntena da guraso homosexualak dituzten adingabeek beren ohitura eta bizimodua barneratzen dutela eta gurasoen arteko harremana normalizat eta naturalizat hartzen dutela. “Alde” daudenek diotenez norbanako guztiek dute zoriotsu izateko eskubidea eta adingabeak zoriotsunik handiena direla; ondorioz, zergatik zorion hori debekatu sexu joera ezberdina dutenei?

Webgune horretako artikulu batek: *“Guraso homosexualak: zer dakigu beraiei buruz?”*, Radoslav Stoyanovena, dio ez dagoela jakiterik guraso homosexualek beren adingabeak nola hezten dituzten, Bulgariako estatistika institutu nazionalak aipatu informazioa bere datu-basetik ezabatu baitu.

Zoritarrez, Bulgariako sexu bereko bikotetako adingabeak ilunpean bizi dira oraindik, estatistiketatik at, eta beste adingabeek dituzten eskubide berdinez gozatzeko aukerarik gabe. LGTBI guraso eta familiek legezko elkarerik ez izateak oinarrizko gauzak ezabatzen ditu beren adingabeen bizitzatik: esaterako, guraso batengandik jaraunsteko eskubidea aipatu gurasoa hiltzen bada. LGTBI norbanakoak desbideratuztat, anormalizat edo mentalki gaixotzat jotzen dituen informazio publiko zabalduak estigma mingarri handia suposatzen du beraientzat.

Bulgarian Helsinki Committee Batzordea

http://www.bghelsinki.org/media/uploads/annual_reports/annual_bhc_report_2013.pdf

Giza eskubideei buruzko azken txostenean, Bulgarian Helsinki Batzordeak dio LGTBI komunitateak besteek (beste zenbait gutxiengo barne) baino legezko tratamendu ahulagoa jasotzen duela. Txostenak, halaber, gaineratzen du 2013. urtean zehar erakunde publikoen eta LGTBI komunitatea eta bere GKEen arteko elkarrekintza oso urria eta formala izan zela.

I T A L I A

BORELLA, V. M. (2001). *Volti familiari vite nascoste: comprendere e accettare un figlio omosessuale: guida per i genitori*. Milano: Angeli.

Beren "aniztasunaz" kontziente egiten direnean adingabe homosexualak eta beren familiek partekatzen dituzten sentimendu ezkorak aztertzen ditu liburuak: kezka, beldurrak, errua, etab.

Ikerketa hori funtsezkoa da hartu beharreko jarrerak, izango dituzten erreakzio emozionalak eta horiei aurre egiteko moduak azaldu ahal izateko biei. Zehazki, gurasoek "armairutik ateratzeko prozesua" barneratu eta onartzeko eta "ezezagunari" dioten beldurrari gailentzeko informazio praktikoa aurkituko dituzte. Argitalpenak galdera garrantzitsuak eta beren erantzunak agertzen ditu, gorroto eta minari aurre egiteko aholku praktikokoak, beste gurasoen jarrera eta erreakzioen inguruko adibideak eta egoera ezkor eta zail horri bueltan eman eta ondorio positiboak ateratzeko moduak azaltzen ditu ere.

DALL'ORTO, G. (2012). *Mamma, papà: devo dirvi una cosa. Come vivere serenamente l'omosessualità*. Scritto da una madre e da suo figlio. Casale Monferrato: Sonda.

Ama bat eta bere seme homosexualaren artean idatziriko gida da. Adingabe homosexualak biziko dituen egoera ezberdinak jorratzen ditu: norberaren burua onartzea, familiaren onarpena, harremanak lagun eta gizarte mailan, armairutik ateratzea, lehen esperientzia erromantiko eta sexualak. Amaren eta semearen ikuspegiak eskaintzen ditu eta laguntza eta aholkuak eskaintzen dizkie adingabe homosexual zein gurasoei.

FERRARI, F. (2011). *Crescere in famiglie omogenitoriali: risultati scientifici e altri piani del dibattito*. *Terapia familiare*, 95, 73-86 orr., doi:10.3280/TF2011-095005.

Artikuluak sexu bereko gurasoen gaiaren azterketa kritikoa egiten du. Artikuluaren arabera fenomeno honi dagokionean, nahiko berriak denez Italiako gizartean eta eztabaida sortzen duenez oraindik, zaila da ikerketa ezberdinak bereiztea argudio zientifiko, ideologiko, erlijioso, teoriko eta klinikoak erabat nahastuta baitaude. Ikerketa zientifikoek, ordea, guraso homosexualak guraso heterosexualak bezain konpetente direla frogatu dute, eta baita sexu bereko gurasoak dituzten familietan hazitako adingabeek ez dutela inolako arazorik agertzen ere.

GUIDA, F., GUERRA, C. (2007). *Paternalità e maternità nelle coppie omosessuali: quando i genitori sono dello stesso sesso*. *Rivista di Sessuologia*, 31(1).

Ikerketaren xedea da amatasuna eta aitatasunaren arteko harremana zehaztea sexu bereko gurasoak dituzten familietan. Familia horien garapenean ematen diren osagai psikologiko eta soziokultural ezberdinak aurkezten ditu, eta aipatuek prozesu kognitiboengan, emozionalengan eta jarrerazko prozesuengan dituzten eraginak.

PARDI, F. (2011). *Piccola storia di una famiglia. Perché hai due mamme?* Milano: Lo Stampatello.

Haurrentzako liburua (sei urtetik gorako haurrentzat), bi emakumez osatutako familia bat hasteak eta haur batentzat bi ama izateak zer suposatzen duen lengoia sinple eta errazean azaltzen duena. Irakasleek gela barruan erabil dezakete ere, ezohiko familia ereduak azaltzeko.

PATERLINI, P. (1998). *Ragazzi che amano ragazzi*. Milano: Feltrinelli.

Liburuak Italia osoko 15-20 urteko adingabe homosexuali eginiko 15 elkarrizketa biltzen ditu. Elkarrizketatuek beren esperientzia azaltzen dute, homosexual direla nola jakin zuten eta etorkizunerako dituzten itxaropenak. Beste gazteei zuzendua badago ere, gurasoak eta irakasleak hartzaile potentzialak dira ere, beren egoera hobeto ezagut dezaten.

ROSSI MARCELLI, C. (2011). *Hello Daddy!: storie di due uomini, due culle e una famiglia felice*. Milano: Mondadori.

Guraso izan nahi zuen bikote homosexual baten benetako istorioa da. Italian adoptatzeko aukerarik ez zutenez, umetoki bat alokatu zuten munduko beste puntan. Estatu Batuetatik bueltatu zirenean beren alaba bizkiekin, gizartea beraiek uste zutena baino askoz irekiago zelaz ohartu ziren. Ironia askorekin, gai oso korapilatsu eta zaila aztertu eta eztabaidatzen dute eta ohiko familiak onartu beharreko familiak direla dioen ideiarekin bukatzen saiatzen dira.

P O L O N I A

LGTBI adingabeei eskainiko webgune hau "Guraso, ozen hitz egin ezazue!" gizarte kanpainaren baitan garatu zen. Kanpainaren eta "Inplikatu Gurasoen Akademia" proiektuaren informazioa eskaintzeaz gain, LGTBI liburu, filma eta gurasoek idatziriko istorioen zerrenda bat eskaintzen du.

www.odwazciesiemowic.pl

ABRAMOWICZ, M. (2007). *The Situation of Bisexual and Homosexual Persons in Polonia; 2005 and 2006 report*. Homofobiaren Aurkako Kanpaina eta Lambda Varsovia Elkarteak. Heterosexuala ez den Poloniako biztanleriaren egoerari buruzko txostena, LGTBI bi GKEren ikerketa kualitatibo eta kuantitatiboetan oinarrituta. Txostenak bizitzako arlo ezberdinetan (familian, eskolan edo lanean barne) pairatzen duten indarkeria fisiko eta psikikoa eta bereizkeria sakontasunez aztertzen ditu.

ABRAMOWICZ, MARTA, BIEDROŃ, ROBERT, KOCHANOWSKI, JACEK (erred.) (2009). *Queer studies – podręcznik kursu*. Varsovia: Kampania Przeciw Homofobii.

BIEDROŃ, ROBERT (2007). *Tęczywoy elementarz, czyli (prawie) wszystko, co chcielibyście wiedzieć o gejach i lesbijkach*. Varsovia: Wydawnictwo AdPublik.

LGTBI norbanakoak zeintzuk diren eta zergatik izan nahi diren onartuak azaltzen duen lehenetako kalitatezko liburu bat, lehena ez bada. Liburuak oinarritzko galdera eta

erantzunetan egituratuta dago eta Poloniako LGBTI komunitatearen heziketa, bizitza pribatua eta familia bizitza aztertzen ditu, besteak beste.

BOJARSKA-NOWACZYK, KATARZYNA (2005). Psychospołeczne korelaty homofobii. Rozprawa doktorska. Gdańsk: Biblioteka Chemiczna Uniwersytetu Gdańskiego.

Psikologiako doktorego-tesia, homofobiaren korrelatu psikosozialen inguruan. Tesia Poloniako LGBTI kolektiboaren baitan eginiko ikerketa enpirikoan oinarritzen da.

DYNARSKI, WIKTOR (2012). Wszyscy jesteśmy hetero. Homonormatywności lęk przed transpłciowością; in: Anna Kłonkowska (red.), Transpłciowość – Androgynia. Studia o przekraczaniu płci. Wydawnictwo Uniwersytetu Gdańskiego.

Artikuluak homosexualitatearen baloreak agertzen ditu, transgenero identitateak baztertzeko faktorea den heterosexualitatearekin alderatuta. Analisisian, egileak LGBTI mugimenduak proposaturiko ezkontza berdintasunerako estrategiak aztertzen ditu.

INIEWICZ, GRZEGORZ, GRABSKI, BARTOSZ, MIJAS, MAGDALENA (2012a). Zdrowie psychiczne osób homoseksualnych i biseksualnych – przegląd badań i prezentacja zjawiska. „Psychiatria Polska”, tom XLVI, nr 4.

Psikiatria aldizkari batean argitaraturiko artikulu honek LGBTI norbanakoen osasun mentala eta ongizatea aztertzen ditu. Herrialde ezberdinetako azterketa eta ondorioak aurkezten ditu, azalpen teorikoez lagunduta, eta baita LGBTI ongizatean eragiten duten faktoreak ere.

KONARZEWSKA, MARTA, PACEWICZ, PIOTR (2010). Zakazane miłości. Seksualność i inne tabu. Wydawnictwo Krytyki Politycznej.

Liburuak ezohiko sexu identitate eta esperientziak dituzten norbanakoak elkarrizketatu ditu eta Poloniako LGBTI komunitateko bizitza eta esperientziak islatzen ditu.

LASZUK, ANNA (2006). Dziewczyny, wyjdźcie z szafy!. Varsovia: Fundacja Lorga.

Poloniako lesbianen lehen erretratu honek ez du gaurkotasanik galdu. Egileak, Poloniako kazetari ospetsua, Polonia osoko emakumezko lesbianak elkarrizketatu eta bere istorioak, borrokak, erronkak eta une zoriontsuak idatzi zituen. Horrela, adin, jatorri eta bizileku ezberdineko emakume homosexualen eguneroko bizitzaren erretratu fidagarri bat osatu du.

MAKUCHOWSKA, MIROŚLAWA, PAWŁĘGA MICHAŁ (erred.), (2012). Sytuacja społeczna osób LGBTI Raport za lata 2010 i 2011, Varsovia: Kampania Przeciw Homofobii, Lambda Warszawa & Fundacja Transfuzja.

Poloniako LGBTI komunitatearen inguruko txosten hau gure herrialdeko bi LGBTI GKEren ardurapean eginiko ikerketa kualitatibo eta kuantitatiboan oinarritu zen. Egun arte egin den ikerketa proiektu zabal eta osatuenak Poloniako LGBTI kolektiboko kide ziren 11.000 norbanako elkarrizketatu zituen. Txostenak bizitzako arlo ezberdinetan (familia, eskola eta lana barne) pairatu dituzten indarkeria psikologiko eta fisikoa eta bereizkeria sakontasunez aztertzen ditu. Era berean, biztanleria orokorrearekin alderatuz LGBTI kolektiboak agertzen duen osasun mentala eta ongizatearen inguruko informazioa eskaintzen du txostenak.

E S P A Ñ A

Espainiako familiek homosexualitatea eta transexualitatearen inguruan dituzten pertzepzioei buruzko bibliografia urria bada ere, erakunde publikoak eta LGTBI elkarteak bat datoz familia onarpeneko gune segurua izan behar dutela aldarrikatzerakoan. Ondorioz, oztopoak eta arazoak gainditzeko eta familiei beren seme-alaben aniztasun afektibo eta sexualari buruzko aholkuak eskaintzen dituzten liburu ezberdinak daude.

BARRIOS FLORES, ALBERTO (2012): Study and analysis of the social perception of same sex parent families and their presence in the Spanish written press.

Liburuak Espainiako gizarteak sexu bereko gurasoak dituzten familiei eta familia horiek adingabeak hezteko duten gaitasunari buruz dituen iritzia aurkeztu nahi du. Ikerketak bigarren mailako iturriak erabiltzen ditu.

DEL MAR GONZALEZ, MARÍA (2002). Child and adolescent development in same sex parent families. Atariko txostena. Sevillako Unibertsitatea, Psikologia Ebolutibo eta Hezkuntza Psikologia Saila.

Sexu bereko gurasoak dituzten familiek beren guraso rola gizarte ingurunean nola gauzatzen dituzten aztertzen du, eta baita adingabeen garapen eta bilakaera psikologikoa.

PICHARDO GALÁN (2009): (Homo)sexualidad y familias: cambios y continuidades al inicio del tercer milenio. Política y sociedad, 46. bol., 1 eta 2 zenbakiak: 143-160.

Talde presio, diskurtso eta harreman homosexualak dituzten norbanakoen aldarrikapenei esker familia kontzeptuak Espainian izan duen aldaketa aztertzen du.

198

Heziketa eta hezkuntza materiala:

AMPGYL - Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Guraso Elkartearen Gida
<http://www.ampgyl.org/mm/file/web/guiapadres.pdf>

Adingabe transexualak dituzten familien Chrysallis elkartearen webgunea.
<http://chrysallis.org/es/>

E R R E S U M A B A T U A

Adopzio eta abegia

Erresuma Batuko gizarte jarduteari eta unibertsitate irakasle aktibisten inplikazioari esker asko aurreratu da gay eta lesbianen adoptatzeko eta abegi emateko eskubidearen kontzeptualizazioan, aplikazio praktikoan eta gaiarekiko sentsibilizazioan. Horrenbestez, goian aipatu ikerketa eta gomendioek Erresuma Batuko gizarte zerbitzuetan indarrean dagoen familia eredua aldatzen lagundu dute. Ondorengoak funtsezko liburu eta artikulatuak dira.

- BROWN, H.C (2011) Abegi Eman nahi duten Guraso Gay eta Lesbianen Ebaluazioa: Hogei Urteko Lana eta gero, Zer Aldatu da? In Dunk-West P and Hafford-Letchfield P (ed.) *Sexual Identities and Sexualities in Social Work: Research and Reflections from Women in the Field*. Farnham: Ashgate.
- BROWN, H. C. ETA COCKER, C. (2008) 'Lesbian and Gay Fostering and Adoption: Out of the Closet and into the Mainstream?', *Adoption and Fostering*, 32 (4), 19-30 orr.
- COCKER, C. (2011) 'Sexuality before Ability? The Assessment of Lesbians as Adopters', in Dunk-West P and Hafford-Letchfield P (ed.) *Sexual Identities and Sexualities in Social Work: Research and Reflections from Women in the Field*. Farnham: Ashgate.
- COCKER, C. ETA BROWN, H C. (2010) 'Sex, Sexuality and Relationships: Developing Confidence and discernment when assessing lesbian and gay prospective adopters' *Adoption and Fostering* 34 (1), 20-32 orr.
- HICKS, S. (2000) ' "Good Lesbian, Bad Lesbian...": Regulating heterosexuality in Fostering and Adoption Assessments', *Child & Family Social Work*, 5 (2), 157-168 orr. Artikuluak adoptatzea eta abegi ematea eskatzen duten lesbianen ebaluazioa aztertzen du; horretarako, tokiko gizarte zerbitzuetako langileri eginiko 30 elkarrizketa erabili ditu. "Mehatxua", "militante" edo "automatikoki segurua", ebaluazioetan erabilitako lesbianen definizioak dira; horrenbestez, nabaria da aurreiritzi ugari dagoela, gizarte langileen artean, lesbianein dagokienean. Eta lesbiana bertsio zehatz batekin bat doazen lesbianak bakarrik baimenduko direla azaltzen du egileak; hau da, "lesbiana ona" deituriko horiek.
- HICKS, S. ETA McDERMOTT, J. (ed.) (1999) *Lesbian and Gay Fostering and Adoption: Extraordinary yet Ordinary* London, Jessica Kingsley.
Adingabeen zaintza duten gay eta lesbianen inguruko eztabaida publikoak aurkezten ditu liburuak, suspertzen badago ere berria ez den fenomeno gisa.

Guraso gay eta lesbianak / Familia gay eta lesbianak

Familia gay edo lesbianetan edo guraso gay edo lesbianekin hazitako adingabeen osasun mentala eta ongizatea zalantzan jartzen zituen literaturari aurre egiteko, irakasle eta aktibista ezberdinek beren ikerketa eta azterketak egin dituzte eskubide zibilen, psikologiaren, psikiatriaren eta gizarte zerbitzuen ikuspuntutik. Zerrenda honek guraso eta familia gay eta lesbianen inguruko liburu eta artikulu adierazgarrienak aurkezten ditu.

- GOLOMBOK, S., PERRY, B., BURSTON, A., MURRAY, C., MOONEY-SOMERS, J. STEVENS, M. ETA GOLDING, J. (2003) 'Children with Lesbian Parents: A Community Study', *Developmental Psychology*, 39, 20-33 orr.
Ikerketak guraso eta seme-alaben arteko harremanak eta garapen sozio-emozional eta genero garapena aztertzen ditu, guraso lesbianak dituzten 7 urteko adingabe ezberdinen kasuez baliatuz. Bere ondorioak aurreko ikerketetan ateratako ondorioak

berresten dituzte: guraso eta adingabearen arteko harremana oso positiboa da eta adingabeek garapen maila aproposa agertzen dute.

GUASP, A. (2010) *Different families: The experiences of children with lesbian and gay parents*. Londres, Stonewall.

Cambridge Unibertsitateko Familia Ikerketarako Zentroak elkarrizketak egin zituen Stonewallen izenean. Guztira, guraso gay, lesbiana edo bisexualak dituzten 82 haur eta gazte elkarrizketatu ziren, etxean zein eskolan dituzten esperientziak ezagutzeko. Ikerketaren arabera, guraso homosexualak dituzten adingabeek gustuko dute guraso homosexualak izatea eta ez lukete ezer aldatuko, nahiz eta onarpen orokorragoa aldarrikatzen duten besteengandik.

HICKS, S. (2011) *Lesbian, Gay and Queer Parenting: Families, Intimacies, Genealogies*. Basingstoke, Palgrave.

Guraso gay eta lesbianen (adoptatu edo abegi eman dutenak bereziki, baina ez horiei mugatua) inguruan ikerketa berri batean oinarritua, liburuak guraso gay eta lesbianek beren egunerokotasunean dituzten arazoak aztertzen ditu.

MELLISH, L., JENNINGS, S., TASKER, F., LAMB, M., GOLOMBOK, S., (2013) *Gay, Lesbian and Heterosexual Adoptive Families*. London, British Association for Adoption and Fostering.

Ikerketa sakon honek adoptatu duten 130 familia gay eta lesbianen esperientziak aztertu zituen, arreta berezia eskainiz familia arteko harremanei, gurasoen ongizateari eta hasierarik hoberena izan ez zuten adingabe horien garapenari. Guraso homosexualak dituzten adopzio familiak emaitza oso positiboak agertzen dituztela ondorioztatu zuen, depresio sintomak oso baxuak baitziren, eta gizarte elkarrekintza altua.

Tasker, F. (2005) 'Lesbian Mothers, Gay Fathers and their Children: A Review', *Journal of Developmental & Behavioral Pediatrics*, 26, 224-240 orr.

WEEKS, J., HEAPHY, B., DONOVAN, C. (2001) *Same Sex Intimacies: Families of Choice and other Life Experiments* Londres, Routledge.

Weeksek eta lankideek 96 elkarrizketa sakon egin zituzten gay eta lesbianekin, beren familia eta gizarte harremanak aztertzeko. "Hautu" hitza asmatu zuen asimilazio eta ezberdintasun ezaugarriak dituen beren narratiba zehazteko. Aipatu asimilazioa Erresuma Batuko legedian onartua dago, non herritartasun berdintasunak eskubide eta erantzukizunak dakartzan.

ANIZTASUN AFEKTIBO ETA SEXUALA ETA JAZARPENA ESKOLETAN

201

Aniztasun afektibo eta sexuala eta transexualitatea eskoletan lantzeko estrategien eta gai horien inguruan irakasleek eta ikasleek dituzten pertzepzioen inguruko ikerketek jazarpen homofoboaren gailentasun eta ezaugarriak, aipatuari aurre egiteko erreminta eta estrategiak eta biktimengan dituen ondorioak azpimarratzen dituzte.

Era berean, homosexualitatea eta sexu bereko gurasoak dituzten familien inguruko barreiapen materiala, gaiari eskolan aurre egiteko estrategia eta materialak, bereizkeriaren aurkako politika eta baliagarriak izan daitezkeen jardute onak aurkezten dira.

B U L G A R I A

ILGA-Europe elkarteko Ikerketa

2012ko ikerketaren arabera, "Bulgaria hiru lehenen artean dago eskola barruko tolerantzia ezari dagokionean – Elkarrizketatuen % 96a joera homosexualeko norbanakoen kontrako iruzkin ezkorak entzun edo jazarpenaren lekuko izan da. LGTBI norbanakoen %71tik gorak dio bere sexu joera ezkutatu behar izan zuela eskolan.

It takes all kinds (<http://www.teachers.ittakesallkinds.eu/bg>) ikasle webgune bat da. "Schools for everybody" (Guztontzako Eskolak) proiektua Europako 10 herrialde hartzen dituen nazioarteko lankidetzaren sare bat da. Xedea du bereizkeria, homofobia eta transfobiarekin bukatzea Europako eskoletan. "School for everybody" proiektuko

hartaileak hiru talde nagusi dira: LGTBI GKE eta inplikatu gizarte zibileko erakundeak; irakasle eta eskola zuzendariak eta bigarren hezkuntzako ikasleak. Proiektuaren xedea da giza eskubideak, tratamendu berdintasuna, sexu eta genero aniztasuna, inklusio eta bereizkeriaren aurkako borroka bezalako kontzeptuak irakasle eta ikasleen hiztegian sartzea, bereizkeriaren aurkako borrokan, tratamendu berdintasuna eta LGTBI kolektiboaren eskubideekin inplika daitezen.

Webguneak irakasleentzako eskuliburu bat eskaintzen du ere.

Halaber, homofobia, transfobia eta sexu joera eta genero identitateagatiko bereizkeria identifikatu eta borrokatzeko materialak jartzen ditu eskola zuzendarien esku.

Ikasleentzako atalean, hiru bideojoko eta giza eskubideen eta tratamendu berdintasunaren aldeko bi galdera aurkitu genituen (genero eta sexu aniztasunaren inguruan, zehazki).

I T A L I A

BATINI F., SANTONI B. (2008). L'identità sessuale a scuola: educare alla diversità e prevenire l'omofobia. Naples: Liguori.

202

Genero identitate eta sexu joera ezberdina izateak zer dakarren aztertzen du bolumenak. Hiru lehen kapituluetan trans/homosexualitatea eta trans/homofobia aurkezten ditu, beren jatorri sozial, kultural eta historikoei lotuta. Bigarren zatiak nerabegaroko sexu joera ezberdinak nabarmentzen ditu eta eskolan aniztasunean hezteko eta jazarpen homofoboaren prebenitzeko erremintak eskaintzen ditu.

SACCÀ, F., MARTELLI, M., GUARNIERI, A., COPPOLA, M. (2010). Zaino in spalla: manuale per operatrici e operatori sui sistemi dell'educazione alle differenze e al bullismo omofobico a scuola. Online eskuragarri.

Baliabide hau jazarpen homofoboaren gaia landu nahi duen eskola langile ororen esku dago. Bigarren hezkuntzako eskolentzat egina, aurreiritziarekin bukatu eta ezberdin direnen eskubideak sustatu nahi ditu.

P O L O N I A

Lekcjardownosci.pl

Eskolan LGTBI gaiak landu eta homofobia prebenitu eta borrokatu nahi duten irakasleentzako webgune bat da. Webguneak argitaratu liburu ospetsu (*Lekcja Równości. Materiały dla nauczycieli i nauczycielek jak rozmawiać o orientacji seksualnej w szkole i wspierać młodzież*) baten kapituluak, bestelako artikulak, lotura eta LGTBI gazteek idatziriko istorioak eskaintzen ditu.

- ABRAMOWICZ, M. (2011). Great Absent – on anti-discriminatory education in informal education system of Polonia. Association for Antidiscrimination Education.
Ikerketa kualitatibo eta kuantitatibo batean oinarrituriko txostena, Poloniako eskolek beren curriculumean dituzten estrategien inguruan. Ikerketak bereizkeriaren aurkako hezkuntza estrategiak hezkuntza sistema formalean sartzeko beharra nabarmentzen du. Egileek bere ondorioetan diotenez, ez dago LGTBI heziketarik irakasle zein ikasleentzat.
- MAKUCHOWSKA, MIROŚŁAWA (erred.), (2011). Przemoc motywowana homofobią, Varsovia: Kampania Przeciw Homofobii.
Homofobia jatorri duen indarkeriaren inguruko txostena; eskola barruko indarkeria fisiko eta psikologikoko gertaera ugari islatzen ditu, biktima eta jazartzailea adingabeak direlarik. Txostenaren xedea eskola ez bada ere, txostenaren arabera indarkeria homofobia oso zabalduta dago eskolan eta oso gutxitan egiten zaio aurre.
- REMIN, KATARZYNA (2009). Zasady Yogyakarty. Zasady stosowania międzynarodowego prawa praw człowieka w stosunku do orientacji seksualnej oraz tożsamości płciowej. Kampania Przeciw Homofobii: Varsovia.
- ŚWIERSZCZ, JAN (red.) (2012). Lekcja Równości. Postawy i potrzeby kadry szkolnej i młodzieży wobec homofobii w szkole. Warszawa: Kampania Przeciw Homofobii.
Ikerketak eskola barruko jazarpen homofobia aztertzen du, eta irakasle eta ikasleek aipatuari aurre egiteko hartu dituzten neurriak ere. Lehen zatiak eskola langileen –irakasleak nagusiki– erreakzioak aztertzen ditu; bigarrenak LGTBI adingabeenak. Txostena osatzeko, hezitzaile ezberdinen iruzkin eta analisiak ageri dira amaieran.
- ŚWIERSZCZ, JAN (erred.) (2013). Lekcja Równości. Materiały dla nauczycieli i nauczycielek jak rozmawiać o orientacji seksualnej w szkole i wspierać młodzież. Varsovia: Kampania Przeciw Homofobii.
Beren eskolan LGTBI gaiak landu eta homofobia prebenitu nahi duten irakasleentzako jarraibide eta erremintak eskaintzen dituen aurreko txostenaren jarraipena da. Eskuliburuak oinarrizko informazioa eskaintzen du LGTBI gaien inguruan: definizioak, homofobiari loturiko prozesuen deskribapenak, iruzkin homofoboien aurka erreakzionatzeko eta LGTBI gazteak babesteko aholkuak.
- LOEWE, AGATA (red.), (2010). Raport o homo-, biseksualności i transpłciowości w polskich podręcznikach akademickich, Varsovia: Kampania Przeciw Homofobii.
Gizarte zientzietako liburuek homosexualitatea, bisexualitatea eta transgenerotasuna nola deskribatzen dituzten ikertzen du txostenak. Txostenak Poloniako unibertsitatetako ikasleek ez dutela LGTBI gaien inguruko ezagutza eguneratu eta profesionalik jasotzen eta irakasleek erabiltzen duten eskola materiala estereotipoz bete eta zuzendu beharra dagoela ondorioztatu du.

E S P A Ñ A

Ikasgela barruko homofobia eta jazarpen homofoboa aztertzen dituzten ikerketa eta txostenen kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan. Aniztasun afektibo eta sexualari buruzko heziketa material ezberdinak garatu dira irakasleentzat.

MARTXUETA PEREZ, AITOR (2012), "Claves para atender la diversidad afectivo-sexual en el contexto educativo". EHUko doktorego-tesia.

Doktorego-tesi honek heterosexualak ez diren norbanakoek beren joera afektibo eta sexualagatik eskolan pairatzen duten bereizkeria aztertzen du.

FELGTBI/COGAM (2012) "Acoso escolar homofóbico y riesgo de suicidio en adolescentes y jóvenes LGB".

Ikerketak jazarpen homofoboa, etsipena eta buruaz beste egiteko arriskua lotzen ditu.

<http://www.felGTBI.org/temas/jovenes/noticias/i/2573/290/denunciamos-el-riesgo-de-suicidio-que-sufren-las-victimas-de-acoso-escolar-homofobico>

FELGTBI "Acoso escolar y riesgo de suicidio por orientación sexual e identidad de género: Fracaso del sistema educativo".

Aurreko ikerketan eta aniztasun afektibo eta sexuala hezkuntza eta egungo legedian aztertzen duten antzeko bestetan oinarrituta, argitalpen honek irizpen, ondorio eta arartekoarentzako eskaerak hartzen ditu ere..

<http://www.felGTBI.org/temas/educacion/documentacion/investigaciones/i/3363/449/acoso-escolar-y-riesgo-de-suicidio-por-orientacion-sexual-e-identidad-de-genero-fracaso-del-sistema-educativo>

GEHITU (2012): Opiniones de nuestro alumnado sobre la diversidad afectivo sexual. 2011-2012 ikasturtea.

Lan honek Gipuzkoako Bigarren Hezkuntzako ikasleek aniztasun afektibo eta sexualaren aurrean agertzen duten jarrera aztertzen du.

PICHARDO GALÁN, J. I. (2009): Adolescentes ante la diversidad sexual: Homofobia en los centros educativos. Catarata. Madril.

Eskolak heterosexualak ez direnentzat toki arriskutsua bilakatzen dituzten osagaiak aztertzen ditu argitalpenak, eta baita aipatu norbanakoek pairatzen dituzten eraginak ere. Jarraibide eta gomendio zehatzak eskaintzen ditu ere hezkuntza komunitatearentzat.

GENERELO LANASPA, J. ETA PICHARDO GALÁN, J. (2004), "Homofobia en el sistema educativo."

Ikasleek homosexualari buruz dituzten pertzepzioak, LGTBI ikasleek pairatzen duten jazarpena eta hezkuntza komunitateak homofobiari ematen dion erantzuna ikertzen ditu argitalpenak, diziplina anitzeko ikuspuntu batetik.

http://www.cogam.org/_cogam/archivos/1437_es_Homofobia%20en%20el%20Sistema%20Educativo%202005.pdf

PICHARDO GALÁN, J. I., "Diversidad familiar, homoparentalidad y educación".

Espainiako hezkuntza sisteman sexu bereko gurasoak dituzten familien ikusezintasuna aztertzen du ikerketak eta ikasgelan homofobiaren aurkako eta familia aniztasuna sustatzeko estrategien beharra azpimarratzen du.

http://www.academia.edu/2247278/Diversidad_familiar_homoparentalidad_y_educacion

ANIZTASUN ETA ELKARREKINTZA HARMONIATSUA ESKOLETAN

Ondorengo bi bideoek eskoletako aniztasun eta elkarrekintza harmoniatsuen inguruan eginko ikerketen emaitzak laburbiltzen dituzte. Hezkuntzan aniztasun sexuala lantzeko eta LGTBI ikasleen eta sexu bereko gurasoak dituzten familien presentzia bermatzeko esperientzia eta jardute onak aurkezten dituzte ere.

<https://www.youtube.com/watch?v=0dtbHwS94C0>

https://www.youtube.com/watch?v=mPxo-_cRtgg&src_vid=0dtbHwS94C0&feature=iv&annotation_id=annotation_785353507

Heziketa eta hezkuntza materiala:

SEXU-MUSU. SEXU HEZIKETA HEZKUNTZA SISTEMAN SARTZEKO PROGRAMA

Bigarren hezkuntzako ikasleentzat diseinatu eta teknologia berrietan oinarritu web plataforma bat da. Ondorengo baliabideak eskaintzen ditu, zerrendaturiko taldeentzat:

Likasleentzat: heziketa afektibo sexualean sakontzeko online joko bat. Lan egiteko materialak eskaintzen dizkie ere.

Gurasoentzat: Beren seme-alaben sexu heziketari buruzko baliabide erabilgarriak, gehi heziketa materiala eta bibliografia.

Irakasleentzat: sexu heziketa curriculumean sartzeko baliabideak (irakaslearen gida, Euskal Herriko nerabeen jarrera sexualari buruzko txostena, prestakuntza materialak, etab.).

<http://www.uhinbare.com/index.php/es/>

GUÍA TRANS PARA JÓVENES Y... AGENTES EDUCATIVOS.

(TRANS GIDA GAZTE ETA... HEZITZAILEENTZAT)

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/GUIATRANScast.pdf>

PONER FIN A LA VIOLENCIA. GUÍA PARA DOCENTES.

(INDARKERIAREKIN AMAITZEA. IRAKASLEAREN GIDA)

<http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001841/184162s.pdf>

E R R E S U M A B A T U A

Ikerketak

ADAMS, N., COX, T., DUNSTAN, L. (2004) 'I Am the Hate that Dare Not Speak its Name': Dealing with homophobia in secondary schools' *Educational Psychology in Practice*, 20 (3), 259-269 orr.

Bigarren hezkuntzako 19 eskolako politika formaletan eta curriculumean sarturiko jazarpen homofoboarekin eta sexualitatearekin loturiko gai ei aurre egiteko estrategien eraginkortasuna aztertu zuen ikerketak. Eskala txikiko ikerketa honen emaitzen arabera, sexu joera berdintasuna bermatzeko politika gehienetan agertzen bada ere, ez du leku berezirik jazarpenaren aurkako politiketan.

AIDEN, HS, MARSTON, K & PERRY, T (2013) *Homophobic bullying: how well do we understand the problem?* Londres: Educational Action Challenging Homophobia (EACH).

Ikerketak unibertsitate arloko, komunitate mailako eta erakundetako azken literaturaren kritika sakona eskaintzen du. Jazarpen homofoboari dagokionean "ziurtzat" jotzen diren zenbait pertzepzio desegin ditu EACH-ek, beren izaera eta tamainaren ulermen zabalagoa garatzeko asmoarekin. Biktima diren kolektibo eta norbanakoak aztertzen ditu, pairatzen dituzten eraginak eta baita arazoarekin bukatzeko egun ditugun neurriak ere.

GUASP A, ELLISON G & SATARA T (2014) *The Teachers' Report 2014* Londres: Stonewall.

Txostenak Erresuma Batu osoko lehen eta bigarren hezkuntzako 2000 irakaslerekin eginiko ikerketa baten emaitza eta ondorioak islatzen ditu. Egungo eskoletako irakasleek jazarpen homofoboarekiko agertzen dituzten pertzepzio eta jarrerak aurkezten ditu txostenak, eta 2009an Irakasleen Txostena egin zenetik egon diren aldaketak. 2014ko ikerketak azaldu duenez, ez da aldaketarik izan beren zuzendariak jazarpen homofoboaren aurkako politika garbiak ezarri dituztela uste duten irakasle kopuruari dagokionean eta aldaketa txikia ere beren lankideen ahotan lengoia homofobia entzun duten irakasleei dagokienean.

GUASP A (2012) *The School Report: The experiences of gay young people in Britain's schools in 2012* Londres/Cambridge: Stonewall/University of Cambridge.

Txostenak gay, lesbiana edo bisexual diren (edo direla uste duten) gazteen artean eginiko ikerketa baten -gure herrialdeko hezkuntza sisteman izan dituzten esperientzien inguruan- emaitza eta gomendioak aurkezten ditu. Horren arabera, "jazarpen homofobia oso hedatua dago oraindik Erresuma Batuko eskoletan. Ikasle gay, lesbiana eta bisexualen erditik gorak (% 55a) zuzeneko jazarpena pairatu du". Lengoaia homofoboaren erabilera endemikoa da. la gazte homosexual gutziek (% 99a) beren sexu joerarekin loturiko lengoia homofobia eta irainak entzun dituzte. Jazarpen homofoboko biktima izandako bost gaztetatik hiruk esan zuten jazarpenaren lekuko izan ziren irakasleek ez zuten ezertxo ere egin. Ikasle

homosexualen erdiak baino ez du aitortzen bere eskolak jazarpen homofoboa gaitzesten duela; eta portzentajeak behera egiten du erlijio eskoletan (% 37a).

METRO YOUTH CHANCES (2014) *Youth Chances Summary of First Findings: the experiences of LGBTQ young people in England* Londres: METRO.

Ingalaterrako 16-25 urte bitarteko LGTBO gazteen egoerari buruz dakiguna – beraiek jakinarazi digutelako- berrestera dator txosten hau. Big Lottery Fund funtsak ordainduriko bost urteko ikerketa baten ondorio da. Ikerketa METROk egin zuen, Ergo Consulting eta Greenwich Unibertsitatearekin. Gaur arte, proiektuak 16-25 urte bitarteko 7.000 gazte elkarrizketatu ditu. Ondorioz, mota honetako proiekturik handiena eta esanguratsuena da. Era berean, Ingalaterra osoko gazte zerbitzuen eta gai honekin loturiko zerbitzuen arduradunak elkarrizketatu ditu ere.

RIVERS, I. (2001) 'The bullying of sexual minorities at school: Its nature and long-term correlates'. *Educational and Child Psychology*, 18 (1), 32-46 orr.

Txostenaren oinarria da hiru urtez egin den ikerketa bat. Ikerketak eskolan jazarpena pairatu zituzten norbanako gay, lesbiana eta bisexualen esperientziak aztertu zituen, eta aipatuek izan zituzten epe luzeko eraginak. Ikasleek oso gutxitan salatu zuten jazarpena, ez eskolan ezta etxean ere. Korrelatu psikosozial eta epe luzeko efektuei dagokienean, ikasletako erdiak aitortu zuen bere buruari min egitea edo buruaz beste egitea pentsatu zuela; eta % 40a behin edo behin baino gehiagotan saiatu zen. Helduaroan, beste talde ezberdinekin alderatuta, eragin ezkor baten ondoriozko zenbait sintoma agertu zituzten. Baina, halere, ikasleek orokorrean jarrera positiboa zuten bere homosexualitate/ bisexualitatearekiko eta, orokorrean, homosexualite/bisexualitatearekiko.

VALENTINE G & WOOD N (2009) *The experience of lesbian, gay and bisexual staff and students in higher education* Londres: University of Leeds/Equality and Human Rights Commission.

Txosten honen arabera, funtsezkoa da sexu joerari buruzko datuak sistematikoki biltzea sexua joeragatiko (des)berdintasuna ezagutzeko, esku-hartzea eskatzen duten arazoak zeintzuk diren identifikatzeko eta, hauek gertatzen direnean, sarturiko politikak-aldaketek edo eskaintako zerbitzuek dituzten eragina ebaluatu ahal izateko. Ikerketa honen arabera ezinbestekoa da LGTBI irakasle eta ikasleen tratamendu ezkorri lehenbailehen aurre egitea eta LGTBI berdintasunaren aldeko konpromiso esplizitua agertzea bigarren eta goi-mailako hezkuntzan.

Gidalerro praktikoak

DEPARTMENT FOR EDUCATION AND SKILLS (2000). *Bullying: Don't Suffer in Silence*. Londres: DfES Publications.

1994. urtean, Erresuma Batuko Gobernuak Hezkuntza Sailak Bereizkeriaren Aurkako Proiektua abiatu zuen. Proiektuaren ondorioetan oinarrituta, Don't Suffer in Silence gida jaio zen: gidalerro praktikoak eskaintzen zien eskolei. 2000. urtean gida eguneratu egin zen eta webgune izenkidea abiatu zen (artxibatua egun)

<http://www.help4me.info/service.aspx?serviceid={ca514eba-e1b4-43a9-b188-50fcb9df2f8f}>. Sexu joeragatiko jazarpena gidako edukien artean zegoen, eta baita aipatuari aurre egiteko estrategia ezberdinak ere.

DfES (2003) *Tackling Bullying: Listening to the views of children and young people*.

DfES (2003) *Anti-Bullying Charter for Action*.

Hezkuntza Sailak bi ikerketa txosten argitaratu zituen 2003an. Jazarpenak gazteengan eta beren hezkuntza eta gizarte lorpenengan dituen eragin ezkorrak nabarmentzen zituzten. Horiez gain, Sir Alan Steer gobernuko jokamolde adituak lider izan zuen Eskola Barruko Jarrerak Ikertzeko taldeak bere txostena aurkeztu zuen 2005eko urrian eta bi gomendio zehatz egin zituen jazarpenari aurre egin ahal izateko. Hauek ziren:

3.1.5 Gomendia: Hezkuntza Sailak elkarte profesional eta eragile ezberdinekin lan egin beharko du Jazarpenaren Aurkako Estrategia garatzeko. Aipatua eskoletara bidali beharko litzateke bi urtetik behin eta eskualde mailan sustatu beharko litzateke.

3.1.6 Gomendia: Hezkuntza Sailak aurreiritzietan oinarrituriko jazarpena sakonago aztertu beharko luke. Aipatuak litzateke homofobia, arrazakeria eta jazarpenaren adierazpen guztiak.

DCSF (2007) *Safe to Learn: Embedding Anti-Bullying Work in Schools – Preventing and Responding to Homophobic bullying in schools*. Londres: DCSF.

Eskolan jazarpenaren aurkako estrategiak ezartzeko jarraibideak hartzen zituen; zehazki, jazarpen homofoboa prebenitu eta borrokatzeko estrategiak.

HOME OFFICE (2010) *Guidance on Combating Transphobic Bullying in Schools Gender Identity Research and Education Society*. Behera kargatzeko: www.gires.org.uk
<http://www.gires.org.uk/transbullying.php>

Krimenak murrizteko programaren baitan, Barne Sailak (2010) jazarpen homofoboarekin bukatzeko betebeharra gauzatzen lagunduko dieten erremintak eskaini zizkien eskolei.

Irakasle Sindikatu Nazionalak ere eskolako jazarpen transfoboaren inguruko gidalerroak eskaini ditu ere. Behera kargatzeko: http://www.lluk.org/documents/transgender_guidance.pdf

NASUWT (2011) *Tackling homophobic bullying* Birmingham: NASUWT. Ondorengo helbidetik hartu: http://www.nasuw.org.uk/groups/public/@equalityandtraining/documents/nas_download/nasuw_009350.pdf

Erresuma Batuko irakasle sindikatu handienetakoa den NASUWTe argitaratua, jazarpen homofoboarekin bukatu eta giro positiboa eta eskola kultura segurua sortu nahi duten irakasleentzako aholkularitza eskaintzen du.

Stonewall "Guztiontzako Hezkuntza" kanpainak, 2005eko urtarrilean abiatuta, homofobia eta jazarpen homofoboarekin bukatu nahi du eskoletan eta, horretarako, eragile ezberdinekin egin du lan. Erakundeak Schools Champions, College Champions eta Education Champions ziurtagiriak sortu ditu, arloan ematen diren jardute onak saritzeko. Eta baliabide ezberdinak argitaratu ditu egindako lana osatzeko. Behera kargatzeko: www.stonewall.org.uk/at_school/education_for_all/default.asp

FAMILIA, LGTBI ETA GIZARTE MAILAKO ELKARTEAK

Ondoren, LGTBI norbanako eta beren familientzako webgune eta elkarten zerrenda bat ageri da. Dokumentazio, esperientziak eta zerbitzuak hedatu eta partekatzen dituzten erakunde publikoak ere sartu dira.

B U L G A R I A

209

Youth LGTBI Organization “Action” - <http://www.deystvie.org/proekti>

Ekimenaren xedea da gune seguru bat eskaintzea LGTBI gazteei. Bertan, askatasunez hitz egiteko aukera izango dute beren gisakoekin, arazoak partekatu eta beren sexu joeraren inguruko gaiak eztabaidatu. Baita psikoterapeuta baten laguntza profesionala jaso ere.

“Resource center – Bilitis” Foundation - <http://www.bilitis.org/>

Zentroaren nahia da norbanako gay, lesbiana eta bisexualen gizarteratzea sustatzea. 2005etik aurrera, Bilitisek LGTBI jaialdi kulturala antolatzen eta babesten parte hartu du “The Red House – Sofia” kultura eta eztabaida zentroan. Jaialdiak LGTBI gaiekin loturiko Bulgariako eta atzerriko artisten lanak erakusten ditu eta “queer arte” mugimenduaren ikusgaitasuna sustatzen du Bulgarian. Kultura jaialdi bitxia eta bakarra izateaz gain, jaialdiak LGTBI norbanakoen iritzia zabaltzeko aukera ematen du, gai garrantzitsuen inguruan: hedabidetako estaldura, sexu bereko ezkontzak eta sexu joeragatiko bereizkeria. 2009tik aurrera, Bilitisek Sofia Pride urteko LGTBI ospakizuna antolatzen du Bulgarian.

“LGBT Plovdiv” - <http://lgbt-plovdiv.blogspot.com/>

LGTBI Plovdiv irabazi asmorik gabeko LGTBI elkarte bat da. “LGBT Plovdiv” boluntarioz osaturiko elkarte bat da eta bere xedea da LGTBI eskubideek Bulgarian bizi duten egoera gertutik jarraitzea eta LGTBI kolektiboa babestea. Fundazioak LGTBI gaiekiko tolerantzia eta sentsibilizazioaren alde borrokatzen du.

I T A L I A

<http://www.famigliearcobaleno.org/>

Famiglie Arcobaleno iraganeko harreman heterosexualetatik seme-alabak dituzten guraso homosexualen eta seme-alabak dituzten edo izan nahi dituzten bikote homosexualen elkarte independentea da.

<http://www.genitorirainbow.it/>

Rete Genitori Rainbow elkartearen harreman heterosexualetatik (beren sexu joeraz edo genero identitateaz erabat kontziente ez zirenean gertatu zirenak) seme-alabak dituzten guraso gay, lesbiana, bisexual edo transgeneroen elkarte boluntario italiarra da. Aurreko bikotekideengandik banatu edo dibortziazteko eta beren seme-alaben balizko gaitzespena gainditzeko laguntza eskaintzen du. Horretarako, boluntario sare bat osatu du (abokatu eta psikologoak barne) eta erreminta ezberdinak erabiltzen ditu: foro, laguntza telefonoak edo profesional edo esperientzia duten pertsonen lidergoarekin eginiko zuzeneko bilera eta jardunaldiak.

<http://www.alainrete.org/>

Ala Milano Onlus elkartearen Transgeneroak laguntzeko eta beren gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko zerbitzu bat da.

<http://www.arcigay.it/>

Irabazi asmorik gabeko elkarte honek Italiako eskualde ezberdinetan lan egiten du. Bere sukurtsalek sentsibilizazio jarduerak antolatu eta LGTBI komunitatearen eskubideak defentsan laguntzen dute.

<http://www.arcilesbica.it/>

ArciLesbica emakumez osaturiko elkarte homosexual bat da. Bere bi xedeak dira lesbianak bereizkeriaren aurrean babestea eta beren ikusgaitasuna areagotzea tokiko eta nazio mailako kultura eta politika jardueren bidez.

<http://www.agedonazionale.org/>

A.G.E.D.O. LGTBI kolektiboaren eskubide zibilak defendatu nahi dituzten homosexual, bisexual eta transexualen guraso eta lagunez osatu elkartearen da. Xedea da beren seme-alaba homosexuala dela jakin berri duten eta egoera ulertzeko eta onartzeko zailtasunak dituzten gurasoei laguntzea.

P O L O N I A

www.akceptacja.cyberon.com.pl

<https://www.facebook.com/Akceptacja>

Polonian LGTBI gurasoak hartzen dituen elkarte bakarraren webgunea. Bere xedearen deskribapen laburra eta egungo jarduerari buruzko informazioa eskaintzen ditu. Facebookeko orrialdeak politika eta kultura arloetako LGTBI gertaeren inguruko informazioa eskaintzen du.

www.Kph.org.pl

Homofobiaren Aurkako Kanpainaren webgunea da. Poloniako LGTBI elkarte honek aholkularitza, presio ekintzak eta babes juridiko eta psikologikoa, gehi heziketa, eskaintzen ditu. Txosten eta artikulu asko ikus daitezke, pdf formatuan, irakasle eta gurasoentzako literatura barne. Azkenik, LGTBI kolektiboaren aldeko kanpaina, jarduera eta babes ekintzen inguruko informazioa eskaintzen du.

<http://www.homopedia.pl>

LGTBI wikipediaren bertsio poloniarra. Erabiltzaileek 16 kategoriatan banaturiko edukiak sortzen dituzte: homofobia, politika, kultura, lekuak, jendea, zientzia, sexua, osasuna, historia, erakundeak, gizarte gaiak, etab.

REMIN, KATARZYNA, GAJEWSKA, KATARZYNA (erred.) (2011). My, rodzice. Pytania i odpowiedzi rodziców lesbijek, gejów i osób biseksualnych. Varsovia: Kampania Przeciw Homofobii. PFLAG (Parents, Families and Friends of Lesbians and Gays) elkarteak argituriko eskuliburu hau itzuli eta Poloniako testuingurura egokitu zen. Gurasoei zuzendua, oinarrizko galderak erantzun eta seme-alabak LGTBI dela aitortzen duenean sortzen diren kezkek argitu nahi ditu.

E S P A Ñ I A

LGTBI norbanakoen, LGTBI norbanakoen familien eta sexu bereko gurasoak dituzten familien elkarte ezberdinak daude babesa, sentsibilizazioa eta aniztasun afektibo eta sexualari eta genero identitateari buruzko lana hedatzen laguntzeko. Erakunde publikoak, elkarteekin lanean askotan, geroz eta inplikatuago daude LGTBI norbanakoen aldeko zerbitzu eta babes estrategien garapenean eta jazarpenaren aurkako borrokan arlo ezberdinetan, eskola barne..

AFEKTIBITATE ETA SEXU-ANIZTASUNAREN KUDEAKETA Eusko Jaurlaritzako 2011-2013 plana berdintasuna sustatu eta sexu joera eta genero identitateagatik bereizkeriarekin bukatzeko.

Euskal Herriko LGTBI elkarteekin bat egina, 2011-2013 eperako Eusko Jaurlaritzako lehentasunezko lan-ildoak, xede eta jarduerak biltzen ditu. Planak hezkuntzari eskainitako atal bat hartzen du ere, eskola, irakasle, etorkizuneko irakasle eta familiei zuzendua.

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-continm/es/contenidos/informacion/berdindu_gestion_diversidad/es_berdindu/berdindu_gestion_diversidad.html

TRANSGENEROEN ETA TRANSEXUALEN EGOERA EUSKADIN Ararteko erakundearen txosten berezia Eusko Legebiltzarrerako (2009).

Euskadiko transgenero eta transexualen egoera aztertu zuen, bizitzako maila eta arlo ezberdinetan (hezkuntza formala barne), eta baita Euskadiko gizartearen erantzuna

legeei, erakunde publikoei, laguntza baliabide zuzenei eta gizarte orokorraren iritziari dagokienean.

http://www.ararteko.net/contenedor.jsp?codMenuPN=1&title=La+situaci%F3n+de+las+personas+transg%E9nero+y+transexuales+en+Euskadi&contenido=4801&layout=p_5_final_principal.jsp&tipo=5&codMenu=376&seccion=s_fdoc_d4_v7.jsp&nivel=1400&language=es

FELGTB: Espainiako Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Federazioa.

<http://www.felGTBI.org/>

AMPGYL: Espainiako Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Gurasoen Elkarte.

<http://www.ampgyl.org/es/>

ALDARTE: Lesbiana, Gay eta Transexualen Arreta Zentroa.

<http://www.aldarte.org>

GEHITU: Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Elkarte.

<http://www.gehitu.net/loader.php>

E R R E S U M A B A T U A

212

LGTBI norbanako eta familientzat zerbitzu bereziak eskaintzen dituzten guraso, LGTBI eta gizarte mailako elkarte ezberdinak daude Ingalaterran. Lau funtsezko elkarte nabarmendu nahi ditugu:

Albert Kennedy Trust Fundazioa (AKT): <http://www.akt.org.uk/>

AKT etxerik gabeko gazte lesbiana, gay, bisexual eta transexualei laguntzen dien ongintzako erakunde da, boluntarioz osatua. Bi larrialdi egoitza ditu, Londres eta Manchesterren.

Londres Ekialdea Kanpoan Proiektua (ELOP): www.elop.org

Komunitate mailan sortu eta kudeatu erakunde honen xedea da osasun mentala, ongizatea, ahalduntzea eta berdintasuna sustatzea LGTBI komunitatearen mesederako. ELOP erakundeak bigarren mailako zerbitzuak eskaintzen ditu ere: informazioa, heziketa, aholkularitza eta laguntza agintari, kudeatzaile, zerbitzu hornitzaile eta beren langileei.

LGBT Consortium: <http://www.lgbtconsortium.org.uk/directory>

LGBT Consortium nazio mailako sare-motako elkarte da. Xedea da Ingalaterra osoko komunitate mailako talde eta elkarte boluntarioak biltzea. Era guztietako kideak biltzen ditu: jazarpenaren aurkako elkarteak, LGTBI familia eta guraso elkarteak eta haurrekin eta gazteekin lan egiten dituzten proiektuak.

Lesbian and Gay Fundazioa (LGF): <http://www.lgf.org.uk/>

Ongintzako elkarte da LGF fundazioa eta Ingalaterrako Ipar-mendebaldean lan egiten du. Ibilbide luzeko zerbitzu sendoak eta unean uneko ekimen ugari eskaintzen

ditu lesbiana, gay, bisexual eta transexualei laguntzeko. LGF fundazioak proiektu bereziak ditu, eskolan edo etxean jazarpen homofobo edo transfoboa pairatzen duten adingabeei laguntzeko.

New Family Social: www.newfamilysocial.org.uk/

New Family Social Erresuma Batuko LGBTBI abegi eta adopzio familien sarea da. New Family Social elkarteak Parents and Child Together elkartearekin lan egiten du bikote gay eta lesbianeiei adoptatzen lagunduko dien zerbitzu bat abian jartzeko.

Stonewall: www.stonewall.org.uk

Stonewall 1989. urtean jaio zen Tokiko Gobernuaren Legearen 28. Artikuluari erantzunez; artikulu iraingarri horren xedea zen homosexualitatearen "promozioa" deitu izan zena eskoletan prebenitzea. Stonewall presioa politikoa egin eta sentsibilizazioa sustatzeko elkarte profesionala da. Stonewallek, halaber, eragile askorekin lan egiten du lesbiana, homosexual, eta bisexualen komunitate orokorraren beharrak asetzeko; halaber, aholkularitza eta babes eskaintzen die 600 erakunde ingururi, IBM, Barclays, Barnardos, DCLG eta Errege Itsas Armada tartean.

relation

works





rainbowhas



EUROPAR BATASUNeko OINARRIZKO
ESKUBIDEEN ETA HIRITARTASUNAREN
PROGRAMAREN DIRU-LAGUNTZAREKIN

www.rainbowhas.eu

blog.rainbowhas.eu



[rainbow_has](https://twitter.com/rainbow_has)